

IKER 14

*Euskal gramatika eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian.* Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

IKER 15

*Euskal atsotitzak eta neurtitzat.* Arnaud Oihenart. Patxi Altuna eta J. A. Mujikak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

IKER 16

*La España Metafísica.* Prudencio García. Euskaltzaindia, Bilbo, 2004.

IKER 17

*Nerekin yaio nun: Txillardegi-ri omenaldia.* Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2005.

IKER 18

*Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri.* Inés Pagola Hernández. Euskaltzaindia, Bilbo, 2005.

IKER 19

*Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra Euskaigintza XXI. mendeari buruz.* Azkue eta Urkixoren omenez. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2001 (Inprimategian).

IKER 20

*Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan.* Amelia Hernández Mata. Euskaltzaindia, Bilbo, 2007.

IKER 21

*Jean Haritschelbar-i omenaldia / Homenaje a Jean Haritschelbar / Hommage à Jean Haritschelbar.* Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

IKER 22

*Intelektuala nazio eraikitzen: R.M. Azkueren pentsaera eta obra.* Jurgi Kintana Goiriena. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

IKER 23

*Juan Mari Lekuona-ri omenaldia / Homenaje a Juan Mari Lekuona / Hommage à Juan Mari Lekuona.* Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2009.



9 788495 438553



## JUAN MARI LEKUONA-ri OMENALDIA

iker

23

**JUAN MARI LEKUONA-ri OMENALDIA**

HOMENAJE A JUAN MARI LEKUONA

HOMMAGE À JUAN MARI LEKUONA



**JUAN MARI LEKUONA-ri OMENALDIA**

HOMENAJE A JUAN MARI LEKUONA

HOMMAGE À JUAN MARI LEKUONA

**JUAN MARI LEKUONA-ri OMENALDIA**

HOMENAJE A JUAN MARI LEKUONA

HOMMAGE À JUAN MARI LEKUONA

**JUAN MARI LEKUONA-ri OMENALDIA**

HOMENAJE A JUAN MARI LEKUONA

HOMMAGE À JUAN MARI LEKUONA

IKER Bilduma / Colección IKER

IKER 1

*Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak / Bascologist international meetings / Encuentros internacionales de vascólogos / Rencontres internationales de bascologues.* Euskaltzaindia, Bilbo, 1981.

IKER 2

*Piarres Lafitte-ri omenaldia / Homenaje a Pierre Lafitte / Hommage à Pierre Lafitte.* Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.

IKER 3

*Erizkizundi irukoitza / Triple cuestionario / Triple questionnaire* (euskara 1925). Ana Mª Echaide Itartek paratua, 2 t. Euskaltzaindia, Bilbo, 1984.

IKER 4

*Resurrección Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa / Correspondencia entre R.M. de Azkue y P. Broussain / Correspondance entre R.M. de Azkue y P. Broussain,* (1897-1920). Piarres Charrittonek paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.

IKER 5

*Euskararen batasuna / La unificación de la lengua vasca / L'unification de la langue basque.* Koldo Zuazo. Euskaltzaindia, Bilbo, 1988.

IKER 6

*Luis Villasanteri omenaldia / Homenaje a Luis Villasante / Hommage à Luis Villasante.* J.A. Arana eta R. Badiolak prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1992.

IKER 7

*Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak / Actas del Congreso Internacional de Dialectología / Actes du Congrès International de Dialectologie / Proceedings of International Congres on Dialectology.* G. Aurrekoetxea eta X. Videgainek prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1992.

IKER 8

*Oihenarten laugarren mendeurrena / Cuarto centenario de Oihenart / Quatrième centenaire D'Oyhénart.* Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1994.

IKER 9

*Euskararen tratamenduak: erabilera / Uso de los tratamientos alocutivos en euskara / Empleo des traitements allocutives en basque.* Jabier Alberdi Larizgoitiak prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1996.

IKER 10

*Federiko Krutwig-i omenaldia / Homenaje a Federico Krutwig / Hommage à Federico Krutwig.* Ricardo Badiola Uriartek prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1997.

IKER 11

*Vasconiana.* Jean Haritschelhar Dualde eta Piarres Charrittonek paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1999.

IKER 12

*Jose Ignacio Arana: Egunaria.* Patxi Altunak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2000.

IKER 13

*Euskalkia eta Hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera Euskal Diglosia Irazian / Dialecto y educación. De lo conocido a lo desconocido dentro del entramado diglósico del euskara / Dialecte et éducation. Du connu vers l'inconnu dans le tramage dysglosique de l'euskara (langue basque) / Dialect and education. From the know to the unknown inside the diglossia interwoven connections of euskara (basque language).* Juan Luis Goikoetxea Arrietak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.





**JUAN MARI LEKUONA-ri OMENALDIA**  
HOMENAJE A JUAN MARI LEKUONA  
HOMMAGE À JUAN MARI LEKUONA

**IKER 23**



**EUSKALTZAINDIA /**  
Real Academia de la Lengua Vasca /  
Académie de la Langue Basque  
**BILBO**  
2009

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

© Euskaltzaindia / R.A.L.V. / A.L.B.  
Plaza Barria, 5. 48005 BILBO

ISBN: 978-84-95438-55-3  
Lege-Gordailua: BI-2912-09

Aurreinprimatzea: IKUR, S.A.  
Muros de San Pedro nº4 (lonja) - 48007 BILBO

Inprimatzea: BASTER, Talleres Gráficos S.L.L.  
Pol. Atxukarro nº 2 - 48480 ARRIGORRIAGA (Bizkaia)

**AURKIBIDEA**  
**INDICE**  
**INDEX**



Andres Urrutia, *Agurra* ..... XI

\* \* \*

Iñaki Aldekoa, *Bernardo Atxagaren Etiopia* ..... 3

Xabier Altzibar, *Adéma Zaldubi politika aldetik* ..... 25

Ur Apalategi Idirin, *Hiritiko ihesa: B. Atxaga eta M. Houellebecq-en  
ibilbide erkatuak* ..... 65

Antton Aranburu, *Arrats bakardadean* ..... 79

Gorka Aulestia Txakartegi, *Ramón Saizarbitoria: renovador de la  
novela euskérica* ..... 81

Jon Casenave, *J. M. Lekuona, hitz-aurre egile: "Irakurle idealak-  
ren" idazkera zehatza* ..... 97

Pello Esnal, *Errima bertsolaritzan: arau eta baliabide* ..... 107

Juan Manuel Etxebarria Ayesta, *Zeberrioko kantak auspoa bildu-  
maren nondik norakoa* ..... 127

Karmelo Etxenagusia, *Juan Mari Lekuona eta liturgia enskaraz* ... 157

Sebastian Gartzia Trujillo, *Juan Mari Lekuonaren mimodramak  
eta ikonoak poema liburuaren zertaz eta zelan* ..... 163



Jean Haritschelhar, <i>Iparraldeko olerkaritza</i> . . . . .	199
Juan Kruz Igerabide, <i>Ttunkurrunku: haurra eta hitzaren berotasuna</i> . . . . .	219
Jabier Kaltzakorta, <i>Sobre la canción arthizarra goizetan</i> . . . . .	231
Jon Kortazar, <i>Arteen arteko elkarrizketa</i> . . . . .	295
Emile Larre, <i>Hegoalderat buruz enetzat pausu ona</i> . . . . .	315
Agustin Mendizabal Iturria, <i>Berdabioren bertso-doinuen inguruan: musika eta prosodia uztartuz</i> . . . . .	321
Mari Jose Olaziregi, <i>Realismos contemporáneos y postmodernidad. En torno a la obsesión de Rossetti de Ramón Saizarbitoria</i> . . . .	351
Patziku Perurena, <i>Lekuonatarren kontaera trabukoren kantaz</i> . .	373
Ana M. Toledo Lezeta, <i>Linguae Vasconum Primitiae eta O. ten gaztaroa neurthizetan: hain hurbil, hain urrun</i> . . . . .	403
Patri Urkizu, <i>Ziri-bertso eta eske-kopla argitaragabeak (1770, 1827)</i>	429

## AGURRA

Andres URRUTIA,  
*euskaltzainburua*

### JUAN MARI LEKUONA, OROIGARRI

Euskaltzainkideen artean, inor beti gozoz eta eztiz mintzatu bada, horixe izan da Juan Mari Lekuona. Urte asko joanak badira ere, ondo gogoan dut hark egin zidan keinua, hitza har nezan eta ostiral arratsalde hartan bilduta zegoen osoko bilkurari nire txostena azal niezaion.

Amultsuki gidatu zituen nire pausoak, eta aldiro-aldiro izan nituen haren adostasun-zeinuak, azaltzen ari nintzen hura atsegingarri zitzaiolakoan. Gero, irteeran, zorionak eman zizkidan. Orduantxe ere aditu nuen, lehendabizikoz, bera hil arte elkarrenganako izan genuen estimua.

Estimua ez ezik, bestelako loturak ere bagenituen. Unibertsitate bereko irakasle ginen, fakultate desberdinetan. Bestalde, hura Euskaltzaindiaren ordezkaria zen Gipuzkoan, eta ni, Jagon saileko kidea, eta, gero, idazkaria. Horrek eman zidan aukera Juan Mari Lekuonaren gizatasuna ezagutzeko, literaturatik harago zihoana, giza seme-alabak euren osotasunean hartu arte.

Literatura zuen gaia. Grina, berriz, poesia, musika eta kantu, herritar nahiz landuetan. Emaitzak, taxutuak, zehatzak eta zorrotzak. Hitzaren zurrunbiloan murgilduta, hala ere, beti zegoen prest, modu diziplinatuan, Akademiaren gobernu-organoetan bere ahaleginak egiteko.

Irakasle eta akademiko egoki eta bikainei dagokien bezala, jakin zuen hark bere mezua zabaltzen. Horren lekukotasuna ematen dute hainbatek omenaldi-liburu honetan, Euskaltzaindiak opa diona. Literatura batzordeburu izandakoak ongi merezitako aitortza, bestalde.

Horra, beraz, beste behin ere, itxuraz kontrajarriak eta barne indarrez lotu-lotuak direnak, alegia, akademikotasuna, literatura eta herritasuna.

Lekuonak hala ulertu eta praktikatu zuen. Haren ingurukoek ere, gauza bera. Esanaren erakusle, paperezko orrialdeetan datorkiguna, eta, aldi berean, euskal espirituaren hego luzeetan dagoena, Juan Mari Lekuonaren olerkia bera bezalaxe.



Juan Mari Lekuona Berasategi  
(1927-2005)



**Juan Mari Lekuona-ri Omenaldia**

**Homenaje a Juan Mari Lekuona**

**Hommage à Juan Mari Lekuona**



# BERNARDO ATXAGAREN *ETIOPIA*<sup>1</sup>

Iñaki ALDEKOA

## SARRERA

Askatasun politikoa eta askatasun estetikoa eskutik etorri ziren Frantziako Iraultzaren ondoren. Klasizismoak istorio eredugarriak eskatzen zituen, munduaz eta gizakiaz ikuspegi generiko bat eskaintzen zutenak, edonork partekatu zitzakeen balioak baina gizaki partikularraren “ni”tasunetik harantzago zeudenak. Aldiz, erromantizismoak askatasunaren erresuma errebindikatzen zuen arterako eta poesiarako. Estetikoki, Modernitatearen aldaketa bortitzena honako hau izan zen: ikuspegi klasikoa arau aldaezinetan oinarritzen zen eta horretarako ezin zuen gaurkotasuna edo aktualitatea genero gisa tratatu, eta are gutxiago haren alderdi hutsal eta garrantzigeak. Horiek, ikuspegi klasiko batetik begiratuta, “genero koadroetan” tratatzekoak ziren baina, jakina, ez zen hori estetikaren mailarik ohoretsuena, baldar eta hutsalena baizik.

Pentsa zer gertatu zen, esate baterako, errealismoarekin, edo inpresionistak egunsentiaren edo ilunabarraren tonalitate koloretsuak margotzen hasi zirenean: ikusle kontserbatzaile gehiengoak zioen hori ez zela artearen eginkizun.

Erromantizismoarekin, “ni”aren (subjektuaren) baitaratzea jarri zen abian, eta sinbolismoarekin areagotu egin zen tradizioa, norberaren

---

<sup>1</sup> *Etiopia* 1978an argitaratu zuen Pott-ek estrainekez. Bigarren argitarapena jada Ereinek egin zuen 1983an, jatorrizkoan sartu ez ziren bi poema berri ere argitaratuz (bi argitarapen hauetan itzultako poemak ez dira berberak). Lan honetan, liburuari egindako aipamen guztiak Ereingo azken argitarapenean oinarrituta daude (1988).



espiritualtasun irrazionaleraino barneratuz. XIX. mendeko burgesiaren baikortasun ia patologikoaren aurrean, progresoarekiko fede itsuaren aurrean, halako pesimismo bat, gizartetik barne mundura erretiratzeko joera bat hedatu zen. Subjektibotasunak, indibidualismoak eta espirituaren aristokraziak jarrera estrefalariorak eta “*épater le bourgeois*” moduko bat ekarri zuten. Gehiengoaren balio kontserbatzaileen aurrean, artista modernoa berria den ororekin, nobedadearekin, ausartzen da, ordu arte inoiz saiatu gabearrekin. Baudelaire-ren “Voyage” poemako bertsoek adierazten duten bezala, “Ezezagunaren hondoraino zerbait berria aurkitzeko.” (“*Au fond de l’inconnu pour trouver du nouveau.*”)

XIX. mende amaieran, sinbolismoaren sasoian, halako artistei bi irteera geratu zitzaizen maiz, suizidioa edo erlijiora belaunikatzea, Des Esseintes-ek, Joris-Karl Huysmans-en heroiak, egin zuen gisa *À Rebours* (Aldrebes, 1884) eleberrian. Heroi hori dekadentismoaren gailurra bihurtu zen. Egileak itxurarik gabe maitatzen zituen Stéphane Mallarmé poetaren “Brise marine” poemako bertso ezagun haiek, non ezin hobe adierazten zen egoera espiritual hori: “La chair est triste, hélas! / et j’ai lu tous les livres. / Fuir! là-bas fuir!” (“Haragia tristea da, ay! / eta liburu guztiak irakurriak nituen. / Ihes egin! Urrutira ihes egin!”)

Historiaren aurrean, ihesa aukeratu zuten sinbolistek (Baudelaire-rengandik aurrera) lema gisa. Iraultzaren aldeko borroka utzi eta jestu isolatua mitifikatu zuten, norberaren bakardadetik munduari mingaina erakutsiz. Ez alperrik 1848ko iraultza saioak huts egin ondoren zabaldu ziren joera horiek; Rimbauden kasuan, Komunaren (1871) porrotaren ondoren.

Ez zuen Huysmans-en heroiak soilik egin halakorik: Paul Verlaine poeta sinbolistak ere –Paris osoa eskandalizatu ondoren Rimbaud-ekin izandako harremanak zirela-eta– erlijioan aurkitu zuen suizidioaren kontrako antidotoa. 1884an *Poètes maudits* argitaratu zuen, malditismoaren antologia, Tristan Corbière, Stéphane Mallarmé eta Arthur Rimbaud poetei eskainia eta kulturakoa izatera iritsiko zen liburua.

Marcel Schwob Mallarmé poeta sinbolistaren itzalpean antolatutako hizketaldietan bildu ohi zen hainbat idazle eta artistarekin: Pierre Louis, André Gide, Paul Valéry, Paul Claudel etab. *Fin de siècle* gisako artista prototipiko bat zen, “letrak zauritua” esango genuke gaur (gazteleeraz “letra-herido”). Oso kultoa eta eguneroko munduaz aspertua, apur bat dekadentea. 1896an argitaratu zuen Schwob-ek bere libururik ospetsuena, *Vies imaginaires* (Bizi alegiazkoak). Ordurako hilda zegoen Rimbaud (1891an hil zen), eta berak aspaldi utzia zuen poesia betiko (poesia eta poetaren autoirudia).

Bohemia, sinbolismoa, dekadentismoa eta malditismoa elkarrengandik oso gertu aurkitzen ziren manifestazioak dira. XIX. mende amaierako

sentiberatasun artistiko eta bital horien arragoan oretu zen XX. mendean barrena ere arrakasta izango zuen artistaren irudi bat, edo artista izateko modu bat. Halaber, bohemiaren tradizioetik *fin de siècle*-ko dekadenteenganaino eta haiengandik azken orduko surrealistenenganaino alaiki exhibitu den “posea” izan da malditismoarena.<sup>2</sup> Rimbaudek ez zuen nahikoa bohemiaren eta dekadenteen “estetizismo” hutsal eta lasaigarriarekin, “Eder” eta “Arte” hitzekin puzten zen giro artistiko-poetikoarekin. Zer zen hura Rimbaudek iragarritako zentzu guztien nahasmenduarekin? Edo *Sasoï batean infernuan* iragarritako erabateko suntsiduraren alboan?

1875rako amaitutzat eman zuen Rimbaud-ek bere poesigintza. Handik aurrera, hara eta hona ibili zen Europan zehar, eta 1880an Etiopiako bidea hartu zuen. Harrez gero, poesia umekeriatzat joko zuen. Oso bakanetan isurtzen zaio poesiari buruzko hitzik, izan ere, diruaz baizik ez du hitz egingo gorde izan diren Abisiniako haren gutunetan. Horietako batean berak esana da: “Literatura ergelkeria bat da”, gero surrealisten bere egin zuten lema. Baina XX. menderako mito bat eraiki zuen. Haren keinuak izan zuen jarraitzailearik abangoardiako martirien aldarean immolatu zirenen artean: Jacques Rigaut, Arthur Cravan, Antonin Artaud eta 1960tik 1970era bitarteko artista suizida asko, *rock*-aren eta drogen munduan, batez ere.

Hala ere, keinuak baino areago joan zen Rimbaud-en ekintza. Gaur egun ere ulertu ezinezko ukoa da berea. Ez baitago hemen jolasik eta koketeorik literaturarekin (ea nork, lehentxeago ala geroxeago, Etiopiako zulotik erreskatatu eta Paris ederrera bueltatzen duen...). Ez. Zibilizazioaren balioei egin zaien ukorik larriena da berea. Betiko isiltasuna izan zen harena.

Félix de Azúa<sup>3</sup> dioen bezala, Rimbaud-ek ez zuen poesia berri bat ekarri baizik eta poeta izateko modu berri bat. Eta poeta eredu horren arrakasta apoteosikoa izan zen:

- Autosuntsidurarako gaitasun handia behar du eta, baita ere, inolako lotsarik gabe, txantxetan bezala, autosuntsidura hori jendaurrean erakutsi ahal izateko ezinbesteko autoestimua.

<sup>2</sup> Hara nola ikusi zuen Alberto Moravia Pavese-ren suizidioa (1950), jada XX. mendearen erdira iritsiak ginen honetan eta eragin handiko egile baten kasua aintzat hartuz: “Pavese dekadente bat baizik ez zela eta bere heriotzak jolas estetiko moduko baten tankera izan zuela.”

Koldo Izagirrek, berriz, hauxe zioen *Etiopiako* poetari buruz: “Atxaga practica en *Etiopia* cierta pose de cansancio y un escepticismo hasta cierto punto impostado, un dejarse llevar por la autocomplacencia del malditismo.” (*IncurSIONES en territorio enemigo*, Pamiela, Iruña, 1997, 42. or.)

<sup>3</sup> Félix de Azúa, “Rimbaud”, in *Diccionario de las Artes*, Planeta, Bartzelona, 1995, 257-262. or.

- Lirikatik bizitzara egiten da jauzia. *Etiopian*, esate baterako, liburua klausuratu duen ipuineko poeta lirikoaren hilketa du ondorio: “Nork soporta dezake poeta afizionatu bat egun bakar batez ere?” (E. 103)
- Rimbaud-entzat Etiopia izan bazen, gerora –batez ere 60ko urteetatik aurrera– alkoholaren, *rock and roll*-aren eta drogen inguruan bilduko zen munduaren ukatzaile asko.
- Nihilismoa: abangoardien eta Modernitatearen egoera espirituala.

## ABANGOARDIAK

Progresoaren etengabeko aurrerapenean fede zuen ikuspegiari, eta burgesiak bere burua apaintzeko erabili zuen humanismo hipokrita eta faltsuari, egin zion eraso errebeldiaren kultura abangoardistak. Mugimendu abangoardista horien muinean (espresionismoa/dadaismoa) Lehen Mundu Gerra dago. Gerra hori XIX. mendetik indarrean zeuden gizarte balio guztien porrota izan zen haientzat, sendaezinezko zauria. “Lubakietako gudua” sekulako triskantza izan zen. Milioika lagun hil ziren bertan, horien artean, poeta eta artista ugari: George Trakl, Guillaume Apollinaire, Ernst Stadler, Franz Marc, August Stramm... Europaren kontzientzia maila ez zegoen prestatuta tamaina horretako infernuaz mintzatzeko eta, harrez gero, afasia, eromena, mututasuna, eskizofrenia eta sintoma patologiko ezberdinak protagonista bihurtu ziren arte lanetan. Atxagaren literatura lanetan konstante bat izan da mundu hori (gogoratu “Ni, Jean Baptiste Argous” ipuina). Eta gaitzesten zuten gizarte horren legitimaziorako balio zuen Artea errukirik gabe eraso zuten. Inozokeria eta sentimentalkeria errudun deklaratu ziren.

Beraz, lirikotasun sasisentimentalaren bidea erro-errotik erauzi zen eta mundu petral hura apaintzeko eta edertzeko tresna ziren adjektibo kalifikatiboak ere –“Beiradura: girnaldak adjektibo kalifikatiboentzat” (E. 69)– debekuepean jarri ziren.

1909ko otsailaren 22an Parisko “Le Figaro”n agertu zen F. T. Marinetti-ren lehen “Manifestu Futurista”. Han eta handik hiru urtera (1912), egile berak argitaratutako beste Manifestu batean halakoak agertzen ziren:

- “*Il faut abolir l'adjectif*” (“Adjektibo kalifikatiboekin armadarekin borroka egiteko abenidetan gogor horror.” (E. 85)
- “*Détruire le ‘je’ dans la littérature*” (“Badakigu bederen, trés normal, trés normal, ez dela posible lehen pertsonan idaztea.” (E. 99)
- “*Les mots en liberté*” (aurrerago ikusiko da, Dada-ren poetikarekin batera.)

Aurrenekoz Manifestu Futuristan agertu ziren deklarazio poetiko horiek abangoardia guztien ondare bihurtu ziren handik gutxira. Honako hauek ere esaten ziren haren lehen Manifestuan:

- “Automobil bat abiada bizian Samotraciako Garaipena baino ederragoa da.”
- “Lauki klasiko bat miresteak zera esan nahi du: eskeleto zatiak dituen anfora bati arreta jartzea.”

Arrazoia, gizartea, eta funtzio eta kontzeptuak arbuiatu zituzten gogor, azken batean, ERREALITATEA. Errealitateak hauxe baizik ez zuen esan nahi haientzat: ekoizpen industrialak, jabetza, hipoteka formularioak, salneurria eta ekonomiara errendi zitekeen guztia; azken batean, DIRUA. Max Weber-ek Modernitatearen zutabetzat zituen oinarriak ziren horiek guztiak: abstrakzio arrazionalista, Estatuak eta Politika, giza-lokarrien haustura, kalkularen espiritua, munduaren desliluramendua, arrazoimen instrumentala eta burokraziaren nagusigoa. Adibideak *Etiopian*:

- “Merkatalgoaren bideak infinituak diren heinean...” (E. 27)
- “Osaba batek postale bat izkribatu zidan stop ene urtebetetzea zela eta stop zorionak bide batez nire seguruetea kontseilatu nahi dizut stop inoiz ez da jakiten noiz.” (E. 86)
- “Eguneroko bizitza ikatza bezalako labezorroak izurtzen hasi zenean etengabe.” (E. 86)
- “Si la bolsa sona” (E. 87), “Erromako boltsa” (E. 87)
- “Plusbalia” (E. 85), “arrazoi komertzialak” (E. 85)
- “Segurugilearen blagak bezanbat balio duela” (E. 89)
- “Yoghourt fantastikoekin aurreratuko dugun diruagatik” (E. 99)
- “Konjeladore made in Germany horretan” (E. 60)
- Bien bitartean: “Panpina amerikanoak lehertzen zitzaizkien Vietnamgo umeei eskutan boom bang.” (E. 85)
- “Gure amak sabela erre zuen napalmez gautako dirrinaren amenazua...” (E. 85)

Ohorea, aberria, familia, Estatuak, artea eta erlijioak ere izan zuten berea. Konbentzionalismo merke baten hilotzak ziren guztiak.

Hara nola hasten zaigun *Etiopia*: Kainen erbesteratzearekin. Paradisutik kanpoan gaude eta gure zinezko patua exilioa/herbestea da aurrerantzean; eta ez dago inongo erredentzio/utopia (horregatik *Etiopia* distopia bat ere bada)

posiblerik. Izan ere, “Utopia ausartenak ere hain zikoitzak ez balira hemen; (...) Soinua espia bat bezala ezkutatuz altzairuzko teloiaren atzean” (E. 89). Horra gure iraultzak. Baina nora joanik balego, “Irlaren batetara joanen nintzateke, bestalde, inon irlarik balego.” (E. 89) Esan zaigunaren kontra, hau da, zinezko bizitza beste nonbaiten dagoela, *Etiopia* honek besterik dio, alegia, geroago, Atxagak berak *Henry Bengoa inventarium*-erako itzuli zuen Kavafis-en “Ziutatea” poemak zioen berbera: ez dago beste ziutaterik, eta hementxe xahutuko dugu gure mundualdia txorakeriak eginez. Gogoetatsu eta sendoagoa da Kavafis-en formulazioa; umoretsu eta jostalariagoa Atxagaren *Etiopiako*a. Baina egoera espiritual berbera biengan. Eta egoera espiritual horren paisaia naturala ziutatea da, edo “harea”. Izan ere, “hareazkoak gure ziutate”/hirietako bizitzak, afektiboki gorrak eta sentimentalki hutsalak.

Familia barruko liskar bibliko hark Paradisutik kanpo uztearekin batera, Jainkoak Kain kondenatu egin zuen, Abel anaia hiltzarren. Boterearen krudeltasun apetatsuenaren lehen agerraldi biblikoa da Kainena. Botere mendekatzailea. Haren leinukoak dira erromantizismotik aurrerako poeta nagusiak, edo *status quo*-arekiko errebeldeak. Errebeldiaren *pathos*-ak izen desberdinak hartuko ditu –Kain edo Prometeo, suizida edo anarkista, gaizkile edo poeta– eta guztietan izango da tragikoa amaiera. Abel otzan eta esanekoaren mundua atzean geratua zen ordurako, edozein ziutate berritik urrun, klasizismo-kristauak tankeratutako unibertso orekatuago batean. Ziutate konbentzionalean konforme.

Aita biblikoaren lekua beteko du espresionismoaren ingurumarian “Aita” autoritarioak. Gogoratu Kafka-ren “Aitari gutuna” edo egile beraren “Kondena” narrazioa. *Etiopiar*a etorri, Caryl Chessman-en heriotz zigorra (1960) edo Sacco eta Vanzetti anarkistenak (1927) aipa genitzake Estatu mendekatzailearen “aitatasun” gisa.

Modernitatearen arrazoimen instrumentalari aurre egiteko, bihotzaren arrazoi en aldeko hautua egin zuen erromantizismoak (maitasuna, sentimendua, afektua). Lehen erromantiko haientzat, geroago surrealisten kasuan bezala, erlijio berri baten itxaropen ziren balio horiek (maitasuna, erlijioa eta poesia maila berean daude). Hori horrela gertatu zen erromantikoentzat eta baita Gérard de Nerval-entzat ere, sinbolista aurreratu eta surrealisten aitzindariarentzat. (E. 57) Balio horiek itxurarik gabe degradatu dira ziutate burges bihotzgabeetan.<sup>4</sup> Arrazoimenaren logika

<sup>4</sup> Esate baterako, “Ixiltasun tonelada pare bat etorri zen kostako trenean bagoietan izerditan blai” bezalako irudi batek atzean duen errealtatea inkomunikazioarena da, eta “Ene maitaleak telefonoa jo zidan kobre zaporeko maitasunez gau erdian” irudi metaforikoarena, desamodioa.

murriztaile eta mundu desitxuratzailearen aurrean, abangoardiek umeen irudimen mundu askea, zibilizazioaren tenazetatik artean iragazi gabea, inbokatu zuten. Ez dira adibide gogoangarriak falta *Etiopian*: hirugarren zirkuluko bi poemak eta hasierako lo-kanta. Hala, “Katyren heriotzea Ainhoaren ahotik” (E. 53) deritzan aitormen askeak, nola “Begira egien berriro masustei” (E. 55) bertsoarekin hasten den poemak, biek dute inozentziaren erakarmen poetikoa. Begiratu gardenez mundua jasotzeko dohaia. Zibilizazio estuak ez du oraindik inozentzia natural eta poetiko hori desegin, nahiz eta bidean den: “Baina ez dun esan behar brodatzen (bordatzen, bordatzen...)” (E. 55)

Ez espresionismoa, ez beste abangoardiak, agertuko dira ulerbera ohiko familia burges edo ertain mailako familiaren balioekin, familia horietan gertatzen diren drama pertsonal edo drama erromantikoekin. Gatozen ikustera zertan diren balio horiek *Etiopian*:

- “Ni puta bat naiz’ oihukatu zuen ezkontza despedidan Olivetti batean lehen gutun erromantikoa idatzi zuen sekretari lotsati hark.” (E. 86)
- “...komuna publikotan pornografia irakurtzen ari zenean love darling” (E. 85)
- “Farmaziako jabeak alaba gazteena ezkondu zuen diabetiko baten semearekin azkenez.” (E. 86)
- “Eta detektibe sentimentalen nigarrak lehortea bota zuen birjinen bihotzetara.” (E. 85)
- “Ume inuzent batez erditu zen barrero profesionalaren esposa ttipia.” (E. 87)
- “Eta banku zuzendarien seme-alaben errebuelta.” (E. 89)

Baina goragoko horiez gain, bestelako jenderik ere bizi da ziutatean: prostitutak, proletarioak, mozkorrak, eskale eta beste marjinatu batzuk ere ageri dira kaleetan.

Lehen Mundu Gerraren amaieran argitaratu zuen Kurt Pinthus-ek *Gizadiaren ilunabarra* poeta espresionisten antologia bat eskaintzen zuena. *Etiopia*ko “Eguneroko bizitza” honek ere ez lirudike ilunabarra baino.

Eta poema honek ez ezik, liburu osoak lirudike hondamendiaren kronika bat. Eta hondamendi horren sinbolorik nagusia “harea” da: “Harea lurrik anonimoena, / Hareaz eginak desparadisoaren zutabeak” (E. 77) bertsoekin hasten den poeman, harearen irudia poemarioaren irudi sinboliko zentrala bihurtzen da. “Basamortua leihoetatik sartuz” (E. 69) ziutateko bizitza osoa estaltzen du hareak. Harearen atzaparrak luze-zabalak dira, zeren eta “Itsasoa

baita basamortuaren beste izena, / bigarren maskara, / harearen erresumarik zabalena.” (E. 80)

Harearen irudia, ordea, erlojuarekin (hareazko erlojuarekin) eta, beraz, denboraren iragaitearekin dago estu-estuan lotuta. *Etiopia* osoa zeharkatzen du denboraren eragin saiheztetaren motiboak. Denboraren iragaite errukigabearen adierazle dira ekia (eguzkia: “urrezko erloju paralitikoa”) (E. 43), erlojuak eta harearen eutsiezinezko suntsidura (“gau erailea”). (E. 69)

Hau guztia bosgarren zirkuluaren atarian aurkezten digu egileak modu ezin hobean, “harea” irudiaren poetika oso bat da, dimentsio filosofiko bat ere besarkatzen duen sarrera bat delako: “Denbora gara, kontinuitate bat apika, eta kristalaren bestaldetik ixurtzen harea nekaezina da gure epaile bakarra, gure dimentsioen neurtzaile exaktoena, emaro baina eternalki eta betirako bihurtzen ari den denbora, eta erloju guztiak ahanztura eta ihesa.” (E. 63)

Gauzak horrela, ahalegin guztiak alferrik ziren: “Baina alferrikan zen guztia berandu dabilta honez gero eta ez dute ezer / lortuko palazioak lurrera doazenean pitzatu egiten dira gartzeletako hormak...” (E. 87) Iraganen ere gertatu zen halakorik: “Micenasko palazioen jauspenarekin batera sasoi ilun bat hasi zen Greziaren bizitzan.” (E. 96) Guztia dator gainbehera eta laster bihurtuko da harea (hausterrea) (E. 35), errautsa (E. 72), ala hautsa (E. 94). Bigarren Mundu Gerra ondorengo poeta alemanen artean irudikatzen zen hausterrea eta errautsa kontzentrazio esparruetako tximiniek jaurtitzen zutena zen, judu gaseatu eta ondoren labetik pasatakoen hausterre/errautsa. (Ikus Paul Celan edo Nelly Sachs.)

Batetik bestera, ugaria da poemarioan beren burua botatzen dituzten suiziden itzala: langabezian dagoen “Fas fatum”eko 53 urteko gizonak “dagoeneko bota du burua, dio” (E. 60), “Burua botatzeko natazko/pastelak janez” (E. 61), “Orainak identitate krisi batetan bere burua bota zuen ospitale...” (E. 86)

Izan ere, “gau zomorroen gisa akabatzen gaituk” (E. 60), “asfixia” (E. 60), “zubiak eta zuhaitz elektrokutatuak beren hautsez estaliz” (E. 94), “lore gaseatuak estaliz (E. 94), “Las ciudades invadidas por ratas gigantes” (E. 83)..., atergabea da hondamendi eta desolamenduaren irudi pilaketa. Proba atomikoaren ondoren sena galdu eta, ustez atsedean lekura zihoazen dortoka erraldoiak, desertuko beroan asfixiatuko dira. (E. 39)

Eta ez dago etorkizunik, etorkizunaren ateak itxi dira, ze “Ziutate ideialen planoak herrestan doaz.” (E. 80) Ez dago, bada, ez utopiarik, ez paradisu-rik, hango ateak ere itxi baitzaizkigu betiko. Beraz: “Rainer Maria, nola biziko gara? / Urkamendia jasota jadanik etorkizunaren bihotzean bertan.” (E. 78)

Espressionisten ilunabar haren eta *Etiopia* honen artean bada, ordea, alderik tratamentuan: lehenengoan, elegiako eta apokaliptikoa; Atxagarenean, berriz, dispartatearen eta “gag”aren artean, haren tonu ilun eta elegiako umore jostalari eta ironiatsu bihurtu da.

Etorkizunaren itxaropenik gabe, iragana errauts bihurtuta eta denbora suntsitzailearen mehatxupear, zer da geratzen zaiguna? Menturazale eta heroien sasoia iragan ondoren, geratzen zaigun ondarea nihilismoa da, ezereza, non dena “hutsala” eta “hauskorra” (E. 88) den, bizitza bera bezalakoa: “Eta gu libro gabiltza kaletan tirantezko galtza laranjaz jantzirik, libro/libro, hiltzaile ttipien gisa libro, ma-o-meno ezta?, gutxigora behera libro.” (E. 87) Nihilismoaren egoera espiritualean barregarriak dira “Anphora” hautsi eta mila zatitan betiko sakabanatutako munduaren aurreko jarrerak: “Nola bizi liteke adimen ilunduko gizona / plazerra eta oreka persekutatuz?” (E. 70), edo “Bide berriak bilatzen zebilen gizonaren kaso.” (E. 70)

Jakina, halako jarrerak, desgaraiko jarrera horiek, ironia errukigabearen galbahearen zentzagarri zorrotza jasango dute. Esate baterako, “Bide berriak bilatzen...” aipatu berria, ironiaren labanaren ahotik pasaraziko du poetak: “Ez da gai txarra filme baterako. Baina zergatik edo non, nor, no comment.” (E. 70)

“Koskortuko dira oraindik itxaropena” mezua “eta balkoiko geranioa” (E. 90) ironikoak baliogabetuko du. Edo “Ermanó, fosforozkoak gure desesperantzaren ertzak” (E. 79) bertsoari “Diska bat dedikatu behar hidake irratiz” (E. 79) bertsoarekin baliogabetuko zaio hitz jaso horien sustantzia guztia.

Hitzen agortzearen eta dena esanda egotearen sentimendua salatzen dute ondoko figura dinamitatzailerek (leherkariak): “Bla, bla, bla”, “ma-o-meno ezta”, “my love, my love”, edo “etc... etc.”, “off”, “etcetera, etcetera”<sup>5</sup>, “sleep”, “oh, yeah”, “o-non, o-non”, “zer moduz”, “comantelevu”, “eta abar, eta abar”, “très normal, très normal” “elemental Mr. Watson” (ze justu ez baitzen inondik ere elementala ezagutza hori)...

Hitzen bidez hegaldatzeko edozein helburu geratuko da baliogabetuta baliabide zentzagarri horien bidez. Klitxeak lehertzea da helburu, hitzak ez direlako gai munduaren berri emateko, gauzen bihotzeraino heltzeko.

Gainera, ez al zeuden ba ordurako gauza guztiak esanak? (“Francis Picabiak munduko boxeo txapelketa Barcelonan jokatu zuenerako, gauza

<sup>5</sup> Ezra Pound-ek esana duen bezala: “Batzuetan egile handi baten lanaren zatia *etcétera* batez kalifika genezake.



guztiak esanak zeuden jadanik agian.” (E. 99) Erne, baina, ze ez da erabatekoa baieztapena: “agian” ironiko horrek dogmatikotasun irrigarritik eta erudizioaren joko antzutik salbatzen du baieztapena. Eta, hala ere, mundura berandu etorri izanaren irudipen hori beti izan du beharbada gizakiak. Ikuspegi beraren episodioak dira *Eclesiastés*-eko izkribatzailearena Testamentu Zaharrean, La Bruyère-rena XVII. mendeko Frantzia klasikoan eta Borgesena XX. mendean. Hala ere, sasoi bakoitzak oso modu bestelakoan bizi izan du, seguru asko, sentimendu hori. Batak, tradizioaren kate luzearen kate-begi gisa; Berpizkundeak, Antzinate Zaharrari begira. Zahardadearen pisu hori, *déjà vu* sentsazio hori, abangoardisten lehen Manifestuetatik datorren asperdura eta salaketa da. Ze hauek mundu baten akaberaz ari ziren, eta, egoera horretan, Arteak ez zuen lehentasunik dadaistentzat, eraitsi beharreko konbentzio hutsal bat baizik ez zen. Eta horretara jarri ziren gogotsu: ez “ni” sentiberarik, erromantizismo estereotipatuaren lekuko ergelik, ez logika eta ez zentzurik mundu zaharrari eusteko. Mundua birrinduta baldin badago, eta “Jainkoa hil bada”, zergatik jarraitu behar dugu gramatikan sinesten? (Gogoeta Nietzsche-rena da.)

Abangoardiak hizkuntzaren oreka, diziplina eta, oro har, zentzuaren atzaparretatik askatu gintuen, lehentxeago erretinaren tiraniatik libratu gintuen bezala pintura figuratibotik askatuz. Prozedura hori muturreraino eraman zuen Dada mugimenduak. Zentzumenaren diktaduraren aurka, ez Dadak bakarrik, surrealistek ere makina bat esperimendu proposatu eta saiatu zituzten. Horrelako esperimenduen ildoan eraikitzen da *Etiopiako* lehen zirkuluan “e”z (E. 36) amaitutako poema, prozedura horrek hitzak deformatzera behartzen bagaitu ere (erori>erore, begira>begere). Ez dira bada faltako zentzua neguko kuarteletara erretiratu ondoren saiatutako hitz-jokoak (txikleak/klitxeak) (E. 99), edo esaldien garapen konbentzionala haustea: “Esan nezake lokutore batek off burua behera bota du gaur mikrofonoak kobra bat balitz egiten ziolako txistu sleep.” (E. 96)

Bestalde, poemak eraikitzeke orduan, *Collagea* izango da prozedura testualik erabiliena. Handik eta hemendik bildutako *flash*-ak, komunikabide edo publizitate, zine eta musika, edo bestelako erreferentziak, ez dio ardurarik noizko eta nongo (espazio/denbora), denak txertatuko dira poemetan bestelako garapen orekatu eta zentzuzkoak eragotziz.

“Bertan goxo” nagi eta hutsalaren aurkako tresnarik eragingarriarena da umorea. Biziraute inozo eta konformaerazzen aurkako akuilua. Gizakiaren eta artearen ur geldiak (hilotzak) astintzeko baliapidea. Hara zer dioen Octavio Paz-ek *Excursiones/IncurSIONES* liburuan:<sup>6</sup> “Ningún arma más poderosa que la

<sup>6</sup> Octavio Paz, *Excursiones/IncurSIONES*, Galaxia Gutenberg, Bartzelona, 1999, 176. or.

del humor: al absurdo del mundo la conciencia responde con otro y el humor establece así una suerte de ‘empate’ entre objeto y sujeto... Su propósito es subversivo: abolir una realidad que una civilización vacilante nos ha impuesto como la sola, única, verdadera.”

“Eguneroko bizitza” (E. 85-87) bertsoekin hasten den poema esaten ari garen honen adibide antologikoa litzateke. Beste hainbeste “Piolet poeta lirikoari buruz zenbait apunte” (E. 11-29) deritzan narrazioa. Ez bata, ez bestea, ezin dira irakurri gogaldi umoretsu batean ez bada. Ez da, ordea, umore merkea, doakoa. Ez. Errealitate jakin batzuk burlatzeko eta, burlarekin batera, salatu nahi den egoera bat agerian jartzeko balio luke, poesiaren bidez, kontzientziaren mailan sikiera, egoera hura azaleratu eta iraultzeko.

Juan José Lanz-ek,<sup>7</sup> Atxagaren poesiaz ari zela, honako hau zioen: “El humor es uno de los rasgos que sobresalen en la poesía de Atxaga, pero no se trata de un humor que acaba en sí mismo, sino de un humor desenmascarador que muestra el *pathos* que hay tras la broma.”

Atxagak<sup>8</sup> berak dio Barthes-en baieztapen hau jarraitu zuela: “El símbolo se libera por el disparate (*gag*) de su manía poética.”

Umorea eta gogaldiak aipatu ditugu. Baina aldartea ere, aldarte ona, aipatu beharko genuke, errepikakorra dirudien arren. Esate baterako:

- “Kamamila edanez ere egin nezake esaera oker bat halanola / setiatua in the beautiful morning of Bilbao, / gauaren setio apika krudelagotik ihes.” (E. 96)
- “Eta bota dezakegu baita ere txanpon bat makinan, only you entzunez txorakeria batzuk esateko.” (E. 89)
- “Esaten den bezala osasuna bada bedaio, arraio, eta beste, aupa guztiak etab.” (E. 87)
- “Edo txikleak zapore guztitan, orange, citron / Dragon hau baino hoberik ez ziagon.” (E. 94)

Beste mota bateko ironiarik ere bada. Esate baterako: *Etiopiako* poetari ez dio buruhausterik ekarriko ea Francis Picabia zen ala Arthur Cravan Bartzelonan boxeoan jardun zuenak, edo Aubisque zen ala Mont Ventoux

<sup>7</sup> Juan José Lanz, “La poesía de Bernardo Atxaga: *Poemas & Híbridos*”, Ínsula, Madrid, 1990, 29-30. or.

<sup>8</sup> Bernardo Atxaga, “Poética”, in “El estado de las poesías”, Cuadernos del Norte, Caja de Ahorros Asturiana, Oviedo, 148-153. or.

Tom Simpson ziklistarekin akabatu zuen mendia “37 galdera mugaz bestaldeko...” poeman (*Etiopiaz* geroztik idatzitakoa). Umorea, ironia eta jolasa batera ari dira. Are gehiago, “umore beltza” deituko diote ironiari surrealistek. Ez litzateke beste ironia bat baino zinezko sentimenduak soilik animalien artean, “kalatxorien” artean, gertatzea: ezingo da zinezko maitasunaz jardun gizakiak gogoan.

Abangoardia angloamerikarra edo ingelesa (Modernism) eta Europa barnealdekoa [futurismoa, kubismoa, espresionismoa, dadaismoa (esan behar da Marcel Duchamp, Francis Picabia, Man Ray edo Arthur Cravan Paris eta New York artean bizi izan zirela) eta surrealismoa] bereizi arren, guztiak etorriko lirateke bat Gottfried Benn espresionistak errealitateaz egiten zuen formulazioarekin: “Errealitatea nozio kapitalista da.” *Etiopian* agertzen dira “Modernism”eko bi poeta nagusien erreferentziak –Ezra Pound eta T. S. Eliot–. Biek ala biek deitoratuko lukete mundu burgesaren ondare morala. Ezaguna da, bestalde, bi poeton antisemitismoa (markatuagoa Pound-engan “usura”ren, kapitalismoaren arimaren, aurkako herra). Eliot-en *The waste land* (1922) eta Pound-en *Kantuak* (1975) liburuez ari naiz.

Bada bien artean funtsezko desberdintasun bat, ordea: Dada-k eta surrealismoak *tabula rasa* bat egin nahi zuten mendebaldeko balio arrazionalista eta kristauekin. Erromantizismoak inauguratutako joerari jarraituz, aurreko tradizioa arbuiatu eta artearen eta bizitzaren arteko distantzia murrizten saiatu ziren. Eliot-ek eta Pound-ek, ordea, Mendebaldeko tradizioaren erdigunea dute helburu. Eta erdigune hori Danterena eta Virjiliorena da. Batzuek tradizioaren bila ari diren bitartean, besteak hura suntsitu nahi dute. Hara zertan gauzatzen den halako jarrera bat dadaisten praktika poetikoan, alegia, poemak “fabrikatzeko” eran: “Egunkari bat hartu, guraize batzuk hartu, tamainako artikuluko bat aukeratu, moztu, artikuluko hitz bakoitza moztu ondoren zakutxo batean sartu, astindu zakutxo eta atera ahala joan tolestatzen bata bestearen ondoan, eta egina dago poema...”

Seguru aski, ez ziren gogoangarriak izango halako esperimientuetatik sortutako poemak. Ez zen hori, ordea haientzat premiazkoa. Mundua hautemateko era da aldatu nahi zutena, eta horrekin batera, gizakia aldatu. Antonio Martínez Sarrión-ek<sup>9</sup> dioen bezala, poemak ez ziren ahalegin horretan baliabide hutsak baino, ahaleginaren lekuko protokolarioak.

<sup>9</sup> Antonio Martínez Sarrión, *Sueños que no compra el dinero*, Pre-textos, Valentzia, 2008, 49. or.

Hala ere, badira aldeak Europa barneko abangoardien artean ere: Dada-k artearekin eta literaturarekin erabat hautsi nahi zuen bitartean, bai espresionistek, bai surrealistek, artearekiko atxikimendu bat erakusten dute, estetikarekiko mirespena.

Dada-k iraganeko eta egungo artelan guztiak kondenatu zituen. Gehiago interesatu zitzaion keinua obra baino. Surrealismoarekin batera, ez zen beraien helburua artea egiten jardutea, gizaki berri bat eraikitzea baino. Azken batean, bizitza entenditzeko modu bat izan zen. Artearen eta espirituaren “balio eternal” guztiak deusezten tematu ziren. Poesia akzioa, *performance*-a, bihurtzen da haien eskuetan. Surrealismoarentzat, berdintsu: Van Gogh eta Rimbaud-en bideari jarraituz, arteak eta bizitzak bat egin behar zuen, arteak bizitzan isuri behar zuen (Nerval, Lautréamont, Artaud). Dada izan da, inondik ere, artearen munduan inoiz gertatu den hausturarik latzena. Harrez gero, ez dira inoiz gauzak lehenera itzuli, nahiz eta iraupen laburreko abangoardia izan zen.

Gorago aipatu ditugun bi tradizioak aurrez aurre jarrita –“Modernism” anglo-amerikarra eta abangoardia europarra–, badago, esan bezala, desberdintasunik. Horren adibiderik adierazgarriena T. S. Eliot-en “Tradition and individual talent” (1919) saioa litzateke, non poeta/saiolariak adierazten digun, aurrekoa hautsi beharrean, aurreko tradizio osoaren berrantolaketa dakarkigula obra berri batek beti. Eta Eliot-ek bai, idatzi zituen poema abangoardista gogoangarriak.

Horrelako poetika bat onartezina da Dada-ren planteamenduetan.

Nahiz eta handia izan *Etiopian* abangoardista eraisleen ondarea (dadaismoa, surrealismoa), ez du falta kontrakorik ere, hau da, Dante-ren bederatzi zirkuluko (Marcel Schowb-en baimenarekin) ibilbideari, poemarioaren bizkarrezur lana egiten duen horri, zor zaiona.

*Etiopiak* gordetzen du, beraz, abangoardismo gogor eta ikonoklastenaren alboan, mendebaldeko tradizio poetiko nagusiarekiko halako errespetu aitortzarik. Ze *Etiopiak* Rimbaud-engana ekartzen bagaitu, bederatzi zirkuluek Dante-rengana. (Eliot-ek bere *The waste land*-en ere aitortu zuen gisa.) Edo Rainer Maria Rilke-ren aipamenak (E. 78) bere sinbolismo serafikotik urrun ibili arren, hari zuzendutako galderetan badago errekonozimendu baten aitortza bat.

Abangoardismo guztientzat, ordea, bai “Modernismo” angloamerikararentzat zein europararentzat, gauza bat dago garbi, “hautsi da anphora”: “Eta mila ispilutan multiplikatu/ez haiz/azken irudi ezabatua baino.” (E. 55) Hau da, mendez mende nagusi izan den tradizio kulturala, klasiko-kristaua, lehertu da eta gizakiak ez du aurrerantzean helduleku segururik. Ziurtasun

dogmatikoak desegin dira betiko eta geratu dena haren itzal deformatua da, mila zatitan apurtua. Aurrerantzean, bakoitzak asmatu beharko du, *The waste land*-eko poetak egin zuen bezala, norbere kontsumorako mitologia pertsonala, norbere jakituria erreferentziak, erlijio, filosofia, poesia, zinea, musika (*pop*), komiki puskez osatua egongo dena. *Etiopiako* poetaren mitologia pertsonala *Etiopiarako* bidaian gauzatzen da, *Etiopia* inguratzen duten hareazko bederatzirako zirkuluetan barrena egindako bidaian.

Hara zeintzuk diren, ibilbide horretan, poetak zirkuluz zirkulu metatu dizkigun mundu ezpalak:

Atarikoak: Biblia eta Duvoisin kapitaina, Marlowe, Eliot, Axular, Dante-ren Jainkozko Komedia, Kung-fu, Frantzia/Panama, Erroma, Neron, Kioto, Afrikako portuak, Rimbaud, Etiopia, Folk Singer, Marcel Schwob.

1. zirkulua: “Kavila” poema afrikarra,<sup>10</sup> *Western* tradizionalak, Galapago irleki buruzko dokumentala.
2. zirkulua: Jacques Rigaut poeta surrealista, Caryl Chessman-en (1960)<sup>11</sup> eta Sacco eta Vanzetti-ren (1922) heriotz zigorrak.
3. zirkulua: Bizkaiko lo-kanta bat: “Obabatxue”.
4. zirkulua: Gerard de Nerval, surrealismoaren poeta aitzindari eta suizida Casiopea eta Pollux, Isis eta Pandora eta Bereniceren ilea<sup>12</sup> Conan Doyle-ren Mr. Watson pertsonaia Lope de Agirre eta Urtsuako alaba

<sup>10</sup> Abangoardiak gureaz beste muturreko kultura primitibo eta zaharren miresle izan ziren. Modernitateak berezko testuingurutik erauzi eta testuinguru berri batean paratu ondoren, zaharraren eta garaikidearen mugak hautsi eta zeharo moderno eta garaikide bihurtuko du edozein objektu edo poema. Hala “Kavila” (edo Pigmeo) poema afrikarra nola “Obabatxue” lo-kanta tradizionala. “Pastitxe” bat egingo du Pigmeo poema baten eta Genet-en artean. “Etxahun” bertsolaria bera Rimbaud-en arrastora erakarri da. Antonin Artaud-en albora ekarri zuen Bilintx *Zintateaz*-en.

<sup>11</sup> Asko dira *Zintateaz* nobela esperimentaletik *Etiopiar*a igarotako motiboak: trenak, esploradoreak, Ikariarrak, boxeolariak, hitzaren eta isiltasunaren arteko borroka (mututasuna), lemazain itsua (Hyeronymus) edo Caryl Chessman heriotz zigorrera kondenatu eta 1960an gaseatuta hil zuten gaizkile-idazlea.

<sup>12</sup> Casiopea eta Pollux –Berenice-ren ilea. Berenice Egiptoko Ptolomeo III erregearen emaztea zen eta ile ederra zuen; gaur egun, zeruko konstelazio baten izena darama. Poeman agertzen diren emakume izenak koherenteki batutako erreferentzia mitologikoak dira, aurrerago, zazpigarren zirkuluko Egiptoko piramide eta Nefertiti erreginaren kasuan bezala. Eta Ofeliaren ile beilegilunaren aieruak ibai urreztatuetan. Shakespeare-ren pertsonaia hori *Etiopiako* jatorrizko bertsoan azaltzen da.

5. zirkulua: Catalina de Medecis  
Lauaxeta,<sup>13</sup> Lizardi eta Rimbaud
6. zirkulua: Ungaretti poeta italiarra  
I Ching txinatarraren jakinduria liburua  
Arthur erregearen tradizioko Fata Morgana<sup>14</sup>
7. zirkulua: Pigmeo poema bat eta Genet  
Espartako eskuta herdoildua  
Kheops, Khefrén eta Mikerinos Egiptoko piramideak  
Rainer Maria Rilke  
Nefertiti
8. zirkulua: Tiovivo tebeoa  
Otis Redding, Mirande  
Vietnam  
Abebe Bikila  
Eldorado  
Axular: “Joan zatzaizkit lurretik baiña ez gogotik.”  
Barcelona, Erroma

---

<sup>13</sup> Lauaxetari eskainitako poeman agertzen den “panterak” honako iturriak izan ditzake: a) Lauaxetaren “Espetxequarena” (Arrats Beran) poeman bertan: “Itxaso orren narru nabarra / pantera batena dirudi.” b) Lauaxetak irudia zor zion Paul Valery-ren *Le cimetière marin* (XXIII): “Oui! Grande mer de délires douée, Pean de phanthere et chlamyde trouée.” c) R. M. Rilke-ren “Pantera” izenburu ospetsuko poema, Borgesenak (“A un gato”) edo auskalo...

<sup>14</sup> “Fata Morgana” Arthur erregearen arreba da, eta zalduneria mitikoarekin betiko amaitu zuen guduaren larriki zauritu ondoren, arreba magialariak Avalon uhartera eraman zuen berekin. Trakl-en poemetan, guduaren eta desolazioaren erdian arreba figurak hartzen duen dimensio espiritual eta misteriosua iradokitzen ditu poemak. Izan ere, Trakl-enean bezala, poema osoa zeharkatzen du arreba inbokazioak. Aurrerago, *Poemas & híbridos*-eko IV. kantuan, “Bihotz, antzinako bihotz” izenburupean “Helian” en poeta (Trakl) konjuratu zuen berriz Atxagak. Ordurako idatzia zuen Margareth eta Heinrich bikien arteko istorioa. Joan Vinyoli-ren *De realitats* (1963) poema liburuko “L’acte Darrer” (Azken egintza) poemak motibo eta giro bera landuko du.

Seigarren zirkulu berean badago beste poema bat, justu hurrengoa, alegia, “Ez zaitze farregarria izan” bertsoarekin hasten dena, Kavafis-en “Jainkoak Antonio abandonatzen du” poemaren egoera animiko beretik sortua dirudiena. Jainkoak edo Fortunak abandonatzen gaituztenean alferrik egingo dugu negar: izan gaitezen adoretzu. Kavafis-en maisulan horren tonu berean dago eraikita Atxagarena.

Trakl eta Kavafis poetekin batera, Vincent Van Gogh-ren figurak ere utzi du berea Atxagaren lanetan, *Zintateaz*-eko “Theo”ren [pintorearen anaia (ermanó?)] poemak lekuko. *Etiopiako* lehen zirkuluko “Argiaren hondakinak arratsaren oinarri” bertsoarekin hasten den poemak ere baluke holandarraren (tulipanak) oihartzunik, aitaren figura inbokatzeko duen arima gaixo eta babesgabeak.

Egiptoko zazpi izurriteak  
*Bonny and Clyde* filmea  
“Only you” pop kanta  
*King Kong* filmea  
Humphrey Bogart aktorea

9. zirkulua: Etxahun

Persia  
Bilbao  
Micenas eta Grezia

10. Epilogo: Etiopia

Francis Picabia / Arthur Cravan  
Barcelona  
Akra<sup>15</sup>  
Ezra Pound  
“Baionako barraraino” kantaren puska  
Malon: Beckett-en pertsonaia  
Nueva York

## AZKEN GOGOETAK ETIOPIARI BURUZ

1.- Bidaia bat da *Etiopia*, poemez eta narrazio bakan batzuez eraikitako bidaia. Izenburuak berak adierazten duen bezala, Etiopia du helburu bidaia horrek: Rimbaud poetak egindako bidaia espirituala du helburu Atxagak, edo jada poesian mitikoa zen bidaia horretaz baliatzea bere ibilbide poetikoa mozorrotzeko. Baina Etiopiaren bihotzeraino sartzeko, poesiari erabateko ukoa egin behar zitzaion; Dante-ren ibilbidean pekatuaren “P” arrasto guztiez libratu behar zuen era berean libratu beharko du *Etiopiako* poetak poetikotasunaren eta poesiaren maniaren pekatutik. Izan ere, Etiopian barrena abiatzeko, eta isiltasunean murgiltzeko, albo batera utzi beharra zeuden poesiarekiko esperantza guztiak. Etiopiako Rimbaud-entzat, poesia “ergelkeria bat” zen.

Atxagaren *Etiopia* hau, beraz, bidaia paradoxikoa da benetan: poesiaren plazara atera poesiari uko egiteko, hau da, poesiaren aldarean inmolatzeko poeta, ze: “nork soportatu dezake poeta afizionatu bat egun bakar batez ere? Eta

---

<sup>15</sup> Akra-ko erreferentzia Paul Celan-en “Kanta bat desertuan” poematik jasoa dirudi. Poema hori gaur egun *Amapola eta oroimena* poemarioan dago jasota.

ohar honekin bukatzen da ipuin estúpido hau, eta baita liburua ere.” (E. 103) Poetarekin eta poesiarekin amaitzeko zinezko agindua, ala jolas bat izan da guztia? 60 eta 70eko neodadaismoak hain gustuko zituen *happening* haien eraginpean eraikitako “fikzio bat” dirudi *Etiopiaren* klausura horrek. Baina Rimbaud-entzat fikzio horiek umekeriak ziren. Ze Rimbaud-en agindua besterik da: poesia eta artearen tontakeria horiek amaitu dira betiko. Eta Atxagarentzat ere, Rimbaud-en agindua betetzera, poetaren hilketa sinbolikoaren ondoren poesiaren isiltzea ekarri beharko zukeen (eta literaturarena).

Beraz, Rimbaud-en espiritua konjuratu du Atxagak *Etiopia* honetan, baina soilik erdizka bete du haren agindua. Poesia bide moduan, ez patu gisa. Honek guztiak, zer esan nahi du? Ba, ez zela (zorionez) abangoardia europarren agindu larriena betetzera iritsi eta, itxurak itxura, Atxagak<sup>16</sup> poesia egin nahi zuela, eta borondate horrek gain hartu ziola beste agindu larriago horri, hau da, poesia bizitzan irauli eta patu bilakatzeari. Atxagak jarraitu du, aldi behin bada ere, poesia idazten. Gero, ipuinak eta eleberriak idatzi ditu.

Mitoeke martiriak behar dituzte bizirauteko. Arte Modernoaren aldrean makina bat immolatu da XIX. mendetik XX.eko azken rockero, jazzero, punkie edo bestelako kantari edo yonkienganaino. Artea erlijio bat izan da, erlijio moderno, eta bere ofiziantea nagusiak izan ditu. Horien artean,

---

<sup>16</sup> Horrek ez du esan nahi Aitzpea Aizkorbebeitiak (“Hamaika hitz Bernardo Atxagaren unibertso metaforikoaz...”, *Atxaga Baionan*) zentzu handiz esandakoak ez direnik egia: “*Etiopia* ulertzeko eta *Etiopia*-ko poetaren jarrera ulertzeko maila partikularra urrats bat eman beharra dago eta poema-liburua idatzi izan zeneko garaia gogora ekarri. Frankismo osteko urte ilunetan gaude, egoera politikoa, soziala eta kulturala desolagarria da erabat, sasoi latza da, are gehiago euskal kultura eta literatura moderno bat bultzatu nahi dutenentzat (Pott Bandaren proiektura hemen kokatzen da). Gainera, egoera asfixiagarri honi soldaduskaren esperientziatik igaro berria den idazle gaztearen egoera bital latza gehitu beharko genioke.” (*Atxaga Baionan*, 125. or.) Guztiak daude ondo esanak. *Ziutateaz* (1976) liburuko Borrero Nagusiaren aurka eta ziutate berri baten alde zeuden ikariarrak bizi bizirik daude *Etiopia* honetan: “eguzkirako izan behar zuen bidaia zubi nekatuen azpitan amaitu delako.” (E. 73) Ziutate berri baten alde daude *Etiopia* honetan zirkuluz zirkulu konjuratu diren figura alternatibo guztiak. Diktadura neroniari (edo frankistaren) parodia alegoriko bat zen *Ziutateaz*?

Eta euskal kultura eta literaturari buruz, zer? Ba, 1978ko “Pott Bandaren berriemaileak” ederki azaltzen dituela zeintzuk ziren garai hartako kultura erreferenteak eta hizkuntzaz bai baina literatura kontuetan umezurtz zegoela panorama. Jakina, “Euskal Idazleak Gaur” (1977) zen kultur erreferente nagusia, eta erreferente nagusi horien artean ziren Arestiren poesia soziala eta Txillardegiren existentzialismoa, eta hantxe Pott-ekoak zer eraitsi. Gauzak horrela, honako perlak jaurti zituzten: “Ez da korrektoa J. M. Torrealdaren idazlanak antologia Dada batean sartu dituztenik, bere hitzaurrean baizik.”



Rimbaud-ek izan duen eragina izugarri arrakastatsua izan da, eta gaur arte irau du. Zenbat eta sakonagoa munduarekiko etena, orduan eta seguruagoa aulkitxo bat artista modernoan panteoian. Suizida, ero, mutu. Munduaz uko egindako ibilbide poetiko-artistikoak ugariak dira. Horiek dira modernitatearen, edo arte modernoaren, seme-alaba kutunenak. Eta soilik eromenaren eta suizidioaren edo erabateko isiltasunaren muturretik begiratuta irudika genezake beren traiektoria osoa, orain bai, argi eta definitibo. Gauza bera adierazi nahi du Borgesek hitz hauen bidez: “Todo es poético en cuanto nos confiesa un destino, en cuanto nos da una vislumbre de él.”

2.- Zirkuluz zirkulu metatu diren erreferentzien artean, ez da urriena zineari eskainitakoa. Izan ere, bazterrezina da zinearen eragina 50, 60 eta 70eko belaunaldien heziketa sentimental eta kulturalen. Hara zeintzuk diren *Etiopiako* erreferentzia horiek: *Kung-fu, western*-ak, *Bonnie and Clyde, King-Kong*, Humphrey Bogart-en filmak (Marlowe) edo BEDERATZIGARRENA ETA AZKENA, *The end* (E. 91). Caryl Chessman-en eta Sacco eta Vanzetti-ren kasuak ere zinemara eraman ziren: Chessman-ena 1955ekoa da (“*Cell 2455, Deathrow*”), eta Sacco eta Vanzettirena, 70eko urtetakoa. Ez da falta, bestalde, zineari egindako aipamenik: “Erreta iraganari buruzko filmarik hoberenak gezalez” edo “Oso gai ona filme baterako”. Lehen zirkuluko narrazioa ere zinema batean gertatzen da.

Honekin batera, *pop* eta *soul* musikaren igurtzirik ere ez da falta (Otis Redding, “Only you” kanta) edo telebistarenik (“lokutore batek off burua behera bota du gaur... yeah”), kanta, letra folklorikoak. Ez da komikiaren hizkuntzik ere falta, tebeoaren bertsioan honako honetan. 60 eta 70ean oso zabaldua zegoen komikiaren eta tebeoaren kultura popularra, ikuspegi elitista batetik, “subalterno” edo azpikulturatzat hartuko litzatekeena. Hortxe du, ordea, bere eragin subertsiboa, seriotasun jasoari burula egiteko baliabide gisa: Rilke edo Rimbaud-ekin batera, komiki baten esaldia txertatzea. Atxaga beti baliatu da –baita bere ipuinetan ere– komikien ondareaz.

Eta, azkenik, adierazpen publizitarioak edo esloganak: “Made in Germany” edo “Hormetako orrialde publizitarioen zarpailak off astinduz.” (E. 96)

Hori guztia berria gertatu zen euskal poesigintzan, Espainiako poesian *Novissimo*en eraginez gertatu zen modu berean. Batean zein bestean, atergabea da 50eko urteetatik aurrera Europa inbaditu zuen *mass-medien* kultura amerikarraren eragina. Horregatik famatu ziren 60eko hamarkadan Pere Gimferrer-en *La muerte en Beverly Hills* (1967) edo “Canción para Billie Holiday” (1968). Baina Atxagaren poesiarako nahiago Leopoldo María

Paneroren *Así se fundó Carnaby Street*-eko (1970) aukera poetikoa: “El asalto a la diligencia”, “Homenaje a Bonnie and Clyde”, “Homenaje a Caryl Chessman”, “El poema de Sacco y Vanzetti” edo “Tarzan Traicionado”ko “Unas palabras para Peter Pan”, “El canto del llanero solitario” (guztia Pound/Eliot eta Flash Gordon-en komiki aipamenez oretuta).

Kultur erreferentzia berriak ziren horiek guztiak. Mentalitate zahar, kontserbatzaile eta (frankismoan) klaustrofobikoari mingaina atera eta aire freskagarria birikatzeko modu (eta moda) bat izan zen. Eta orduan, geroago bezala, moda hori Amerikako bizimodu eta kulturek markatu zuten. Modernitate berri bat zen. Moderno izateko era berri bat. Eta zurrundutako kultura ilun, serio eta tristearen aurrean arintasun eta askatasun dosi handi bat ekarri zuen.

XXI. mende-ataritik begiratuta, badakigu justu hamarraldi horiexek (60-70eko hamarraldiek) ezagutu zutela abangoardien erabateko garaipen kulturala eta soziala. Sistemak –interes politiko eta ekonomikoak– bere egin zuen abangoardien ondarea eta erakundeetatik bertatik bultzatu zuen hura. Alde horretatik, aipagarria da Jack Lang, Frantziako Kultur ministroak, Rimbaud-engan zuen miresmena, haren poesia zabaldu nahi izateraino.<sup>17</sup> Askok ez dela, XX. mende amaiera baino urte batzuk lehenago, *Le monde* eta *France Culture* komunikabideek estereotipoen aurkako, debekuen aurkako hitz salagarrien erredakzio bat saritzen zuten. Bertan errebolta eta haustura bezalako hitzei eman nahi zitzaien protagonismoa. Alain Finkielkraut<sup>18</sup> filosofo frantsesak dioen bezala, gaur egun bohemia eta eskandalua, desobedientzia eta transgresioa saritu egiten dira.

Ez dago aipatu beharrik pintore dadaista probokatzailenak museotan zutela ordurako bere ohorezko erakusleirioa. Marcel Duchamp XX. mendeko erreferentzia bazterrezina da Artearen historian. Haren irakaspenei jarraituz, dadaismoak eta surrealismoak itxurarik gabe zabaldu zuten ordu arte artetzat har zitezkeen baliabideak, edozein hitz, egoera eta objektu artetzat hartzeraino –bizikleta batetik pixontzi bateraino (“Fontaine”)–. Izan ere, nahikoa zen edozein objektu *ready-made* (jada egina) hartu eta sinatzea.

Eta guztiz zeuden kontsagratuta martxanteen zirkuito komertzialetan. Guy Debord situazionistak jada 60ko urteen amaieran adierazi zuen bezala, espektakuluaren gizartean bizi ginen. Gaur egunetik begiratuta, haren hitzak zentzu beteagoa hartzen dute.

Poesiaren indar subertsibo guztia publizitate eslogan batera errenditzen bada, amaitu da, baliogabetu da poesiak eta arteak Modernitatean izan zuten

<sup>17</sup> Félix de Azúa, *ibidem*.

<sup>18</sup> Alain Finkielkraut, *Nosotros, los modernos*, Ed. Encuentro, Madrid, 2006, 239. or.

sustantzia eta espiritu errebeldea. 70eko urteetan ironiatzat hartzen zena gaur egun kontsumo-arauean barruan dago. Modernitatea amaitu da, eta hango sentsibilitatearen lorpen arriskugarri eta eragingarrienak, utopikoenak, hitz batean esateko, adierazpen publizitario bateko apaingarri eta lurrina dira. Zenbat kotxe markak ez ote du erabili bere promozio kanpainetan arte munduko erreferentzia deigarriren bat: Jack Kerouac-en *On the Road*, Julio Cortázar-en “*Cuando te regalan un reloj*” edo Paul Eluard-en “Badira beste mundu batzuk baina honako honetan daude” bertsoak.

Esan dezakegu inoiz arteak izan duen arrakastarik distirante eta eragingarrienean hustu dela haren sustantzia, aurrerantzean “prozedura”, “erabilera”, “montajea”, “*performance*”, “*ready-made*” eta piroteknia handiz egindako aktibismo efimero baina masiboetara errenditzeko. Francisco Calvo Serraller<sup>19</sup> pinturaren historialariak dioen bezala: “En este sentido, el *pop* es quizá el punto máximo de inflexión en cuanto al vaciamiento total de los valores tradicionales del arte, incluidos los de la vanguardia.” Duela urte batzuk, berriz, hauxe zioen Peter Bürger-ek:

“Gaur egungo artista batek estufa tubo baten azpian bere sinadura jarri eta hura harro erakusten duenean, ez da ari artearen merkaturia salatzen, bere menera makurtzen baizik (...). Artearen Erakundearen aurkako abangoardia historikoak egin zuen protesta hura arte bihurtu den honetan, protesta hura ezin gezurtiagoa gertatzen da neobangoardiaren sasoian”<sup>20</sup>

Bernardo Atxaga inor baino lehen ohartu zen artearen eta kulturaren munduan –hitz batean esateko: gizartean– gertatzen ari zen aldaketaz. Pott-eko abenturarekin batera abangoardiarena ere amaitu zen Atxagarentzat. Aurrerantzean idatzi zuen poesia ez da *Etiopiakoa*; eta idatzi zuen narraziogintza ere bestelakoa izango da. Obabako idazleak atzean utzi zuen abangoardiako mundu hura.

## BIBLIOGRAFIA

ALDEKOA, Iñaki, *Antología de la poesía vasca*, Visor, Madrid, 1991.

ARTAUD, Antonin, *Van Gogh: el suicidado de la sociedad*, Fundamentos, Madrid, 1983.

<sup>19</sup> Francisco Calvo Serraller, *El arte contemporáneo*, Taurus, Madrid, 2001, 301. or.

<sup>20</sup> Peter Bürger; *Teoría de la vanguardia*. Península, Bartzelona, 1987.

- ATXAGA, Bernardo, “Poética”, in *El estado de las poesías*, Cuadernos del Norte, C.A. Asturiana, Oviedo.
- AZKORBEBEITIA, Aitzpea, “B. Atxaga eta J. Sarrionandiaren metaforetan barrena bidaiatuz”, *Uztaro* 17.
- AZÚA, Félix de, “Rimbaud”, in *Diccionario de las Artes*, Planeta, Bartzelona, 1995.
- BÜRGER, Peter, *Teoría de la vanguardia*, Península, Bartzelona, 1987.
- BONNEFOY, Yves, *Rimbaud por él mismo*, Monte Ávila, Caracas, 1975.
- CALVO SERRALLER, Francisco, *El arte contemporáneo*, Taurus, Madrid, 2001.
- FINKIELKRAUT, Alain, *Nosotros, los modernos*, Ed. Encuentro, Madrid, 2006.
- GABILONDO, Joseba, “Kanonaren sorrera egungo literaturan: ETIOPIA-z”, *Egan*, 1993(2).
- GIL BERA, Eduardo, *Ezabatuak. Idazle alemanak* (antologo eta itzultzailea), Pamiela, Iruña, 1995.
- IZAGIRRE, Koldo, *Incursiones en territorio enemigo*, Pamiela, Iruña, 1997.
- KORTAZAR, Jon, *Oroimenaren eszenatokiak. Pott bandaren poesia*, Labayru Ikastegia, B.B.K., Bilbo, 2001.
- LANZ, Juan José, “La poesía de Bernardo Atxaga: *Poemas & Híbridos*”, Ínsula, Madrid, 1990.
- LÖWY, Michael & SAYRE, Robert, *Révolte et mélancolie*, Éditions Payot, París, 1992.
- MARTÍNEZ SARRIÓN, Antonio, *Sueños que no compra el dinero*, Pre-textos, Valentzia, 2008.
- MICHAUD, Yves, *El arte en estado gaseoso*, F.C.E. México, 2007.
- MICHELÍ, Mario de, *Las vanguardias artísticas del siglo XX*, Alianza, Madrid, 1988.
- NADEAU, Maurice, *Historia del surrealismo*, Ariel, Bartzelona, 1975.
- OLAZIREGI, M. Jose, *Bernardo Atxagaren irakurlea*, Erein, Donostia, 1998.
- OTAEGI, L. & Arana, L., “Atxagaren *Etiopiaz* zenbait apunte”, *Xaguxarra*, 1980.
- PAZ, Octavio, *Los hijos del limo*, Seix Barral, Bartzelona, 1981.
- *Excursiones/Incursiones*, Galaxia Gutenberg, Bartzelona, 1999.

PINTHUS, Kurt, *El crepúsculo de la humanitat. Un document de l'expressionisme*, Edicions de 1984, Bartzelona, 2002.

RAYMOND, Marcel, *De Baudelaire al surrealismo*, F.C.E. México, 1983.

# ADÉMA ZALDUBI POLITIKA ALDETIK

Xabier ALTZIBAR

## POLITIKA KANTUAK, ERAGINA, POLITIKARIEKIN HARREMANAK

Grazian Adéma poeta (1828-1907), alias Zaldubi *in profanis*, ospetsua izan zen bere mendean. Haren kantuek –bereziki euskalduntasuna aldarrikatzen zutenek–, kantikek eta gai askotariko argitalpenek itzal handiko pertsonaia egin zuten<sup>1</sup>. Haren apaiz lana goratua izan zen, kalonje mailara igonik (1875an ohorezkoa eta 1890ean titularra Baionako katedralean). Izakerak ere

---

<sup>1</sup> Daranatzek Zaldubiren beste hainbat alderdi aipatzen ditu, ospetzen lagundu zutenak: musikari ona, bere kantuei musika egokia jartzen zekiena; hegoaldean euskararen aitatatz hartua; erreboteko pilota partidak ohoratzen zituena, agintariekin agertuz, etab. (Daranatz 1908:121-124; 1913:39-40; 1914:134-137). Jakina da XIX.-XX. mende bukaera-hasierako Euskal Festa eta Kongresu garrantzitsu askotan Zaldubik ohorezko kargu edo tokia izan zuela: Donibane Lohitzuneko Euskal Festetan (1892, 1894, 1897); Azpeitikoetan (1893), Hendaia eta Hondarribiko Kongresuetan (1901, 1902), Eskualzaleen Biltzarrean (1903). “Gauden gu eskualdun” kantua, Azpeitiko Festetarako egina, “hemen askori agradatu zaio-tena” izan dela diotso Azkueri (1894/04/01, *Euskera* 1957:335; ik. ere Xarritton—Ouret 2003,1:231). Atzerriko euskaldunen artean ere ezaguna zen; hura hil ondoan, hau dio atzerriarri zegoen bertsolari batek *Eskualdunan*, haren omenez argitaratu bertsoetan: “Bai Eskual-Herrietan, bai Ameriketan / Zure bertsuak dire aditzen orotan / Zuk zombat egin duzun arimen onetan / Jainkoak baizik ez du jakinen sekulan” (“Zaldubi zenari”, E 1115, 1908/08/21, XII). Zaldubi “plaza-gizona” zela azpimarratu du Zalbidek (2007:944-948).

lagundu ziokeen jende askorekin harreman onak izaten, amultsua, atsegina, jendakina eta bihotz handikoa omen baitzen<sup>2</sup>.

Lege zaharren aldekoa izan zen beti, kontserbadorea edo tradizionalista, eta politikan antierrepublikanoa. Bere aldian erregimen aldaketa ugari ezagutu zuen: “Erreg’, Enperadore et’ Errepublika, / Xuxen, makhur, nahaste, zenbat itzulika!” (“Errepublika”, RIEV 1909:229, I). III. Errepublika sortzean (1871) bazituen 43 urte. Atharratzen erretore nagusi kargua izan zueneko urteetan (1872-1890) argitara zituen debozio-liburu eta kantika gehien; orduan aurkeztu zituen A. Abadiaren koplarien gudueta bi aldiz Errepublikaren kontrako kantuak (1874, 1876). Atharratzeko azken urteak ez bide ziren beti goxoak izan Zaldubirentzat; *xuriak* eta *gorriak* gerla gorrian ari eta apaizek nola edo hala xuriei laguntzen zieten (ik. 3.2.).

Zaldubiren kantu ospetsuenetariko batzuek politika dute solas, eta are alegia batzuetan politika ideiak ageri dira, alusio bidez. Bere predikuetan ere gaitzetsi zituen II. Inperioak eta bereziki Errepublikak bultzatu jokaera batzuk, adib. ohore eta kargu gosea (Altzibar 2007:1048-1050). Artikulu honetan Zaldubi poetaren politika engaiamendua zedarritu eta zehaztu nahi dugu, elkarren osagarri diren hiru alderdi aztertuz. Lehena, politika kantuak: hemen azalduko dugu zein diren harenak eta zein ez, egilea nola joan zen kantu horiek idatzaldi edo bertasio desberdinetan garatzen gertakari edo egoera berri arauka, zein ideia agertzen dituzten, zein testuingurutan kokatzen diren, zein zen egilearen edo hedabidearen interpretazioa eta zer erreakzio sorrarazi izan zuten. Politika adiera hertsian ulertuz, bazter utziko ditugu politikaz ateko kantuak eta gainerako idazlan ideologikoak, haietan agertzen diren gaiak eta ideiak (euskalduntasuna, euskal tradizioak, Euskal Herriaren historia, laborantzaren defentsa). Politika kantuen formaren azterketa berezirik ere ez dugu egingo. Bigarren alderdia: Zaldubiren kantuek zer eragin edo arrasto utzi zuten *Eskualdunan*, batez ere J. Hiriart-Urrutiren artikulu nagusietan.

---

<sup>2</sup> Zaldubiren hilberriek eta hura hil ondoko artikulu eta bertsoek haren eginak eta dohainak agertarazten dituzte. Daranatzek argitasunak ematen ditu hark Hazparneko kolera izurritean eginikoez, Bidarra eta Atharratzeko eliz eraikitze eta apaintze lanez; bere bihotz on eta izakeragatik nonahi lagunak egiten omen zituen (Daranatz 1908a:121-124). Baionako *Semaine* kazetako hilberriak ere azpimarratzen du jendeari emana zela, atsegina, Bidarraiko eliztarrek atxikimendua erakutsi ziotela hura herritik joanda 25 urte geroago ere; xaloe zela, haur bat bezalakoa. “C’est un prêtre plein de bonté, de zèle et de bienveillance (...)” (*Semaine de Bayonne*, 3179, 1907/12/11). Euskal Herriari zion maitasun kartsua azpimarratu zuen J. Etxeparek (1992:121); ik. ere Hiriart-Urruti, J. 1977:340.

Hirugarrena, Zaldubik zer eta nolako harremanak izan zituen politikariekin, alde batera utziz euskalzaleekin izandakoak (Duvoisin, L. L. Bonaparte, Azkue, Hendaia eta Hondarribiko euskalzaleak etab.).

Lantxo honekin, segida eman nahi diegu 2007ko omenaldikoei eta aurrekoei<sup>3</sup>. Zaldubiren bizia, harremanak eta lana hobeki ezagutzeko on litzateke haren familiakoek atxikitzen duten *Livre de Raison* eskuizkribua (Daranatz 1908:123) argitaratzea, baita haren gutunak. Eta batez ere haren idazlan osoen edizio kritiko on bat egitea<sup>4</sup>. Eskuizkribuen argitalpenak –H. Duhau lotu zaion lana– artikulu honetako galdera eta itzal batzuk argituko dituelakoan gaude.

Zaldubiren kantuen edizioei buruz, jakina da bere kantuak beti osatzen, lantzen eta orrazten ari izan zela. Ondorioz, kantuok zenbait idatzaldi edo edizio eskuizkribatutan mamitu zituen, egunen batez argitaratzeko asmoz. Alegia, kantu eta kantika gehienak, behin eta berriz publikatu zituen *Eskualdunan*; kantika franko RBPL eta *Euskal-Erriari* (J. Bilbao 1970-1981), baita gutxi batzuk *Le Pays Basque-Eskual-herria* kazetan. Badakigu 1894-1897 inguruan behin eta betiko edizioa prestatzen ari izan zela<sup>5</sup>. Eta aitzina-

<sup>3</sup> Euskaltzaindiak 2008ko abenduan Senperen, Zaldubiren heriotzaren mendeurrenaren kariatara antolatu omenaldiak biziberritu du Zaldubiren inguruko ikerketa. Haren hitzaldi eta artikuluen argitalpenek (Adéma 2007, 2008; Altzibar 2006) eta ikerketek (Duhau, Touyrou-Phagaburu, Haritschelhar, Zalbide, Urkizu, Altzibar; ik. *Euskeraz* 2007, 3) segida eman diete aurreko lanei (J. Hiriart-Urruti, J.-B. Daranatz, J. Etxepare, P. Lafitte, P. Xarriton, A. Bengoetxea).

<sup>4</sup> Lehenik, hark idatziak zein diren eta zein ez zehaztea komeni da. Kantuen arloan badi-  
ra batzuk hari egotziak baina harenak ez direnak. Adib.: “Aita Sainduari” badakigu B. Etxeberri *Kataluxe* izengoitidunarena dela (ik. Lafitteren Artxiboa, 401, 016 Bertso-pape-  
rak, ik. bertso inprimatuak); Zaldubiri egotzia da (Adéma 1908:602-604; Adéma 1991: 93-  
95). Sarean Zaldubiren izenpena agertzen diren kantu batzuk ere ez dira harenak, adib.  
“Garaciko urtxoa”, Saldubi delako bertsolariarena (*Le Pays Basque-Eskual-herria* 34, 1899),  
edo astekari bereko “Muthil gazte eria” (148, 1901-08/03). Ordea, beste batzuk harenak izan  
daitezke: “Misionestak Hazparnen”, J. Hiriart-Urrutiren arabera, iturriarik aipatu gabe  
(1977:340-341), edo Zaldubiren bildumetan agertzen ez den “Oilo urre errulia” alegia labu-  
rra, XIX. mendeko kopiazaile baten arabera (Hiribarren?, ik. Lafitteren Artxiboa. 401-  
003-47).

<sup>5</sup> “Nik berrogoi eta hamar urthe huntan egin kanta eta neurthitz hoberenak laster argi-  
taratuko ditut Yainko onak (...)” (R. M. Azkueri, 1894/04/01). Ordea, 1896ko beste gutun  
batean diotsu: “Ene neurthitzak ez dire oraino agertu.” (R. M. Azkueri, 1896/04/22).  
*Eskualdunaren* arabera: “M. le chanoine Adéma prépare, si nous sommes bien informés, l’é-  
dition définitif de ses oeuvres. Ce sera un régal pour les amateurs de beau langage et de vraie  
poésie; on est assuré de sentir vibrer dans ces pages l’âme basque” (“Publications basques”,  
E 526, 1897/07/16). 1900-1901ean A. Dutey Harisperekin harremanetan zen, bere obrak  
argitartzeko asmoz (ik. 2. eranskina).



go ere, 1888an, azken hiru urteetan landu poema profanoen hirugarren idatzaldia kaligrafiatzen ari baitzen, menturaz argitaratuko zuelakoan (*ik. 1. eranskina*). Baina egilea hil ondoan argitara ziren, hark J.-B. Daranatz izenarekin, ustez egileak berak hautatu kantuen azken bertsoan (RIEV, 1908, II; 1909, III)<sup>6</sup>. 1908-1909ko bertso hori bera da A. Bengoetxeak ortografia modernora egokitua eta beste zenbait kanturekin osatua (Adéma 1991).

H. Duhauren azken edizioa bikoitza da: alde batetik, faksimila –kaligrafia ederreko eskuizkribua itxuraz Zaldubiren eskukoa da, argitaratzeko asmoz artoski prestatua–; eta, bestetik, egungo ortografiara egokitua. Zinez baliotsua: kantuen doinuez hornitua –alde hau dateke interesgarriena–, halaber Zaldubiren argitasun eta azalpen ugariz –adib. “Gauden gu eskualdun” kantuan, euskaldunen historia eta geografiari buruzkoek– bai eta paratzailearen ohar eta hiztegiak (Adéma 2008). Baina ez da Zaldubiren azken bertsoa, 1894-1897 bitartekoa baizik, aipatu kantua baino geroagokoa eta A. Abbadia hil baino lehenagokoa<sup>7</sup>. Geroago ere egin zion inausketa eta orraztaldi bat (adierazpide edo estilo aldetik)<sup>8</sup>. Bestenaz, aitortu behar da ez dagoela aldaketa funtsezkorik 1894-1897 eta 1908ko bertsoen artean. Hala bada, 1894-1897 bitarteko eskuizkribuaren edizioa ez izanik azkena, H. Duhaik hartutako irizpide nagusia (egungo euskara batura hurbiltzea) eztabaidagarria da, besteak beste neurkera ukitzen eta behartzen baitu (adib. *gan @ juan*, Adéma 2008:175, 177) eta, bestalde, edizioaren paratzaileak eginiko aldaketak ere ez dira beti zuzenak, transkripzio hutsez gainera. Beraz Zaldubiren kantu guztien edizio kritiko bat egiteko gelditzen da. Guri, artikulu honen xedeei begi-

<sup>6</sup> “Suivant la promesse du défunt lui-même, notre *Revue* aura la bonne fortune de publier toutes ses oeuvres basques” (Daranatz:1908:122); halaber E 1088, 1908/02/14). Ordea, guzti-guztiak ez ziren RIEV II eta III.ean argitaratu. Zenbait idazlan 15 egun hil aurretik eman omen zizkion Zaldubik RIEVi (Adéma, RIEV 1908, II:94): “Eskual-herriko eliza-bestak” hitz laxozkoa eta “Pilotariak” bertsoak. Hala ere, ezin da guztiz baztertu Daranatzek edo beste norbaitek azken eskualdia eman izana.

<sup>7</sup> H. Duhaik argitaratu eskuizkribuan, “Gauden gu eskualdun” kantuan, hauxe dio Zaldubik sarreran: “hunako [kantu] hauk 1893an egin nituen Laphurtarrez” (Adéma 2008:195). Hona “Eskualdunak” kantuaren hondar ahapaldia (Abbadiaren goresmenezkoa): “Antonio Abadia dugu / Gizon handi jakintsuna, /.../ Urthe guzietz saristatzen du / Hoberenik den hitz-duna / Nola zain irakusten daroku, / Gure Eskualduntasuna” (Adéma 2008:193). Baliteke 1894-1897ko eskuizkribu hau 1894ko gutunean Azkueri aipatu bertso bera izatea. “Bi urthe huntan lan handi batean ari naiz. Geografia edo luziazalde bat dut hasia lehengo denboretako eta oraiko eskuara izenak (...)” (R. M. Azkueri, 1896/04/22). 1894-1897ko eskuizkribuan (Adéma 2008:203-229) ageri den berbera ote?

<sup>8</sup> “Errepublikak” kantuan behintzat, 1894-1897ko eskuizkribuko estrofa franko kendu zituen RIEVek 1909ko argitalpenean, adib. Panamari, apezak soldado joateko legeari edo Santakruzi buruzkoak. Orraztaldien erakusburu bat ik. 1.3.1.

ra, 1908-1909koa (RIEV II, III) baino lehenagoko bertsioak eta aldaera desberdinak ezagutzea interesgarria gertatu zaigu Zaldubiren politika kantuen bilakaera ezagutzeko.

## 1. ERREPUBLIKAREN KONTRAKO KANTUAK

“Betirisants” (1874) eta “Errepublika” (1876) dira Zaldubiren politika kantu aipagarrienak, biak koplarien gudueta aurkeztuak. Geroagokoak dira “Chenelon jaun zenaturrari (...)” (1891) eta “Tribunaletako gurutzefiken khentzeaz” (1904). Zaldubiren lehenetarikoa, ordea, “Zumalakarregi”, buruzagi karlistaren laudoriotan J.-B. Elizanbururekin batera ondua.

1.1. Zaldubiren politika kantuen kokagune historiko-politiko kontuan hartu beharrekoa da. Aipa ditzagun gertaera politiko garrantzitsu batzuk. Estatuan: 1870ko gerla eta Frantziaren ererikoa; Pariseko Komuna (1871); Errepublika *xuria* (1873-1879); Errepublika moderatua (1879-1885); eskola legeen (1880-1886) eta beste batzuen bidezko laikotze edo sekularizazio prozesua. Euskal Herrian: xurien garaipena 1885ko hauteskundeetan; gorrien errebantxa *Réveil Basque* sortuz (1886-1894), Berdoly kontseilari jeneral (1886/08/01) eta Vignancour diputatu jalgiaraziz (1887/02); xurien erreakzioa *Eskualduna* sortuz (1887-1944), L. Etxeberri diputatu atereaz Mauleko hautes-barrutian (1889, 1891); Ralliement politika (1892); errepublikanoen garaitia Ipar Euskal Herri osoan (1893); Panamako eskandalua (1892) eta Dreyfuss auzia (1894tik aitzina), antisemitismoaren hazkundearekin.

Komeni da ere “Betirisants” eta “Errepublika” bere ingurune politiko-sozialean kokatzea. 1874an Zaldubik “Betirisants” aurkeztu zuenean Errepublika xuriaren aldia zen, baina 1875ean Errepublikaren Konstituzioa onetsia izan zen eta Errepublika tinko ezarria behin eta betiko. Ipar Euskal Herrian III. Errepublika bere erroak eginez joan zen emeki-emeki. Izan ere, Errepublikari jartze horretan Euskal Herria Frantziako beste eskualdeak baino gibelatuagoa zen, orok, gorri eta xuri, aitortzen zutenek. 1881ean nagusitu ziren errepublikanoak, Baionako I. eskualdean Plantié eta Maulekoan Théodore Pradet-Ballade jalgiaraziz.

Norgehiagoka horien lekuko dira Zaldubi eta Elizanbururen kantu edo bertso politikoak, baita euskarazko propaganda-liburuskak eta orotariko kazeta-artikuluak. Adib., III. Errepublikaren sortze-urteetakoa dateke (1870-1875) Elizanbururen “Biba Frantzia”, une lazgarri hura mintzagai duena; 1878-1879 urteetakoa “Lehen eta orai”, eta bien artekoak Zaldubiren aipatu bi kantuak. 1874-1879 aldian politikazko bertsoak ez ezik artikulua ugari argitaratu

zituzten alde batekoek eta bestekoek kazetetan, frantsesez batez ere baina baita euskaraz, politikaz, bertsolarien guduez, euskal gai eta abarrez. Errepublikarrek, batez ere *Avenir des Pyrénées et des Landes*. 1876ko bozetan Baionako *Semaine* kazeta erregetiarrak ere euskaraz argitara zituen zenbait artikulua erlijioaren eta hegoaldeko karlisten alde eta iraultzaren aurka, Arnaud Abbadié monarkikoa (Antonio Abbadiaren anaia) aurkeztuz Plantié errepublikanoaren eta Labat bonapartistaren kontra.

1876 eta 1877ko bozetan ito zen erregetiarren Errepublika baina Euskal Herrian errepublikarren kontrakoak nagusitu ziren: Maulen eta Baionan Michel Renaud garaitu zuten. Hautagai honen alde eta kontra agertu ziren zenbait liburuska euskaraz: *Eskualduner* (Pau: Vignancour, 1876) eta *Nor den Michel Renaud* (Baiona: Lespès ahizpak, 1877). Komeni da ohartaraztea Zaldubiren politika kantuak ez direla espreski erregetiarren aldekoak, nahiz haien aldeko joeratzat bat soma daitekeen.

1.2. 1874an Sarako Festetan A. Abadiak antolatu koplarien guduetan, Zaldubik, “Piarres Uxalegi” ezizenpean, “Betirisants” kantua aurkeztu zuen, Errepublikaren kontrako satira. Bigarren garait-saria irabazi zuen<sup>9</sup>. Baina Zaldubiren bertsoak ez zituzten kantatu ez saririk eman “orduko gobernamentuaren eta framazonen beldurrez”, egilearen arabera (Adéma 2008:151).

1.2.1. Sarako Festetan eta ondotik kantatua izan zedin agertarazi zuen “Betirisants”; ezizenez, zer gerta ere, besteak beste apaiza zelako. Jakina denez, A. Abbadiaren festetan neurtizlarien sariak mailaz goragokoak ziren bertsolari eta gainerako lehiaketetakoak baino. Frantzian III. Errepublika zegoen indarrean, nahiz erregetiarrak nagusi ziren. Giroaren politizazioaz gain, egilearen izakera ere kontuan hartu behar da. Zaldubiren ausartziak gorrien erreakzioa ekarriko zuen; hala ere, handik bi urtera berriz ihardetsi Zaldubik, oraingoan ziri-bertso ugariagorekin.

Bere “Betirisants” ez argitasun ugari eta zehatzak eman zizkion egileak L. Etxeberriri, xurien buruzagi politiko eta *Eskualdunaren* jabeari, honek Zaldubiri galde eginik bere kantuak: Sarako Jokoetarako 500 ale argitaratu, eta, harrigarriki, berehala desagertu zirela; kantu horrek asko irabazten duela kantatua izanik, doinuaren bidez buruan erraz hartzekoa dela eta ulergarria; musikagile onek notak jarri dizkiotela (ez dakigu 1874rako ala geroztik; pen-

<sup>9</sup> 1874ko irailaren 14an ospatzekoa zen poesia lehiaketa (*Courrier de Bayonne* 3329, 1874/09/11). Baionako *Semaine* eta *Courrier*ek ez zuten eman gertatuaren berririk. 1888an Zaldubi ez zen oso ongi oroitzen data zehatzaz, “Betirisants” 1875ean agertu zuela uste baitzuen (ik. L. Etxeberriri gutuna, 1. eranskina), halaber 1894-1897ko eskuizkribuan (Adéma 2008:151, sarrera-oharra). P. Xarrittonek ere 1875ko data ematen du (1985:51;1992:60) baina ez da zuzena. 1894-1897ko eskuizkribuan Zaldubik dio ere lehen garait-saria irabazi zutela (Adéma 2008: ibid.), oker hori ere.

tsatzekoa da Zaldubik “Betirisants” kantu zaharraren antzeko doinua jarriko ziola Saran) baina lana zaila kausitu dutela, bere haurtzaroan entzuten zuen “Betirisants” haren doinua ia ahaztua eta koplak galduta egonik tamalez; hala ere, finegia dela herri-kanta bilakatzeko; bere kantu profanoen 3. idatzaldia lantzen ari dela eta “Betirisants” duela bere kantu landuena eta maiteena (Ik. 1. eranskina)<sup>10</sup>. Handik laster L. Etxeberrik bere kazetan argitaratu zuen (E 46, 1888/04/06).

“Betirisants”ek izenburuaren ondoan lelo bat zuen 1774az geroztiko edizio batzuetan: “Lehen ezeria, orai beltzeria” (E 46, 1888/04/06), edo “Lehen miseria, orai beltzeria” (1894-1897ko eskuizk.). Hau da, “Betirisants” beldur-garria, gosetearen pertsonifikazio irrigarria, tradiziozkoa<sup>11</sup>, Elizanbururekin batera 1846an ondu kantuan ageri dena (Adéma 1991:194-201), Zaldubik Errepublikaren pertsonifikazio satiriko bihurtu zuen, miseria eta orotariko hondamendiarekin identifikatuz (1870ko erorikoa, Komuna, eta erlijioaren, moralaren, ekonomiaren eta gizartearen hondamena).

1.2.2. 1874az geroztik, “Betirisants”en testua etengabe orraztuz joan zen Zaldubi, eta bere interpretazioa zehaztuz eta espreski adieraziz. Hainbat bertso desberdin argitaratu zituen. Guk 1909 arteko 6 eta 1894-1897ko eskuiz-

<sup>10</sup> 1899an, *Art poétique basquen* berriz “Betirisants”en doinuaren garrantzia azpimarratu zuen Zaldubik, bere haurtzaroan arrakastatsua zen kantu zaharraren arrastorik aurkitu ez izana deitoratuz. Esaten du ere 1825 inguruko ezeriak iradokia dela. “Voici, avec neuf vers monorimes à chaque couplet, et en vers inégaux, un genre très étudié, imitant une chanson inspirée par une disette qui sévit sur le pays vers 1825, disette personnifiée par le poète sous le nom de Betiri Sants. Nous regrettons de ne plus pouvoir trouver nulle part le moindre fragment écrit de ce chant qui avait grande vogue dans nos jeunes années: Betiri-Santsez aspaldi dik / Ez zela deus berri handirik: / Zioten ehortzi zutela bizirik. / Lurpetik ilkirik; / -Ez duk ez irrik;- / Munduz mundu herratua ibilirik; / Oraikotik ditik Bettirik, / Indarrak hartu, guk utzirik; / Hor zia gok kargu handitan jarririk (bis). // Ce couplet ne serait pas régulier; il ne répondrait pas aux exigences de la mélodie sur laquelle il doit être chantée, si la rime n’en était unique, et si les quantités syllabiques n’étaient pas exactement ce qu’elles sont là.” (E 636, 1899/08/25; Altzibar 1998:96).

1825 ala 1846ko goseteak iradoki zien Zaldubi eta Elizanbururi 1946ko kantua? “Ene loreac” eskuizkribuan izenburuaren ondoan hau irakurtzen dugu: “Betiri Sants. Erran nahi baita Mila zortzi ehun eta berrogoi eta seiean herri hauetan zen miseria.” (Adéma 1991:195). Xarrittonen arabera ere 1946koa da (Xarritton 1985:48; Adéma 2008:32).

<sup>11</sup> Betirisants gose eta miseriaren pertsonifikazioari buruzko bertsoak baziren Zaldubi eta Elizanbururen 1946ko horiek baino askoz lehenago. Adib., 1725eko ezeria aipatzen dutenak (“Sur la misère”, Lafitte Artxiboa, 401, 002-17; 10 estrofa). XIX. mendean baziren Katxo hazpandarrarenak (Xarritton 1992:60). XX. mendean ere jarraitu zuten; ik., adib. M. Etxamendiren “Gizon beharra eta Petiri Sants” (E 1200, 1910/04/08) edo Mixel Bidarraitarraren “Betirisants” (E 1546, 1916/12/15). Gai honetaz ik. Kaltzakorta 2004: 187-231.

kribukoa ezagutzen ditugu: 1874an Sarako Festetara aurkeztua (1874 Sara), Baionan A. Lamoignonè inprimatzailea baitan argitaraturiko bertso-papera (Lamoignonè)<sup>12</sup>, *Eskualdunako* 1888 eta 1893koak (E 1888, E 1893), 1894-1897ko eskuizkribukoa (1894-1897 eskuizk.) eta RIEV III.ekoa (Adéma 1909)<sup>13</sup>. Parentesi artean dauden izenez adieraziko ditugu bertsiio desberdin horiek; dagozkien estrofa, erromatar zenbakiz. Bertsiio desberdinen arteko aldeak aztertuta, hona ondorio batzuk:

1. 1874ko Sarakoa eta Lamoignonè baitakoa bertsiio bera dateke, xehetasunak gorabehera<sup>14</sup>. Lehen bertsiio hau gainerakoekin konparatuz hauek dira aldeak:

a. 1874 Sarakoak eta Lamoignonè baitakoak zortzina estrofa dituzte; gero-goko bertsiioek, hamarna.

b. 1874ko Sarakoaz eta Lamoignonè baitakoaz gainerako bertsiioetan azken estrofa da berria gaiaren aldetik: eskola laikoak. Hain zuzen, Jainko gabetasunak jendetasun eza dakarrela sarkasmoz esanez bukatzen dira: “Ez galde jendetasunik abreeri” (Adéma 1909, X). Azken estrofa hori eskola legeen (1880-1886) ondotik egina da, Zaldubik 1888an L. Etxeberriri espreski diotsonez (*1. eranskina*).

<sup>12</sup> Bigarren garhait-saria / untza-urhea / erraman (sic) duen cantua Sempertarrac eguina. / Betiri-Sanx”, in *1874. Neurtiztarien* (sic) *gudua. Saraco Bestan* (Baiona: A. Lamoignonè). *Bertso-paparak. Bonaparteren fondoak. Newberry Library (Chicago). I, II, III. A-5.* Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan ikusgai.

<sup>13</sup> Hona izenburuak eta argitalpenak: “Betiri-Sants” (1874; Urkizu:1997:269-270; originalean “Betiri-Sanx?”); “Bettirisants. Lehen ezeria, orai beltzeria” (E 46, 1888/04/06); “Bettirisants” (E 320, 1893/07/14); “Bettirisants. Lehen miseria, orai beltzeria” (1894-1897ko eskuizk. In Adéma 2008); “Bettirisants” (E 606, 1899/01/27); “Betirisants” (Adéma 1909:227-229). Hurren urtean ere argitaratu zen: “Betirisants” (E 1172, 1909/09/24). Azken hau RIEV 1909ko bera da, hitz bat izan ezik: Oi! zenbat dabilan herrestan (Adéma 1909:228) ® Oi! zenbat den hilik herrestan (E 1909). 1899ko *Art poétique basquen* lehen estrofaren beste bertsiio bat ageri da, 1894-1897 eta 1908koen hurrekoa, izan ere haien bien artean argitaratua baita (Altzibar 1998:96).

<sup>14</sup> Hona bien arteko alde ñimiñoak: Oraico mende guisan bere du ohore (1874 Sara (ap Urkizu), II) ® (...) harc du ohore (Lamoign., II); VI Lurpeta ilhumbetan (1874 Sara (ap Urkizu), VI) ® VI Lurp-eta ilhumbetan (Lamoign., VI); Adinik gabe zer nahi haziak (1874 Sara (ap Urkizu), VII; hutsa ote azken hitza?) ® (...) cer nahi ikhasiac (Lamoign., VII). Batean eta bestean ageri dira zenbait huts: Orai cen podore! (II) ® (honako hau behar du) Orai cer podore. Hauek ere hutsak izan daitezke (?) edo bederen anomaliak (bertsiio bera delako froga sendotzen dute, nolana ere): Heien secretua, / zin eta patuac (VI); Betiri Sanxen haur gucia, (VII). Normalagoak dira *secretuac* eta *guciac*.

c. Edukiaren aldetik badira alde xumeago batzuk: 1874ko Sarako bertsioren arabera, Errepublikak bortxa darabil batez ere; geroztikako bertsioren arabera, bortxaz gainera (eta beraz honetan ere libertatearen printzipioarekin kontraesanean: Adéma 1909, V) beste jokabide batzuk ere bai: amarrua eta lausengua (Adéma 1909, III). 1874ko Sarako bertsiotan Betirisants “Jainkorik ez dutenen enperadore” da (II); geroztikoetan, “zorri hilik piztuen enperadore” (hots, aberats berrien). 1874ko Sarakoan framazonak jainkogabeen gidari dira (“Jainkorik ez nahiz munduak / hek ditu gidari hartuak”, 1874 Sara, VI); geroztiko bertsiotan gobernamentuaz jabetuak dira framazonak, eta nahasmentuak, kalteak eta gastuak erakartzen dituzte (Adéma 1909, VII). 1874ko Sarako bertsiotan errepublikanoak edo “Betiri Santsen haur guziak / Ttikitik libro haziak”, dira “bizioz gaindiak” (VII); geroztikako bertsiotan zehatzago dibertsifikatuta ageri dira: itsu-itsuan darraizkion gaixto, xoro, asto, xanfarin, kaskarin, edale, mandril eta lapurrak, halako boz-emaileak behar omen baititu Errepublikak (Adéma 1909, IX).

d. Forma aldetik (hitzen hautua, etab.) 1874ko Sarakoa nahiko aldatua ageri da ondoko bertsiotik gero eta landuagoetan: 1888koa 1874ko Sarakotik franko desberdina da. 1888ko horretan hasten dira, hain zuzen, oinarritzko aldaketak; gainerako bertsiotik antzekoak dira, aldaera xumeak baizik ez dituzte. Azaleko aldaketa horiek guztiak izan arren, beti neurkerak egonkortasuna ematen dio kantuari: estrofa molde berezia du, 9 puntukoa, 9 eta 12 silabako bertsolerroak aldizkatzen direla (*ik. 10. oharra*).

2. Funtsean gaia, egitura eta ideia nagusiak ere bertsuak dira bertsiotietan, aipatu aldaketa eta aldaerak gorabehera: borrokan ari dira, alde batetik, Makurraren edo Gaizkiaren aldekoak, hots, Betirisants edo Errepublika, errepublikanoak eta framazonak, eta bestetik, Zuzenaren edo Ongiaren aldekoak, hots, Jainko legearen edo erlijioaren aldekoak. Zaldubik politika erlijioaren ikuspegitik begiratuta epaitzen du. Jainko legerik gabe (hau da, katiximako manuak gabe), ez dago jokabide moralik ez erlijio zuzenik: “bethi haizu dela egin daitekena” (1874 Sara, IV), “indarraren meneko dela zuzena” eta “Nor baita txarrena, / Hark dik hark hobena” (Adéma 1909, IV; antzera E 1888, E 1893, 1894-1897ko eskuizk.). “Betirisantstarren Jainkoa / da mundu huntako gozoa, / Erlixione libro eta largoa, / (...)” (1774 Sara, V; “Erlisione libro eta lazoa, / aphez gabekoa”, Adéma 1909, VI). Bertsiotietan agertzen da “bizitze gisa” batzuen gaitzespena ere, horietan Betirisants (hots, errepublikanoak) nagusi delako (Adéma 1909, VIII); baita “Errepublika” kantuan ere, “lanbide hitskoa” deituz (“Errepublika”, Adéma 1909, XVIII). Kadet Astoputz pertsonifikazioak irudikatzen dituen erriets-errietsa eta funtzionarioei buruz mintzo da koblaria, duda gabe.

Zuzena eta Makurraren arteko dikotomia, Zaldubiren ia kantu guztietan agertzen dena, izatez euskal idazle kristauen pentsamoldearen ezaugarri nagu-

sia da, XIX. mendean behintzat. Honela adierazten du Zaldubik 1882ko “Mende jende mendre”n: “Zuzen’ eta makhurra, / elgarri gudian, / Aspaldi etsai handi / zabiltzan munduan. / Jendea zuzenaren / alde zen orduan. / Indar gaitza du orai / makhurrak eskuan.” (Adéma 1991:150, VI). Dikotomia hori baliabide erretoriko bakun, borobil eta indartsu batzuen bidez indartzen du Zaldubik: “lehen eta orain” toposa, antitesia, pertsonifikazioa (Betirisants), hiperbolea edo esajerazioa adierazpideetan, oihu eta galdera erretorikoak, hitanoa etab.

1.2.3. 1888an L. Etxeberriri igorri gutun batean Betirisantsen interpreta-zioa zehazten du aldi edo egoerari egokituz, baita hedatuz (juduak barne hartuta). Diotso: “Bettirisants” framazonen deskripzioa da; Bettiri-Sants zorri hil biztua da, lurretik aterea, kosmopolita, gizateria iraultzaile eta biziotsuak sustatua, aberats puxant bilakatua, haren aitzinean gur eta makur ari direla jende ero koskak. Bettirisants Gambetta da, bai eta Judua, Drumontek deskribatu bezala...edo berdin Errepublika.

1894-1897ko eskuizkribuan osagai berri bat gehitzen du. Bettirisants erlijioaren eta euskaldunen etsai dela dio sarrera-oharrear: “Kantu hautan aiphu direnak dire: Framazon (Eskuaraz Harginbeltz), Judu eta heien khideko, gure Erlisioneari aihar diren guziak; Eskualduneri beren zuzen eta libertate zahar-rak ebatsi ondoan lege jainkozkorik gabe, manatu nahi darokutenak.” (Adéma 2008:151).

Framazon edo masoiei buruz esan behar da Zaldubi lehenetarikoa dela euskal idazleetan, lehena ez bada, framazonen aurka ihardukitzen; Intxauspe (1883) eta M. Elizanburu (Fr. Innocentius) (1890a, 1890b; 1988) baino lehena-gokoa behintzat. Baita, haiek aipatzeko, *harginbeltz* hitza erabiltzen<sup>15</sup>. Zaldubi kezkatua zegoen framazonen inguruko kontuez; L. Etxeberriri adierazten dio haiek zer diren euskaldunei hitz lauz azaltzeko asmo aspaldikoa bete nahi lukeela; bestetik, galdetzen dio Etxeberriri ea Paueko framazon logiaren baten zelatapean egon ote zitekeen. Lehena ez zuen bete, agian M. Elizanburu lan berean ari zela jakinik. Bigarrenari buruz, uste dugu Euskal Herrian berean ere bazirela masoiak, edo antolatzen ari.

<sup>15</sup> Etimologiaz: *hargin* ‘maçon’ + *beltz*, beltza baita deabruaren kolorea, *franc* ‘librea’ epiteto esanahi positibodunaren ordain. Baina *beltz* hitzak apaizak izendatzeko ere balio zuen. Berdolyk 1893an irabazi ondoan, Maule inguruetan “Fuera beltzak!”, “Biba Errepublika!” oihukatu omen zuten zenbaitek. Zaldubik bere burua *artzain beltz* izendatzen zuen (*beltz*, konnotazio positiboduna vs *beltz*, negatiboduna). Framazoneria, *Le Robet quotidienn* arabera, da: “Bilkura esoteriko eta inizatikoa, izaera filosofikoduna eta progresista, egiaren bilatzeari eta gizakiaren eta gizartearen hobekuntzari emana” (1996).

1.2.4. Beste “Betirisants” kantu baten bi estrofa eskuz izkribatuak bildu zituen L. L. Bonapartek. Ondoan, kopiazaileak ohartarazten du Kinkouna d’Ustaritz delako batek eginikoen txatal bat dela<sup>16</sup>. Bertsoilea Betiri Santsi zuzentzen zaio, adiskiderik ez duela eta joateko esanez (I); Larresoron ere jendeak atakutzen dituela (II). Ez dakigu nori edo zeri buruz ari den, ez noizkoa den; politikari gorriren bati buruz ari dela dirudi.

Katalogatzaileen arabera Kinkuna hori Zaldubi izan daiteke, eta, aipatu zatia, haren Betirisantsen atalen bat (Gonzalez Etxegarai-Arana Martija 1989:114. zenbakia). Argitaratzaile taldearen arabera ere Kinkouna d’Ustaritz hori Grazian Adémaren izengoitia da (Pagola et al. 1999:239). Ordea, batzuek eta besteek diotenak ez du egia itxurarik: ez dira Zaldubiren eskukoak, hizkuntza aldetik ez dirudite harenak eta estrofa mota ere (9/7) ez dateke Zaldubik erabilia, ez haren neurkera tratatua aipatua. Orain arteko Zaldubiren edizioetan ez dira bertsoak ageri. Kinkuna delako hori Dominique Desquerre-ren izengoitia da, eta hemen aipu ditugun bi estrofa horiek, haren bertso-sail batekoak. Ik. Haritschelhar 1988. Dena dela, Zaldubiren Betirisants pertsonifikazio politikoak bere arrastoa utzi zuelako seinale izan daiteke.

1.2.5. 1874ko Sarako Koplarien Guduan lehen saria hegoaldeko “Biscaitarra” ezizenez sinatzen zuenak ukan zuen “Jaungoicua ta errija” olerkiarekin (Urkizu 1997:268-269). Kantua karlismoaren aldekoa eta liberalen kontrakoa da; hasierako eta amaierako bertsoak armak hartzera deitzen du. Orduan Espainian I. Errepublika zegoen (1873 otsaila-1874 abendua) eta gerrate karlista puri-purian (1872-1876). Hona lehen eta azken bertsoa, eta azken aurrekoa, A. Lemaignère baitan argitaratu bertso-paperetik hartuta (“Jaungoicua ta errija”):

“Ea bada, mutillac, jagui gogorturic, / Fusillac baionetac artu berbertaric, / Jaungoicua ta Marija doguz gure aldetic, / Europa kontra izanic ez dogu beldurric.” (I, XIX; bertso-paperak *jaqui* dio, oker).

<sup>16</sup> Hona izenburu gabeko bertso hauek: “Betiri Sanx, ez diat uste baduyan aichkiderik, / Ez baitu nihondik aditzen hire laudoriorik. / Etchetan beltzuriak dituk, ez duk begitharterik. / Habil bethiko! ez-tukegu ez damu, ez kalterik. (I). “Betiri Sanx, aditu-tiat Larresoron berriak, / Han ere direla ezagun hire fanfarrerriak, / Hainitz gogorki dituyala atakutzen jendiak; / Semenaria ez balitz jo hintzazke erdiak.”. Ondoan esaten da: *Extrait de la chanson de Betiri Sanx, par Kinkouna d’Ustaritz.* (Pagola et al. 1999:239). Jatorrizkoa: Fondo errebatuean gela. K. Mitxelena Kulturunean, Donostian (Sign.: 091 Bon doc-114; 2 C 9 mikro-filma).



“Españaco coroya buruan jantzita / Don Carlos izango da Españolen aita. / Esan bada gogotic bildurrari ichita: / BIZI BEDI DON CARLOS TA ANDRE MARGARITA” (XVIII).

Egileari, MAE delakoari, ez zioten kantatzen utzi, ez argitaratzen<sup>17</sup>. Baina bertso-paper gisa argitaratu zuten (Baiona: A. Lamaignère, data gabe). Gainera, koplarien gudura aurkeztu aurretik ere Espainian argitaratua izan zen inprimatzailearen izenik gabe<sup>18</sup>. Bestenaz, badirudi auzi horretan ez zeto-zela bat Duvoisin eta Intxauspe (Urkizu 1997:29). A. Abbadia karlisten aldekoa zen, bai eta epaimahaikoak ere, dudarik gabe, halako kantu bat saritzeko eta argitaratzeko. Aita Aranari idatzi zion esanez oso pozik zegoela saria hegoaldera joan zelako lehen aldiz, eta alde onarentzat emana izan zelako (1874-IX-29, BnF 21746).

1874an Sarako garaileek nolako kantuak aurkeztu zituzten ikusita, Martin Guilbeau poeta eta errepublikano buruzagiak artikulua bat argitaratu zuen *Avenir de Bayonne* kazetan, epaimahaiaren erabakiaren, epaimahaiaren beraren eta Lore Jokoen kontra (Guilbeau 1874)<sup>19</sup>. Bi urte aitzinago (1872) hasia zen Guilbeau protesta egiten; ondorengo urteetan xurien eta gorrien arteko haustura sakondu zen eta 1893an, garaitiaren ondotik errepublikarrek “Association basque des Jeux Floraux”, Lapurdin “Association Labourdine” deitua sortu zuten, haren idazkari eta arima zen Guilbeuren inguruko jende-ek osatua. Erakunde lapurtarrak Lore Jokoa antolatuta zituen zenbait urtez: 1893an Uztaritzen, 1894an Hazparnen, 1896an Kanbon.

<sup>17</sup> MAE hori Felipe Larragan Zabala da. Aita Jose Ignacio Arana jesuitak bidali zion Intxausperi kanta irabazlea. A. Abadiak galdetu zion J.I. Aranari nor zen egilea, esanez harentzat atxikitzen zuela hark lehiaketan irabazitako makila (1874/09/07). Garaitia eraman zuten kanta inprimatuaren ale bat ere igorri zion (1874/08/08). J.I. Aranak galdetzen du Durango aldean eta jakiten du irabazleak jasoa zuela makila (1874/12/16). Gutunak ik. BnF 21746.2-287tik 290ra. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan kontsultagai.

Felipe Larragan 1837/08/23an jaio zen Durangon. Felipe baino zerbait ezagunagoa da haren anaia, Domingo Eustoquio Larragan Zabala, 1834/11/02an jaioa, Durangoko Santa Maria elizako parrokoa eta arzipretea. Neurtizlaria izan zen, ezizenez idatzi ohi zuena. Haren gabon-kantak bildu zituen Uriartek (*Poesía bascongada. Dialecto vizcaíno*. In Kortazar, J.—Billelabeitia, M., 1987: 151-154). Xehetasun gehiagotarako, ik. Arginzoniz, A. M., *Euskal Erria*, 1890, XXIII, 176-179. Eskerrak eman behar dizkiogu Josune Olabarrieta Euskaltzaindiko bibliotekariari, zerezalada batzuenengatik.

<sup>18</sup> Espainian argitaratuak 22 estrofa zituela diotso A. Abadiak J.I. Aranari, lehena eta azkena zein ziren esanez (1874/09/29.BnF 21746. Euskaltzaindian kontsultagai). Argitalpen horretan ez da agertzen lehen eta azken bertsoa, armetara deitzen duena. Beraz hasiera-bukaera bortitz hori gehitu zion egileak Sarako Festetan aurkezterakoan.

<sup>19</sup> G\*\*\*, “Fête de Sare. Concours de Poésie basque”, *L’Avenir de Bayonne*, 1874-IX-19.

1874ko artikuluan Guilbeauk dio: Abbadiaren koplarien guduak farregari gelditu eta jendeak bazter utzi dituela. Abbadiaren xedea euskal literatura jasotzea zela eta hasierako urteetan poesia oso onak aurkezten zirela, epaimahaiak urtero ageriki sarituen kontu ematen zuela, baina geroztik ilunpetako epaimahai anonimo bat dagoela, interpelazioei erantzunik ere ematen ez diena, alderdikari izateaz salatua denez gero anonimotasunean erosoago dagoena; horrek gibelatu eta hoztu dituela poetak. Urte hartan (1874) akademia *baskofoboak* “Biskaitar” delako baten bizkaitar kantu bat saritzeak denen haserrea piztu duela; Sarako auzapeza zuzen jokatu dela saridunari ohore publikoak eta kantatzea ukatuz; poesia saritua hala-holako prosa errimaduna dela, gaiez ez ezik azal, mami eta balio literarioz deus balio ez duena.

Guilbeauk dio ere: Zertako nahasi karlismoa herriko bestekin? Nahiago dugu hemengo bakea eta lasaitasuna armen hotsa eta anai arteko odol-isurtzea baino (Guilbeauk III. Errepublikaren kanpo-politika defenditzen zuen: bakea eta akordioa Espainiako legeekin, arrazoi gehiagor han liberalak nagusi izanik). Poesia saritua karlisten aldeko gerra-oihu basati bat da, eta hori *Jainkotasunari* eta *aberriari* irain egitea da<sup>20</sup>. Epaimahai lapurtarrak ulertu ote du gerra-kantu hori? Guk beste era batera ulertzen baititugu hor ageri diren hitz anitz; “Bizkaitarra” ez dabil zuzen liberal espainolez gaizki esaka arituz: liberala gaiztoa dela, malmutza, madarikatua, infernutarra, faltsua, eta, Karlos, aldiz, *giza gaizua*. Berbeta modu hori ez da poesiarena, kabaretekoaren itxura du. Pasarte batzuk ere ahogozo eskasekoak dira: Ama Birjinari *Dontzella* deitzeak (Guilbeauren arabera, horrek beste esanahi bat du, arruntkeriazkoa) errespetuari huts egiten dio (testu sarituak dio: “Ukatu da Jesusen Jaungoicotasuna, / Ta bardin Marijaren Dontzellatasuna”, XI). Guilbeauk dio kantu sarituak ez duela inolako baliorik, ilunpean epaitzen duen epaimahaia-arentzat gogoko izatea besterik. Aspalditik hona sarituak diren poesiei eta saritu ez dituztenei ohartuz gero, esan daitekeela epaimahaian epaile batek agintzen duela.

<sup>20</sup> Donibandar politikariaren ikuspegitik, gainera, muga aldeko herrietan karlistak sartzea istilu-bide eta arriskugarri zen. Baina hark berak ere, gazteago zela, Inperioaren urteetan, Zumalakarregiren omenez bertsoak ondu zituen (“Bihotz karlista baten auhenak”, 1858n Urruñan aurkeztua, Urkizu 1997:127). Baita karlistak eta gudua goraiatu. Hona zer zioen Guilbeauk Zumalakarregiri buruz, agian Xahoren *Voyage en Navarre* liburuaren eraginez: “Hire anaiek haute aguro ahantzi, / Hire galtzeak ditik arras iziarazi, / Ni lapurtarra, bihotzez hirea, / Ez haut ez ahantziren, menditar umea.”, III. “Biba Karlos erranez zohazte gudurat, / Espainol fierraren buruan jotzerat, / Galde zatzue zuen frankeziak (‘foruak’) / Arma xuritan pasa bertzenaz guziak”, VI. “Ager hadi gerlara hanitz famatua, / Gorthetan ohorezki bethi aiphatua, / Begira ezak hire omen handia, / Sutan emanez, sutan espainol hazia.”, X. Beraz Guilbeauren kantu honek ere gerlara deitzen du (ez liberalen baina espainolen kontra) eta Bizkaitarrarena bezain basatia da. Argi dago Guilbeau ere ideiez aldatu zela.

Bigarren sarituari buruz, “Betiri-Sanz” alegia, sasoz kanpo dagoela dio Guilbeauk; gai hori egile senperrak baino hobeki eta espiritualkiago landu duela beste batek; gaia ezagunegia dela, eta gainera, huts bat egin duela “framazon” hitza *hargin beltz* itzultzean, egileak beste zerbait esan nahiko zukeela, beraz hainbat gaixto harentzat!, berak (Guilbeauk) itzuli besterik ez duela egiten. Azkenik, M. L. delako lagun bati esker ezagutzen duela azken sariketa horretara aurkeztutako poesia bat, aurki publikatuko duena, eta poesia hura hobeia zela saritzeko, balio literarioren bat baduelako.

1.3. 1876an Zaldubik, “Piarres Uxaleguy” ezizenpean, “Biba Republika” aurkeztu zuen Sarako Euskal Festan, neurtizlarien gudu. Hamar bat lehiakidek parte hartu eta epaileen irudiko harenak baizik ez merezi garait-saria, baina saririk gabe gelditu (*Courrier de Bayonne*, 1876/09/13). Duvoisinin arabera, lehiaketan politika bazterrean utzi nahi zuen Abbadiak (Urkizu 1997:30). Zaldubik berak dioenez, “orduko gobernamentuaren lotsaz ez ziren ez inprimatuak ez kantatuak izan eta ez zioten garhait-saririk ere eman. Geroztik, gerthakari eta berriaro arauka emandatuak (sic) izan dira asko ahopaldi berriz.” (1894-1897 eskuizk., in Adéma 2008:157).

1.3.1. Beraz idatzaldi zenbait, eta ia beste hainbat argitaraldi izan zituzten, hauexek: “Biba Republika” 1876an Saran aurkeztua (Urkizu 1997:276-277); “Errépublica!!!”, inprimategiaren lekua eta data gabe bertso-paper moduan argitaratua, agian A. Lamaignère edo Lasserre baitan; “Errepublikari xistu”, *Eskualdunan* argitaratua (E 23, 1887/10/28); “Errepublika”, *Eskualdunan* 1888an (E 34, 1888/01/13), Gernikhaitz sinatua; “Frantziako hirugarren aldiko Errepublika”, 1894-1897ko eskuizkribukoa (Adéma 2008:157-180); “Errepublika”, RIEVen 1909an (Adéma 1909: 229-233). Honela izendatuko ditugu, hurrenez hurren: 1876, Errépublica!!!, E 1887, E 1888, 1894-1897 eskuizk., 1909.

Hauek dira batzuen eta besteen ezaugarriak eta haien arteko alde nagusiak:

a. Lehen idatzaldiak, 1876ko Sarakoak, 19 estrofa ditu, errepika batekin (“Dugun errepika / Bib’Errepublika” (bis), eta bere doinuarekin (“Ai, ai, ai, mutila, xapela gorria”, Urkizu 1997:443)<sup>21</sup>.

<sup>21</sup> Hona edukia handi-handika: Errepublikan denek nagusi edo errege nahi, I, III; izatez “Pariseko xanfarinak baititugu nagusi”, V. Karguak bozen bidez hautatzea gaitzesten da: “Podore ta karguak, lehen oi zer gauzak! / Orain darrak ditik ziri baten bozak!”, VII. Zernahi haizu indartsuak: “ebasle indartsua ez dela ohoina!”, X. Errepublikak ez du hobetu jende xehearen egoera, VIII. Libertaterik ez, edo bertzek bai, nik ez, XI. Errepublikarekin zergak beti berdin, XIII. Orain oro soldadu, XIV. Orain gu legegile, XV. Berdintasunak dakar txikiak handiari, sehiak nagusiari manatzea, XVI-XVII. Egunen batez jende astoak izanen frantsesen nagusi, XIX.

b. Bigarren (?) idatzaldia (Errépublica!!!) data eta inprimategiaren tokia gabe argitaraturiko bertso-papera da. Honek ere 19 estrofa ditu; doinurik ez da aipatzen eta errepika jakina du (Ai, ai, ai mutillac, + azken neurritza). Estrofa hegoaldean ohi bezala emanak ditu, lauko txikian. Idatzaldi honek zenbait gauza berri dakartza, lehengoarekin alderatuz: “Liberté, Iguaité, / eta Fraternité / Ai hirur gezur hoiec / Eguiac balizte!” aipu edo esaera<sup>22</sup>; Jainko gabeak legegile, XV; autoritatea Jainkoagandik dator, XVI; euskaldunek arrazoi gehiago dute antierrepublikanoak izateko (XIII-XIX)<sup>23</sup>. Hain garrantzitsuak ez diren beste zer batzuk ere badakartza<sup>24</sup>. Bigarren bertso hau ondo-koaren oso antzekoa da; desberdintasun ñimiño batzuk daude bien artean<sup>25</sup>.

c. Hirugarren (?) idatzaldia ere (E 1887) 19 estrofakoa eta errepikan kantatzekoa da *Ai, ai, ai, chapelá* [xapela] *gorria* airearekin (txapel gorria karlistena zen). *Eskualduna* kazeta sortu berriak atsegin handiz argitaratzen du lehen orrialde eta zerrendan, “Errepublikari xistu!” izenburu berria eman eta kantua zabaltzeko deia eginez; izan ere, Zaldubiren ziri eta pikoak kazetaren estilo makilakariari egokitzen zitzaizkien<sup>26</sup>.

<sup>22</sup> Kantuak baditu beste aldaera batzuk: “*Liberté, égalité eta fraternité* / hirur gezur horiek egiak balire” (E 1887), edo “(...) Hirur gezur horiek egiak balité” (E 1888). Aipu edo zitazio hau oso erabilia da. Zaldubi baino lehenagokoa eta beraz hark jendearen ahotik-edo hartua ote da, ala hark asmatua eta haren ondotik hedatua? Hala balitz, herriak Zaldubiren aipua bere egin duke, adierazi nahiz Errepublikak ez dituela hiru balio horiek osorik ekarri.

<sup>23</sup> “Escualduneri eiki / Ez zaicuc itsusi / Frantchiman chanfarin hoic [et anfarin dio testuak] / Baitigu nagusi / Ai, ai, ai mutillac, / Baititugu nausi”, XIII; “Eta gu, Escualdunac, / Nor bai eta nor ez, / Manatuak garela / Holaco gizonex / Ai, ai, ai, mutillac / Holaco gizonex!”, XVII; “Escualduna Frantcian cerbeit cen oraino / Frantcia handia eta / Gora zagoeno / Ai, ai, ai mutillac, / Gora zagoeno”, XVIII. “Frances egotecotzat / Escualdunac hau du: / Ez laitekela behar / Sobera aphaldu. / Ai, ai, ai, mutillac, / Sobera aphaldu”, XIX.

<sup>24</sup> Hona: “Buruzagitzat lehen / handi behar zuan, / Orai ttiki-ta tcharrac / nausi tuk munduan / Ai, ai, ai, ...”, VI. Sehiak nausiari manatu, nahiz asto izan (1876 Sara, XVII-XIX) © Martin astaputz, Errepublikako presidente izateko egokia (VII-IX). “Errepublikanoak oi! cein [cen dio testuac] kargutiar! / Hoien politica da: / “Hi khen eta ni jar” / Ai, ai, ai, ..., X. “Bazter guciac dire / Bethe aintzindariz”, XI.

<sup>25</sup> Hona batzuk: nagusi tuc munduan (Errépublica!!!, VI) © nausi tuc multzuan (E 1887, VI); © Martin astaputz (Errépublica!!!, VII) © Kadet Astaputz (E 1887, VII); Frantchiman chanfarin hoic, (Errépublica!!!, XIII) © Apho chanfarin hoic (E 1887, XIII).

<sup>26</sup> “Hainitz atseginekin agerrarazten ditugu aspaldi bilhatzen eta eskuetaratu bildu nahi ginituen koplá batzuek, zentzuz, izpirituz eta egiaz betheak. Errepublikaren kontra eginak dire eta ezin gehiago polliki itzuliak. Frantziaren deshoragari eta hondagari den gobernamendu tristeá ederki aphaindua, ederki burlatua, ederki azotatua, erraten ohi den bezala, ederki ziztuka ibilia da bertso hain ongi joak diren horietan. Eskualdunec lorietan irakurtuko dituzte, lorietan gogoz ikhasiko, lorietan eta errepikan kantatuko. Ederki egin lezake-te baldin heda ere balizate. Aireá ezagutuenetarik da.” (“Errepublikari xistu”, E 23, 1887/10/28).

d. Laugarren bertsioa (E 1888), hirugarrenetik (E 1887) gutxira atera zuen *Eskualdunak*, hau ere lehen orrialde eta zerrendan. Bertsio berria da, berregina eta gehitua, kazetak espreski dioenez<sup>27</sup>. 32 estrofa ditu, errepikan kantatzekoak, aire ezagunarekin: “Ai, ai, ai! mutilla, chapela gorria / *Ai, ai, ai mutilla, zembat itzulika!*”. Gauza berriak dakartza, baita 1876ko batzuk berriz hartzen. Xedeak, espreski adierazten ditu kazetak: “aldi hartako itsuskeriak gaitzetsi, euskaldunen independentzia espiritu zaharra goretsi”. Egitura oso markatua du<sup>28</sup>. Gauza berrien artean aipagarriak dira: errepublikanoak nolakoak diren adierazten duten pertsonifikazio moralak (Alferromes, Koxkarin, Krakesku, Triparno, IX); funtzionarioen hazkundera (“Oro eskola eta hiriko enplegu / laboraririk gero nihor ez dukegu”, XV; Errepublikak ekonomia hondatu duela (XVI-XVII: “Ez gaituk nihoiz izan hoin tinko estekan / ez eta biphilduak hoin murrizt errekan”, XVII); politikan, judu eta harginbeltzen tirania (“Judu ‘ta Harginbeltzek daukate Frantzia / Batzuek zaphan eta bertze iretsia”, XX); eskola legeen ondorioak (eskola Jainko gabeek haurrak aberetu, legerik ez nausirik errespeta, arrotzak gure umeen nagusi, XXV-XXVII); laster, oro Gobernuarenak (XXVIII); foru galdunen eta euskaldunen lehenagoko libertatearen aipamena: “Non dire Euskaldunen lehengo fueroak? / Arbasoen parrean, gu zer gathiboak!”, XXX-XXXI; euskara ere galduz doala arrotzen kulpaz, XXXII.

e. 1894-1897ko eskuizkribuko bertsioa oso luzea da, luzeena: 62 estrofa, aurrekoak halako bi gehiago. Garaiko gertaera jakinak aipatzen ditu: apaizak soldado joateko legea (1889), XLVII-XLVIII; Panamako ohointza (1892), XXX-XXXVII; Dreyfuss auzia (1894tik aitzina) (XXXIV, XXXV); Santa Kruz apaiz gerrillaria<sup>29</sup>. Aurreko idatzaldietako ideia batzuk aurreko bertsioetan baino xeheago garatuak eta zorrotzago adieraziak daude<sup>30</sup>.

<sup>27</sup> “Voici une nouvelle édition, revue et augmentée, d’un chant que nous avons déjà donné à nos lecteurs. Rarement poète basque a trouvé des accents aussi inspi[rés?], soit pour stigmatiser les turpitudes et les basses[ses?] présentes, soit pour célébrer le vieil esprit d’indépendance basque: “Errepublika” (sarrera-oharra, E 34, 1888/01/13).

<sup>28</sup> Sarreran 3 bertsotan, hastapena: “Gobernamenduetan / zoin da zuzenena? / Etorkiz legez eta obraz hala dena”, II. Ondotik erantzuna, lehenik *Ethorkiz, izatez, zer den Errepublika* azpiizenburupean, 15 bertsotan, eta gero *Legez, fedegabez, zer Errepublika* izenburupean, 14 bertsotan.

<sup>29</sup> “Legeak ezartzekotz / apezak armetan, / Santakruz bat zertako / ez onar hoietan?”, XLVIII.

<sup>30</sup> Adib.: Zergek kaltetuena, laboraria, XV; Errepublikak jende xehea larrutu, XXVII. “Sobera nagusi, lege / zerga eta dretxo:”, XXVIII. “Errepublika dela / gobernu zuhurra... / Guzien ontasuna / oi! zer gezurra!”, XXXVIII; “Ez Jainko, ez arima, ez kontzientzia, / Horra gure legeen zimendu guzia”, XLI; alimale bilakatu nahi gaituzte, XLIII; foruak kendu dizkigute hitza janean, LV-LVII; indarrak eta bortxak lege zahar guztiak kendu, baina horien bidez ezin bildu gure bihotzak, LVIII-LIX.

f. 1909ko bertsoiak, ustez azken idatzaldiak, 35 estrofa ditu eta RIEVEN argitalpenean behintzat (Adéma 1909) doinurik ez da ageri. Funtsean, 1894-1897ko testu bera da, baina garaiko gertaera aipatuei buruzko bertsoak kenduta, estrofen ordenaren aldetik zerbait aldatuta, eta euskara eta estilo aldetik orraztuta<sup>31</sup>. 1894-1897koa luzeegia zelako, agian, eta gertaeren aipamenetan aspaldikatua, eman bide zion Zaldubik berak edo beste norbaitek geroago beste eskualdi eta orraztaldi bat.

Idatzaldi hauek guztiak alderatuta, hona ondorio batzuk:

1. “Errepublika” kantua etengabe landuz eta aldatuz joan zen Zaldubi idatzaldiz idatzaldi, garaiko gertaerek eraginda bere pentsamendua garatu ahala. Aldaketa handiak ageri dira Errépublica!!! bertso paperean eta 1894-1897ko eskuizkribuan; azken bertso honen galbahetzea da 1909koa. Lehen bertsiotik (1876) azkenera (1909) alde handia dago. Alde batetik, estrofa gehiago (1874koan 19, 1909koan 35). Bestetik, lehen bertsoan (1876) ez dago errepublikanoak erlijioaren ez euskalduntasunaren kontrakoak direlako konturik (vs “Erlisioneari dire aiherririk” 1909, XXV). Ez dago ere Errepublikan framazon eta juduak nagusi direlakorik, ezta beste errepublikano jende-moten pertsonifikaziorik (E 1888an agertzen dira Alferromes eta bere lagunak, eta bereziki Kadet Astoputz, azken hau arnegatu, apaiz-jale, denak ikaran daduzkana; 1894-1897 eta 1909an, ordea, “Framazon, arnegatu, zirtzil eta judu, / Guzien buruzagi horiek ditugu” (1894-1897, XXV; 1909, XX). Ez da ere ageri jende xehea inoiz baino estekanago, zanpatuago, diruz larrutuago dagoela (geroagoko bertsoietan bezala, adib. 1909, XIII). Ezta agintea eta legeak Jainkoagandik datozeela (vs geroago bertsoietan eta 1909koan “Jainkorikan ez balitz, ez duk ez gizonik / Gizonari zuzenez deus mana lironik” 1909, XXIII; “Jainko legerik gabe / lege’egile berak...”, “Ohoiak ere berdin, /.../ Lege egile dituk, / (...).”, 1909, XXI, XXII). Ezta Gobernu gauza guztiez jabetuko dela (vs laster “Nihork bererik deus ez, Gobernuak oro”, 1909, XXIX). Ezta euskaldunen foruen aipamenik (vs 1909, XXX- XXXIV), ez euskararen gale-rarenik (vs geroagoko bertsoietan eta 1909koan, adib. arrotzek galdu euskara, 1909, XXXV). Ondorioz, askoz garatuagoa, osatuagoa da azken bertsoia lehen baino, nahiz jatorrizko ideia nagusi berberak izan.

<sup>31</sup> Adib.: badagozka, 1894-1897, XXIII © badaduzka, 1909, XIX; Nihork deus bererik ez /.../ Horra zer lege duten / gero eman gogo, 1894-1897, LII © Nihork bererik deus ez /.../ Horra zer lege laster / duten eman gogo, 1909, XXIX. 1909koak kentzen du 1894-1897ko azken bertsoa ere: “Gure gogo lehena, / oi libertatea; / Guk ezin egina duk / hire ahanztea!”, LXII.

2. Edukiari dagozkion aldaketak Errepublika ezkertera lerratu ahala eginak baitira, halaber egitura, tonu, argumentu, baliabide erretoriko eta hizkuntza adierazpideei dagozkienak. Aldera ditzagun lehen eta azken bertsoiak, azken hau garapen eta bilakaera luze baten fruitua. Lehen bertsoan (1876) egileak “lehen eta orain” toposa eta antitesia ezartzen ditu egitura nagusitzat ia estrofa guztietan; azkenekoan (1909), ez hain mekanikoki. 1876an Errepublikaren satira egiten du ironiaz, trufaz eta sarkasmoaz baliatuz; 1909koan, ordea, tonu zorrotzagoa, serioagoa, ezkorragoa darabil. Argumentuak eta erretorika baliabideak ere ugariagoak dira 1909koan: oihu-eta galdera-erretorikoak, akumulazioa, etsaiak barregarri ipintzea –besteak beste, pertsonifikazioaren bidez–, *licentia* edo garbiki mintzatzea, etab. Adierazpideak ere landuagoak azken bertsoan, labur eta trinkoagoak (sententzia estilokoak), indartsuagoak, bortitzaagoak, borobilagoak, baita esajera-tuagoak: eskasena errepublikano, eskasena nagusi: “Alferromes, Koxkarin, Krakesku, Triparno, / Hauk beren jitez dire Errepublikano”, 1909, XV; “Guziak kargu gose, eta nausi nahi”, VIII, etab.

3. Zaldubi Frantziako iraultzak ekarritako aldaketen aurkakoa zen. Karguak boz bidez hautatzerik ez zuen onesten: “Karguak ziren lehen goratik jin gauzak; Ematen ditik orai ziri baten bozak.”, “Orain txiki’ta txarrak nausi tuk multzuan”, 1909, IX). Esan dugunez, Ongiaren eta Gaizkiaren arteko dikotomia eta beraz Errepublikaren gaizkiak besterik ez du ikusten: bortxazko soldadugoaz eta eskolaz ere kexu da (“Oro soldado eta jende eskolatu”, 1909, XII), gaizkileak gero eta gehiago etab.). Haren arabera, Jainkorik ez bada, ez da gizatasunik ez legerik.

M. Goihenetxek dioenez, Zaldubik Errepublikaren kontra ez ezik errepublikano guztien aurka egin zuen (1987:138). Aldi hartan “Botere politikoa- ren alorrean, jaunttoen agintearen hertsadurapean zegoen jende bat jazartzen hasia zen. Borroka honetan, burgesia eta aristokrazia lurjabearen mezulari jarri zen Zaldubi” (ibid., 139). Hala ere, Zaldubiren pentsamolde kontserbadore atzerakoa eta are demagogia alde bat utzita, haren gaitzespenetan badira agian alde batzuk egun ere askorentzat onargarriak: jende anitzen kargu gose eta nagusi nahia, zentralismo jakobinoa eta autonomiarik eza. Ez zen arrazoi- rik gabea hau zioelarik: “Lehen aitoren seme eta orai burjes! / Bainan jende xehea bethi berdin nekhez.” (1876, XIII).

1.3.2. Zaldubiren “Betirisants” eta “Errepublikari” arrapostu eman zien J. B. Elizanburuk, Piarres Adame sinadurapean, “Lehen eta orai” kantuarekin. Donostiako Euskal Festetan saritua izan zen 1879an (*Euskal-Izkribatzalleen indar neurtzea*: 1879); Orpustan 1994: 295-297). Elizanburuk 1789ko Iraultzaren ongiak goraiatzat ditu: gizakia esklabutzatik askatu zuela, arbasoek –bereziki laborariek– libertatea ta berdintasuna erdietsi zutela. Azken bi bertsoetan anaiatasuna zer den adierazten du: “Eta gu goratzeko bertzen

apaltzea (2) / Gure anaiari duk laido egitea! / Elgar aditzea, / Elgar maitatzea, / Eta laguntzea: / Hori duk egiazko Jainko-legea!!!”, X<sup>32</sup>. Azken adierazpide honetan eta bestetan, izenburutik hasita, Zaldubiren “Betirisants” eta “Errepublika”ko ideia eta adierazpideei alusio garbia egiten die Elizanburuk<sup>33</sup>. Adiskide ohiek elkarri eginiko keinu gisa uler daitezke, bada, hiru kantuok (Xarritton 1992:60). “Lehen eta orai”ren eragina nabarmena da beste euskal bertso errepublikano batzuetan ere (Otxalde etab.).

1.4. “Betirisants” eta “Errepublika”ren ondoren Zaldubik ez zuen politika kantu berririk ondu, bai haien idatzaldi berriak argitaratu. Baina ez zien erabat uko egin, azken urteetan zenbait ondu baitzituen gertaldi jakin batzuen karietara:

1.4.1. “Chenelon jaun zenaturrari eta haren konpainiari bazkal ondoko usaia zaharreko koplak. Sei pontutako erdi laxotan G. Zaldubik pharatuak” (Adéma 1991:208-210). 1891eko urriaren 13an Euskal Herriko buruzagi xuriek bilkura bat egin zuten Hazparnen, Chesnelong (1820-1899) Biarnoko politikari, buruzagi erregetiar eta hizlari ospetsua ekarrita, asmo jakinarekin: erlijio katolikoa ukitzen zuten legeen aurka eta erlijio katolikoaren alde batu, eta bozetan etsaiei ihardoki<sup>34</sup>. Ehunka jende bildu ziren, emakume ugari eta batez ere apaiz ugari<sup>35</sup>. Chesnelongek “La France Chrétienne” goiburuaren

<sup>32</sup> 1879ko testuak dio “Eta gu gozatzeko (...)”, Baionako Erakustokiko eskuizkribuak beste aldaera bat ere badakar: “Eta bertzez gorago nahi izatea”, ap. Orpustan 1994:297.

<sup>33</sup> Izenburuko hitzetan ere ihardetsi nahi izan zien Elizanburuk lege zaharrekoiei, hain nabarmena da topos beraren erabilera desberdina (hark oraina goraiatuz, Zaldubik lehena). Hainbat hitzen erabilera desberdinean ere soma daiteke Zaldubirenei eginiko alusioa: *abere* edo *azienda*, *abila*, *errege*, *herresta*, *esklabo*, *miseria* etab. Hona Elizanbururen zenbait pasarte (Donostia, 1879): “Sortzetik hiltzeraino, laboraria, /... Azienden herrunkan hintzen yarria!”, IV. “Abilek ezarria urhezko tronuan / Bazuan bat errege guzien buruan;”, V. “Zinez zorigaitzezko dembora hetan / Nolako miseria zen bazterretan!”, VII. “Ethorri zuan bada noizbait orena / Gizona herrestatik alchatu zena, / Eta porroskatu rik gathe zahartena, / Bere gizon dretchoak hartu zituena!”, VIII.

<sup>34</sup> Bazkaria Hazparneko Barrandegian, P. Broussainen arreba eta Guichenné Baionako abokatu eta diputatu beharraren emaztearen etxean izan omen zen (Adéma 1991:208, A. Bengoetxearen oharra). Labat diputatuak aurkeztu zuen Chesnelong eta L. Etxeberri diputatuaren ezin etorria adierazi zion, gaixorik omen zelako. Chesnelong ezaguna zen Frantzia osoan eta Ipar Euskal Herrian ere, aspalditik. Katoliko kontserbadoreen buruzagi nagusietarik bat zen. *Réveilen* arabera, apaiztiarren alderdiaren burua (RB 49, 1891/10/25).

<sup>35</sup> 200 bat jende *Réveilen* arabera, 600 bat *Eskualdunaren* arabera (E 229, 1891/10/16). Ehun bat apaiz, bien arabera (RB, 48, 1891/10/18; “Parfait chrétien”, E 230, 1891/10/23), apaiz nagusi guztiak Baionako *Semainen* arabera (1495, 1891/10/14). Are etsai ezagunetarikoz batzuk ere (E 229, 1891/10/16).



aldeko hitzaldia egin zuen, ohi bezala, mugimendu bat antolatzeko dei eginenez<sup>36</sup>. Chesnelongen hitzaldia amaitu eta gero, Dutey Harispek eta Harispek hitz egin zuten, azken honek euskaraz, Amestoy eta Goienetxe doktoreek uko egin ondoren (“Conférence de M. Chesnelong”, *Semaine de Bayonne* 1495, 1891/10/14).

Bilkuratik egun batzuetara Zaldubik *Eskualdunara* (Hiriart-Urruti adiskideari?) 6 bertso igorri zituen, eta kazetak publikatu (E 229, 1891/10/16)<sup>37</sup>. Egile izenik gabe argitara ziren, eta azken koblan hau zioen: “Kanta hauk eman ditudala / nihork ez nizala sala.”. Geroago berriz landu eta osatu zituen: luzatuz (4 estrofa gehiago 3 buruzagiren laudoriotan), hautagaien giristinotasuna azpimarratuz eta beste ezaugarri batzuen garrantzia gutxituz, eta estrofa moldea doi-doi aldatuz (silaba bat gehiago bertsoleerro bakoitietan: 5+5/8A/5+5/8A/5+5/8A). Kendu zituen ere lehen idatzaldiko zirkunstantzia konkretu batzuk (Alphonse Duteyren heriotza, bi hilabete aitzinago gertatua). Idatzaldi osatuago hori 1991ko edizioan argitara zen (Adéma 1991:208-210). Doinurik ez da aipatzen, ordea, ez batean ez bestean.

<sup>36</sup> *Réveil Basquen* arabera, hitzaldia errepublikano ateo, jakobino eta framazonen kontrakoa izan zen, baita errepublikar erakundeen kontrakoa, eta mintzamolde bortitzekoa (RB 48, 1891/10/18; 49, 1891/10/25). *Eskualdunak* garrantzi handia eman zion bilkurari: 2 artikulu nagusi eta editorial bat, Eskualduna sinatua, denak euskaraz. Chesnelongen ildotik, juduen eta bereziki framazonen kontra jo zuen mintzamolde zorrotzez. “Giristino guziek bat eginez, ihardokiko dugu fedearen etsaier. / Horra laburzki zer erran darokun eta zer galdatu, iragan astehartean Hasparnen Chesnelong zenatorrak.” (“Giristino ala framazon”, E 229, 1891/10/16). Kazetak eskatzen du bozemaileek boz galdetzaleei galdetzea ea hautagaiak nahi dituzten kendu edo ez erlijio katolikoa ukitzen duten legeak: apaizak soldado joatea, fraide eta serorak eskoleatik eta eritegietatik kentzea, haurrei eskoletan katixima irakastea (“Zer galdatzen dugu?”, Eskualduna sinatua, ibid.).

<sup>37</sup> “Joanden asteartean, gorago aipatu dugun biltzarrearen ondotik, gure adixkide batek eman dauzkigu bertsu batzuk. Uste dugu gure irakurtzaileer atsegin egingen diotegula bertsu hek segidan ezartzean:

I. Mundu katoliko guzian / gora dago yaun Chenelon, / Elizaren defendatzaile, / nor da nihoiz hain zut egon. / Yin baitzaiku egun gutara / eman dezogun esker on. II. Zu Murde Labat Laphurrtarra / bethi Laphurdin egona, / Aspaldi du zu zaitugula / guhauk hautatu gizona. / Ez zaiten gehiago chahar / othoitz niro Yainko ona. III. Ohore dautzugu guziek / zuri Murde Etcheverri, / Yende langileen argitzen / zu zabilta herriz herri. / Nork daki orai zuk bezala / jende beharraren berri. IV. Yaun Goyeneche zu iduriak / aise daitezke ohora, / Ez baitakizu zuk egiten / yende makurren gogora. / Zure kargutik khentzaileak / ez dire zu bezein gora. V. Biba bere andrearekin / Guichenné yaun abokata, / Zuk badakizu nola garbi / tribunaleko bokhata. / Hauzi churitzaille hoberik / ez giniro nihor hauta. VI. Ethorkisun ederra duzu / zuk orobat Murde Salha, / Maitaturen zaituzte orok / Dutey-zena zen bezala. / Kanta hauk eman ditudala / nihork ez nizala sala.” (E 229, 1891/10/16. Hasparren).

Bertso hauetan Zaldubiren asmoa ez da etsaien kontra egitea, Euskal Herriko buruzagi xuriak agurtzea (usadio zaharrean) eta gorestea baizik. Egitura garbia dute hamar kopla horiek: lehen biek zergatikoa eta xedea adierazten dute. Lehen koplari, agurrarekin, Euskal Herrian euskara ere behar dela aldarrikatzen du<sup>38</sup>. Bigarrean, bilkuraren xedea: elkarren atxikimendua, bozetan erlijioaren interesen alde indar egin eta batasuna erakusteko<sup>39</sup>. Ondotik, zortzi buruzagi eta hautagairen aurkezpena eta laudorioa, kopla banatan, bakoitzaren dohain edo merezimendu garrantzitsuenak azpimarratuz (egilearen ikuspuntutik, noski): Labaten fedea eta erlijioaren interesen aldeko defentsa; L. Etxeberriren jakintza eta lana nekazariekin; Garroko baroiaren ospe ona kontseilari eta giristino gisa; A. Goienetxe Donibane Lohitzuneko auzapezaren zuzentasuna eta egoskortasuna, Estatuko kargudun gorenak ezin hezia baitzen; Juantxutoren fede azkarra; Guichennéren jakintza, giristinotasuna eta etsenplua, andre euskaldun bat hautatu duelako; Salaren burua, erlijiotasuna, fortuna eta hautagai izateko nahia; eta, azkenik, haren izenik aipatu gabe, Diharasarrari apaizaren arrazoi-indarra eta luma zorrotza (“lumarik baizen ez den xoria / norik liro biphil hain merke?” X). Iduri luke Zaldubik Diharasarriren hautagaitza aurkezten duela kantu hone-tan<sup>40</sup>.

1.4.2. “Tribunaletako Gurutzefikaren khentzeaz”. Lege hori onartu (1904/04/01) eta hiru hilabetera argitaratu zuen Zaldubik, berak sinatuta, *Eskualdun Onan* (EO 27, 1904/07/08; Adéma 1991:188-189). Jainkoa ukatzen duelako, Gobernuaren justizian sinesterik ez duela adierazten du egileak 7 ahapalditan, zortziko ertainean.

1.4.3. Zaldubiren kantu zaharrenetarikoa da “Zumalakarregi”, J. B. Elizanbururekin batera eginga eta “Ene loreac” eskuizkribuan bildua (Xarriton 1990: 51-51; Adéma 1991: 192-193). Karlista buruzagiaren gores-menezkoa, “Eskualdunen gerlako nausia” deitua baita. Kamusarri poetaren (1815-1842) eraginez onduta da, hark kantatu baitzuen lehenago 31 bertsoetan,

<sup>38</sup> “Eskuaraz ere mintza gaitzen / iduri zait lege dela; / Eskual herrian baikare hemen / ez laite gisa bertzela: / Jaun-andereak osagarri on / Jainko onak dizuela.”, I (Adéma 1991:208).

<sup>39</sup> “Kristau frantsesak denak bat diton, / dugun entzun jaun Chenelon. / Kargudun hautu edo bozketan, / oro gaiten fidel egon: / Guk hautatuak izan ditezen / lege zuzen egile on.”, II (ibid.).

<sup>40</sup> Labat zaharraren ordean, Diharasarri presentatuko zuten diputatugai, Harriage Morroxko errepublikanoaren kontra, Baionako II. hautes-barrutian 1893ko bozetan. Badirudi 1891ko bilkurak apaizaren hautagaitza prestatzen hasteko ere balio izan zuela.

zortziko txikian (1835); izan ere, Zaldubi eta Elizanburuk beren irakaslea miresten eta haren poemak kopiatzen zituzten (Xarritton 1990:50)<sup>41</sup>.

1.4.4. E. Touyarou-Phagabururen ustez Zaldubirenak dira “Biba Bidarrai!” bertsoak, Zaldun delako batek izenpetuak (“Biba Bidarrai!, *Gure Herria*, 1931, apirila): 25 bertso, Bidarraiko 1906ko eliz-ikertzeetan gertatuei buruzkoak, Baionako apezpikuari eskainiak<sup>42</sup>. Guk ez dugu uste Zaldubirenak direnik zeren, besteak beste, Zaldun delakoak beste bertso batzuk ere argitara baitzuten *Eskualdunan* (E 1699, 1932; E 1765, 1934; E 1877, 1878, 1936). Zaldun hori 1930ko hamarkadako koblakari bat da, ezaguna aldi hartan; “Gure gizonak” bertsoetan, bozak hurbil zirelarik, Ibarnegarairen alde egin zuen (E 1878, 1936/04/24). Zaldunbide ote zen, Hazparneko bikarioa?

1.5. Zaldubiren alegiaren bat edo bestetan ere politika ageri da, alusio eta analogia bidez. 1887ko batean, “Erleak eta listorrak” izenekoan, liztor alferrak erle kofoin eztiz beteaz jabetzen diren bezala, hala Elizaren eta nobleziaren ondasunez jabetu Estatua. Baina azkenean erleen jabeak lehergai batez liztorrak hiltzen dituen bezala, hala Jainkoak ere etsai tzarrak laster igorriko laino beltzen leizera (infernura)<sup>43</sup>. Monarkia eta Elizaren gauza handi eta ederrez eta haien ebasle eta xahutzaileez mintzatzean, eta halaber lege egile Jainkoaren kasatzaileez, Errepublikaren lege jakinez ari da egilea: eskola, armada, eritegiak eta elizak ukitzen dituzten legeez<sup>44</sup>.

<sup>41</sup> I. karlistateko Don Karlosen oroimenak ere bizirik zeudekeen koblakariaren buruan (Xarritton 1985:47). Aipatu ditugu Guilbeuren bertsoak ere Zumalakarregi eta D. Karlos-en goresmenez (1858, Urruña).

<sup>42</sup> “Bidarrin 1905ean gertatu setiatze entseguaren kronika dugu, estilo epikuan. Nahiz bukaeran data erdaraz eman zuen “Mars 1906” eta “Zaldun” izenpetu, estiloari dagokionez iduri luke Zaldubirena dela. Testu hori erretor ohiak herritarrei zien maitasun eta errespetuaren oihartzun ozena da.” (Touyarou-Phagaburu:2007:17). Gertaerak (imitorioak) 1906koak dira, ez 1905ekoak.

<sup>43</sup> Hona azalpena, azken hiru bertsoetan: “Lehengo Printzer eta / Elizari esker, // Bazen hainbertze gauza / handi eta eder. // Heien ebaslez eta / xahutzailez leher // Lehengo jabe-eri dire orai aiher.”, V. “Lehengo asmuak / aise baliatuz, // Berenak dituztela / dagozi espantuz. // Berak lege-egile, / Jainkoa khasatuz, // Jenden kontzientzia / hil dute debekuz.”, VI. “Lanho beltzen leizea gakhoz dadukana / Hasarre bethean da; ez gaiten engana. / Leizea zabal dadin laster diro mana, / Bolbora lanho batez handi da fama.” (RIEV II, 1908:768-769; Adéma 2008:116-118).

<sup>44</sup> Eskola legeek (1880-1886) erlijioaren irakaspena, katixima eta otoitza eskola publikoetatik kendu zuten, bai eta jesuitak herbesteratu eta kongregazio tolerantuei baimena eskatu beharra ezarri (1880). Armada esparruko legeek (1883-1884) soldaduentzako mezak kendu zituzten, baita kapilautzak, eta armadari arma ohoreak egiteko eliz-ettean sartzea debekatu. Eritegiak ukitzen zituztenek (1881) serorak eta eliz-jendea eritegiatarik kanpo ezarri zituzten. Elizak ukitzen zituztenek (1884) auzapezei eman zieten elizak zaintzeko eginbidea eta herri-bilkuretarako eliz-ekzila jotzeko eskubidea. Aipagarria da dibortzio legea ere (1884).

## 2. ZALDUBIREN ERAGINA *ESKUALDUNAN* ETA HIRIART-URRUTIREN ARTIKULU NAGUSIETAN

Beraz *Eskualdunak* “Betirisants” eta “Errepublika” hainbat aldiz argitaratu zituen; batzuetan kazetaren lehen tokian eta asmo jakinaz, azaldu dugunez. Horretan kazetaren jabeak, L. Etxeberriek, interes berezia erakutsi zuen (Ik. 1. eranskina). Zaldubiren beste zenbait kantu eta artikulua ere kazetako artikulua nagusi izan ziren: “Donibaneko erroboteko partida” (E 532, 1897/08/27) eta “Eskual-herriko eliza bestak” (E 626, 1899/06/16), azken hau aitzinago liburuska gisa argitaratua (Baiona: Lasserre, 1898).

Zaldubiren alegiaz ere baliatu zen *Eskualduna*, edo, zuzenkiago, Hiriart-Urruti: haren alegietako ideia, irudi, motibo, adierazmolde eta esamolde berak –batez ere etsaiak eta haien jokaera politiko edo morala gaitzesten dituztenak– darabilta geroago kazetako idazleburuak bere artikulua nagusietan. Aipatu dugu “Erleak eta listorak” alegia, *Eskualdunan* ere argitaratua (E 1145, 1909/03/19). 1857ko “Hitzuntziak” alegian ageri diren listafinen metafora usu darabil Hiriart-Urrutik, aurrekoan “liztor” darabilen era berean, ‘alfer bizkarkinak’ nahiz ‘gaizki esaka ari diren’ pertsona pozointsuak adierazteko. Alegia hori behin eta berriz argitaratua izan zen (E 1898/05/27; E 1171, 1909/09/17). 1850 inguruko “Khuia eta Hezkurra” alegia ere maiz argitaratu zuen kazetak, Perttoli jaun jakintsua edo abila bezalakoak gaitzesteko: “Mundu huntan Jainkorik / nahi ez dutenak, / Orogen makhurtzeko / hek dire lehenak” (RIEV II (1908):761). *Perttoli* pertsonifikazioa *pertoli* hitzetik eratorria dateke (‘kaskarin’, ‘txoriburu’, ‘tonto’)<sup>45</sup>. 1880ko “Pattin dirudun ez

---

<sup>45</sup> K. Izagirrek dio: “Fraide edo apaiz integrista ikaragarri batek, Hiriart-Urrutik, politiko baten abizenarekin egindako burla pasatzea, “perttolikeria” alegia, gure hiztegiatar gezurraren sinonimo bezala, ikaratzekoa da. “ (*Bost idazle. Hasier Etxeberriarekin berbetan*. Alberdania 2002. 102. or.). Izagirrek dioenari ohar zenbait egin behar dizkiogu. Lehenik, haren arabera, *perttolikeria* hitzak M-H. Berdoly diputatu eta senatari errepublikarra (1844-1905) aipatzen du zeharka (Berdoly + -keria). Guk uste dugu *perttolikeria*, *perttolikeria* hitzak *pertoli*, *perttoli* izenondotik eratorriak direla (*perttoli* + -keria); *perttoli* hitz arrunta da ‘kaskarin’, ‘pikabuztan’, ‘tonto’ adierazten duena, ez ‘gezurra’ (Lhande, OEH), *perttolikeria* “L. sotisse, bêtisse.” (Lhande). Bigarrenik, *pertoli*, *perttoli* hitza Zaldubik darabil Hiriart-Urrutik baino lehen (Zaldubi, “Khuia eta Ezkurra”, RBPL, 1886, III:85; E 12, 1887/08/13; geroago, E 509, 1897/03/19; 1893-1897 esk., RIEV, 1908, II:761). Zaldubik *Perttoli* pertsonifikazioa (“*Perttoli* jaun jakintsuna”, “abila”) *a contrario* izendatua den ironiaz darabil.

Ez dugu erabat ukatzen Zaldubik eta Hiriart-Urrutik *pertoli*, *perttolikeria* hitzak erabiltzean Berdoly gogorarazi nahi izatea, are Zaldubik hitza bera Berdolygan pentsatuz sortu izana, baina hipotesi hori ez dateke sinesgarriena. Gainera, nola azaldu B- © P- eta -d- ©

fededun” alegiako pertsonaia Ameriketatik dirua irabazita baina fedea galdua datozen euskaldunen irudia da (E 1898/04/08; E 1909/08/20). Gai hori maiz erabili zuen kazetak.

Zaldubiren beste irudi batzuk ere baliatzen ditu Hiriart-Urrutik bere disurtsoari indar emateko, adib. bidera ateratzen diren ohoinena: “Ohoinak ere berdin, biderat atheraz, / Lege egile dituk, indar nagusi beraz.” (“Errepublika”, E 1888, XXII). Edo *errekak behera* irudi eta esamoldea, lehenagoko gauza onen hondamendia adierazteko: “Itzulika hoietan / maldari behera / (...)” (“Errepublika”, 1894-1897ko eskuizk., II; “Ez gaituk nihoiz izan (...) hoin murrizt errekan”, 1908, XIII). Halaber zenbait ideia: etsaiak amarrua eta lausengua darabiltzala taktikatzat mundua biltzeko: “amarru segura / Jin zaiok burura / Hain aphaletik igaiteko tronura / Pherekatuz jende makurra / (...)” (“Betirisants”, E 46, 1888/04/06). Edo euskal haurrak arrotzen (hots, erriente) esku zirelakoa: “Arrotzak ja ditugu gure umen jabe” (“Errepublika”, E 34, 1888/01/13, XXVII). Jokaera moralari dagozkion beste ideia anitz ere bi idazleetan ageri dira: gurikeria, zernahi bidez gora heldu nahia (ik. Zaldubiren “Mende jende mendre”, E 559, 1898/03/04, IV-V; Adéma 1991:149-150).

Hiriart-Urrutik usu baliatzen dituen hainbat esamolde eta adierazpide ere Zaldubiren kantuetan ageri dira. Artikulu nagusien izenburuetan erabili ohi ditu askotan. Adib., “Oro errege” izenburuko artikulu nagusia honela hasten da: “*Errepublika* Frantzia nausituz geroz, oro errege gira” (E 313, 1893-05-26). Hona Zaldubiren esana: “Lehenago denboretan errege batto zen. / Orain oro errege: hori duk hoi zuzen!” (“Errepublikari xistu”, E 23, 1887/10/28, III). “Oro kargudun” izenburuak (artikulu nagusia, E 1118, 1908/09/11) Zaldubiren esana dakarke burura: “Errepublikan daite nor nahi kargudun” (“Errepublika”, E 1888, X). Orobat Hiriart-Urrutik usu darabilen *Txarrenak amur!* esamoldea, hori baita “Betirisants”en lege berria: “Indarraren meneko dela zuzena. / Nor baita txarrena, / Hark dik hark hobena; / Gaixtagin azkar den bat nola kondena?” (E 606, 1899/01/27, IV). Edo *jaun xanfarin, mandril, jaunxkila* eta gisako kalifikatiboak (lehen biak “Betirisants”en, E 606, 1899/01/27), azkena “Errepublika”n (E 1887, XV). Nago ere ez ote zuen

---

-t- aldaketak? Perttoli jaun jakintsua ageri den alegia 1850 ingurukoa da, orduko “Ene loreac” eskuizkribuan bildua baitago (Xarritton 1985:48) baina ez dakigu 1850ko bilduma horretan badenez Perttoli hori, XIX. mendeko beste kopia batean (Hiribarrenena?) ez baita ageri (Lafitteren artxiboa, 401, 003-44). 1886an publikatu zenean, Berdoly, Mauleko suprefet ohia, Donapaleuko kontseilari jeneral hautatu berria zen, ez zen oraino diputatu ere.

Zaldubik Hiriart-Urrutiren burutan ipini “Hilak hil” ipuin politeko izenburua bera (Hiriart-Urruti, RIEV, 1907, I, 617-623), hau baitio Zaldubik 1882ko “Mende jende mendre” alegian: “Ongi-egile gutiz / orhoit da mundua, / Ahaidetan beretan / labur da dolua! / Hila hil! osoki da / etxetik kendua, / Bai eta hark utzia harentzat galdua!” (“Mende jende mendre”, E 559, 1898/03/04).

Estilo ezaugarri zenbaitetan ere bat datoz bi idazleak: adib. sarkasmoa sententzia estiloarekin elkartuta, garbiki mintzatzea, erretizentzia. Hona Zaldubiren adierazpide bat: “Orai zer nahi libre, bertzek bainan ez nik” (“Biba Republika”, 1876 Sara, XI). Hiriart-Urrutiren molde bereko hau gogoratzen digu: “Ez dute nahi jaun garbi horiek ohointzarik...bertzek egitea” (E 860, 1903/12/18).

Beraz, Hiriart-Urrutik ongi ezagutzen zituen Zaldubiren kantuak, ideiak, irudiak eta adierazmoldeak, eta baliatu zituen bere artikuluetan. Batak eta besteak erabili ohi dituzten ideia eta irudi askok bi idazleen arteko sintonia erakusten dute. Zaldubiren poesia profanoak eta alegiak *Eskualdumako* politika editorial eta ideia nagusien ildoan kokatzen dira eta editorial artikulua baten funtzioa dukete.

### 3. ZALDUBIREN HARREMANAK POLITIKARIEKIN

Zaldubik harreman ugari izan zituen politikariek: hemen, lehenik, buruzagi xuriekikoak azalduko ditugu, gero Atharratzeko auzapez Péeseekin hark edo bestek izaniko ika-mika, ondoren Elizanburu eta Guilbeaurekin, Déroulède frantses eskuindarrarekin, eta azkenik ideologia hurbileko zenbait euskaltzalarekin (Abbadia, Bernadou) izandako harremanak.

3.1. Gerterek aginduta, buruzagi xuri batzuekin gutun bidezko harremanak eta aski konfiantzazkoak izan zituen. L. Etxeberri eta A. Dutey Harispe xuriekikoak nabarmendu behar ditugu hemen. Aipatu ditugu “Betirisants” eta kantu profanoen inguruan Zaldubik L. Etxeberriri 1888ko gutun horretan esanak (1. eranskina). Diotso, gainera, harentzat ari dela lanean, aisia duelarik; apo-harmatu bat bezain urriki ari dela bere poesiak lantzen, eta Etxeberriren zalutasuna miresten duela; hark erakutsi dion interesak bere poemak lantarazi dizkiola; bere eskuizkribuaren 3. edizioa lantzen ari dela azken hiru urteetan; bi sorta edo kaier igortzen dizkiola; uste duela *Eskualdunan* zenbait pieza argitaratuko dizkiola, geroago edizio osoa argitara baino lehen.

Berriz 1901ean, L. Etxeberri bere kazeta ixteko puntuan zela –Jauffret apezpikuarekiko tirabirengatik–, zenbait lagunek eskatuta, Zaldubik arartekolana egin zuen Etxeberri *Eskualduna* ez zezan geldiarazi: A. Dutey Harisperi

konfiantzazko gutuna egin zion, honek L. Etxeberrigan eragina zuelako<sup>46</sup>. Adémak gutun horretan diotso Duteyri: zenbait lagunek eskatuta galdegiten diola ez dezala *Eskualduna* geldiarazi, katolikoentzat kazeta ona delako. Dutey Harispek eskatzen dio Etxeberriri, hauteskunde asmoz ez bada, laborari katolikoan onetan behintzat atxiki dezala *Eskualduna* (*ikus bi gutunak 2. eranskinean*). Gutun horietan ageri da *Eskualdumaren* ixteak atsekabe handia sorrarazten zuela euskaldun katoliko eta apaizen artean; Zaldubik konfiantza zuela Dutey Harispe jauna baitan, harekin harremanetan baitzen bere poesiak argitaratzeko; eta begi onez ikusten zuela Etxeberri eta uste zuela apezpikuak gaizki erabili edo leku txarrean ipini zuela. Duda gabe, prestigio handiko norbait zen Zaldubi.

Aipatu ditugu laburki A. Goienetxe Donibane Lohitzuneko auzapezarekiko harremanak. Zaldubik ohorezko tokia izan zuen Goienetxek antolatu Donibane Lohitzuneko euskal festetan (1892, 1894, 1897). Kusiak bide ziren, gainera. Hazparneko 1891ko bilkurako koblek erakusten dutenez, aski garbi ageri da Zaldubik harremanak zituela buruzagi xuriekin: Labat, Guichenné, Diharasarri, Sala (*ik. 1.4.1*). Pentsatzekoa da Atharratzen zelarik d'Etxandi notario eta xuri buruzagiarekin ere izanen zituela.

3.2. 1891ko uztaillean Pées Atharratzeko auzapez gorriak, uste izanik Adéma zela *Semainen* agertu gutun polemiko baten egilea, kalonjearen kontra bortizki jo zuen *Réveil Basquen*. Gutunaren sinatzaileak, 'Un Catholique basque' delakoak, Péesek Jaufret apezpikuaren aitzinean esandakoei ihardesten zien, auzapeza "apaiz-jale" deituz. Péesek delako kalonjearen kontra (hari buruz zeharka mintzaten zaio Lasserre *Semaineko* idazleburuari: "certain chanoine de votre connaissance") inon direnak esaten ditu: buruko usain txarra eta herrabiazko elderra zeriola, zaharra bezain sineskorra zela, apaiz tripahandia, katoliko txarra, fariseokia, hipokrita eta gaiztoa, xikanaz betea eta ahalkegabea<sup>47</sup>.

<sup>46</sup> Albert Dutey Harispe, Lakharrako jauna, Garaziko konseiler xuria zen. Dutey Harispe hori Alphonse Dutey, Lekunberriko jaun eta Garaziko kontseilari orokorraren iloba edo ahaide zen; Alphonse Dutey 1891n hil zen (ik. E 222, 1891-08-28). Dutey biak goiraipatuak dira Zaldubiren "Chenelon..." kantuan (ik.1.4.1).

<sup>47</sup> (Péesen ihardespenaren zati batzuk). "les odeurs capituses que vous exhalez naguère dans nos rues (...)" "Vous avez cru, d'ailleurs, qu'en signant vos élucubrations 'Un Catholique basque' vous étiez à l'abri de mes justes représailles, vous vous êtes imaginé que, masqué par cette désignation, vous pourriez sans le moindre danger me jeter votre bave rabique, et que peut-être même vous ne seriez reconnu ... Ô naïveté senile!!! Pour se servir utilement de l'anonyme, Monsieur, il faut être doué d'une souplesse d'esprit et de style qui vous fait absolument défaut. Il faut enfin être un homme à peu près comme les autres – ce que vous n'êtes pas." "Vous n'avez jamais su ou bien vous avez oublié – tandis que vous consacriez le meilleur de votre temps à enfler d'*Iroulégu*y votre sacerdotale bedaine – que le mot *cependant* avait deux significations complètement distinctes". "Saisissez-vous, ô Zoïle grincheux, comprenez-vous, ô docte agrégé de la faculté de Bidarray?...". "Vous insinuez que je ne suis pas un bon catholique. (...). Mais des là à être un "mangeur de curés pour ainsi

Baionako *Semaine* eta *Eskualdunak* erantzun zuten esanez kalonje agurgarria ez zela gutunaren egilea, haren aurkako irainak baino gorago zegoela; nor izan zen salatu gabe, ordea. Adémak berak ez zuen erantzunik eman kazetetan. Tronpatu ote zen Péés?

Adémaren kontrako itsuskeriok eta polemika bere lekuan kokatu behar dira. 1889ko bozen ondoren (non L. Etxeberri xuria diputatu jalgi baitzen Mauleko hautes-barrutian), Péés eta beste errepublikano batzuk apaizen kontra mintzatu ziren, bozetan politika egiten ari izan omen zirelako; ondotik, zenbait apaiz tokiz aldatuak izan ziren, zenbaiti paga kendu zitzaient, etab. Jauffret apezpikua Atharratzen zelarik bisitan eta haurrei sendotzako sakramendua ematen, Péések apezpikuari eskainitako topa-egite batean eginiko hitzaldia *Réveil Basque* publikatu zuen (RB 32, 1891/06/28. Tardets), ondotik polemika abiaraziz<sup>48</sup>. Péés protagonista duen polemika hau gorrien eta xurien arteko borroka politikoan kokatzen da; Péesen hautaketa bera, d’Etxandi baztertuz, urteetan salatu zuen *Eskualdunak*, hilabete bat lehenago ere bai (E 1890/02/28. Tardets; RB 35, 1891/07/19). Kazeta xuriak egozten dio ere Péesei, Ségalas-ekin batera haurrei eskolan kopiarazi izana Berdolyren gutun bat 1890ko boz egunetan (E 1891/07/10). Ika-mika hauek guztiak *Réveil* eta *Eskualdunaren* arteko polemika etengabekoaren atalak besterik ez dira. *Réveilek* Jauffret apezpikua abonatzan zuen<sup>49</sup>. *Eskualdunak* zioen apaizek

---

dire de profession” il y a loin. Non, Monsieur, je ne suis pas un mangeur de curés, je me nourris beaucoup mieux que cela. La vérité es que je déteste l’espèce –heureusement rare- du curé genre Pharisien, hypocrite et méchant, tracassier et insolent, autant je vénère le véritable prêtre, *digne, correct et doux*” (RB 34, 1891/07/12. Le Pays Basque). Azken hau esatean, Péések Adéma honen ondokoarekin, Uhart Atharratzeko apaiz-nagusiarekin konparatu nahi zuen, ironiaz: “Là, M. le doyen, -ce prêtre si digne, si correct et si doux, que nous nous félicitons de plus en plus de posséder- a souhaité la bienvenue à l’évêque en des termes excellents” (RB 32, 1891/06/28).

<sup>48</sup> Hona xehetasun gehiago: *Eskualdunak* Péesen hitzaldiari eginiko ihardespén bat publikatu zuen (“De plus en plus forte”, E 214, 1891/07/03, Nouvelles du Pays), baita Baionako *Semaine* kazetak (Un Catholique basque, *Semaine de Bayonne* 1463, 1464, 1891/07/01, 07/04, Arrondissement et Pays Basque). Berriz *Eskualdunak*: Péések salatu zituela apaizak, zigortuak izateko; Intxauspe urruntarazi zuela. Hauteskundeez dio kazeta xuriak: “nous metrons les élections sur le terrain religieux tant que ces lois antireligieuses subsisteront”, eta Bossuet aipatuz, Jesukristoren hizkuntza bikoitza zela: “Dieu ne nous donne un esprit de crainte, mais un esprit de force et de charité” (E 215, 1891/07/10). Ondoren Péések *Réveil*en arrapostu bana *Eskualdunari* eta *Semaine*ko ‘Catholique basque’ delakoari (RB 34, 1891/07/12), Adémaren kontra joz, *Semaine*ko Lasserre idazleburuari zuzendutako gutunean (*Semaine de Bayonne* 1465, 1891/07/08), eta idazleburuak ere polemikan parte hartu. *Eskualdunak* ere erantzun Péési (“Un drole de convive”, E 216, 1891/07/17).

<sup>49</sup> “L’évêque aux idées libéraux qui est loin de voir dans la République cette persécutrice de la religion tant honnie par le clan réactionnaire” (RB 32, 1891/06/28. Tardets)



dotrina egiazkoa predikatu behar zutela, are giristinoen eginbidea bozetan. Funtsean, erlijioa interes politikoekin nahasten zuten batzuek eta besteek.

3.3. Elizanbururekiko harreman adiskidantzazkoak aspaldikoak zituen Zaldubik; elkarrekin eginak zituzten zenbait kantu. Geroago, politikak bereizi zituen bi gizonak. Baina badirudi, saratarraren hilberrian Hiriart-Urrutik dioenetik, Elizanburu hiltzer zela Zaldubik bisitatu zuela eta adiskidetu zirela, bai eta koblari errepublikanoa kristau gisa hil zela<sup>50</sup>.

Elizanbururekin ez ezik Guilbeaurekin ere adiskidetu zela dirudi (Xarritton 1992:61). Hendaia (1901) eta Hondarribiko (1902) bilkuretan elkarrekin lan egin zuten, Zaldubi buru, Guilbeau idazkari, ortografia batzeko eta Eskualzaleen Biltzarra sortzeko asmoz; gutun zenbaitetan ere ageri da Zaldubik Guilbeauren euskalduntasunean sinesten zuela (Xarritton–Ouret 2003,1:231).

Harreman ona izan bide zukeen Zaldubik Otxalde aspaldiko adiskide gorriarekin ere; harekin batera ondu zuen Xuriko (1867), eta haren “Kantu berriak” izenekoa, Donibane Lohitzuneko Euskal Bestetan ohorezko 3. aipamena jaso zuena, itzuli zuen frantsesera (Ch. Bernadou, *Zazpiak Bat*, Baiona, 1895).

3.4. Zaldubik Déroulède eskuindar politikaria bisitatu zuen Donostian (1902). Déroulède (1846-1914) La Ligue des Patriotes deitu batasunaren sortzailea zen, antisemita eta golpista. Frantziatik kanpora desterratua, Donostian zegoen eta hara joan zitzaion ikus bat egitera Zaldubi zaharra; hartako bi kobla egin eta eraman zizkion, Déroulède ere koplaria baitzen<sup>51</sup>. Kronikagilearen arabera (Blaise Adéma, Zaldubiren iloba?) “Déroulède hainiz laño agertu zen Zalduby zaharrarekin. Erran zion zenbat onhartzen zituen haren agurra eta koplak, eta eman zion liburutto bat bere kopletarik ederrenak

<sup>50</sup> “Eta atseginekin ikusi dugu, ohartu denean hiltzera zoala, nola berak galdaturik ekarrazazi duen herriko artzaina; eta harekin batean, bere lehengo adiskide eta eskolako lagun apezetarik bat. Adiskide apez hari nahi izan dio hil aitzinean bere bihotza ideki. Eta eza gutza osoan, sendimendurik hunkigarrietasan egin ditu bere azken urratsak, erlisionearan laguntza guzietan nahi izan du agertu Jainkoaren aitzinean. Nunbeitik ere beti haur denboran ikasi gauza onez oroitzen da zahartzeari buruz, eta bereziki hiltzeari buruz, bere baitarik barne ona duen gizona. Jainkoak egin dezotela adin batean, gisa bat edo bertze, bere erlisione ahanzten duten guzietan, aski goiz beren eta bertzeengatik oroitzeko grazia!” (E 241, 1892-I-8. Espelette).

<sup>51</sup> Hona bi estrofa horiek: “Frantziako gizonetan bihotzez hoberena / Lurrez gabetu baitute, zer zen haren hobena? / Gizon makurrentzat beti hobendun da zuzena. / Ez othe da gorestekoa hola hobendun dena?”, I.

“Lurreko jendekietan ez bide da bihirik / Eskualdun jendea bezen libro bizi nahirik. / Derouledetik, eskualdunak zer diren ikusirik, / Atsegin du bizitzerat gu ganat etorririk.” , II. (Altzibar 2006:37-38).

zauzkana, hitz hauk bere eskuz izkribatu ondoan: “Eskualdun koplariari, eskualdunen adiskide batek orhoitzapen eta milesker” (E 1399, 1914-2-6, 1. or. Asteko Berriak).

3.5. Jakingarria da ere Zaldubik nolako harremanak izan zituen politikari ez baina ideologia bertsuko beste jaun batzuekin. Ondoren, Abbadia eta Bernadourekikoak aipatuko ditugu soilki. A. Abbadiarekikoak, elkarren arteko gutunetan ageri direnak behintzat, bereziki neurtizlarien guduei buruzkoak dira. Jakina da Zaldubi sarituetariko bat izan zela. Baina, 1892tik aitzina behintzat, epaimahaikide ere izan zen zenbait urtez Abbadiaren festetan: 1892an, 1893an (Azpeitian sariak ematen izan zen Abbadiarekin batera, eta han agertarazi zuen “Gauden eskualdun” ospetsua) eta 1894an bederen; azken urte horretan eta hurrengo bietan Madalen Larralde sujeta ezarri zuen Abbadiak, 1789ko Iraultzak martiri egin omen zuen neskatxaren istorio manipulatu.

Elkarren arteko gutunetan politikazko konturik ere aipatzen zuten. 1893ko gutun batean, bozen aitzin egunetan, Abbadiari esaten dio Zaldubik Diharasarriren kontra eta Harriage Morrozkoren alde izugarrizko presioa egiten ari direla administrazioa, juduak eta masoiak. Eta bere nahigabea erakusten dio “euskaldun gizagaixo” en etorkizunari buruz. Hor ageri da Abbadia eta Adémaren arteko harremanak konfiantzazkoak zirela<sup>52</sup>.

Zaldubik Abbadiari eskaini zion bere “Eskualdunak” kantua, Donibane Lohitzuneko euskal festetan ematen hasi zirena (1892) (Adéma 2008:181). Zaldubi saiatu zen zenbait urtez Abbadiari euskal Akademiaren beharra burutaratzen eta horretarako dirulaguntza eskatzen, uste baitzuen orduko legeekin

---

<sup>52</sup> (Adémak Abadiari, Baiona, 1893/08/14; idazkia ez da ongi ikusten). “Nous avons encore bien autre chose à faire avec nos élections. Je sais que vous êtes au courant de ce qui se passe, et que vous favorisez de votre mieux notre unique candidat catholique Mgr Diharassary. Il y a, comme on devait s’y attendre, une effroyable pression administra[tive] et judéo-maçonnique exercée en faveur de son concurrent Harriage Morrochko, maire d’Hasparren. Cet homme, douze fois millionnaire, est le roi et presque l’idol de Hasparren dont la population vit [?] en partie de lui. Encore hier, ce très brave et loyal candidat faisait lacérer immédiatement les affiches de M. Diharassary au fur et à mesure de leur collage. / Pauvres basques! Que devenerons-nous? / Récevez, Monsieur le Président, vous le grand soutien de notre patriotisme basque, ainsi que Madame d’Abbadie qui en vous épousant épousa si noblement tous nos sentiments et tous nos enthousiasmes, les hommages de votre très humble et léal serviteur Gr. Adéma”. Hemen ere Zaldubi euskaldunen izenean mintzo da. Inork ez jakin, baina, etorkizunaren berri: handik urte batzuetara Harriage Morrozkoren alde egin zuten apaizek ere. Adéma eta Abbadiaren arteko gutunak ik. BnF 21746; 21746.2-223-228. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan kontsultagai.

eta egoera soziolinguistikoarekin euskarak ezin zuela iraun, eta Akademia bat behar zela ortografia bateratzeko etab. Baina Abbadiak bere ondasunak Pariseko Zientzien Akademiari eman eta Zaldubi une batez etsitua egon zen (Zaldubik Azkueri, 1896/02/22). Orduan lotu zitzaion ortografia batzeko eta euskalzaleak elkartzeko lanari (Hendaia eta Hondarribiko kongresuak, 1901, 1902).

Ch. Bernadouren liburuetan Zaldubik presentzia handia eta orrialde mordoxka betetzen du: adiskide eta bidaiialagun gisa Azpeitiko Lore Jokoetan, edo aspaldiko pasaizu eta oroimenen kontalari gisa (adib., Kaskoinaren esana izurritearen ondorioz hiltzer zela, edo Iparragirreraren itxura Larresoron kantatu zuenean, 1845 edo 1846an apaizgaien buruak kontatu zuen moduan). Liburuetako baten izenburuan ere (*Zazpiak bat*) nabarmena da poetaren eragina. Liburuotan 1893 eta 1894ko poesia sarituen testuak agertzen dira, Zaldubiren frantsesezko itzulpenarekin<sup>53</sup>. Bernadou baiones gaskoina zen, euskalzalea eta xuria.

Zaldubi *Semaine* kazetako zenbaiten adiskide zen. Haren hilberrian “*Semaine Religieuse*” saileko idazleak kontatzen du Zaldubi aspaldiko adiskidea zu(t)ela<sup>54</sup>.

Laburbilduz: Zaldubi poetak, bere mendeko apaiz katoliko gisa, erlijioaren ikuspegitik begiratzen zuen mundua. Kantuen bidez, ez bestela, agertu zuen bere burua III. Errepublikaren aurka. Politika sartu zuen Abbadiaren Euskal festetan (1874-1876), zatiketa, polemika eta errepublikanoen erantzuna ekarriz. “*Betirisants*” eta “*Errepublika*”n, satira generoan, Errepublikaren eta masoien kontra ez ezik errepublikanoen kontra jo zuen, dena piko eta trufa. Tradiziozko bertso-molde eta doinuei egokitu zituen kantuok, jendeak kanta zitzaiz. Etengabe berregin eta garatu zituen, lege eta gertaera berri arauka, adierazmoldeak ere beti landuz; bertsiio zenbait ere argitaratu zituen

<sup>53</sup> *Azpeitia. Les fêtes euskariennes de septembre 1893 par Charles Bernadou. Suivi de la Marche de saint Ignace et autres poesies basques avec musique.* (Se vend au benefice des Écoles Chrétiennes libres). Baiona: L. Lasserre, 1894. *Zazpiak bat*. Baiona: Lasserre, 1895. Azken hau A. Goienetxeri, Donibane Lohitzuneko auzapezari eskainia. 1897ko Tradizioaren Kongresuko informea ere idatzi zuen (*La Tradition au Pays Basque*, 1897; Elkar, 1982. Bernadouren arabera, Zaldubik minez gogoratzen zuen sorterri-kantu bat, 50 urte aitzinago kantatu ohi zena, hauxe: “Laphurdi, Baxenabarre / Zuberoa heiek / Gerlara juan behar gira / Guziak elgarrekin / Madrileko plazaraino / Guziak lerro-lerro / kantatzen dugularikan: / Bego Frantsesa libro.” (aip. lib., 36). Kantu hau tradiziozkoa da.

<sup>54</sup> “C’était un ami de très vieille date, et don’t la visite, presque quotidienne depuis des années, nous réservait sans cesse d’ingénieuses et enthousiastes remarques en l’honneur de l’euskara. Quelle délicieuse impression de delicate bonté se dégageait des moindres paroles de cet aimable et confidant vieillard!” “*La Semaine Religieuse*”, *Semaine de Bayonne*, 3179, 1907/12/11. Nork idatzia ote? Lasserre? J.-B. Daranatz?

*Eskualduna* kazetan. Zaldubiren politika kantuak gure XIX. mendearen bigarren erdiko historia eta literaturaren lekuko interesgarriak dira.

Zaldubiren eragina, bere garaian, ez da gutxiestekoa. Nabarmena da J. Hiriart-Urrutiren (1859-1915) politika artikuluetan izandakoa, batez ere irudi eta adierazmoldeen erabileran. Jaun xuri eta euskalzale jakintsu frankorekin izan zituen harremanak, errepublikanoak barne, ezaguna eta estimatua baitzen euskara eta euskaldunen munduan.

## BIBLIOGRAFIA

- ABBADIA, A. Gutunak. BnF. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan kontsultagai.
- ADÉMA, G. (Zaldubi). 1908. *Oeuvres du chanoine Adéma*. RIEV, 1908, II, 83-94, 203-213, 284-296, 410-420, 602-610, 757-774.
- 1909. *Oeuvres du chanoine Adéma*. RIEV, 1909, III, 103-109, 226-233, 396-400.
- ADÉMA, G. (Zaldubi). 1991. *Gratien Adema Zaldubi. Kantikak eta neurtitzak*, EEE, Klasikoak. A. Bengoetxearen sarrera eta edizioa.
- ADÉMA, G. (Zaldubi). 2007. *Predikuak saindu batzuen biziaz*. Euskaltzaindia. Euskaltzainak bilduma. H. Duhauren sarrera eta edizioa.
- ADÉMA, G. (Zaldubi). 2008. *Artzain beltzaren neurtitzak*. Euskaltzainak bilduma. Euskaltzaindia. H. Duhauren sarrera eta edizioa.
- ALTZIBAR, X. 1998. “Art poétique basque” Adéma “Zalduby”rena”, *Lapurdum* III. 77-101.
- 2006. “Adéma-Zaldubiren hitzaldi, artikulua eta kantu zenbait”, *Lapurdum* XI, 2006ko azaroa. 7-39.
- 2007. “Adema Zaldubyren (1828-1907) prosa idazlanak”. *Euskera* 2007, 3. 1033-1059.
- ARGINZONIZ, A. M. 1890. *Euskal Erria*, XXIII. 176-179.
- AZKUE, R. M. Gutunak. Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka. Ik. Irigoyen, A.
- BENGOETXEA, A. 1991. Ik. Adéma, G. (Zaldubi), 1991.
- BERNADOU, Ch. 1894. *Azpeitia. Les fêtes euskariennes de septembre 1893 par Charles Bernadou. Suivi de la Marche de saint Ignace et autres poesies basques avec musique*. Baiona: L. Lasserre.

- 1895. *Zazpiak bat*. Baiona: Lasserre.
- Bertso-paperak. Bonaparteren fondoak. Newberry Library* (Chicago). I, II, III.  
Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan kontsultagai.
- BILBAO, J. 1970-1981. *Eusko Bibliographia*. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco.
- Courrier de Bayonne*.
- DARANATZ, J. B. 1908a. “Le chanoine Adema”. RIEV, 1908, II. 121-124.
- 1908b. *Eskualduna*, 1088/02/14.
- 1913. “Le chanoine Adéma”, in *Congrès de Musique sacrée tenu à Bayonne les 21, 22 et 23 novembre 1913, sous la Présidence de S. G. Mgr Gieure, Evêque de Bayonne, Lescar et Oloron*.
- 1914. “Vascófilos contemporáneos. El canónigo Adema”. *Euskalerriaren Alde*, 4. urtea. 134-137.
- DUHAU, H. 2007. Ik. Adéma, G. (Zaldubi). 2007, 2008.
- ELIZANBURU, M. (Fr. Innocentius). 1890a. *Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan*. Baiona.
- 1890b. *Framazonak (bigarren edizioa) eta Frantziako hirur Errepubliken ixtorioa laburzki*. Baiona.— Klasikoak, 1988. G. Fraileraren sarrera eta edizioa.
- ETXEPARE, J. 1909. *Buruxkak*, Tours, Mame. —1992. EEE, Klasikoak 59, I. Arrigainen edizioa.
- Euskera*. 2007. Gratien Adema “Zaldubi”-ren mendeurrena (1828-1907). Senpere, 2007-XII-20. Euskaltzaindia. *Euskera* 2007, 3. 871-1086.
- Eskualduna*. 1887-1903; 1908-1944.
- Eskualdun Ona*. 1904-1907.
- Euskal-Izkribatzalleen indar neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguiña, orretarako artu diran prestamen eta sariztatuak izan diran izkribu antolamenduen oroitza*. Donostia: A. Baroja, 1879.
- GOIHENETXE, M. 1987. *Lapurdi historian*. Elkar.
- GONZALEZ ETXEGARAI, K.—ARANA MARTIJA, J.A. 1989. *Catálogo de los manuscritos reunidos por el Príncipe Luis Luciano Bonaparte que se hallan en el País Vasco, con un Índice de nombres de personas, lugares, lenguas y dialectos y un Catálogo de publicaciones hechas por el mismo de algunos de los manuscritos o referentes a ellos, que se hallan en las principales*

*Bibliotecas del País Vasco, por Gonzalez Echegaray (Markina, 25-9-1983), corregido por Jose Antonio Arana Martija (Bilbao, 17-1-1989). Euskaltzaindia, Azkue Biblioteka, 1989.*

GUILBEAU, M. 1874. “Fête de Sare. Concours de Poésie basque”, *L’Avenir de Bayonne*, 1874-IX-19. G\*\*\* sinatua.

HARITSCHELHAR, J. 1988. “Recueils manuscrits de chansons basques”, *ASJU* XXII-2, 445-461.

HIRIART-URRUTI, J. 1907. “Gratien-Adéma apheza”, *Eskualdun Ona*, 1907-XII-20.—*Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, Jakin, 1971 (P. Lafitteren antologia).

— 1977. “J. Hiriart-Urruty jaunaren Euskaltzaindian sartzea: Hazparnen, 1977, martxoak 27”. *Euskera*, 1977-2. 323-360.

INTXAUSPE, E. 1883. *Jesu-Kristen Imitacionia. Çuberouko uskaralat utzulia*. Baiona: A. Lamaignère.

KALTZAKORTA, J. 2004. “Notas acerca del personaje Betiri Sants”, in *Litterae Vasconiae* 9, 187-231.

IRIGOYEN, A. 1957. “Del epistolario de Azkue”. *Euskera*, 1957. 261-397.

KORTAZAR, J.-BILLELABEITIA, M. 1987. *Poesía bascongada. Dialecto vizcaíno*. Bizkaiko Foru Aldundia.

LAFITTE, P. Artxiboa. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan.

1874. *Neurtiztarien (sic) gudua. Saraco Bestan*. Baiona: A. Lamaignère. *Bertso-paperak. Bonaparteren fondoa. Newberry Library (Chicago)*. I, II, III. Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan kontsultagai.

ORPUSTAN, J.-B. 1994. “Idéologie pro-révolutionnaire et poésie: le Lehen eta orai de J.B. Elissamburu (1879)”, in *La révolution française dans l’histoire et la littérature basque du XIX. siècle*. Actes du Colloque International del’URA du CNRS (1993 Bayonne). Bordeaux III. Centre d’Etudes Linguistiques et Littéraires Baques.189-204.

PAGOLA ET AL. 1999. *Bonaparte, L.L., Prince. Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Ekialdeko behe-nafarrera-1*. Lan taldea, R. M. Pagola et al. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

*Réveil basque*. 1886-1894.

*Revue des Basses Pyrénées et des Landes*. 1886.

*Le Robet quotidien*.1996.

*Semaine de Bayonne*.

*La Tradition au Pays Basque*. 1897.—1982. Elkar.

- URKIZU, P. 1997. *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma*. 1851-1897.
- XARRITTON, P. 1985. "Gratien Adéma Zalduby-ren bizia eta lanak". *Mundaiz* 29.
- 1990. "XIX. mendeko olerki-bertsogintza". *Gauontza* sorta, Labayru, Bilbo. 11-85.
- 1992. "J.B. Elissamburu eta Gratien Adema". *Eusker*a, 1992-1. 55-63.
- XARRITTON P.-OURET, J. P. 2003. "Euskaltzaindiaren barne-historia. Pierre Broussain-en gutundegia. Hirugarren gutun-azaoaren aurkezpena". 201-254. *Eusker*a, 2003,1. 201-254.
- XX. 1908. "Zaldubi zenari". *Eskualduna*, 1115, 1908/08/21.
- ZALBIDE, M. 2007. "Iparraldeko euskalgintza, XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia". *Eusker*a, 3. 877-1008.

## LABURDURAK ETA OHARRAK

BnF: Bibliothèque national de France.

E: *Eskualduna*.

EO: *Eskualdun Ona*.

RB: *Réveil Basque* (1886-1894).

RIEV: *Revista Internacional de Estudios Vascos*.

RBPL: *Revue des Basses Pyrénées et des Landes*.

Neurtitzetan, erromatar zenbakien bidez adieraziko da zenbatgarren estrofa den.

## ERANSKINAK

(1. eranskina):

Zaldubik Luis Etxeberriri gutuna (1888)

+

Tardets 15 Mars 1888

Bien cher et honoré Monsieur,

Seulement j'aurais dû avoir la politesse de vous dire qu'à tout moment

libre je travaillais pour vous. Ayez donc, vous aussi, conscience et pitié de mes lenteurs. Quelle tortue je suis! Hélas, que je vous envie à vous autres cette activité et cette promptitude que peut-être contribue à exciter en vous le mouvement ou le tourbillon de Paris.

Je ne vous parle pas d'un surcroît d'occupations que m'a occasionnée pendant deux mois une épidémie de fièvre typhoïde qui a frappé beaucoup de mes ouailles. Elle s'en est enfin allée, ne nous ayant dérobé qu'un pauvre malingre de 11 ans.

L'intérêt que vous me faites l'honneur de porter à mes compositions basques, a été cause que, pris d'un grand zèle et d'un redoublement d'amour propre en même temps que d'un légitime désir de vous être agréable je me suis mis à un grand travail.

Hier j'achevais la 80<sup>a</sup> page de mes poésies basques profanes, retouchées et laborieusement relimées. Le temps que je mets à ruminer ces corrections, me permet de calligraphier tout ce que j'en transcris.

Il se fait que depuis trois ans j'en suis à la troisième édition de mon manuscrit. Peut-être mon épreuve actuelle sera livrée prochainement à l'impression.

J'ose vous envoyer 2 fascicules écrits l'an dernier, gardant devers moi ce que j'ai travaillé et ce que travaille encore en ce moment.

Pourtant, ce n'est pas très noble de ma part de ne vous faire don que d'un manuscrit qui me fait double emploi. J'ai pensé que vous en tireriez quelques pièces pour votre Eskualduna, et ensuite, avec le temps paraîtrait mon édition complète.

Ma composition la plus soignée, la plus sérieusement étudiée, est, sans contredit, Bettirisants. C'est la description de nos Francs maçon. J'y ai ajouté dans ma dernière épreuve, une strophe qui regarde notre enseignement laïque.

Cette pièce gagne énormément à être chantée. C'est le chant qui la rend absolument coulante et compréhensible dans toutes ses nuances. Je l'ai notée d'après d'excellents musiciens qui, il est vrai, ne trouvaient pas la besogne facile.

Mais qui saura chanter cela comme il faut? À moins que ce soient des vieillards qui autrefois avaient leur chanson de Bettirisans sur cet air et certains couplets sur ce rythme. Leur Bettirisans était la personnification comique, caustique et burlesque de la misère ou de la famine dans nos pays. Que ne donnerais-je pas aujourd'hui pour avoir écrit cette chanson que j'entendais dans mon enfance?

Mon Bettiri-Sants, est le même personnage ressuscité, sorti de terre, cosmopolite, ayant toutes les faveurs de l'humanité révolutionnaire et vicieuse, et devenue le potentat devant qui rampent tous les gens tarés. C'est Gambetta dans la façon dont le monde s'en est entiché. C'est le Juif, tel que nous le dépeint Drumont... C'est aussi notre république...



J'ai mis peut-être trop de fini, de finesse et correction dans cette composition pour qu'elle puisse devenir populaire.

C'est un enfant que j'ai caressé à outrance au fur et à mesure que je l'ai habillé pour le produire en public.

Cette chanson avait été primée par la commission de M. Antoine d'Abbadie, en 1875, je crois, et chose étrange, après la distribution des 500 exemplaires d'usage au public de la fête de Sare, tout disparut sur-le-champ, et le lendemain presque personne n'en tenait un seul exemplaire.

Il m'a été dit que c'est depuis lors que suis sous la surveillance d'une Loge francmaçonnique de Pau. Mais est-ce vrai, qu'il y ait même une Loge à Pau?

Mais quand m'occuperai-je de la prose que j'ai tant projeté de composer pour expliquer aux basques ce que c'est que la franc-maçonnerie?

Dès demain j'entre dans le fort de mon travail sacerdotal du temps pascal, je ferai donc trêve à toute autre application. Aussi, je me hâte de vous faire aujourd'hui même cet envoi.

Recevez, bien cher et honoré Monsieur, les hommages les plus affectueusement distingués de votre léal

Gr. Adéma ch. h.

curé doyen de Tardets.

*Oharra:* jatorrizkoaren kopia ikus daiteke 2. eranskinaren ondotik.

+

Cardets 15 Mars 1888.

Bien cher et honoré Monsieur,

Seulement j'aurais dû avoir la politesse de vous dire qu'à tout moment libre je travaillais pour vous. Voyez donc, vous aussi, conscience et pitié de mes lenteurs. Quelle tortue je suis ! Hélas, que je vous envoie à vous autres cette activité et cette promptitude que peut être contraindre à exciter en vous le mouvement du tourbillon de Paris.

Je ne vous parle pas d'un surcroît d'occupations que m'a occasionnées pendant deux mois une épidémie de fièvre typhoïde qui a frappé beaucoup de mes orailles. Elle s'en est enfin allée, ne nous <sup>emportant</sup> laissant qu'un pauvre malingre de 44 ans.

L'intérêt que vous me faites l'honneur de porter à mes compositions basques, a été cause que, pris d'un grand zèle et d'un redoublement d'amour propre en même temps que d'un légitime désir de vous être agréable je me suis mis à un grand travail.

Hier j'achevais la 80<sup>e</sup> page de mes poésies basques profanes, retouchées et laborieusement relimées. Le temps que je mets à revirer ces corrections, me permet de calligraphier tout ce que j'en transcris.

Il se fait que depuis trois ans j'en suis à la troisième édition de mon manuscrit. Peut-être mon épreuve actuelle sera livrée prochainement à l'impression.

J'ose vous envoyer 2 fascicules écrits l'an dernier, gardant de vers moi ce que j'ai travaillé et ce que travaille encore en ce moment.

Surtout, ce n'est pas très noble de ma part de ne vous faire don que d'un manuscrit qui me fait double emploi. J'ai pensé que vous en tireriez quelques pièces pour votre *Estkiatsumca*, et ensuite, avec le temps paraîtrait mon édition complète.

Ma composition la plus soignée, la plus sérieusement étudiée, est, sans contredit, *Petterisants*. C'est la description de nos Francs maçons. J'y ai ajouté dans ma dernière épreuve, une strophe qui regarde notre enseignement laïque.

Cette pièce gagne énormément à être chantée. C'est le chant qui la rend absolument coulante et compréhensible dans toutes ses nuances. Je l'ai notée d'après d'excellents musiciens qui, il est vrai, ne trouvaient pas la besogne facile.

Mais qui saura chanter cela comme il faut? à moins que ce soient des vieillards qui autrefois avaient leur chanson de *Petterisants* sur cet air et certains couplets sur ce rythme. Leur *Petterisants* était la personnification comique, caustique et burlesque de la misère ou de la famine dans nos pays. Que ne donnerais-je pas aujourd'hui pour avoir écrit cette chanson que j'entendais dans mon enfance?

Mon *Petterisants*, est le même personnage ressuscité, sorti de terre, cosmopolite, ayant toutes les faveurs de l'humanité révolutionnaire et vicieuse, et devenu le potentat ~~pariant~~ qui rampent tous les gens tarés. C'est Gambetta dans la façon dont le monde s'en est entiché. C'est le juif, tel que nous le dépeint Drumont... C'est aussi notre république...

J'ai mis peut-être trop de fini, de finesse et de correction, dans cette composition pour qu'elle puisse devenir populaire.

C'est un enfant que j'ai caressé à outrance au fur et à mesure que je l'ai habillé pour le produire en public.

Cette chanson avait été primée par la commission de M. Antoine d'Abbadie, en 1875, je crois; et chose étrange, après la distribution des 500 exemplaires d'usage au public de la fête de Sarre, tout disparut sur-le-champ, et le lendemain presque personne n'en tenait un seul exemplaire.

Il m'a été dit que c'est depuis lors que suis sous la surveillance d'une Loge franc-maçonnique de Sarre. Mais est-ce vrai, qu'il y ait même une Loge à Sarre?

Mais quand m'occuperais-je de la prose, que j'ai tant projeté de composer pour expliquer aux basques ce que c'est que la franc-maçonnerie?

Dès demain j'entre dans le fort de mon travail sacerdotal du temps pascal; je ferais donc mieux à toute autre application. Aussi, je me hâte de vous faire aujourd'hui même cet envoi.

Recevez bien cher et honoré Monsieur  
les hommages les plus affectueusement distingués  
de votre fidèle

L. Adéma ch. h.

(cuvé dougu de l'ardet)

(2. *eranskina*)

**Zaldubik A. Dutey Harisperi gutuna (1901)**

Confidentielle.

Depuis trois ou quatre jours, tous les basques bons catholiques, surtout les prêtres de l'entourage de Mgr. Jauffret, nous sommes dans les transes et la désolation...Il m'est impossible d'entrer dans tous les détails, vous-même, Monsieur et honoré compatriote, vous en seriez navré. Notre bon et bien sympathique M. Louis Etcheverry vous en a-t-il encore parlé? Car c'est lui qui est en cause, Mgr l'Evêque de Bayonne l'ayant malmené dans son Bulletin diocésain à propos d'une allusion de l'Escualduna où sa Grandeur s'est cru indiqué. Du coup, M. Etcheverry, ferait cesser la publication de l'Eskualduna; ce qui serait un grand malheur pour tout le pays Basque, particulièrement au point de vue religieux. Je suis de ceux qui jugent, que des démarches doivent être faites au plus tôt pour supplier M. Louis Etcheverry de nous conserver son excellent journal. Hier, j'ai été prié par des amis qui savent que je corresponds avec vous, de demander votre intervention dans ce sens auprès de notre bien aimé offensé.

Veillez agréer, Monsieur, les hommages les plus patriotiquement basques, de votre très humble serviteur.

Gr. Adéma chanoin.

**Albert Dutey Harispek Luis Etxeberriri**

Le 18 Mai 01

Mon cher Louis.

Tu sais que je suis depuis quelque temps en correspondance avec le chanoine Adéma au sujet de la publication de ses oeuvres poétiques. Ce matin j'ai reçu de lui une lettre dont je détache le passage ci-joint.

J'estime comme nos amis du Pays basque, que la disparition de l'*Eskualduna* surtout en ce moment, serait déplorable.

Si ce n'est dans un but électoral, conserve, je t'en prie, ce bon petit journal pour aider à maintenir nos braves paysans dans leurs sentiments chrétiens.

Affectueusement à toi

A[lbert] Dutey Harispe

Oharra: Eskerrak bihurtu nahi dizkiogu E. Goihenetxeren alargunari, gutun hauek argitaratzen uzteagatik.

# HIRITIKO IHESA: B. ATXAGA ETA M. HOUELLEBECQ-EN IBILBIDE ERKATUAK<sup>1</sup>

Ur APALATEGI IDIRIN  
UPPA

## AITZINSOLASA

Hiritik pixkanaka urruntzea : horra Bernardo Atxaga-ren eta Michel Houellebecq-en azken eleberrietan aurki dezakeguna. Garrantzirik gabeko seinalea izango zatekeen idazle hauen lehen obretan hiriak ez balu zentraltasun ukaezina izan. Ihesaldi hori interpretatu aurretik, baitezpadakoa da, haatik, gure azterketaren bi kontzeptu nagusiak argi eta garbi zehaztea : hiria eta ibilbidea.

Literaturaren ikuspegitik, zer irudikatzen du hiriak? Valéry-k Paris aipatzen du honako hau erranez: «literatur egituraren baitezpadako funtzio bat» dela<sup>2</sup>. Fikzioaren idazleak obraren ekintza bere literatur eremu nazionalako hiriburuan kokatzea hautatzen duelarik bereziki, hiria eremu honen ikur bihurtzen da. Interpretazio-logika horri jarraitzen badiogu, pertsonaia hiritik bereizten duen distantzia, edo pertsonaiak hirian duen kokapena bihurtzen dira egileak berak literatur eremuan duen kokapenaren eta literatur bizitza nazionalaren erdigunetik bereizten duen distantziaren metafora.

---

<sup>1</sup> Testu hau GIU O6/65 ikerketa xedearen barnean idatzitakoa da. Bere lehen argitalpena Estoniako *Interlitteraria* aldizkari unibertsitarioan egin zen 2007an. Kattalin Totorikak egin du testuaren euskaratzea.

<sup>2</sup> P. Valéry, «Fonction de Paris», *Regards sur le monde actuel, Œuvres*, Paris, Gallimard, 1960, «Bibliothèque de la Pléiade», t. II, p. 1007-1010.

Ibilbide kontzeptuari dagokionez, Pierre Bourdieu-k ematen duen definizioaren arabera erabiliko dugu, hau da, eremu sozial aldakorrean «agente berak okupatzen dituen segidako kokapen desberdinak»<sup>3</sup> bezala, literatur eremua eremu sozialaren parte dela kontuan harturik.

Ikuspegi horretatik ondorioztatzen ahal da hiriaren geografia igarotzea, literatur eremuaren egitura igarotzea dela. Hala, azken finean, Bourdieu-k proposatu zuen azterketari jarraipena ematen saiatuko gara, Flaubert-en «*L'Éducation sentimentale*» obrako Frédéric Moreau-ren ibilbide paristarra ikertzen duenean, ondoko galderari erantzunez : bere ibilbideko zein *u* unetan aurkitzen da egilea, arestian aipaturiko hiritiko ihesa gertatzen denean bere obran?

Bourdieu-ren eredu teorikoari gehitzen diogun aldaera bakarra honako hau da: ez garela gehiago garai modernoan edo, hobeki errateko, XIX. mendean, Estatu-nazioaren garaian, honen erdigune bakar eta eztabaiaezina literatur hiriburua zelarik, aro postmoderno edo globalizatu batean baizik, honetan erdigune anitzeko munduko literatur sistemak lekukoa hartua baitu, literatur hiriburuaren estatusa apur bat aldatuz.

## 1. ATXAGA-REN IHESALDIA

Bernardo Atxaga-ren lehen liburuan, *Zintateaz* nobelan (1976), Scardenalli izeneko pertsonaiak, sortu zen periferiatik Hirira egiten duen ibilbidea kontatzen digu. Nobelaren amaieran Hiriak nagusituko da, bertako diktadorea hil eta diktadore berri bihurtuz. Beraz, Balzac-ek Rastignac bere heroiari inposatu zion ibilbide paradigmaticoaren bertsio demoniako eta nihilista baten aitzinean aurkitzen gara. Gogora dezagun Rastignac-en erronka oihu famatua: «A nous deux, Paris!». Helburua literatur hiriburua, hau da, literatur ospez egarri den idazlearen Eldoradoa, konkistatzea da, kosta ahala kosta, nortasun galtze edo aldaketa baten prezioa ordaindu behar bada ere.

70eko hamarkadaren amaieran, Atxaga-k hiria alde batera uzten du, emeki-emeki, obraz obra, bere literatur espazio propioa, literatur sistemaren periferiaren sublimazio den Obaba sortzeko. Toki baserritar, neo-baserritar ala literario hutsa da, ia abstraktua, hobeki errateko. Toki edo topos deliberatuki anti-urbanoa ere bada Obaba, noski. Atxaga-ren obraren urrats hori hiritik egiten duen lehen ihesaldiari dagokio.

<sup>3</sup> Pierre Bourdieu, *Les règles de l'art*, Paris, Seuil, 1992, p.359.

Literatur lehiaren usaiako tokia den hiriari bizkar ematea literatur eremu mailak igotzeko estrategia baten parte da. Ikusiz bere ahotsa Euskal Herriko zein munduko literatur sistemaren erdiguneko kakofonia hiritarreen itotzen dela, 80eko hamarkadako Atxaga-k aukeratzen du literatur gotorlekuaren aurkako eraso bat entseiatzea, periferiako atetik iraganez –azken hau herrikkak, baserritartasunak, lehengo jendearen Freud aitzineko istorioek sinbolizatzen dutelarik–. Erran daiteke hiriarekiko gaitzespen horrek, mespretxuzko edo desmarkatze *snob* horrek literatur planteamendu postmoderno osatzen duela.

Ez da dudarik ere *Obabakoak* liburuan agertzen den hiritiko ihesak beste zerbaitekin zerikusirik baduenik, hau da, idazlearen depresioarekin. Izan ere, euskal hiririk ez dela, erran nahi baitu literatur hiriburu nazional baten inguruan egituratu euskal literatur eremurik ez dela konturatzen denean depresioan hondoratzen baita idazlea.

*Obabakoak*-en itzulpena argitaratzeko aukera eskaintzen zaiolarik, literatur sistemaren erdigunea sinbolizatzen duen hiriak ez du gehiago depresiorik sortzen Atxaga-ren baitan. Hiriaren parte bihurtu baita arrakastaren ondorioz. 1989ko sari nazionalak eta segidan lortu duen nazioarteko ospeak periferiaren erdigune bihurtzen dute – euskal literatur sistema periferikoko egilerik nagusia – eta ber-denboran, erdigunearen periferia – hau da, espainiar literatur sistemaren eta batez ere nazioarteko sistemaren egile nahiko periferikoa.

Orduan, espainiar eta nazioarteko literatur sistemari so dagoela, *Gizona bere bakardadean* nobela idazten du (1993). Liburu honetan ere, hiria edo sistemaren baitako zentrotasuna berriz konkistatzen entseiatzen da. Oraingoan, baina, ez du hiri ezezagun bat aukeratu, Bartzelona baizik, Madrilekin espainiar literatur hiriburu titulua partekatzen duena eta, oroz gainera, nazioarteko literatur eta arte hiriburu estatusa daukana, munduko literatur eremuan Atxaga-ren kokapena ezin hobeki sinbolizatu. Carlos heroia periferiako hotel batean bizi eta lanean ari da – espainiar eta munduko sistemetan idazleak daukan kokapen periferikoaren irudi topografikoa delarik azken xehetasun hau.

Haatik, erdigunearen aurkako eraso entseguak porrot egingo du. Hala bizi eta sentitzen du egileak, bi urte geroxeago *Horas extras* liburuan aitortuko duen bezala:

Azken finean, zertaz idatziko dute Marokoko herrixka batean edo, pertsonalizatzeko, Euskal Herriko herriño batean sortu idazleek? Arraroa litzateke, beren lehen liburuetan bederen, metaliteratura edo Oxford estiloko kanpuseko nobela idatziko balute. Are bitxiagoa, europar argitalpen-merkatuak, edo irakurlekoak berak onartuko balu idazle horietarik batek



metropoliko idazleek egiten dutena egitea. “Jadanik baditugu nobela intelektualak, nobela sofistikuak, nobela abangoardistak”, erran lezake metropoliak [...], “behar duguna oroimenaren literatura da, beste leku marjinalen berri eman liezagukeena. Exotismo pixka bat, otoi [...]

Euskal literaturak literatur hiriburu euskaldunik eta are gutxiago nazioarte mailakorik ez duenez, hirugarren mundu literarioaren parte da. Atxaga-k kontzientzia hartzen du euskaraz idatziz –gaztelaniazko itzulpenak berak egiten baditu ere– periferikotasunera, «exotismora», baserriartasunera kondentua dela, eta ez dutela hirian, espainiar zein nazioarteko literatur sistemaren erdigunean bizitzen utziko. Idazlearen ahotsa berriz itotzen da munduko literatur sistemaren kakofonia hiritarreen. Hiritik edo hiriaz idazteak ez dio inolako berezitasunik ematen eta inork ez du entzuten – nahiz eta adimen handiz ahalegiten duen, ETaren borroka armatuaren gaia amutzat hartuz espainiar eta nazioarteko irakurle goari begira, gai hau, guztiz euskalduna izanik ere nazioarteko dimentsioa ere daukan gai bakarra baita (zoritxarrez).

Bestalde, baserriartasunaz edo euskalduntasunaz soilik idazteak frustrazio handia sortzen du Atxaga-ren baitan, erdigunearen periferia bat izatera kondentatzen baitu betiko. Horren ondorioz, egileak ia hamar urteko nortasun krisialdi larria zeharkatzen du, Bernardo Atxaga izateari utzi eta izen berri baten pean idazle karrera berri bati ekinen diola abisatuz. Bere ustez, izen berri eta garbi horrek beste manera batez idazteko eta «Bernardo Atxaga-euskal idazlea» etiketak suposatzen duen guzia bertan behera uzteko aukera emanen lioke. Krisialdi horren kari ere, euskara alde batera uztea aipatzen du.

Hiritik ihes egitea egilearen azken eskaintzarekin batera berriz agertzen da, gai bezala, kale itsutik ateratzeko saiakera bat suposatuz.

Nobela berririk gabeko hamar urteko lehortearen buruan, *El hijo del acordeonista* (2005) izanen da, azkenean, aldi berean euskaldun, espainiar eta munduko literatur sistemetan jokatzeko duenez geroztik bizi duen dilema espazialari Atxagak emango dion erantzun konplexu eta ezin interesgarriagoa. Narratzaile nagusia Joseba (edo José) da –Atxaga-ren egiazko izena José edo Joseba Irazu da– baina nobelaren heroia Joseba-ren adiskide bat da –David, Obabako eskusoinu-jolearen semea–. David Kaliforniako estatuan hil berria da eleberria hasten delarik, eta azken urteak Mary Ann bizilagun amerikarrekin eta beraien bi alabekin Obabako *baserriaren* bertsione globalizatua datekeen *arrantxo* batean iragan dituela kontatzen zaigu. Stoneham-eko arrantxo, Three Rivers hiri ttipiaren ondoan eta San Frantziskotik ehun bat kilometrotara dagoena, Atxaga-k munduko literatur sisteman daukan kokapenaren irudi egoki eta eguneratua da. San Frantzisko Estatu Batuetako hiri kosmopolitentarik bat da. Hala, munduko literatur eremua sinboliza dezake. David-Atxaga munduko literatur sistemaren erdiguneko periferia hurbilean bizi da beraz, Kaweah ibai ondoko arrantxo batean. Indiar izena duen ibaiak, mundu-siste-

maren baitan euskal idazle –beraz, *indigena*– den Atxaga-ren inspirazio-iturburu ez-hiritarra sinboliza lezake. Atxaga munduko sistemaren egile periferikoa da, nazioarteko literatur mugimenduan parte hartzen duena, umilki bada ere. Munduko literatur hizkuntza nagusienetara itzuliak diren *happy few* edo zoriontsu haïetarik bat da, nahiz euskal idazle gisa daukan berezko exotismotik diharduen idazle gisa (azken finean, liburu horretan Atxaga-k Obabako istorioak kontatzen dizkigu beste behin). David heroi-narratzailearen Ameriketarako lekualdatzea, egileak espainiar sistema literarioarentzat daukan mespretxu mota bat bezala irakur daiteke, espero zuena eman ez ziolako. Hiritik ihes egitea (hiria, 90eko hamarkadako nobeletako Barltzelona izanik) manera bat da idazlearentzat espainiar sistema literarioari errateko ez dagoe-la gehiago honen menpe munduko literatur sisteman norbait izateko. Bestela esanda, munduko literatur bizitzaren baitan nazio-maila ez dela gehiago egoki edo pertinentea.

Ordutik aitzina, Atxaga-k hiriri uko egiten dio, literatur desioaren nazio-objektu den heinean, nazioarteko literatur bizitzaren erdigune anitzeko eremu zabal eta postmodernoan kontzentratzeko.

Amerikako arrantxoak, *Obabakoak*-en neo-baserritartasunari esker lortu munduko literatur onarpena sinbolizatzen duenak, David zoriontsu bihurtu du, baina paradisura hurbildu baizik ez du egin : ez du inoiz erdietsi erdigunean erdikoa edo zentrala izatea.

Nobelan harritzekoa dena hauxe da : kontatzen digu nola ezagutu zuten elgar David-ek eta Mary-Ann emazte amerikarrak. Atxaga-ren literaturan sentimenduzko gaia ez da usaiakoa. Baina kontaketa horrek gure interpretazio-hipotesia indartu besterik ez du egiten. David-ek hirirako –San Frantziskorako– bidaia egiten du eta Mary-Ann-en ezagutza han egiten du. Mary-Ann-ek literatur itzulpena irakasten du unibertsitatean (Mary-Ann-en lanbidearen sinbolismoa hain da gardena non itzulpen beharrik ez baitu). Ez zen bestela izaten ahal, egileak bere nazioarteko irakurlegoarekin duen konexioaren sinboloa –emazte itzultzailea– hirian baizik ez zuen ezagutzen ahal, idazleen sartzeari nazioarteko literatur merkatura literatur hiriburuetan baizik ez baita gertatzen ahal, argitaletxe handiek hiriburu horietan egiten dituztelako itzulpenak.

David-ek Mary-Ann-i bere euskal jatorria aitortzen dionean, honek –txantxetan baina hala ere, modu adierazgarrian– artzaintzat hartzen du. Jadanik errana dugu, hirugarren mundu literariotik datorren jendea exotiko besterik ez dela izaten ahal. David, aldiz, Mary-Ann-en begi urdinek eta ile horailak eragiten dioten liluraren pean dago, lehen mundu literarioaren seinale direlako. Harekiko solasaldia mantentzeko modu bakarra baita, David-ek onartzen du Mary-Ann-ek eman dion artzainaren zeregina. Hala, hirugarren

munduko egileak nazioarteko literatura merkatura sartzeko baimena ematen zaionean jasaten duen bortizkeria sinbolikoaren metafora besterik ez den adar-jotzea luzatzen du. Erdiguneak inposatzen du etiketa eta, egile exotikoak etiketa hori nahitaez onartu behar du erdigunean «jokatzen» segitu nahi badu.

Hala, Mary-Ann xarmatzeko modu hobeagorik aurkitzen ez baitu, elgarrekin afaltzen duten jatetxean David-ek onartzen du eskusoinua jotzea –eskusoinua hirugarren mundu kulturalaren parte dela frogatzen duen beste sinbolo gardena izanik–. Bestela esanda, hobe da egile exotiko gisan erdigunean izatea nazioarteko literatur sistematik desagertzea baino. Atxaga-k ederki erraten duen bezala nobelaren pasarte batean: «Ez da probintziarik metropolirik gabe». Probintziak metropoliaren begirada behar du existitzeko. Hauxe litzateke Bernardo Atxaga-ren azkeneko obraren konklusio pixka bat etsitua, eta hiritik ihes egite zuhur eta anbiguoaren arrazoina.

## 2. HOUELLEBECQ-EN IHESALDIA

Houellebecq-ek literatur eremuan daukan kokapenaren metafora hirukoitza da, ez da bakarrik espaziala. Lehendabizi, metaforak atal sozial bat dauka. Eleberri bakoitzean, Houellebecq-ek literatur eremuan daukan kokapenarekin iduriz zerikusi zuzena duen estatus sozial bat ematen dio edo die pertsonaia nagusiari edo nagusiei. Kokapen-metaforaren bigarren atala sexuala edo maitasuneko da. Sistema metaforiko horretan, emazteak argi eta garbi irudikatzen du egileak bere irakurleekin daukan harreman gutxi-asko frustragarria. Metaforaren hirugarren eta azken atala espaziala da. Narrazioaren ardatza den hirian, hau da, Parisen, non kokatzen da pertsonaia? Zein auzotan? Eta hiritik ihes egiten duenean, zein jomuga hautatzen du?

*Extension du champ de la lutte* liburua argitaratzen duenean (1994an), publiko zabalak ez du ezagutzen Michel Houellebecq. Oraintxe azaldu dugun logika metaforikoaren arabera, bere miseria sexuala teorizatzen duen antiheroi etsikor eta misantropo bat pertsonaia nagusitzat hartuz, Houellebecq bere buruaz eta irakurleekin daukan harremanik ezaz mintzo zaigu. Heroia Parisen bizi da, informatikako zerbitzu-enpresa batean lan egin eta SMICa bi aldiz eta erdi irabazten du, baina badira urteak eta urteak bere bizitzan ez duela emazterik izan. Bere zuzendariak martiritzatzen du Parisetik kanpo lan egitera erregulariki bidaliz. Pertsonaiak aitortzen du «joan-etorri horiek beti amesgaizto»<sup>4</sup> izan zaizkiola. Literatur hiriburuaren nagusitasuna hain da ikaragarria Frantses literatur eremuan non ezer normalagorik ez baita. Parisetik kanpo ez da salbamenik idazle frantsesarentzat. Horregatik, nahiz bertan eze-

zagun izatea pairatzen duen, probintzian baino Parisen nahiago du bizi Houellebecq-en pertsonaiak.

Eleberri labur horren arrakastaren ondotik, Houellebecq hasten da bere lekua egiten frantses literatur bizitzan. Oraindik ez da idazle ospetsua baina jadanik elite batek «idazle kulto»-tzat hartzen du. 1998an *Les particules élémentaires* liburua argitaratzen du. Literatur kritika guziarentzat, nazioartekoa barne, XX. mende amaierako eleberri nagusienetakoa da. Eta arrakasta kritikoari, arrakasta publikoa gehitzen zaio. Dударik gabe, liburuaren hasieran dagoen olerkia idazlearen estatus berriaren adierazle da (lehen eleberriari esker lortu duena):

Orain helmugara iritsi eta / Banantzearen unibertsoa gibelean utzi dugunean.<sup>5</sup>

Idazleak aipatzen duen banantzea ordurarte irakurleengandik bereizten zuena izan liteke. Hala interpreta dezakegu.

Lehen eleberriarekin konparatuz, beste aldaketa bat gertatu da. Houellebecq-en heroia bikoiztu da. Ordutik aitzina, egilearen alter ego gisako pertsonaia edo baliokidea anitza da: kasu honetan Bruno eta Michel anaiak dira. Batak teorizatzen du, besteak bizipen existentzian murgildua izatea pairatzen duelarik. Lehen pertsonaiak, teorialariak, idazleak bere bizipen pertsonalaz egiten duena irudika lezake, bigarrena bizipen pertsonala bera litza-tekeelarik.

*Les particules élémentaires* liburuan, Bruno da bizitzaren esperientzia samina bizi duena. Eta Michel da teorizatuz bizitza urrunetik behatzen duena. Paradoxikoki, Bruno sasi-idazlea da –lizeoko irakaslea ere– Michel biologoa delarik, kristautasuna eta zientzia modernoaren iraultzaren ondotik gertatu mendebaldeko gizadiaren alimaleko aldaketa metafisikoaren eragile nagusitzat aurkeztua! Gure interpretazio-logikaren esparruan, erran dezakegu Bruno-k Houellebecq idazlearen iragana irudikatzen duela eta Michel-ek egilearen handitasun-ametsak gorpuzten dituela. Bruno-k irudikatu Houellebecq da *Extension du champ de la lutte* argitaratu aitzin frantses literatur eremuko kokaleku altuetara iristen saiatzen dena. Denbora ematen du Parisera «igo-tzen». Eskuizkribu literarioak Philippe Sollers-i bidaltzen dizkio, orduko literatur sistema sinbolizatzen duelako, eta Sollers-ek nahiko maitatu baditu ere

---

<sup>4</sup> Michel Houellebecq, *Extension du domaine de la lutte*, Paris, J'ai lu, 1997 (reedición), p. 17.

<sup>5</sup> M. Houellebecq, *Les Particules élémentaires*, Paris, Flammarion, 1998, p. 13.

igorri dizkion testuak, aholkatzen dio probintzia periferikoa uztea zerbait egin nahi badu literatur munduan:

Vous êtes en province ? Mauvais ça. Il faut venir à Paris, tout de suite. Vous avez du talent.<sup>6</sup>

Eleberri honetan, sexuari loturiko problematika lehen eleberrian garatzen zuenetik doi bat urruntzen da. Egia da bitartean, lehen eleberriari esker, Houellebecq-ek benetako aintzatespena lortu duela letren munduan. Ez da dudarik Bruno-k harreman sexualak badituela, baina bere emaztearekin soilik –sinbolikoki probintziako bizitzarekin elkartua azken hau–, eta horrek erabat deprimitzen du.

Pariseran helduz gero, Bruno-k ulertzen du ez dela aski emazte gehiago ezagutzeko (uler ezazue: irakurle gehiago izateko). Beraz, prostitutei bisita egitea erabakitzen du. Ase gabe gelditu denez, erabakitzen du proba bat egitea Parisetik kanpo, Cholet-en hegoaldeko toki batean, zeina «Aldaketaren lekua» deitzen baita. Honen sortzaileetarik baten arabera, anarkista batzuek 1975ean sortu zuten tokiaren helburua «larrua jotzea» besterik ez zen.

Parisetik kanpo «larrua jotzea»... Emazte-irakurleen bila dabilzan idazleentzat hau utopia! Baina preseski, utopia, utopia besterik ez da, frantses literatur bizitzaren errealitatea Parisen jokatzen baita. Pariseran itzuli eta, ahalik eta emazte gehienekin larrua jotzeko egarri aseezina duenez – irakur ezazue : bere irakurlegoa ahalik eta gehien hedatu nahian -, Bruno-k, Cholet-en ezagutu duen Christiane-k lagundurik sexu-trukatzaileen klubak bisitatu ditu. Azken hauek, idazlearen ibilbideko une horretan Houellebecq-en irakurlego mugatua sinboliza lezakete. Badirudi sexu-trukatzaileen kluba metafora egokia dela talde mugatu batzuetan estimu zerbait daukaten idazleen egoera irudikatzen, jakinez talde horiek egoera berean dauden beste idazlez osatuak direla gehienbat.

Orduan, Michel anaiordeak lekukoa hartzen du pertsonaia nagusi gisa. Michel zientifikoak irudikatu Houellebecq hau ez da bestea bezain periferikoa frantses literatur sisteman. Izan ere, errana da Champ de Mars pasealekuan paseatzeko usaia duela eta Sorbonne-aren ondoko Victor Cousin karrikako platanondoan pean – hau da, frantses bizitza kultural eta intelektualaren erdigunea ezin hobeki sinbolizatzen duen lekuan - jarri ohi dela irakurtzeko. Hala, *Les Particules élémentaires* liburuko Michel pertsonaia *Extension du champ de la lutte* liburuaren arrakasta ondoko Houellebecq-i legokioke.

---

<sup>6</sup> Ibid., p. 229.

Michel-en anbizioa argia da. Frantziatik eta, beraz, Parisetik ihes egin nahi du. Zeren, eleberriko lehen orrialdeek kontatzen diguten bezala, Michel gauza batez kontzientea baita:

Le pays qui lui avait donné naissance basculait lentement, mais inéluctablement, dans la zone économique des pays moyen-pauvres.<sup>7</sup>

Hitz hauen bitartez, Houellebecq-ek erraten digu frantses literatura eskualdetzen ari dela munduko literatur kontzertuaren eskalan. Houellebecq-ek ulertzen du, Michel bere baliokide argi-ikusleak bezala, hautatu duen ibilbidean aitzinatu nahi badu, bere burua nazioartekotu beharko duela. Hauxe da, hain zuzen, *Les Particules élémentaires* liburuarekin egileak bere buruari finkatzen dion helburua.

Beraz, Michel Irlandara abiatzen da, Parisetik ihes eginez, bere tamainarentzat orain hertsiegi zaion literatur eremu baten sinboloa baita hiriburua frantsesa. Hamar urteren buruan, 2009an, doi-doia zendu aitzin, bere ikerketa zientifiko iraultzaileak postaz bidaltzen dizkie, bai Pariseko Zientzia Akademiari (irakur ezazue: frantses literatur eremua), bai Erresuma Batuko *Nature* aldizkariari (irakur ezazue : bere oinarrizko partikulei esker konkistatu nahi lukeen nazioarteko literatur eremua). Behin zenduz gero, Hubczejak izeneko zientzialari batek lekukoa hartzen du Michel-en aurkikuntzak mundura zabalduz. Hubczejak-ek Houellebecq-en bertsio nazioartekotua irudika lezake, erran nahi baita nazionarteko eszenatokira iritsiz gero, eta frantses literatur eremuarekin zeukan hasierako kideztaz arindurik, literatur karrera berri bat abiatzen ahal duen *born again writer* edo birsortzen den idazlea.

2001ean argitaratu *Plateforme* hurrengo obran, Houellebecq berri bat aurkitzen dugu, bitartean mundu osoan ospetsu eta *Les Particules élémentaires* liburuari esker salmenta kopuru ikaragarriak lortu dituen idazle bihurtua. Bestela esanda, ia berehala « egile handi unibertsal » bihurtu da, planetako literatur talderik hetsienara sar daitekeena, bertan bere parekoak diren Kundera, García Marquez, Rushdie, Roth, Easton Ellis, bai eta beste idazle eskukada batekin ere kokatzen baita.

Hemen ere Michel deitzen da heroia. Eleberraren hasieran Parisen bizi da (bere aita probintziakoa zela erraten zaigu), Landareen Baratze ondoan, erran nahi baita Houellebecq-en pertsonaiaren igoera soziala eta ber-denboran literatur eremuan egilearen igoeraren seinale den toki onean. Michel arte garai-kidean ari da lanean, garrik gabe, egunak bidaia-agentzietako prospektoen ai-

---

<sup>7</sup> Ibid., p. 9.

tzinean amets egiten iraganez. Liluratzen duten esku-orri horiek *tour operator* batenak dira, honen izena («Nouvelles frontières» - «Muga berriak») ez baita kasualitatezkoa. Alabainan, muga berriak amesten dituen Michel Houellebecq idazlea besterik ez da, frantses literaturaren presondegitik ihes egiten saiatzen dena. Horregatik ez gaitu harrutuko ikusteak heroiak bere aita frantsesa gorrotatzen duela eta eleberraren hasieran, aita hiltzerakoan, ez duela ezer sentitzen. Hiltzen dena, egiazki, frantses hutsa zen Houellebecq hura da.

Elementu bat dator gure interpretazio-hipotesia bermatzera. Izan ere, Michel-ek opor-jomugatzat aukeratu duen Tailandiak nazio-mugaren haraindia errepresentatzen du. Eta, hain zuzen, Tailandiara eramaten duen hegazkina sartu bezain laster, nazioarteko literatur eszenako zenbait lehiakidekin, hau da, best-seller edo arrakasta handiko liburuen egileekin aurkitzen da. Helmugara iritsiz gero, hotelean Michel hasten da eleberrari horietarik bat irakurtzen, John Grisham-en *La Firme*, lehiakideak errotik ezagutu behar balitu bezala borrokan eraginkor izateko. Michel-ek komentario sarkastikoak egiten ditu autore komertzialen arrakasta handiko liburuez –nahiz ez diren hauek bere egiazko lehiakideak, baizik eta nazioarteko egile handiak–, berriro ere bere egilearen ahots bihurtuz haietaz trufatzeko:

*J'éjaculai avec un soupir de satisfaction entre deux pages. Ça allait coller; bon, ce n'était pas un livre à lire deux fois.*<sup>8</sup>

Michel-ek deskubritzen duenean bidaia garaian ezagutu duen izeneko emakume gaztea, Nouvelles Frontières-eko bidaia-antolatzaile bat dela (incognito bidaiatzen duena produktuei buruzko bezeroen ikuspegia ezagutzeko), arinago sentitzen da. Arintzea ondoko elementutik dator: Valérie, nahiz frantsesa izan, mundu osoarekin harremanetan da; ez du frantses eremuan preso atxikiko.

Xehetasun garrantzitsu bat azpimarra dezagun: egilearen bi alter ego horiek osatzen duten bikote berri honek (Michel eta Valérie) apartamendu handi bat erosten du Opalo dorrean, Paris aldera ikuspegi paregabea eskaintzen duena: nabarmena da hemendik aitzina Houellebecq nazioarte mailako idazle bihurtua dela, Parisen menpe izateko partez, bere idazle-ibilbideko aurreko faseetan gertatu zen bezala, hiriburua gaineratik begiratzen baitezake orain. Paris Houellebecq-en hegaldatze-*plataforma* bihurtu da nazioarteko eremurantz.

Emeki-emeki, Michel-ek alde batera utziko du arte garaikideko munduan zeukan lana, Valérie bizilaguna mundua konkistatzeko ostalaritza-formula bat sortzen laguntzeko. Houellebecq idazlearen estrategia aldaketaren irudi nahiko

<sup>8</sup> M. Houellebecq, *Plateforme*, Paris, Flammarion, 2001, p. 96.

zuzena da. Zintzotasun handiz, baina zinismo puntu batekin, Houellebecq-ek onartzen du, Michel-ek Valérie-rekin duen maitasunezko abenturaren bidez, bere helburua ez dela, jada, talde mugatu baten adorazio-objektu izatea, baizik eta nazioarteko literatur merkatua behin betiko konkistatzea.

Valérie-k nazioarteko bezeroak liluratuko dituen turismo formula magikoa asmatu behar du. Michel-ek aterabidea salatzen dio: «Propose un club où les gens puissent baiser». Pasarte hau erabat meta-literario eta auto-erreferentziazkoa da zeren eta Houellebecq-ek ez baitu besterik egiten liburu honetan irakurlea konkistatzeko. Izan ere, *Plateforme* obra ziniko bat da, honetan sexua tresna gisa etengabe eta nahita erabilia baita nazioarteko irakurlea erakartzeko eta limurtzeko. Houellebecq-ek aurkitu duen literatur formula magikoa aldi berean praktikatu eta teorizatzen du eleberrian bertan !

Hemendik aitzina, frantses eta nazioarteko literatur eremuen segidako konkistak sakelari dituelarik, zertaz amets egin dezake Michel Houellebecq bezalako idazle batek ? Galdera honi erantzuten dio *Possibilité d'une île* liburuan. Erantzuna kontrazalean agertzen da, galdera baten gisan: «Zuetarik zeinek merezi du betiereko bizia?». Erran gabe doa honako hau irakurri behar dela lerroen artean : zeinek merezi du literatur betierekotasuna?

Honek erran nahi du ordurarte egilearen problematika gehienbat espaziala bazen –frantses eta nazioarteko literatur eremuetan (ongi) kokatzea zuen helburu–, konkistatu nahi zuen espazio guzia konkistatzea lortu duenez, ordutik aitzina problematika denborazkoa bihurtuko da. Helburua lortutakoa iraunaraztea da *geroko klasiko* bihurtuz.

Liburu honetan Houellebecq-ek gustukoaren duen egitura berraurkitzen du, hau da, pertsonaia nagusiaren bitan banatzea. Aldi honetan, eleberrian garatu denborazkotasunaren arabera, bitan banatze diakronikoa izanen da. Alde batetik, badugu Daniel 1, XXI. mende urrunean bizi zena (gure garai honetan) eta, bestetik, badira Daniel 24 eta Daniel 25, narrazio nagusiaren orainaldian bizi direnak, hau da, guregandik biziki urrun dagoen etorkizuneari. Geroko Daniel-ak lehen Daniel-en klon genetikoa dira.

Entre las notas más destacables de esta obra cabe resaltar la verosimilitud por el elevado número de referencias geográficas y personales fácilmente reconocibles. Entre las primeras destacan las que se relacionan con el País Vasco y Barcelona; Guipúzcoa: San Sebastián (Zurriola, el bar “Vallés”, la cafetería “Gaviria”, la estación del Norte, Loiola, Martutene, etc.), Zumárraga, Txingudi, Fuenterrabía, y Vizcaya: Bakio, Lekeitio, Elantxobe; Barcelona (Parque Güell, San Cugat, Coll de Portell). Entre las referencias personales saltan a la vista los nombres del P. Bernaola, S.J. (antiguo profesor de la Universidad de Deusto en Bilbao), el abogado y político Luis M<sup>a</sup> Bandrés, el concejal donostiarra R. Etxezarreta de Urrestilla, el crítico literario J.M. Lasagabaster, el escritor guipuzcoano I. Mújika, el siquiatra J.J. Lasa, Ibon Sarasola, filólogo y autor de *Teseu* (1987) (traducción de *Thésée*, 1946, de A. Gide), Melitón Manzanos (policía torturador asesinado por ETA en 1968). Solamente en una ocasión trastoca el nombre y apellido; es el caso del militante “Tupa” que aparece como Javier Garmendia Apaolaza, cuando en realidad se llama José Antonio Garmendia Artola.

La intertextualidad es también otra de las características reseñables de esta novela. El texto original se convierte en una narración ensamblada mediante la incorporación de otros textos g.v.: los fusilamientos de D. Zabalegi y de Loretta Sheridan. Además, este texto literario no es un fenómeno aislado sino el resultado de un mosaico de citas: latinas (“in medio virtus”); francesas (“et

pourtant vous serez semblable à cette ordure”); inglesas “”it’s Baudelaire time, my darling”); italianas (“il diavolo sulle coline. -Ecco”); castellanas (textos de periódicos y de los sumarios judiciales).

Los numerosos nombres de escritores, músicos y políticos que aparecen a lo largo de toda la obra justifican también su calificación de novela culta v.g: Orixe, Lizardi, Pl. Mujika, el bertsolari Xalbador, La Rochefoucauld, Diderot, G. Flaubert, M. Proust, A. Gide, P. Valéry, J.P. Sartre, A. Camus, Butor, Claude Simon, V. Blasco Ibáñez, J.M. Pereda, A. Trueba, M. de Unamuno, P. Baroja, I. Aldecoa, J.W. Goethe, B. Brecht, E.A. Poe, H. Jammes, Th. Mann, R.M. Rilke, W.B. Yeats, C. Pavese, A. Moravia, F. Dostoievsky, A. Solzhenitsyn, C. Jung, L. Wolf, Bacon, G. Mahler, J. Brel, J. Lennon, R. Nixon.

En cuanto al estilo de la novela hay que remarcar la importancia de un narrador impersonal y onnisciente que desde la óptica de una tercera persona gramatical controla toda la historia. La importancia del protagonista principal (I. Abaitua) como narrador va creciendo a medida que transcurre el relato. Mientras va recabando datos sobre la muerte de D. Zabalegi, su vida pasada se irá entrecruzando con la de éste. Por otra parte, la belleza de las descripciones tan minuciosas (vg; la del militante etarra, p. 259-260), y el dramatismo que entrañan algunos de los bellos pasajes (v.: 349-357 y 366-377) harán que los lectores (especialmente los que vivieron en aquellos crueles años) sigan con sumo interés este relato. A medida que el autor va resolviendo sus dudas sobre el papel de la memoria y el pasado, va comprendiendo mejor una época trágica de la historia reciente del País Vasco. Si el objetivo de R. Saizarbitoria fue la búsqueda de una nueva estructura literaria para su cuarta novela, tendremos que confesar que acertó plenamente en su intento.

## J.M. LEKUONA, HITZ-AURRE EGILE: “IRAKURLE IDEALAREN” IDAZKERA ZEHATZA

Jon CASENAVE

Juan Mari Lekuona ezagutua da poeta<sup>1</sup> eta euskal literaturaren historialari<sup>2</sup> bezala. Liturgia itzultzailea eta herri literaturaren biltzaile eta aztertzailea, adibidez, ez dira asko aipatzen, are gutiago oraindik egunkarigilea eta hitz-aurre egilea. Itzulpena eta kantu bilketa bigarren mailako idazlanak bezala ekarriak baldin badira, zer erran hitz-aurre eta gisa bereko aurkezpenentzat? Alabainan, zer ote da idazlan mota hori? Egiazko saiakera ala lagunen arteko idazki konplaxenta? Bistan dena, bi muga horien artean bada arteka nasaia hitz-aurre ezberdinen sailkatzeko eta bereizteko.

Juan-Mari Lekuonaren kasuan badugu ezaugarri interesgarri bat eztabaida horren trenkatzeko : 1997-an, Deustoko Unibertsitatean argitaratua izan den “*Ikaskuntzak euskal literaturaz*” liburuan, erantzun bat aurki daiteke. J.M. Lekuonak, bere irakaskuntza denboran egin zituen artikulua bilduak dira liburu gotor hortan eta, beste saiakera ainitzen artean, bere idazle lagunei eskaini zizkien hitz-aurre zenbait atxematen dira. Lankide eta ikasle ohi batzuek osatu zuten bilduma hura bainan, autorearen baimenarekin. Beraz, ez da dudarik literaturari buruzko saiakera bezala hartzen zituela lan horietatik gehienak.

J.M. Lekuona, “idazle eta laguna“-ren nortasunaren berri emaiten digute-lako, idazlan horiek erabiliko ditugu beren baitan dituzten ezaugarri nagusien

---

<sup>1</sup> J.M. Lekuona, *Mindura gaur* (1966), *Muga beroak* (1973), *Ilargiaren eskolan* (1979), *Mimodramak eta ikonoak* (1990) in *Ibilaldia/ Itinerario* (1950-1990), arg. Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996.

<sup>2</sup> J.M. Lekuona, *Ahozko euskal literatura*, arg. Erein, 1982.

argitzeko gisa. Gure ustez, bi ondorio atera daitezke hitz-aurre horietatik : alde batetik, irakurgai berrien ulertzeko eta argitzeko zuen gaitasuna eta, bestaldetik, haren irakurketa “sinpatikoa”<sup>3</sup>.

## 1. JUAN MARI LEKUONAK EGIN HITZ-AURREEN ZERRENDA

1970-tik hona egin argitaratu diren liburuetan, hitz-aurre egile izen batzu behin eta berriro ageri dira: K. Mitxelena, L. Villasante, P. Lafitte, J. Azurmendi, besteak beste. Nolabait errateko, garaiko “autoritate” intelektuala eta bitartekari kulturalak dira. Nahiz ez den idazle horien izena bezainbat agertzen, J.M. Lekuonaren izena ere sar genezake zerrendan. 1977-an, J.M. Torrealdai soziologoak garrantzi handiko liburu bat argitaratu zuen euskarazko liburugintza eta euskal idazleei buruz : *Euskal idazleak gaur*. Liburu hartan, euskal kulturaren munduan egindako inkesta baten ondotik, orduko “hamar luma” preziatuenak aurkeztu eta sailkatu zituen eta J.M. Lekuona sailkapenean sartu zuen. Mundu mediatikoaren burrunbatik urrun egoten zen arren, J.M. Lekuona autoritate bat zen garai hartako euskal kulturaren. Beraz, ez da harritzeko haren izena aurkiturik orduko liburu zenbaiten atarian, aintzinsolas egile bezala. G. Aulestiak, *Ibilaldia*<sup>4</sup> liburuarentzat egin zuen zerrendan fidaturik, zortzi erreferentzia ematen ahal ditugu :

- “Atari gisa”, in Manuel Uztapide, *Lengo egunak gogoan*, vol.1, arg. Auspoa, 1974.
- “Sarrera modura” in, Bitoriano Gandiaga, *Uda batez Madrilen*, arg. Aranzazu, 1977.
- “Sarrera gisa”, in Luis M. Mujika, *Zortziko hautsiak*, arg. Ed. Vascas, 1978.
- “Hitzaurrea”, in Paulo Iztueta, *Ibiltari*, arg. Elkar, 1979.
- “Sintesis unean landurik poemak” in Joxe-Austin Arrieta, *Bertso paper printzatuak*, arg. Elkar, 1986.
- “Elorri, argitaraldi berria” in Bitoriano Gandiaga, *Elorri*, arg. Aranzazu, 1989.
- “Hitzaurrea” in Gorke Aulestia, *Bertsolarismo*, arg. Bizkaiko Foru Aldundia, 1990.

---

<sup>3</sup> Hemen hitza hartzen dugu bere oinarrizko zentzuan : jendeen arteko elkar ulertze eta elkarkidetzat barna bezain sendoa.

<sup>4</sup> J.M. Lekuona, *Ibilaldia/ Itinerario* (1950-1990), arg. Euskal Herriko Unibertsitatea, 1996.

– “Hezurdura laburki aurkeztuz” in Lourdes Otaegi, *Lizardiren poetika*, arg. Erein, 1994.

Zer dute elkar ikusteko zortzi hitz-aurre horiek? J.M. Lekuonak hurbileko lagun eta adixkideentzat eginak dituela erran daiteke. Batentzat salbu (*Elorri*, B. Gandiaga), lehen argitalpenarentzat idatziak ditu aintzin-solasak. Bainan, horietan barnago joan baino lehen, idazlan mota hortaz eman daitezkeen ohar orokor batzu aipatu behar ditugu.

## 2. TESTU-MOTA BATEN ILUN-ARGIAK

### Definizio baten bila

XX-garren mende ondarreko kritikarentzat, obra baten ingurumen guzia ikerketa gai bilakatu da. “Paratestu” (batzuentzat: “Peritestu”) eta “Epitestu” deitzen dituzte ingurune materiala eta inguru-giro soziala. G. Genette<sup>5</sup> bezalako ikerlariak ari izan dira haien balioa eta funtzioa aztertzen<sup>6</sup>.

Hitz-aurrea “paratestuan” sartzen da. Hori erranik, bi kasu bereizi behar dira oraindik : lehena, autoreak berak egindako hitzaurrea edo, bigarrena, beste norbaitek harentzat egina. Hemen, aipatuko ditugun idazlanak, bigarren kasuan sartzen dira, hots, J.M. Lekuonak besteentzat egin dituen hitz-aurreak.

### Hitz-aurre baten funtzioak

Bigarren kasu hortan sartzen den aintzin-solasari, G. Genette-k bi funtzio nagusi ematen dizkio : alde batetik, sorkuntzaren kontestuari eta idazleari buruz irakurleak behar dituen xehetasunak ematea ; bestaldetik, funtzio informatibo horrez gain, gomendatzearena. Gomendatzerakoan eta argitzera-koan, ez da dudarik gisa batez edo bestez, aintzin-solas egileak nahi duela

---

<sup>5</sup> Gérard Genette, *Seuils (Atariak)*, arg. Editions du Seuil, 1987.

<sup>6</sup> Hona zer sarrarazten duen “paratestuan” : autorearen izen-deiturak ; izenburuak eta azpi/arteko/etb. izenburuak ; dedikatorioak ; aipamen epigrafikoak ; aintzin-solas, solas-ondo, etb ; notak eta oharrak.

Hona zer ezartzen duen “epitestuan” : Epitestu publikoa : bitartekaritza mota ezberdinak ; elkarrizketak ; kolokioak eta mintzaldiak. Epitestu pribatua : gutunak (paperezkoak eta elektronikokoak) ; aitormen mota ezberdinak, egunkari pertsonala, etab.



lehen lehenik irakurlea testura erakarri. Bide batez, ematen dizkion xehetasunen bitartez, nahi dio irakurketa apailatu, bainan, denbora berean, ez da ukatzen ahal bideratzen diola, berak nabarmentzen duen zentzuaren arabera.

Askotan, J.M. Lekuona bezalako irakasle eta unibertsitario bati, aspaldiko edo bederen hildako autore batentzat egitea eskatzen zaio. Bainan, haren kasuan, kontura gaitezke autore garaikideentzat egina duela. Idazle zenduak aurkezten ari izana da ere, bainan bakanetan eta, horrelako kasuetan, solasondoaren bidea aukeratu zuen, menturaz, interferentzia gutiago sortzeko irakurlea eta testuaren artean, hala nola Satarkaren kasuan (“Satarkaren Intza begietan“, in *Ezti tantak*<sup>7</sup>).

### Idazlan arriskutsua

Hitz-aurre egileak bere bidean aurkitzen duen lehen oztopoa, dudarik gabe, irakurlearengandik heldu da. Alabainan, anitzetan irakurlea –nork ez du horrelakorik egin?– ez da atarian gelditzen eskatua zaion bezala eta, testuan barrena abiatzen da aintzin-solasaren gainetik pasatuz. “Atariko autoritatearen“ iritziaren beharrik ez du ikusten eta, nahiago du testua berehala dastatu filtrorik gabe. Beraz, askotan seriozki egindako lan zehatz hori debaldetan egina da.

Bainan, lehen arrisku horrez gain, bigarren bat bada oraindik aintzin-solas egilearentzat. Guziz zaila da jakitea zer gisaz edo noren izenean idazten duen eta norentzat ari den. Beraz, bi galde nagusi aurkitzen ditu bere bidean :

Norentzat idatzi behar du aintzin-solasa? Irakurlearentzat dudarik ez. Bainan, denbora berean, hitz-aurrea eskatu dionarentzat ere bai, eta oroitu behar da J.M. Lekuonak adixkide edo lagun hurbilentzat idatzi zituela lan horiek. Lehenik, erran gabe doa, ez diola adixkideari “atari“ konplaxentarik eskaini nahi, horrelakorik ez baita on ez emailearentzat ez eta ere hartzailearentzat. Jakinez zehaztasun intelektuala zorrozki lantzen zuela beretzat, J.M. Lekuonak ez zuen horrelakorik egiten ahal eta, ez dugu pentsatzen egin zuenik.

Bigarrenik, kondutan hartu behar zuen eskatzaileak “nori“ eskatu zion aintzin-solasa. Adixkideari? Poetari? Poesia garaikidearen aztertzaile trebeari? Eskatera ez da neutroa eta, erantzunaren arabera, idazlan ezberdinak idatz litezke. Bainan, pentsa daiteke ere “hiruei“ batera eskatu ziela. Zer nahi gisaz,

---

<sup>7</sup> Satarka, *Ezti tantak*, (K. Sagarzazu-k paratua), arg. Elkar, 1996.

hortan berean bazen J.M. Lekuonanrentzat "postura" eta mintza-lekuari buruz arazo bat.

Orain, ikus dezagun lehen galdera hontatik datorren bigarren galdera:

Zein da mintzatu beharra den Lekuona hura? "Zer" gisaz mintzo da? Sortzaile eta poeta gisa mintzatu izan balitz beste sortzaile lagun baten lana gomendatzeko, maila bereko partaide gisa eta autorearekin sinpatia osoan beharko zuen idatzi, harekin bat eginez sortzaileen elkarkidetzan nolabait errateko. Aldiz, Lekuona irakasle, kritikari eta poesiaren aztertzaile bezala idatzi izan balu, hots "autoritate" baten posturan jarri izan balitz, gainetik bezala idatziko zuen, irakurlea eta poeta distantzia berdinean atxikiz. Gure ustez, idatzi dituen hitz-aurreetan, J.M. lekuonak ez du ez bat ez bestea hautatzen, bainan bien arteko zerbait.

### Saiakera mota hibrido bat

Ez da agertzen ez "autoritate" bezala, ez eta ere poeta edo lankide bezala. Bi mintza-gune horien arteko toki batetik mintzo da. Poesiaren espezialista gisa, aurkezpen edo saiakera guziz teknikoa eskaintzen du beherago ikusiko dugun bezala. Bainan, denbora berean, ez du testuaren "mamia" gehiegi barnatzen eta interpretatzen, haren "misterioa" irakurleari bere osotasunean utzi nahi izan bazion bezala. Horren lortzeko eta berritasunaren erakargarritasuna ez gal arazteko obrari, teknikariaren deskribapen zehatzari, "lehen irakurle"-aren freskotasuna eta zentzuaren "interpretatze" edo "mugatze" eza gehitzen dio. Hots, saiakera mota hibrido bat eskaintzen die irakurleari eta eskatzaileari.

Hortaz ohartzeko aski da ikustea J.A. Arrietaren *Bertso-paper printzatuak*<sup>8</sup> liburuarentzat idatzi duen aurkezpena. Azterketa literario bat antolatzen du, hastetik buru, kapituluka egituratua eta demostrazio baten eran eraiakia. Teknikoa izanik, kritika literarioak moldatu duen hiztegi berezituaz (prosodiaz, metrikaz, hizkuntza figuratiboaz, etb.) erabiltzen du. Eta alde hortarik, pentsa daiteke poxi bat idor egiten ahal zaiola irakurleari, unibertsitarioegia menturaz. Bainan, azterketaren idortasuna ezitzen du harrera berezi baten bidez, sortzailearekin "sinpatian" balego bezala :

"Uste bait dugu uste, gure aipamen hau lagungarri gerta dakiokoela, ez noski guk diogunaren balio objektiboagatik bakarrik, baizik eta ofizioko bat mintzatzeak duen alderdi subjektiboagatik ere bai ; eta ez gutiago noski".

---

<sup>8</sup> J.A. Arrieta, *Bertso-paper printzatuak*, arg. Elkar, 1986.

Garbi dago lan guziz zaila zaiola J.M. Lekuonari, preseski sarbide kriti-koa aipatu bi jarrerren artean nahasia bezala ikusten duelako. Beraz, arriskua onartzen du baitaki poesia garaikidearen harrera urria bezain neketsua dela :

Gure artean jaiotako poema-liburuek badute arriskurik euri-zaparradaren antzera gera daitezen, irakurlegoaren barne emankorretan barrendu gabe. (...) Ingurugiro honetan plazaratzen digu Joxe-Austin Arrietak bere bigarren poema-liburua, Bertso-paper printzatuak deritzana. Eta aspaldiko ezagun eta lagunaren idazlanari aipatu “zaparradarena” gerta ez dakion, amore eman diot poemon aurkezpena egin beharrari.

Halarik ere, eginbidetik hara, “bidaide” izateko parada ikusten dio hitz-aurre idazteari :

Eta aitortu beharra daukagu, pozik gaudela aurkezpen-lan hau egitera behartu izanaz, poemagintzak berea baduelako, eta gure poesiari buruzko gogoeta franko egiteko modua eskaini digulako, bestek beste.

### 3. POESIA GARAİKIDEAREN IRAKURLE “ESPERIMENTALA”

Hastapenean erraten genuen, poesiarentzat ari izana zela batez ere hitz-aurre egiten J.M. Lekuona. Hiru idazlan (Lizardi-ri buruzko ikerketa bat<sup>9</sup>, Bertsolaritzaz ari den azterketa bat<sup>10</sup> eta bertsolari baten autobiografia<sup>11</sup>) kentzen badira, beste gaineratikoak sorkuntza lanak dira, poeta garaikide batzuek eginak (Arrieta, Gandiaga, Iztueta, Mujika). Beraz, J.M. Lekuona poesia garaikidearen aztertzaile trebea izan baldin bada, aurkezle eta defenditzaile neka-gaitza izan da ere. Hemen ez dugu batere haren lan kritikoa ikertu nahi. Beraz, doi doa erranen dugu zer aurkezpen mota egin duen (edukian sartu gabe) hitz-aurre egile gisa, gorago definitu ditugu bi jarrerren bitartez.

#### a. Irakurketa teknikoa

##### *Irakurle “berezitua”*

J.M. Lekuonak egiten duen lana ez da irakurle soilarena. Bainan, ber denboran, ez du bere irakurketa pertsonala aintzinean eman nahi. Orduan, bi ohar

<sup>9</sup> L. Otaegi, *Lizardiren poetika*, arg. Erein, 1994.

<sup>10</sup> G. Aulestia, *Bertsolarismo*, arg. Bizkaiko Foru Aldundia, 1990.

<sup>11</sup> M. Uztapide, *Lengo egunak gogoan*, vol.1, arg. Auspoa, 1974.

mota egiten ditu nagusiki. Alde batetik, historia literarioaren sarbideetik eman daitezkeen xehetasunak aipatzen ditu. Bestaldetik, ezaugarri teknikoak ematen ditu. Horren erakusteko, bi adibide emanen ditugu.

Ikus dezagun, gainez gain, *Bertso-paper printzatuak*<sup>12</sup>, J. A. Arrietaren liburuarentzat idatzi duen aurkezpena. Autorearen aintzineko bi idazlan (poema liburu bat<sup>13</sup> eta itzulpen bat<sup>14</sup>) aipatu ondoan, hizkuntzari buruzko ohar teknikoak egiten ditu xeheki : lehenik, lexikoaren erabilera poetikoaz azterketa bat ("Aztergaiak : zer eta noraino"; "irakurkera literalaz"); bigarrenik, prosodiari buruzko ikekerta sakona ("Estrofagintzan ahaleginetan", "Egiturak eta estrukturak"); hirugarrenik, intertestualitatearen baliatzeko moldeak ("Intra-literaturatik"); laugarrenik, azken kapitulu batean ("Azkena"), J.A. Arrieta orduko euskal literaturari egiten dion ekarpenaren neurtzera saiatzen da.

"Eta nolerebaiteko azterketa metodo bati atxeki behar eta, bide honi ekin diogu : gure susmo zabal horiek arakatzeari, gaiak zehatzago markatuz, zertxobait kuantifikatuz, dauden-daudenean konstatatuz." (*Bertso-paper printzatuak* liburuaren hitz-aurretik).

Hots, testutik egin ahala hurbil egonez eta egiturari kasu emanez, poesiarren baliabideak bilatzen ditu, batez ere sinkronian bainan, diakronian ere behar orduan.

Eta aztertu behar bagenu B. Gandiagaren *Uda batez Madrilen* liburuarentzat egiten duen aurkezpena gauza bera azpimarra genezake. Horra kapitulu zenbaiten izenburuak: "Berezko formen tratamendua"; "Poema horien balore formalaz"; "plastizitatea"; "literatur forma zabalagoak". Garbi dago Gandiagaren poemagintza ulert arazteko indar handia egiten duela eta, haren lortzeko, ordu arte erabiliak ez ziren "konzepto" kritikoak sararazten dituela, hala nola "ezpazioa".

J.A. Arrieta edo B. Gandiagaren izariko garaikideak aipatzerakoan, eta gehiago dena argitaratuak ez diren testuentzat, oker ibiltzeko arriskua bada beti. Ez dira XX-garren mendeko poeta hermetikoenak bainan, obra konplexua egin dute eta beren trinkotasunean, helgaitzak gelditzen dira. Obra horien baitan sartzeko ateak eman nahiz dabil J.M. Lekuona. Beraz, itsu-mandoka ari da, berritasuna usnatzen, eta ezagunetik abiatuz berriaren argitzen aritzen da, testuaren baitatik :

<sup>12</sup> J.A. Arrieta, *Bertso paper printzatuak*, arg. Elkar, 1986.

<sup>13</sup> J.A. Arrieta, *Arrotzarena / Neurtitz neurgabeak*, arg. GAK, 1983.

<sup>14</sup> J.A. Arrieta, *Hadrianoren oroitzapenak*, arg. Elkar, 1985.

Gandiagaren espresabide poetikoaz jabetuko bagara, ahantzezina da arte plastikoek dagioten eragina, batez ere egilearen balio formalaz hitzegiterakoan. Eragin honek esplika diezaguke tematikaren norabidea, sentsibilitatearen alorra eta minberatasuna, kezka eta desiren sorburua, eragin eta zentzu espáciala, hitzen formetan eta estrofaren berregiturazetan. (*Uda batez Madrilen*, Hitz-aurrea.)

### *Orainaren... historiolaria*

Berritasuna bereizi ondoan, haren ulertzeko koadro bat eman nahi du. Orduan, beharrezkoa delarik, ikuspegi diakronikoa sarrarazten du bere aztertze lanean. Atzerapen historiografikoaren bitartez, obraren tokia finkatzen du euskal literaturaren jarraipen historikoan :

“Dena dela, Gandiaga hemen Europako joera berrietara lerratzen da, poesia sozialekoak baino ardura nabariagoz. Lizardi eta Lauaxetaren haritik, Miranderen kideko. Eta hau da benetan preziagarri *Elorri*-ren modelakuntzan: teknika landua, originala, gerraurrekoen eta hirurogeita hamarreko hamarkadakoen haritik.” (*Elorri*, bigarren argitalpenaren hitz-aurretik).

*Elorri*-ren kasuan, badu oraindik gibelatzapen poxi bat : lehen argitalpena 1962-an egin zen eta, bigarrenrentzat prestatzen duen aintzin-solas hori 1989-an agertzen da. Bainan, *Uda batez Madrilen* edo *Bertso-paper printzatuak* liburuentzat, ez du atzerapen izpirik eta, bizkitartean, obra sortu berriari toki bat eman behar dio diakronian. Hots, orainaren historialaria bilakatzen da eta, nolabait errateko, apustu bat egiten du jakin gabe liburuak zer harrera mota ukanen duen kritikaren aldetik baita ere irakurleagoaren aldetik:

Bainan azken urteotan berriro ere zailtasun bereziak ditugu zaharagook hiztegi berrira jar gaitezen. Bai Joseba Sarrionaindiaren kasuan, Joxe Austinenean, aldaketa bat nabaria da lexikon alorrean. Susmo dugu poesia modernoago eta unibertsalago baten lehia ote dabilen azpian. (*Bertso-paper printzatuak* liburuaren hitz-aurretik).

Eta badirudi, eskerrak bihurtzen dizkiola aurkezten duen poetari, ausnarketa baten egiteko parada eman diolako :

Guri Joxe Austinek jokabide mordo bat eskaini digu. (*Bertso-paper printzatuak* liburuaren hitz-aurretik).

### **b. Irakurketa “sinpatikoa”**

Apustuen egiteko orduan, berriro, “lehen irakurlearen” tokitik mintzatzten da, hots, bere ikuspondu pertsonaletik. Eta erantzun baino galdera gehia-

go heldu zaio obra berriaren aurrean. Orduan, irakurle "experimental" gisa, ikuspondu "berri" batetik norabide batzu bilatzen ditu, bere buruarentzat ari balitz bezala:

Euskal poesiaren aldetik begiratuta, berriz, liburu honek bide egokia eskain diezaguke gaurko poesigintzaren inguruko zenbait arazo planteia ditzagun.

Bainan, irakurketa hortan maila "materiala" batean mugatuz, ez da poetaren irudimenean sartzen. Edo bederen ez du haren irudimena interpretatu nahi, behin betiko erabaki kritikoa emanaz. Mundu sortuberriaren aintzinean gelditzen da ; sartzeak bilatzen eta proposatzen ditu bainan atarian gelditzen da. Ez du J.P. Richard-ek<sup>15</sup> edo J. Starobinski-k<sup>16</sup> egiten dutena egin nahi, hots, ez du poetaren baititik, haren konzientziaren barrutik mintzatu nahi.

Hein batetik hara, J.M. Lekuona-k aldebat uzten ditu aztertzailearen tresnak eta beste gisako harreman bat bilatzen du ongi ezagutzen duen poetarekin :

Ortzadar baten pare.

Uraren eraginak bultzaturik eginak dira liburu honen lehen parte eta azken parte. Urarekin hasten da eta urarekin bukatzen, sustriak uretan dituela. (...)

Azken poeman berriro ere ura. Ortzadarra Madrileko zerutik itsasgorriaren altzora bihurtzen da, bere jatorrizko su hartara. Eta berriro ere poema bila dabil egilea gure artean, zerura begira. (*Uda batez Madrilen* liburuaren hitz-aurretik).

B. Gandiagaren irudimenaren atarian tresnak utzirik, poesiaren bitartez du lotura egiten bere adixkidearekin, biak, azterketatik haraindiko eremuan, elkarrekin partekatzen duten mundu poetikoan "sinpatian" balira bezala.

## Konklusio gisa : Irakurle idealaren lan urria

Bukatzeko erran daiteke "Lehen irakurle"-aren eginbidea ongi bete duela J.M. Lekuonak, ausartzia kritikoa eta zehaztasun intelektuala ongi orekatuz. Ez da dudarik, aurkeztu zituen autoreek preziatu zutela haren ekarpena.

---

<sup>15</sup> J.P. Richard, *Poésie et profondeur*, arg. Seuil, 1955 – 1976 ; *L'Univers imaginaire de Mallarmé*, arg. Seuil, 1961.

<sup>16</sup> J. Starobinski, *La mélancolie au miroir* (« Trois lectures de Baudelaire »), arg. Julliard, 1989.

Adixkidetasun markaz gain, laguntza teoriko handia eman zien, norberak bere lanari buruz nekez egin zezakeen aztertze eta ebaluatze lana haien orde eginenez. Bestalde, euskal literaturaren jarraipenean baita ere ingurugiro garaikidean jartzeko parada eman zien, hortan ere, bat bederak bere obrarentzat lortezina duen ikuspegi orokorra eskainiz. Hots, idazle guziek nahi luketen “irakurle ideala” izan da J. M. Lekuona bere hitz-aurre lanetan.

## ERRIMA BERTSOLARITZAN: ARAU ETA BALIABIDE

Pello ESNAL

Gogoan dut nola Eibarren, Herri Literaturako VII. jardunaldietan, aurrez aurre bazkaldu genuen Juan Mari Lekuonak eta biok. 2002ko azaroaren 28a zen. Juan Mariri astebete lehenago nabarmendu zitzaion gaitza, Markinan, jardunaldi horien aurkezpenean. Eta gogoan dut zer esan zidan bazkaritan, esaldia nekez osatuz: “segi errimarena lantzen; ea artikulu egokia ateratzen duzuen literatura-hiztegian”. Labur erantzun nion: “Bai, Juan Mari. Saiatuko gaituk”.

Juan Mari, nekez osatutako esaldi hartan, lekukoa ematen ari zitzaidala sumatu nuen: berak osabarengandik hartutako lekukoa eskaintzen. Osabak bezala, Juan Marik ere aztertua zuen bertsolarien errima; eta Juan Mari eta biok ere saiatuak ginen elkarrekin jorratzen. Aurrerantzean, bera gabe jarraitu beharko nuen. Eta aurrera egiteko esaten ari zitzaidan, nahiz eta ondo zekien ez gentozela bat zenbait kontutan.

Juan Marik ez zekien, ordea, lekuko bikoitza emaitzen ari zitzaidala.

Euskaltzaindiak, 1994an, XIII. biltzarra antolatu zuen, sortua izan zeneko 75. urtemuga ospatzeko. Hain zuzen, biltzar horretarako prestatu genuen, Herri Literatura batzordean, errimari buruzko lana. Juan Mariren beraren ideia izan zen, eta nire eskuetan gelditu zen bai txostena lantzea batzordearen baitan, bai biltzarrean jendaurrean aurkeztea. “Puntua bertsolaritza” izenburuaz argitara zen *Euskera* aldizkarian (Esnal, 1994b). Orain, hura egokitzeo aukera izango genuen literatura-hiztegian.

Gaur, plazan da *Literatura Terminoen Hiztegia* (Otaegi, 2008); eta hor dator euskal errima oro har lantzen duen artikulua; eta honen baitan, bertsolaritza erabiltzen den errimari buruzko azalpena, metrikaren aldetik egina.



Juan Marik emandako lekukoak bazuen, ordea, beste alderdi bat: errima, arau gisa ez baina, baliabide gisa hartzen duena. Izan ere, Juan Mariri zor diot bigarren alderdi hau lantzen hasi izana ere, nahiz eta ez dudan uste inoiz esan nionik. Eta Eibarko bazkari hartan beranduegi nenbilen. Dena den, alderdi hau ere lantzen jarraitzeko hitza eman nion, baietz erantzun nionean.

Besterik gabe, ondoren azaltzera noa zer ibilbide egin dudan errimaren bi alderdi horiek aztertuz, Juan Mari gogoan eta bihotzean, esker onez eta mirespenez.

## 1. LEHEN URRATSAK

### Irun

Errimaz eta bertsolaritzaz hitz egitean, askotan ikusten dut neure burua Irunen, salletarren formazio-etxean, hamalau urte nituela. Orduan izan nuen, hasteko, Antonio Zavalaren egitasmo erraldoiaren berri. Orduan irakurri nuen, 1964ko Eguberritan, *Azpeitiko premiyoaren bertsoak*, Auspoako 25. zenbakia. Orduan hasi nintzen lehen bertsoak idazten ere. Eta ordukoak dira hitz hoskideen nire lehen bi zerrendak: *indarra, zakarra, baldarra...*; *gezurra, beldurra, agurra...* Baina azkar etsi nuen.

Ordurako banuen gaztelaniazko metrikaren berri: nola gaztelaniaz errima asonantea eta kontsonantea bereizten diren; nola azentutik aurrera hasten den errima; beraz, nola esdrujula, grabea edo agudua izan daitekeen errima daraman hitza. Berehala ohartu nintzen, ordea, bertsoen errimak ez zituela erdal metrika haren arauak betetzen. Nire lehen zerrenda haietako hitzei grabeen itxura hartzen nien. Non ote ziren aguduak eta esdrujulak? Norbaitek esan zidan euskaraz ez dagoela horrelako azenturik, eta han amaitu ziren nire zerrendak. Orduan, nola idatzi bertsoak, euskal metrika ezagutu gabe?

Azken batean, bertso-girotik kanpo bizi zen gaztetxo baten nahia eta ezina adierazten zuten lehen urrats horiek. Hala ere, gaztetxo hark bertsoak jartzen zituen tarteka. Agian, bertsoak jarritz joango zen pixkana bertsogintzako metrika ikasten eta menderatzen.

### Andoain

Sei-zazpi urte geroago Andoainen nintzen, berriz ere jaioterrian, eba-kuntza gogaikarri bat zela medio. Eta bertsoak idazteari ekin nion. On egingo

zidan gauzak umorez hartzeak. Bat-batean ere hasi nintzen neure gisa. Trakets hasieran; nola edo hala berehala, bai idatziz, bai bat-batean, baina errima menderatu ezinik eta baliabide errazegiak baliatuz: *-tzen* amaierak-eta.

Etxeko egonaldi hartan jakin nuen nola Juan Mari Lekuona izan berria zen Andoainen bertsolaritzaz hitzaldi bat ematen eta nola esan zuen bertsolariak “klitxeak” baliatzen dituztela bertsotan. Ez dakit zehatz-mehatz zer esango zuen, baina betiko iltzatuta gelditu zitzaidan “klitxe” hura, neure erara ulertuta: antzeko errimak erabiltzen dituztela bertsolariak, molde jakin batzuk baliatuz behin eta berriro.

## Elgoibar

Bi urte geroago, 1973ko urtarrilaren 28an, Elgoibarren nintzen, Euskaltzaindiaren D titulua jasotzen, Pedro Migel Urruzunori eskainitako omenaldian. Orduan, Zarautzen bizi nintzen, bertso-giroan murgilduago, Auspoko liburuak gogotik irakurtzen. Klitxe batzuk ere atzematen hasia nintzen, Txirritaren bertsoak irakurriz eta bat-bateko bertso-saioretan: *batean, artean, bitartean...; jabe, gabe, hobe...; ikusi, itsusi, nagusi...* Bertsoak ere jartzen nituen noizean behin.

Elgoibarren, Antonio Zavala izan zen hizlari. Lehen aldiz entzuten niola. Bi urte lehenago Juan Mariren “klitxe” hura bezala, orain Antonioren pasarte bat gelditu zitzaidan betiko iltzatua gogoan (Zavala, 1996: 309):

Bertsolari ez diranak, diranak baño askoz lasaiagoak dira puntuetan. Bertso osoa irakurri gabe ere, puntuak bakarrik kontuan artzea aski izaten da askotan bertsolari baten lana dan edo ez dan erabakitzeke. Urruzuno oso xuxena ta aberatsa zan puntuetan. Aren liburu bat artu ta bertso bat billatu det: edozein. Ona emen puntuak: ardatza, aberatsa, latza, esperantza. Beste bertso batenak: gutxian, etxian, kotxian, biotzian. Alakoxeak dira beti Urruzunoren puntuak; bertsolaririk onenak erabiltzen dituzten modukoak.

Hala hasi nintzen atzematen, pixkana, bertsolaritzaren errimaren bi alderdiak: metrikarena eta errima-moldeena.

## 2. ERRIMAREN BI ALDERDIAK ATZEMATEN ETA LANTZEN

Hurrengo hamar urteetan, buru-belarri ibili nintzen bertsoen munduan. Zenbat bertso-saio, jaialdi eta sariketa! Ia sariketa guztietara joaten nintzen

entzule. Noizbait, 1979an, Euskaltzaindiak berriro antolatu zuen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa. Hiru saioetan izan nintzen: Arrasaten, Gernikan eta Donostian, finalean.

Idolo handi bat izan nuen lehenbizi: Manuel Lasarte; eta Lasarterekin batera, Xalbador. Gero, 1979ko txapelketan, zoratu ninduen Xabier Amurizaren bertsogintzak.

## Xalbador

*Odolaren mintzoa* liluragarriak, bertsoa ez ezik, aberatsa du hitzaurrea ere, bai formaz eta bai edukiaz. Besteak beste, hitz jakingarriak idatzi zituen errimaz Xalbadorrek. Hiru puntu azpimarragarri hartu nizkion betiko gogoa (Xalbador, 1976: 57-60): 1) zeinen nekeza zitzaion berari errimara makurtzea, Hegoaldeko zenbait bertsolariri ez bezala, 2) zer poza sumatzen zuen zenbait entzuletan, bertsolariren bat errimaren arauetatik ateratzen zenean, 3) baina, zailtasunak zailtasun, ez zela errazkerian jausten; aurretik zegoela bertsoarekiko eta hizkuntzarekiko errespetua:

Ez ginuke hargatik, rimaren itxura egin beharrez, gure hizkuntza gaizki erabili behar. Etsenplu asko emaiten ahal nituzke hortaz; bainan, ez luzeegi izaitegatik, hau emanen dut bakarrik. Maizegi entzuten da zerbait holako, konparazione:

Deitoragarri zaut hiltzia,  
maitatzen baitut bizia.

Xalbadorrek erdi bideko errima erabili zuen bertsotan: ez Hegoaldekoek bezain estua, baina ezta Iparraldeko zenbat kantutakoa bezain lasaia ere; eta beti, hizkuntzaren arauak zintzo betez.

## Xenpelar saria

Bitartean, neure bidea egiten ari nintzen bertsogintzan, batez ere idatzietan. Bertsoak idatzi eta *Zeruko Argia* aldizkarira bidaltzen hasi nintzen. Eta, 1978an, Xenpelar saria irabazi nuen, “Soldadu ekarri naute” bertso jarriekin (EsnaI, 1995: 23-24). Euskaltzaindiak antolatu eta lehendik Xalbador zenak lautan irabazitako saria!

## Uztapideren lezioa

Aiako herriak omenaldi bat eskaini zion Manuel Lasarteri, 1979ko martxoaren 18an. Aian bizi bainintzen orduan, zazpi bertso idatzi nituen eta *Zeruko Argian* plazaratu. Honela dio laugarrenak (Esna, 1995: 34):

Aiarren bihotzetan  
zuk ere, Lasarte,  
oroitarri bat duzu  
bizi garen arte,  
hain zara miresgarri,  
hain zaitugu maite,  
maitemindu gazteak  
laguna hainbeste.

Omenaldiaren egunean, jendez gainezka zegoen Aia. Bazkalondoan izan zen bertso-jaialdia; eta, jaialdiaren aurretik, Basarrik kantatu zituen Uztapidek Lasarteri jarritako sei bertsoak. Hauxe da lehena (Uztapide, 2001: 231):

Zu jaio ziñanetik  
gaurdaiño bitarte  
badira berrogei ta  
amaika bat urte;  
bertsotan naiz ez izan  
zuk ainbeste arte,  
omenaldi onetan  
artu nai nun parte,  
zorionak biotzez,  
Manuel Lasarte.

Bertso horrek betiko markatu ninduen. Izan ere, alderatu besterik ez daude nire aurreko bertsoaren bi azken oinak –*maite* eta *hainbeste*– eta Uztapiderenak, bostak –*rte* errimadunak. Alde hori zegoen nire errimaren (baita Xalbadorren errimaren) eta Uztapideren (eta ildo bereko bertsolarien) errimaren artean. Aurrerantzean, Uztapide eta eskola berekoen ildotik joko nuen.

## Juan Mari Lekuona: “Ilargiaren eskolan”

Urte hartantxe plazaratu zen *Ilargiaren eskolan*, Juan Mari Lekuonaren bigarren poema-liburua (Lekuona, 1979), bigarren zatia –“Liburuen karroxa”– bertsoz osatua. Bertso horien errimak bi ezaugarri nagusi zituen: Uztapideren eskolakoa zen eta bertsolariek inoiz erabili gabeko oinek gauzatzten zuten. Lehen ezaugarria dela-eta, Zavalak sei urte lehenago Elgoibarren

esanaz gogoratu nintzen: “Bertso osoa irakurri gabe ere, puntuak bakarrik kontuan artzea aski izaten da askotan bertsolari baten lana dan edo ez dan erabakitzeko”. Dударik gabe, Juan Mariren oinak bertsolari batenak dira. Bigarren ezaugarriak, berriz, baieztapen hori zehaztera garamatza: bertsolari kultu baten bertsoak dira Lekuonarenak.

Bi eratan uler daiteke hori. Edo Juan Mari urrundu egiten dela bertsolaritza, esparru horri itxiegia iritzita. Edo kontrakoa: ahaleginak egiten ari dela bertsolaritza hurbil-hurbiletik ezagutu eta jarraitzeko, betiere bideak zabalduz eta aberastuz. Bigarren irakurketa aukeratu nuen. Are gehiago: lau haizetara zabaldu beharra zegoen. Izan ere, zenbat euskal poetak lortu du bertsolaritzaaren errima ezagutu eta bereganatzea?

Bestalde, bada poema-liburu horretan pasarte esanguratsu bat, Luis Mari Mujikak hitzaurrean idatzia, maila guztiz apalagokotzat joz liburuaren bigarren parte (Mujika, 1979: 13-14). Lehendik ezaguna genuen Mujikak bertsolaritza buruz zuen iritzia.

### Xabier Amuriza

Urte berean izan zen Bertsolari Txapelketa Nagusia, Amuzirak 1980ko Errege egunez irabazi zuena. Aldi berri bat hasten da bertsolaritza. *Zeruko Argiara*, bertsoak ez baina, artikulu bat bidali nuen, “Txapelketa historiko bat”, berritasun hori azpimarratuz (Esnal, 1980).

Erriman ere nabaria zen Amurizaren berrikuntza.

Xabierrek euskara batua zerabilen bertsoetan eta, ondorioz, erriman. Horrek aldaketa zekarren berekin. Eta zailtasuna. Zailtasuna, oinen forma berriak ez ezik, ordu arteko klitxeen eraberritzea ere bazekarrelako. Hala, maiz darabilte Hegoaldeko bertsolariak *genduan* forma errimetan; eta horrekin *moduan*, *munduan*... Baina *genuen* batuak beste oin batzuk eskatzen ditu alboan; beste klitxe batzuk.

Gainera, Amurizaren beste bi erabakik areagotzen zuten zailtasuna. Batetik, nahiz Xalbadorren miresle handia izan, Hegoaldekoen errima estua hobetsi zuen eta, bestetik, bere buruari ez zion uzten lizentziarik hartzen. Berak esana da: lizentzia bakarra hartu zuela 1979ko txapelketa osoan; oker ez banago, *usua* (usoa) eta *osua* (osoa) erabili izana, *lehengusua* oinaren errimakide.

Baina Amurizak zabaldu ere egin zuen errima, hoskidetza berreskuratuz. Hau ez zegoen galdua. Baina, errima gero eta beteagoa nahita, giroan zegoen berdintasun idatzia hobesteko joera, hoskidetzaren kaltetan. Amurizak,

ordea, ahalik etekinik handiena ateratzen dio hoskidetzari. Tradizioa berreskuratzen ari zen.

Amurizak, gainera, ugaldu ere egin zuen errima-hiztegia; eta errima-hiztegiarekin batera, klitxeak.

Hori guztia berria zen, nobedade, Amuriza bertsotan lehenengoz entzuten genuenontzat. Plazan zegoen, ordea, urte batzuk lehenagotik, bere *Mundutik mundura* liburuiko bertso jarrietan (Amuriza, 1977). Argiago eta zehatzago ikusiko zen 1981ean, liburu bikoitza plazaratu zuenean: *Hitzaren kirol nazionala* eta *Hiztegi errimatua* (Amuriza, 1981a; 1981b).

Amurizak plazaratu zuen errima berria. Baina, funtsean, Juan Mari Lekuonak “Liburuen karroxa” zatian darabilen berbera da. Azken batean, biek egiten dute gauza bera: bertsolaritzaren tradizio nagusian oinarritu eta euskara batuaren ekarriaz osatu, ugaldu eta aberastu.

### Manuel Lekuona: 1915-1925

Ur asko mugitu zuen txapelketak. Besteak beste, mintzaldi batzuk antolatatu zituen bertsolaritzaz Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak. Lau saioetan izan nintzen. Baina batez ere Manuel Lekuonarena egin zitzaidan deigarri. Eztabaida zahar baten oihartzuna zekarren.

Gero, mintzaldi horiez osatu zuten *Jakin* aldizkarikoek 14-15 zenbaki bikoitza, beste lan batzuk ere baliatuz. Hona hemen, on Manuelen hitzak eta eztabaida zaharraren oihartzuna (Lekuona, 1980: 60-61):

Nik ba det, orain irurogeitamar urte baño geiago egindako itzaldi bat gai onetaz: Gasteiz’ko Seminarioan, Ikastaldi baten Asieran irakurritako Itzaldia. “De Métrica Vasca” zuan izena. Gogoan det, zergatik aukeratu nuan gai ori nere Itzaldi artarako.

Urte aietan –1915-1925– D. Antonio Pildain Lezoarra eta D. Jose Migel Barandiaran ataundarra eta irurok, alkarrekin egiten genituan gure arratsaldeko paseotxoak Gasteiz-inguru aietan. [...] Eta aietako batean, gogoan det, D. Antonio Pildain’ek, Bertsolarietaz ari giñala, nola esan zuan bapatean –berak askotan oi zuan bezela bapatean–:

–Manolo: nik uste, euskal-bertsoarentzat Metrika berri bat sortu bear litzakela; gaurko Metrika, gauza errexegia dek, gauza merkea; Euskera, Izkuntza sufijativa izanik, euskeraz bertsoa egitea gauza errezegia dek, gauza merkea; zallagoko, arte geiagoko beste Metrika bat sortu bear zenduteke. [...]

Nere metrikaren asiera, gure Gasteiz-inguruko paseoetan izan zan; Pildain adiskidearen kritikan; kritika besobakarra, bañan neretzat azterketarako bidea eman zidana.

Manuel Lekuonaren mintzaldiak, errimaz ez ezik, erritmoaz ere badihardu. Oso kontuan hartzekoa da hori, baldin eta iloba Juan Mariren bertsoari buruzko teorizazioa ulertu nahi bada.

### Joxe Azurmendi

Bada, ordea, *Jakin* bikoitz horretan esaldi zorrotz bat, Joxe Azurmendik idatzia. Ez zen hizlari izan mintzaldietan, baina lan luze bat egin zuen aldizkarirako. Tartean dio (Azurmendi, 1980: 160):

Rima azterketa kuantitatibo sinpleenak ere egiteko gaude eta rimari buruz teorizatzen ibiltzen gara.

Neuretzat hartu nuen.

### Juan Mari Lekuona: Lizardiren metrikaz

Txapelketa nagusi hark eraginda-edo, bertsolari gazteentzako Xenpelar sarian eman nuen izena, 1980aren amaieran, neure burua plazan eta bat-bateko bertso gintzan probatzeko. Ondo ikasi nuen lekzio hura ere.

Bi urte geroago plazaratzen du Juan Marik *Ahozko euskal literatura* oinarrikoa (Lekuona, 1982). Urtebete geroago etorriko da, *Jakin* aldizkarian, Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak aztertuz egindako lana, niretzat bideurratzaile izan zena. Honen sarreran, bi pasarte jakingarri zetozen (Lekuona, 1983: 53-54). Lehenak Joxe Azurmendiren hitzak ekarri zizkidan gogora:

Hasi beharra dago hartzen ditugun arloak beren luze-zabalean aztertzen, ikuspegiak mugatzen eta kuantifikatzen, edota baieztapenen oinarriak eskaintzen, neurri egoki batean behintzat.

Bigarrena soka luzekoa da:

Guk hemen, eta besterik erakusten zaigun arte, desberdintzat hartzen ditugu [puntuak eta errima]: errimak batez ere letrekin du zerikusia, eta azken letraz/-ez egindako hoskidetza berdina emango luke aditzera, asko edo gutxi direla letra horiek; eta puntuak, letrekin ezezik, erritmoarekin ere badu zerikusi, adibidez, oinekoekin; eta letrei dagozkienetan, errimarena baino luzeagoko hoskidetza ere lekarkiguke, bai hoskidetza magikoa deritzana, bai aliterazioz ematen zaiguna, gero ikusiko dugunez.

Horra hor, bereizita, Juan Mariren teorizazioan, osaba Manueli jarraiki, funtsezkoak diren hiru kontzeptu: errima, puntua eta oina. Eztabaida gogorak izanak zituen horiez Patxi Altunarekin. Eta gerora ere tinko eutsiko dio

bere ikuspegiari, “besterik erakusten zaigun arte”. Eta *Literatura Terminoen Hiztegia*n utzia du azken testigantza; esaterako, oina kontzeptuaz eta terminoaz (Otaegi, 2008: 605-607).

Lizardiren errima aztertzeke, sei errima-eredu bereizi zituen (Lekuona, 1983: 54-55):

Sistema hau hartu dugu. Ez da erabatekoa, baina bai bide bat azterketak egiten hasteko [...]. Eta errimako hotsen hoskidetza nondik hasten den begiratu, kasu hauek aurki daitezke:

*A eredu*a: atzizki edota morfema berdinez egiten dena, bakoitzaren ñabardurak barne: izu-izuAN / arteAN; sortuRIKO / jantziRIKO; diranAK / oiAK; buruTU / aazTU.

*B eredu*a: lexema desberdinetako azken silabaren bokaletik edo kontsonantetik hasiz egiten dena: bainO / banekielakO; jaurtI / bizI; oNENA / biguNENA; negUA / puztUA.

*C eredu*a: lexema desberdinetako azken silaba osotik, edota bi letretatik hasiz: murkIL / IL; OIN / itxOIN; zorakortasuNA / igaNA; baduTE / ez oTE.

*D eredu*a: lexema desberdinetako azkenaurreko silabaren bokaletik edo kontsonantetik hasiz: gERO / ERO; beñOLA / kaiOLA; AGO / pozAGO; baÑA / AÑA.

*E eredu*a: lexema desberdinetako azkenaurreko silaba osotik, edota bi letretatik hasiz: ZEGOEN / ZEGiOEN; mALDAN / AL DAN; yausiTAKOAN / DAGOAN.

*F eredu*a: lexema desberdinen heren silabatik hasiz egiten dena: IzURI / IdURI; bESTERI / ESERI; zornA BERRIAK / ABERRIAK; ITZALI / kIXKALI.

Eta *Biotz-begietan olerkiak* obran Lizardik erabilitako errima guztiak banan-banan aztertutik, emaitza hau eskaini zigun (Lekuona, 1983: 87): A ereduak: % 8,59; B ereduak: % 30 inguru (zehaztu gabe) eta C ereduak: % 36,18. Eta puntu hori amaitzen zuen esanez:

Lizardik lautatik bat bakarra lantzen du estilista zehatzek egingo luketen neurrian.

Poesiaren erdietan baino gehiago hoskidetza nabaria agertzen da Lizardiren estrofagintzan. Beraz, errimaz atzeragoko hoskidetzak badirudi osatu egiten duela bete-beteko errimen hutsunea, erizpide estetikoaren garrantzia errima onean eta aliterazioan jartzen duela, bata bestearen osagarri.

Artikulu, berriz, honela bukatu da:

Honetan gelditzen da oraingo gure ekarria. Hartu dugun eremuari buruzko datuak bildu ditugu, zenbatu, eta hauetatik atera daitezkeen ondorio



zehatzak atera. [...] eskaini ditugun datuak interesgarri gerta daitezke, antzeko lanak beste autoreei buruz egin ondoren, gure olerkarien estrofagintza zernolakoa den zehatzago finka dezagun.

Zenbat aldiz entzun dudan hitz horien oihartzuna!

### **Iñaki Eizmendi, “Basarri”**

Hurrengo urtean, 1984an, *Bertsolaritzari buruz* liburua argitaratu zuen Antonio Zavalak, bertan bilduz Basarrik bertsolaritzari buruz idatzitako hainbat artikulua; besteak beste, “Bertsolaritzari buruz” izeneko lau, *Zeruko Argian* 1963an plazaratuak, errima-legeaz (“puntu-legea” zioen berak) zuen iritzia argi azalduz.

Hitz gutxitan, errima-legeak hondatzen du gehien Hegoaldeko bertsolaria; errima derrigorrezkoa du bertsoak, “baña gaur arte gabiltzan bidetxigor melar ontatik eztaukagu ibiltzerik”. “Zabalegi ta estuegi ibili gabe, ba-daukagu erdiko bide bat”. Alegia, ez Iparraldeko zenbait kantutan bezain zabala (*sahetsean* eta *neguan* uztartuz), baina ezta Hegoaldekoa bezain estua ere (*gaztelua*, *tentelua*, *txorimalua*, *erregalua*, *alua*, *errezelua*, *lua* eta antzekoak erabiliz); baizik eta erdi bideko aukera hartuz, esaterako, Elizanburuk bezala (*gaztelua*, *sorlekua*, *hautatua*, *galdua*, *sortua*, *mundua* eta *zentzua* oinak ontzat eta egokitzen joz) (Eizmendi, 1984: 21-31).

Horrela mintzo zen Basarri. Beste kontua da zer neurritan jokatu zuen horrela.

### **3. UZTAPIDEREN ERRIMA: OINAK ETA KLITXEAK**

Testuinguru horretan –1982an– erabaki nuen Uztapideren errima aztertzea, kontuan izanik bai haren errima-legea (metrika) eta bai klitxeak. Zeharbidez banuen beste xede bat ere: gainerako bertsolarien errima aztertze-ko metodologia ontzea.

Uztapide aukeratzean, bertsolari gehienek ordezkaria hautatzen ari nintzen. Hura aztertuz, Hegoaldeko gaurko bertsolaritza aztertuko nuen; metrikari dagokionez, behintzat. Atzeman nitzakeen klitxeak, berriz, Uztapiderenak izango ziren, hasteko. Gero gerokoak.

### “Uztapideren oin-errimen almazena berrosatzen”

Uztapideren bertsoen lagin bat behar-eta, *Sasoia joan da gero* jo nuen begiz (Uztapide, 1976). Bertso idatziak izanik ere, bat-batekoak dira formaz: errima berekoak. Egokiak, beraz, errima-legeak atzemateko. Bestalde, izan zezaketen abantailarik klitxeak ere atzemateko; hain zuzen, etorriaren oparotasunaren sasoia joanda, seguruenik nabarmenago azalduko ziren Uztapideren bertso-molderik ohikoenak. Seguruenik.

Pazientziaz hasi nintzen fitxak eskuz bete eta kartoizko kaxetan gordezten. Artean, urruneko kontuak ziren ordenagailuak-eta. Lan luzean sartu nintzen, eta presarik gabe. Horregatik, erdi bidean harrapatu ninduen Euskaltzaindiak, Manuel Lekuona Herri Literatura ikerketa-sariaren deialdia egin zuenean, 1988an. Hala ere, aurkeztu egin nintzen, ordu arte eginaren berri emanez, “Uztapideren oin-errimen almazena berrosatzen” izenburuaz. Saria irabazi nuen, eta lana argitaratzeko aukera.

Sarira aurkeztutako lanean, hiztegi konplexu baten zimenduak eta lehen emaitzak zeuden. Funtsean, oinen hiztegia zen: *Sasoia joan da geroko* bertso-etako oinen hiztegia; ointzat hartuta, betiere, errima darama(te)n hitza(k). Baina oinak ez nituen ikusten banan-banan, baizik eta sailka eta multzoka, konstelazioak eta sistema konplexu bat osatuz. Azken batean, Uztapideren klitxeen bila nenbilen. Horren berri ematen saiatu nintzen, Felix Ibargutxi kazetariak eskatuta (Esnal, 1989).

### “Errima Uztapideren bertsogintzan”

Handik bi urtera, *Euskeran* aldizkarian plazaratzeko prestatzean, bigarren lan bat ere erantsi nion saritutakoari, Uztapideren errima-legeak azalduz: “Errima Uztapideren bertsogintzan: ezaugarrietatik sistemara”, Biak batera, “Errima Uztapideren bertsogintzan” izenburuaz atera ziren *Euskeran* (Esnal, 1991).

Amaieran, hiru errima mota (eredu, Juan Mariren hitzetan) bereizten nituen Uztapideren praxian: 1) Ø amaiera duena, 2) bitartekoa eta 3) erro urrikoa eta amaiera luzekoak. Eta esaten nuen bakoitzeko zenbat erabili zituen *Sasoia joanda* geron: 129 lehenengo (% 15), 374 bigarrenengo (% 44) eta 349 hirugarrenengo (% 41).

Argi zegoen zertan ziren antzeko eta zertan ez Juan Marik Lizardiren errima-azterketan eta nik Uztapiderenean erabilitako sailkapenak. Berehala izango genuen aukera bi lanak bateratzeko-edo. Izan ere, Euskaltzaindiaren

Herri Literatura batzordekoa nintzen ordurako; eta batzordekide nituen, has-teko, ibilbidean maisu izandako Antonio Zavalá eta Juan Mari Lekuona.

Beste gertakari batek ere eragin handia izan zuen nire ibilbidean. Zarauzko Etxe Beltz bertso-eskolako irakasleek deitu zidaten berekin lan egitera.

### “Bertsoa erabateko denean”: bertsolari-tipoak

Lan berria nuen bertso-eskolakoa. Eta, horrelakoetan ohi denez, erabaki-garriak izan ziren lehen urratsak. Haiak markatu zidaten ondorengo hamabost urteko lana, bertso-munduan murgilduta, bertsoan erakusten, errima-legeak arau eta klitxeak baliabide.

Hain zuzen, lehen esperientzia hura jasoz idatzi nuen, *Bertsolari* aldizka-riko, “Bertsoa erabateko denean” artikulua, bertsoen ikuspegi funtzionala azpimarratuz eta bertso-didaktikarako zenbait ondorio atereaz (Esnal, 1992):

Bertso-eskoletan ere oso eragilea izan daiteke ikuspegi funtzionala. Besteak beste, erraz ipintzen dituelako ikasleak bertso kantari; erraz eta bertsoaren ikuspegi osoagoz. [...]

Horrela sortu ditugu bertso-eskolarako bertsolari-tipoak, geure lanean asko laguntzen digutenak. Zer diren bertsolari-tipoak? Desiderio La-la-la, Xeru, Ahobero, Bexelas, Ea-Mea, Pantxika Baldintzas... eta antzeko bertsolariak.

Desiderio La-la-lak, esaterako, nahia edo desioa adierazten du bertsoan, eta beti subjuntibo-formaz eta -LA atzizkidunez bukatzen ditu bertsoak: *dezala, ditzala, daitezela, dadila, dezagula, ditzagula...* Xeruk ere antzeko bertsoak kantatzen ditu beti, baina honako hitzez amaituz: *daitezen, gaitezen, dadin, dezagun, ditzagun...*

Adibide bat ipini behar-eta, Nahikari Gabilondoren bertso bat hautatu nuen. Hamalau urte zituela kantatu zuen, Donostian, 1992ko eskolarteko finalean. Gaia: “udalekuan hamabost egun pasa eta azken eguna iritsi zaizu”. “Ara nun diran” doinuaz kantatuz, aipamen berezia irabazi zuen:

Udalekuan pasa ditugu  
ederki hamabost egun.  
Neska-mutilak ezagutuaz  
egin ditut hainbat lagun.  
Azken eguna iritsi da ta,  
ea zer egin ber degun...  
Beste hamabost egun luzetan  
hemen itxaron dezagun.

Egun hartako oroitzapen asko ditut. Baina nekez ahaztuko zait zer esan zidan Iñaki Zulaika irakasleak, lehen oina *-egun-* entzun orduko: “badiagu bertsoa!”. Izan ere, berehala igarri genion Xeru edo Ea-Mea bertsolari-tipoen arabera osatuko zuela Nahikarik bertsoa. (Dena esanda, Xeruren bertsoa da, nahiz eta seigarren lerroa Ea-Mearena izan.)

Urtebete geroago plazaratu zen, *Jakin* aldizkarian, “Bat-bateko bertso-gintzaren didaktikaz” artikulua (Esnal, 1993a), Juan Mariren “Atalondo” artikulua atariko (Lekuona, 1993).

## ONDORIO GISA

Nire Etnografia lanetako atal hau garai bateko emaitza baino ez da. Herri jakintza askoz ere handiagoa da eta hor dabil ahorik aho batean bestean. Aberastasun hori ikusteko, besteak beste, J.Kaltzakortaren *Dantza-kopla zaharrak* liburu ederra ikustea baino ez dago. Nire liburu honek beste asko egiteko abisaria izan nahi luke denon arte bideratzeko etorkizunera gure aurrekoengandik ikasi duguna.

Eta amaitzeko nire Auspoako liburuko kontraportadarik harako azken hitzak erabiliko ditut: “*Min bako arrana ugerra(k)tx(j)an* dio Zeberioko esatera zaharrak, baina liburu honen bidez ez da isilduko gure herri zaharraren arran-hotsa.”

## BIBLIOGRAFIA

BARANDIARAN, J.M. *Guía para una encuesta etnográfica*. Ex. Dip. Foral de Álava. Vitoria, 1976.

— *Obras completas*. B.G.E.V. Bilbao, 1972.

BERTSOLARI, 34 zk. in *Antonio Zavala doctor honoris causa*. Donostia, 1999.

ETXEBARRIA AYESTA, J. M. *Zeberioko Haraneko Euskeraren Azterketa Etno-Linguistikoa*. Doktorego Tesia. Ibaizabal. Zornotza, 1991.

— *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*. Bilbao. Labayru-Bilbao Bizkaia Kutxa, 1995.

— *Zeberioko Kantak*. AUSPOA Liburutegia. Sendoa. A. Zavala. Auspoa 259. Estella (Navarra). Sendoa. Oiartzun (Gipuzkoa).

— *Euskal Urtea, Obituraz Betea*. Ibaizabal, Amorebieta, 2003.

IRIGOYEN, A. “Formas de nombres de localidades vizcaínas” in *FL.V*, 2, 1972

KALZAKORTA ELORZA, J. *Dantza-kopla zaharrak*. Labayru Ikastegia-Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa. Bilbo, 2007

LEKUONA, Manuel. *Literatura oral vasca*. Colección Auñamendi. San Sebastián, 1964.

MITXELENA, K. *Fonética Histórica Vasca*. Dip. Guip. San Sebastián, 1961.

ZAVALA, A. *Auspoaren auspoa*.( I-II). Oiartzun. Sendoa, 1996.





# JUAN MARI LEKUONA ETA LITURGIA EUSKARAZ

Karmelo ETXENAGUSIA (†)

Euskararen munduan ere eragin handia baino handiagoa izan dau gure hizkera zaharra liturgian sartzeak. Vatikanoko II. Kontzilioa ezker horretan egin izan dan lana luzea eta onuragarria izan da; ez, horraitino, nekerik eta akatsik bakoa. Arlo horretan, beste askoren artean, gure Juan Marik ere bere parte izan eban, eta ez txikia. Liturgiako itzulpenak –bai Altarako Liburuarenak eta bai Irakurgaienak– taldean egindako lanak dira, gehienbat, eta eztaoe egileen izenik. Baina badira zati batzuk egile jakinek eginak, euron izenik inon ageri ez arren. Eta hauxe da Juan Mari Lekuonaren kasua ere, nik hemen aitatu gurako neukeena. Neuk bizi izandakoa eta beste lagun batzuk esandakoa ditut iturri.

## 1. SALMOAK

Arlo honetan zer bi bereizi behar dirala uste dot: bata, salmoen itzulpena, batez ere *Orduen Liturgi*arako; bestea, Eukaristiaren eta beste sakramentuen Irakurgai ostean erabilten diran salmo-zatiak edo erantzun-salmoak.

1.1. *Orduen Liturgi*ako salmoak. Talde bereizia sortu zan honetarako, Agustin Apaolaza beneditarra, biblista euskalduna, zuzendari zala. Oinarritzat, Orixek egindako itzulpena hartu zan, kanturako egokiena zala-koan, baina beharrezkotzat jotzen ziran aldaketak eginez, bai hiztegi batuagoa eta bai itzulpen zehatzagoa lortzeko. Talde horretan lan handia egin eban Juan Mari Lekuonak: beronen eritzia, batez ere salmoen poesi-usaina jagoteko orduan, gehienetan aintzat eta ontzat hartua izaten zan. (Taldea honetan beste

hainbatek ere parte hartu eban: J. A. Orbegozo, J. M. Aranalde, T. Otxandorena, J. B. Gallastegi..., Eustasio Etxezarreta eragile zala).

1.2. *Erantzun-Salmoak*: Liturgia barriztauaren ezaugarrietariko bat hauxe da: lehenengo irakurgaiaren ostean jarritako salmo-kanta (Erantzun-salmoa, erderaz “Salmo responsorial”), irakurgai horren mamina edo mezua oitotz bihurtzen dauan salmo-zati egoki hautatua.

Salmo guztien euskal itzulpena, bertsoz, Iratzeder beneditarrak eskeini euskun, Kontzilio aurretik, salmo bakotxaren doinua bere monastegiko G. Lertzundik jarriarik. Arrakasta handia izan eban itzulpen honek Iparraldean, eta laster izan zan egokitua gure arterako ere, bai gipuzkeraz (Aita Baztarrikak) eta bai bizkaieraz (Aita Lino Akesolok). Horregaitik aberastasun handia izan zan gure Eleizearentzat Iratzeder-Lertzundiren lana.

Kontzilio osteko *Irakurgaiak* liburuan, gehienetan, ez dira salmoak oso-oso emoten, euron zati batzuk baino; eta, behin baino sarriago, zatiok saltoka alkarregaz josiak. Baionako Eleizan lan egiten eban taldeak bidea erraztuta aurkitu eban: Iratzeder-Lertzundirena hartu eben, behar ziran moldaketak eginez; Erromako baimena ere lortu eben horretarako. Gure itzultzaile-taldeak ere ontzat emon eban Iratzeder-Lertzundiren lana, katurako egokia zalako; baina, neurria eta doinua oso-osoan gorderik, hiztegia egokitu egin behar zala uste izan eban, jatorrizko testuari zehatzago lotuta, eta gure hemengo herriak errazago ulertzeko eran; eta, ahal zan neurrian, itzulpen bakarra Hegoaldeko eleizentzat.

Talde berezi bat sortu zan horretarako, Juan Mari Lekuona buru zala. Laguntzaile, Mikel Zarate, Tomas Otxandorena, eta ni. Ekitaldirik emonkorrenak Donamariako moja karmeldarren komentuan egin ziran. Gure Juan Mari zehatza eta zorrotza zan. Etzan edozein itzulpenek erraz asetzekoa. Iratzeder-Lertzundiren bertsoak neurri estuak zituan, guretzat estuegiak behin baino gehiagotan, eta bazan nekerik eta buruhausterik gure itzulpena patxadaz eta guztion gogoko egokitze-orduan. Behin baino gehiagotan ez errepika, ez salmoaren ahapaldiak etziran Juan Mariren gogo beteko izaten; baina ekin eta ekin, danon laguntzagaz lortzen zan, azken baten, Lekuonaren gogokoa zan itzulpena. Haren poza, hori lortutakoan!

Luzea eta neke handikoa egokitze-lan hau. Beronen fruituak, ostera, etziran iraunkorrak izan: lehenengo argitaratu ziran *Domeka* eta *Jaiegunetako Irakurgaien* liburuetan (1971. 1972) bertsoz egindako itzulpen hauxe sartu zan. *Gora Jainkoa!* (1972) izeneko kantu-liburuan be eurotariko hainbat sartu ziran (71-91 zz.): 21 salmo. Baina, handik urte batzutara (1988), *Irakurgaiak* deritxon liburu handikotea (liturgian erabili behar diran irakurgai guztiak batean dakarrena) prestatu zanean, bertsozko salmoak alde batera itzi eta Apaolazaren zuzendaritzapean egindako itzulpenekoak –hau da, *Orduen*

*Liturgiarako* prestatuak– sartu ziran, eta eurok dira baimen ofiziala daukeenak eta gaur gure liturgian erabilten diranak.

## 2. GORAZARREAK (HIMNOAK) ETA ELEIZ KANTAK

Beharbada, hauxe izango da Juan Marik euskarazko liturgian egindako lanik handiena, Aita Gandiaga frantziskotarragaz batera. Gure poeta ezagun biok lan txalogarria egin euskuen. Gorazarreok ez dira gitxi: ia ehun, liturgialdien arabera. Danetarik dago: batzuk, barriren barri sortuak dira; beste batzuk, lehengo euskal gorazarreak, zerbait orraztuak edo egokituak (hainbat, Orixek eta Iratzederrek eginetatik hautatuak); eta badira erderazkoetatik euskaratuak ere. *Orduen Liturgiarako* dira eginak, batez ere; baina beste ospakizunetan ere erabili daitezke. Doinu eta guzti ere izan dira argitaratuak eta sarritan entzuten dira aspaldion gure ospakizunetan, baina, zoritxarrez, ez behar dan bestean.

Danok dakigunez, J.M. Lekuonak, poesiaren eremu zabalean, asko maite eban herri-literatura, eta honen barrutian, erromantzeak eta kantak. Bere osaba Manuelen bideari jarraituz, eta gai hau sakonetik aztertuz, literatura-mota horren ikertzaile onenatarikoa dogu. Baina ez ikertzaile bakarrik; sortzaile ere izan zan. Baditu berak egindako herri-kantak, gaur herriak sarritan kantatzen dituanak. Baina nik orain hemen eleiz kantak baino ez ditut aita-tuko. Nork ez ditu entzuten gure eleizetan *Azken Afari* eta *Hemen gaituztu*, *Jauna* euskaristi-kanta mamitsuak, eta Hileta ospakizunetarako sortu zituan bertso aberats eta hunkigarriok: *Gaur senide hau* ( 3 ahapaldi, hasieran kantatzeko) eta *Herio-jasak* (beste hiru, azken agurrerako)? Gogoan dot zelan emon geuntsan azken agurra Juan Mari adiskideari berari, negarrari eutsi ezinik, han Oartzungo eleiza ederrean, han batutako jendetza handiak aho batez kantatzen genduzala bere bertsoak:

Elkar maitatzen dugunok ezin  
bizi gintezke aparte.  
Jainkoa lagun, esan dezagun:  
Agur, Egun Haundirarte!

Musikarako ere sen handia eban, eta doinuak berak sortuak izan ez arren, ondo asmatzen eban zein doinu hautatu bere bertsoentzat. Esaterako, *Azken Afari*-rako Jose Olaizolaren melodia bat egokitu eban, *Gaur senide hau* horrentzat antxinako doinu zahar bat (oraindik nonbait bizirik irauten dauan *Jesukristori kendu ezker*o pasinoko bertsoena). Eta han-hor-hemengo ospakizunetan Lekuonak sortu eta kantatu zituen bertsoak, ba ete dagoz inon batuak

eta argitaratuak? Hemen ditut, esaterako, neure begien aurrean, multikopiaz argitaraturik, Juan Maria Uriarte bere gotzainari kantatu eutsazan bost bertso eder, beronen “gotzain sagaratzearen zilarrezko ezteiak” zireala eta. Horren antzeko asko ta asko egin zituan, doinu aproposak erabilten zituala.

### 3. LAGUNA ETA ADISKIDEA

Ni baino zahartxoagoa zan Juan Mari adinez, eta urte bi aurreragokoa abade ikasketetan, Gasteizko Seminario Nagusian. Danean zan gazte fina: iza-keran, berba egikeran, kantuan, futboleant... Egia esan, nik ez neban orduan hartuemon handirik izan beragaz. Baina gerora, bai, goian esan dodanez. Gomuta askoren artean, badot ondo gorderik Lekuonaren eskutitz bat, berak bere eskuz egina, nik jarritako galderei erantzunez. Gaia zera zan: zelan hasi ginan gu Gasteizko seminarioan euskera ikasten. Bera “teologo” zala hasi ei ziran Gipuzkoako abadegai euskaldunak alkarren artean euskera ikasten eta lantzen. “Ekintza Katolikoa”-ren inguruan sortutako taldeen artean, bazan bat gure baserritarren munduari begira sortua. Holakoxe taldean sartu ei zan bera ere. Eta, talde horren barruan, argi bat biztu jaken: gure baserri munduan behar-beharrezkoa zala euskara jakitea eta ondo erabiltea, Jesusen Barri Ona zabalduko bagenduan. Erretoreari baimena eskatu, Erretore jaunak (D.Felipe Ugalde) baimena emon (baina, kontuz, “isilpean” lan egitekotan!), eta holantxe ekin ei eutsoen, eurak euretara, gure hizkera zaharra lantzen. Ordukoxeak ei dira bere “lehendabiziko argitalpentxoak, *Eganen* plazaratuak”, “nire idazlanen lehen emaitza xumea”. Pablo Bilbao Aristegi, seminarioko abade irakasle erdalduna, izan ei eban bultzagile ta laguntzaile. Seminarioko bizkaitarrok ere aldi berean alkartu ginan, gure “Bizkaiko euskerea” lantzeko, baina, nik dakidanez behintzat, gipuzkoarrekin ez genduan orduan hartuemonik izan. (Honen barri zehatzagoa *Euskerea nire bizitzan* liburuan emon neban).

Ordurik luzeenak eta gozoenak Donamariako komentuan emon nituan nik J.M. Lekuonagaz, erantzun-salmoak euskaratzen. Zelan ahaztu afalosteko ibilalditxuak, Urriko arratsalde ilunetan, herri baketsu haretako bideetan? Laster hasiko zan Mikel Zarate bertsotan, ohi eban umore zirikatzaileaz, Juan Mari ere saltsa berean sartu nahirik; eta hau, behin berotu ezkerro, bertsolari bikaina agertzen jakun: zorrotza, sakona, gozoa...Holango askatasun-giroan, ezetariko traba barik botaten diran bertsoak, haizeak eroango baditu ere, ez ete dira sarritan onenatarikoak izaten?

Gitxien uste nebanean agertu jatuz, nire paper zaharren artean, J.M. Lekuonaren hiru bertso eder, Eusebio Erkiaga euskaltzain osoaren hileta mezan, Begoñako basilikan, berak kantatu zituanak. Ez dot uste inon argita-

ratuak izan diranik. Euskarazko liturgiagaz daukeen loturegaitik jarri nahi neukez neure lantxu honen barruan. Haria: Kristorengan bateatua izan dana, Kristogaz “abade, profeta eta errege” da, dinosku gure fedeak:

1.- Apaiza zaran aldetik, agur!  
Izan betiko argia.  
Mendi santuan dasta ezazu  
zeru goiko alhagia:  
kantu alaien ardoa eta  
zorionaren egia.

2.- Profeta zaran aldetik, agur!  
Gorde distira begitan.  
Zeru ta lurren misterioa  
zabaldu zaizu egitan.  
Atsedean osoz kanta ezazu  
Jainko Aitaren argitan.

3.- Errege zaran aldetik, agur!  
Ez bedi izan betiko.  
Berriz guk elkar ikusi arte  
bihotzak ez du etsiko.  
Aitak berekin hartu zaitzala  
betikotasun guztiko.

Bai, Juan Mari: *Berriz guk elkar ikusi arte*. Hau da, laster arte. Bien bitartean, zelan nik ahaztu zure “irriño eztea”, azken aldiz alkar ikusi genduan, zu geisorik bizi zinan Donostiako etxe haretan? Entzun, bai, entzun egiten zenduan, baina berbarik egin ezin. Zure hitzik sarkorrena, gure begietara begitu eta irribarre gozoa, sekula santan ahaztu ezina.



# JUAN MARI LEKUONAREN MIMODRAMAK ETA IKONOAK POEMA LIBURUAREN ZERTAZ ETA ZELAN

Sebastian GARTZIA TRUJILLO

*Mimodramak eta ikonoak* XX. mendeko euskal literaturaren ‘lan handietako’ bat da, baita, agian, Juan Mari Lekuonaren olerki libururik zailenetakoa ere<sup>1</sup>. Denbora igaro ahala, testuaren enigmak askatzen ari zaizkigu eta, hala ere, ezin dezakegu esan *IM* erraz bihurtu zaigunik. Irakurketa errazteko ahalaginetan, JML bera aritu zen, behin eta berriz<sup>2</sup>, baita beste kritikatzailerik batzuk ere<sup>3</sup>, zeinen ahaleginei, gaurko honetan, neurek ere gehitu nahi baitizkiet.

---

<sup>1</sup> Hemendik aurrera, *MI*

<sup>2</sup> Olerkari gutxik eman digute JMLk beste azalpen, beraiek idatzitako olerkiak interpretatu eta gozatzeko. Ikus, LEKUONA, J. M., “Acotaciones”, *El territorio de las letras*, Catedra/Ministerio de Cultura, 1994; “Neure poetikari buruz”, “Temas y estructuras/Gaiak eta egiturak”, “Mugarriak” (aipaturiko “Acotaciones” lanaren J. L. Padrónek eta P. Zabaletak egindako gaztelaniatik euskarazko itzulpena) in *Ibilaldia/Itinerario*, EHU, Gaur egungo euskal poesia 12, 1996, hurrenez hurren 11-45, 46-51, 52-57. orr.; 45. or.: “Hala ere, pozik nagoke lagundu badut nire poemategintzara hurbiltzea, erreteza, zehaztea, aberastea. Baina argi daukat bilakabidea barrutik markatzea alderdi bat baizik ez dela, eta hor gelditzen dela irakurkera kolektiboa, askoz garrantzitsuagoa dena, ikuspegi zabalagoa eta objektiboagoa daramanez”.

<sup>3</sup> GARCIA TRUJILLO, S., ITURBIDE, A., KORTAZAR, J., *Leiho-oihalen mugetan*, Erein, Donostia, 1997; batez ere, KORTAZAR, J., “Juan Mari Lekuona: Artisau enblematikoa”, 155-212. or.; baita *Ibilaldia/Itinerario*, op. cit., 293-420. orr., non agertzen baitira X. Lete, A. Lertxundi, E. Martin de Gereñu, F. Juaristi, A. Iturbide, P. Ezkiaga, I. Mujika Iraola, J. Kortazar, J.A. Arrieta eta G. Aulestiaren lan interesgarriak.



Ekintza horretan sartu aurretik, *MI*en ‘zailtasunari’ arrazoi batzuk topa diezazkiokegu<sup>4</sup>. JML *poeta* izateaz gain, literatura *irakasle* ere izan zen. Izate bi horiek ez zitzaizkion JMri konpartimentu estankoak gertatu, ontzi komunikatuak baizik<sup>5</sup>. JMLk ongi ezagutzen zituen gaur egungo literaturari buruzko eztabaidak eta bilakaera eta bide berri horretara egokitu nahi izan zuen euskal literatura. Ildo horretan, *surrealismoa* dugu JMLk erabilitako baliabideetako bat, zeinen eragina eta zailtasunak ageri baitira liburu honetako olerkietan.

## SURREALISMOA

Sigmund Freud-en teoriar oinarrituta, surrealismoa, 1920. urtearen inguruan, sortu eta zabaldu zen arte munduan, pinturan eta literaturan batez ere. Surrealismoak subkontzientearen sentsazioak, intuizioak, irudierak... adierazgarriagozat jotzen ditu kontzienteki burututako adierak (kontzeptuak, arrazoiak...) baino<sup>6</sup>. Hori dela eta, adierazi nahi duguna hobeto azaltzeko, surrealisten subkontzienteko adierara jotzen dute. Horrelaxe adierazi nahi dutena sakonago azaltzea lortzen omen dute, ilunago ere gehienetan, irakurleek

<sup>4</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., *Argia*, 1295 zk., 1990eko ekainaren 10, 48-49. orr.: “Se me ha achacado que sólo yo conozco las claves de lo que escribo y que resulta difícil entender lo que expreso en estos poemas”.

<sup>5</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., in *Argia*, op. cit.: “12 urteotan emandako klaseak herri ahozko literaturaz, bazuten eraginik ene estilo, hizkuntza jakin nahi nuen. Pentsamendu eta estilo aldetik zerbait esan nezakeela uste dut”.

<sup>6</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Acotaciones”: “Como primera delimitación, debía ir más allá del dato objetivo y poner más énfasis en lo subjetivo. La historia espiritual había refractado en las aguas de mi trasfondo personal. Y debería moverme en el terreno de la intuición, de la libertad, de la fantasía, de las emociones, de los logros estéticos, en un terreno afín, pero distinto al de la ciencia y el ensayo”. ALDEKOA, I., “Introducción” in *Antología de la poesía vasca –Euskal Poesiaren Antologia*, Visor, Madrid, 1993, 23. or.: “En *Mimodramak eta ikonoak* el poeta se aventura a descender por las honduras de la conciencia hacia las entrañas de lo pre-formal y pre-oral; allá donde las imágenes preceden a las ideas, para desde allí rastrear –movido por un afán icónico- todo el repertorio de ritmos e imágenes que conforma el basamento de lo intrahistórico, donde las cuevas, montañas, bosques y ríos están poblados de reminiscencias de dolor y espanto, aderezados con leyendas, mitos cantos y ritos religiosos”. JMLren ustez *MI* liburuan, berak idatzitako beste liburuen parean, surrealismoaren eragina suabeagoa ei da. LEKUONA J. M<sup>a</sup>., *Argia*, op. cit.: “Tratamendua aldetik agian ez da hain hautsia, surrealista, baina berrizalea da”.

surrealisten 'hizkuntza' berria (oso pertsonala, kasu askotan), hots: kodigo eta metafora berriak (ausartak, usu) ezagutzen ez dituzten bitartean.

Horrelako zerbait gerta dakiguke *MI* testua irakurtzekoan. Normala da *MI* ez ulertzea lehen edo bigarren irakurketan, idazlea *hizkuntza propioa* burutzen saiatu baitzen, eta geuk hizkuntza berri horren zeinuak ezagutu arte, testua ez ulertzea normalizat jo dezakegu. JMLri urte eta lan asko kostatu zitzaion *MI* liburua idaztea: "Poemategi hau... tenka baten eta kezka baten ondorio da"<sup>7</sup>, hortaz, testu hori erraz edo lehendabiziko irakurketan ulertzea ausardia galanta izango litzaiguke, are eta gehiago olerkaria bera argitzen saiatu zaizkigun irakurketaren gakoak ezagutu (nahi) ezean.

### *MI*en 'ERAIKUNTZ EREDUA'<sup>8</sup>

JMLk garrantzi handia ematen zion poema liburuen *egiturari*. Ez zuen JMLk olerki bilduma sinplerik argitaratzen. JMLren olerki liburuetan poemaren egitura oso adierazkorra da (zeinurik adierazgarrietakoa nonbait), apropos diseinaturikoa: "Egiturak berak ere bere semiotika du"<sup>9</sup>, eta egitura horrek poema bakoitzaren adierazia indartu ez eze, markatu ere egiten du goitik behera.

Hori dela eta, baten batek, JMLren poemaren bat irakurtzen badu, poema liburua egitura kontuan hartu gabe, ez da arraroa ezer gutxi edota ezer ez ulertzea. Ez ulertze horretan, haatik, errua ez da olerkariarena, beronek behin eta birritan azaldu dizkigun poemei buruzko azalpenei kasurik egiten ez dien irakurle axolagabearena baizik. Bestela esanda, *MI* liburuko poemak bi begiekin irakurri beharra daukagu: batarekin irakurtzen ari garen olerkia sakonki menperatu eta bestearekin liburua egiturari begiratu behar diogu: olerkia non dagoen kokatuta, zein erlazio daukan aurreko zein ondorengo olerkiekin, eta abar (JMren aurreko liburuekin ere?).

<sup>7</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., "Neure poetikari buruz", op. cit., 37. or.

<sup>8</sup> Honelaxe JMLk in "Neure poetikari buruz", op. cit., 35, 39. orr.

<sup>9</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., *Egunkaria*. 1996ko apirilak 28; "Temas y estructuras": "Subrayaría mi empeño en crear poemas que tengan una arquitectura y un trabajo continuado de construcción paciente, como las obras plásticas de considerable tamaño y de larga elaboración... No puedo menos de proponerme proyectos estéticamente ambiciosos. Lo contrario sería una infidelidad a la tarea poética que me había propuesto ya hace años".

Irakurleak, beraz, baliabide batzuez hornitu behar du bere burua, *MI*ekin hasi aurretik, testua zorrotza baita, guztiz sinbolikoa, uste ez den figurazio berrikoa<sup>10</sup>, kondentsatua, kontrastez (kontrakoez<sup>11</sup>) taiutua:

Gauza laburra, kondentsatua egin nahi izan dut, *ahozkotasuna* eta *arte plastikoek* mugatuta. Hor azaltzen dira mimodramak (*azpiko jesto elementalak*) eta irudiak, ikonoak (SG, *goiko lan arte landuak*). Oralismo *mugikorra* eta arte arkitektoniko *geldia* erabili ditut, baina beti osagarri txiki funtsezkoekin<sup>12</sup>.

Dena den, kodigo berriak ezagutu ahala, *IM*en zorrozatasuna, mendi batzuk igarotzerakoan gertatzen zaigun bezala, sari bihurtuko zaigu.

## GAI- ETA IKUSPUNTU-ALDAKETA

JMLren olerki liburu batetik hurrengorako argitalpen-tartea luzea izaten da: “Ezinezko dut aldian aldiko poesiarik egitea”<sup>13</sup>. *Muga beroak* 1973. urtean argitaratua izan zen; *Ilargiaren eskolan*, 1979an eta *Mimodramak eta ikonoak*, 1990ean.

Argitaldipeon arteko tartea denbora ematen dio olerkariari liburu berriaren mamia, estetika eta estiloa astiro lantzeko, baita aurreko poemetan erabilitako gaia eta esaera aldatzeko ere. Ez dio JMLk irakurleari saltzen produktu bera bi/hiru aldiz, idazle askok egiten duten bezala (hainbat koloretako

<sup>10</sup> LEKUONA, J. M.<sup>a</sup>, “Acotaciones”: “Más que la lógica de las estructuras me interesa la ideación de nuevas figuraciones que entrañen un contenido simbólico. Y por encima de lo ya creado, creo que está la búsqueda de lo nuevo y sorpresivo”.

<sup>11</sup> Kontrakoen batasunerantz edo (des)oreka dinamiko hori, Aristotelesen dotrinaz bestera, giza pentsaeraren joera ugalkorra izan ohi da, bai mundu zabalean (Taoismoan, Zenen...), bai oso aspaldidanikoan ere, Hegel eta Marxen oso aurretikoan, baita kristau tradizioan ere. Ikus MARTINI, C., *No nos perdamos en palabras*, EVD, Estella (Navarra), 2007. 153-154. op. cit.: “La vida está hecha de contrarios, de opuestos, de oposiciones; nosotros debemos buscar siempre la vía media, la vía que resuleve las antinomias. La *Regla Pastoralis* (de San Gregorio Magno) apuesta siempre por esa contraposición pacificada... *La oposición polar* de Romano Guardini nos invita a recrear continuamente un equilibrio de contrarios, porque nos permite comprender la compeljidad de la realidad”.

<sup>12</sup> LEKUONA, J. M.<sup>a</sup>, *Argia*, op. cit., 48. or. Letra entzana nirea da. “Neure poetikari buruz”, op. cit., 41. or.: “Mimodrama hitzaren atzean Marcel Jousse-ren liburu bi daude: *L’antropologie du geste* gaiari buruzkoak, ahozklaritza oficios landu dudana aldetik hain atsegina zaidan arloa bi liburuotan lantzen delarik. Ikonoak esandakoan, berriz, González de Zátare-ren lanak ditut gogoan, batez ere *Iconografía e iconología* liburua”.

<sup>13</sup> *Ibidem*, 48-49. orr.

paperez bildua, noizbait). Irakurlearenganako begiruneak debekatzen ei dio JMLri errepikatze hori:

Irakurleak agintzen du nolabait eta aurreko liburua agortu arte ez zait gustatzen beste batekin hastea, hauxe da nere betiko erritmoa<sup>14</sup>.

Produktu diferenteak esaten ditudanean, gauza bi azpimarratu nahi ditut, hots:

a) JMren poemak beste edozein olerkariren poemak ez bezalakoak izaten direla (horretan saiatzen da olerkaria, behinik behin):

Hemendik aurrera (idazten du JMLk *Hondarrean idatzia* bere bigarren poemategiaz) ez diot inori begiratuko ene poemagintzan: nire kasa nabil, neroni neure buru. Poema luzeak egiten ditut, astiro landuak, inpresiorik baino sormenetik gehiago duten eraikuntzetan. Erabaki nuen gaia, egitaratu nuen esan beharra eta luzaz landu nuen erritmo pertsonalaren abiadan. Hau nuen helburu: gai arduratiak aukeratu, arketipoen irakurkera intelektualagoa egin eta estetika aberatsagoa erabili<sup>15</sup>;

eta b) JMLren liburu bateko poemak olerkari beraren aurreko liburuetakoak ez bezalakoak izaten direla:

Ez zait, izan ere, oso gogoko poema berriak idaztea luma ere berritu zaidala nabaritzen ez dudanean arte<sup>16</sup>.

Proba modura ikus dezagun jarraiko taula hau, non JMLren gai eta ikuspuntuak laburtzen saiatu bainaiz:

Mindura gaur (1966)	Hondarrean idatzia (1973)	Oihu ilunak espiralean (1979)	Mimodramak eta ikonoak (1990)
Gizartearen sufrimendua	Gizakia: materia eta espiritua <sup>17</sup>	Gizakiaren oihuak <sup>18</sup>	Gizakiaren izuak eta pozak
Olerki esistentzial eta soziala	Existentziaz harantzagoko ikuspegia: osagai pre-sokartikoak	Elementu pre-sokratikoak utzita, gorputzaren irakurketa poetikoa	Erlizjiozko aztarnen bilketa edo kulturaren historia espirituala

<sup>14</sup> *Ibidem*, 48. or.

<sup>15</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., "Nere poetikari buruz", op. cit., 29. or.

<sup>16</sup> *Ibidem*, 29. or.

<sup>17</sup> *Ibidem*, 27. or.: "Ezin nuen irentsi dualismo arruntik (SG, *Mindura gaur*-koa?): onak eta gaiztoak, aberatsak eta pobreak, zapaltzaileak eta zapalduak, gu eta besteak. Azpirago jo beharra zegoen: gizaki guztiak berdin diren azken dimentsiotara. Eta material eta izpirituarekin jokatu nuen, baina ororenak diren materia eta izpirituarekin, inolako bereizkuntzarik gabe taxuturiko ikusmoldean".

<sup>18</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>.: "Gorputz azpilduren oihu ilunak".

Produktu diferenteak sortzeak ahalegin berri(tu)ak eskatzen dizkio idazleari, literaturagile gutxiren esku egoten ei direnak: batzuei indarra falta zaie, beste batzuei neke edo lana, are handiagoak izan behar direnak, JMLk idatzi-riko lau (bost<sup>19</sup>) olerki bilduma guztietan *gaia bera* aukeratzen duenean, hots: gizakia. Kasu horretan, olerkariak, produktu berbera saldu nahi ezean, edukia ikuspuntu, sintonia edo maila diferentetik landu behar du, gero eta errotika-koago, gero eta zabalago.

Horrelaxe landu ditu olerkiak beti “*azpirago* zerbait bilatu nahi zuen” JMLk. *Hondarrean idatzia* poemategiaz ari delarik: “*Azpirago* jo beharra zegoen” azaltzen digu, eta *Ohiu ilunak espiralean*-az, hauxe:

Argi ikusi nuen sikologia *sakona* zebilela han (*Gritos y susurros* filmeko emakumeen tipologiez, gorpuzkera eta jantziez ari da); *azpiragoko* zerbait zegoela zinemako bizilekuan, protagonisten anatomian, eskuetan, ilean, gorpuzkeran, aurpegian eta abarretan<sup>20</sup>.

Gai berean sakontze horrek lan eta urte asko eskatzen dio olerkariari, ikerketa zintzotasunez egin nahi baldin badu, behinik behin:

*Son horas de trabajo buscando afanosamente un estilo. Lo duro y gratificante de la tarea creativa*<sup>21</sup>.

JMLren planteamendu aberasgarri horrek eskakizun berria dakarkio *MI*en irakurleari. *MI*en aberastasun guztia bereganatu nahi badugu, JMLren aurreko liburuak ere ezagutu behar ditugu, soilik horrela ezagutu ahal baitugu, aurreko poemetan, olerkariak non utziak zituen gizakiari buruzko hausnarketa eta ikuspuntu estetikoak. Jakite hori beharrezkoa zaigu *MI*en berritasunak dastatzeko. *Per aspera ad astra*, esaten zuten antzinako erretorikoek eta beraiek bazekiten literatura testuez nola gozatu.

<sup>19</sup> Ikus 74 eta 75. oharra.

<sup>20</sup> “Ene mundu estetikoaz”, op. cit., 27 eta 33. orr. JMLk argitaratutako lehen olerki liburua, *Muga beroak* deritzana, honako hiru zatiotan banatuta dago: *Herenegun* (olerki solte batzuk) agertzen dira; *Mindura gaur* eta *Hondarrean idatzia*. JML ez ohi da olerki liburuez mintzatzen, ‘poemategiez’ baizik, eta lehen poemategizat *Mindura gaur* hartzen du; bigarrentzat, *Hondartzean idatzia*; hirugarrentzat, *Ohiu ilunak espiralean*; laugarrentzat, *Mimodramak eta ikonoak*. Ikus LEKUONA, J. M<sup>a</sup>, “Nere poetikari buruz”, in *Ibilaldia/Itinerario*, op. cit., 11-45. orr.; batez ere, 23., 27, 33, 37-38. orr.

<sup>21</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>, “Acotaciones”.

## MIen ADIERAZIA: GIZADIAREN GENESI KULTURALA

Zer azaldu edo argitu nahi izan digu JMLk *MI* liburuan? Ezer erantzun beharrean, gizadiaren *genesi kulturala* esango nuke (12. or.)<sup>22</sup>, hots: (euskal) gizakiaren sorrera eta bilakaera (gauza bera ote?: *creatio ex nihilo*? *creatio continua*?).

Gizakiaren genesis azaltzeko, olerkaria giza kontzientziaren lehen argi izpitxoak sortu zirenetik abiatzen da (unetxo bat-batean? mende luzeetako erditzea?) XX. mendeko azken urteak arte: gruteskotik → Jose Migel Barandiaranenganaino. Prozesu luze hori ehun orrialde eskasetan laburtzea oso zaila da (JMLk askoz luzeago planteatu zuen *MI* liburua<sup>23</sup>).

(Euskal) gizakiaren sortze eta bilakatzea semiotika ardatz *biren* inguruan taituzten ditu olerkariak (gizakientzako sakonenak? adierazgarrienak?): “*homo dolens-homo ludens*, el hombre dual atormentado y festivo”<sup>24</sup>. JMLren esperientziaren arabera, gizakia ez da izutik → gozamenera aurreratzen den gizakia (Ilustratuek edo modernoek aldarrikatu ohi zuten antzera), izuz eta pozez oraturiko izakia baizik, espiralean gorago zein sakonago joan-etorrikoa, eta horrelaxe dirau(gu): historiaurretik gaur arte eta lur zabaleko kultura guztietan, euskal kultura eta gizartea lekuko ditugula:

Harpetako oroipenetatik, urruneko dundunen / hots-joa dator; orduko tanka giza min- / tzetan errepikatzen dela. Aspaldiko dardarak / izaki -parea zaharren oihortzun- gaur / oihu atabiko kausiturik (13. or.).

Dena den, olerkariaren iritziz, izuak ugariagoak (sakonagoak ere?) izaten omen zitzaizkigun historiaurreko mendeetan, hots: haitzuloetan bizi izandako mendeetan (animismoa eta abar), historia, zientzia edo kultura ‘aurreratuaren’ mendeetan baino, hots: planeten adar-birako mendeetan baino (Copérnico, Galileo eta abar). Desagertu, haatik, giza izuak ez zaizkigu, inoiz

---

<sup>22</sup> HACKL, E., in *Adiós a Sidonie* eleberraren kontrazalean, Pre-textos, Madrid, 2002: “Reflexionar sobre la condición humana (es la) finalidad de la verdadera literatura”.

<sup>23</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Neure poetikari buruz”, op. cit., 39. or.: “Eta hona ustekabean etorri argia: nire poemaren gaia lehengoa bera izango zen (historia izpiritualan izandako ibilbidea), baina bai liburua eta bai poema bakoitza askoz ere laburragoak behar zuten izan”. LA GRANGE, H-L de (Mahler-ren hirugarren sinfoniaz): “La Tercera Sinfonía nace de un proyecto musical donde se intentaría narrar la épica de la Naturaleza, describiendo la vida inerte hasta llegar a la creación de plantas, hombres y animales, todo ello animado por la fuerza de la vida”: “*Quand on écrit ‘une oeuvre de cette dimension, une oeuvre qui reflète la création tout entière, on est, pour ainsi dire, un instrument dont joue l’univers’*”.

<sup>24</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Acotaciones”.

ere, desagertzen, giza 'kontzientzipean totemizatuak' (13. or.) irauten baitute, mendez mende, gizakiok (modernook ere) buztinezko oinak ditugun erraldioen antzekoak baikara, erlijio zaharraren izuei zientzia azalpena aurkitzen diegunean, existentziaren zentzuari ez baitiegu erantzun erabateko edo ziurrik aurkitzen: "Galdera bihurtu naiz neure buruarentzat" (San Agustin).

Ildo misteriotsu horretan, argigarria zaigu, *IM* diseinatzen ari zenean, JMLk egindako jarraiko aitorten hau:

Une honetan egina daukadana beldurraren estudio bat da. Kobazuloko bizitzak gudan utziriko ispilu ikaratiez mintzoa da... Kontrapunto bat behar du, beldurrean bakarrik geratu ez nadin<sup>25</sup>.

## SINBOLOAK

Ez da aski esatea giza genesi kulturala luze eta konplexua dela. JML ez da fisikari bat, *big bang* moduko azalpena ematearekin saiatzen (konformatzen) dena. JML olerkari da; ez du zientzia erantzunik bilatzen, ez zientziaz fidatzen ez delako, beste ezagupen maila lantzen (hobesten) duelako baizik, "denboran eta espazioan diraun giza bizitzari buruzko enigmaren soluzioa espazio eta denboratik kanpoan baitatza" (L. Wittgenstein)<sup>26</sup>.

Hori dela eta, JMLk (euskal) gizakiaren genesis sinbolo bidez aurkezten digu. Gizakien izuak eta pozak azaltzeko, kontzeptuak (filosofia edo zientzia) eta sinboloak (arte: literatura, musika...), biak ala biak beharrezkoak ditugu. Zein baino zein egokiagoa? Artistak sinboloen aldekoak ei dira, eta artistekin gero eta filosofo eta zientifiko gehiago ere bai<sup>27</sup>.

<sup>25</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>, *El Correo* (?). Arrazioa zuen G. A. Bécquer-ek: "Mientras haya un misterio para el hombre... ¡habrá poesía!".

<sup>26</sup> WITTGENSTEIN, L., *Tractatus lógico-philosophicus*, Barcelona, 1994.

<sup>27</sup> OTEIZA, J., *Quousque tandem*, 127: "Acostumbramos a atribuir una mentalidad mágica a las culturas primitivas como si fuese una especie preparatoria para el razonamiento, sin darnos cuenta que es al revés: mentalidad mágica se produce siempre al final, superando el razonamiento de la expresión". SWIMME, B. (matematiko eta kosmologialaria), *The Hidden Heart of the Cosmos: Humanity and the New Story*, Orbis, NY, 1996: "El misterio está en la base del ser... Las partículas elementales emergen del vacío mismo... éste es el sencillo e impresionante descubrimiento... en la base del universo hierve la creatividad".

## IKUSPEGI ESPIRITUALA

Giza kontzientzia agertu eta bilakatzen den historiaurretik gaur arte, gizakiok esperientzia biren barruan aurkitzen gara (beste esperientzia askoren artean, noski): harrimenarena<sup>28</sup> eta misterioarena<sup>29</sup>: “urruneko dundunen hots-joa” (13. or.). Gizakiok, milaka urtean, esperientzia bion barruan diraugu: batzuk (erdi) lo, beste batzuk erne: “Begirale, ze gaualdi dugu?”<sup>30</sup>; azken hauen artean, JML:

Poetak gorputzaren komunikazio ilunak argitu nahi ditu, guban daramagun gauari printza saltatiak ohostuz<sup>31</sup>.

Harridurak eta misterioak markaturik gaudela jakinik, JMLk hauxe aitortzen digu:

Ex dut gogoko nolako arbuioa zaion gaur egun erlijiozko aztarren ontorio aberatsari; niretzat, bestalde, oso preziagarri zaidalarik aztarren kulturalen ezagutzaren prehistorikoa, protohistorikoa eta historikoa<sup>32</sup>.

---

<sup>28</sup> MCFAGUE, S, *The Body of God: An Ecological Theology*, Augsburg Fortress, Minneapolis, 1993, 122-124. or. NOLAN, A., *Jesús, hoy*, Sal Terrae, Santander, 2007, 164-167. or.: “El asombro es una profunda experiencia y, más importante aún, es una forma de conciencia... Una parte importante del trabajo interior de transformación personal consistiría en dejarnos llevar por el asombro siempre que podamos. La naturaleza sería un buen lugar para comenzar: desde las plantas que florecen hasta las aves que hacen sus nidos... las instrucciones contenidas en nuestros genes, entrelazados en una sola espiral de ADN en cada una de nuestras células, llenarían unos mil libros de setecientas páginas cada uno. Y tenemos miles de millones de células en el cuerpo... Hay cien mil millones de centros nerviosos en el cerebro, y cada uno de ellos mantiene hasta 150.000 conexiones. ¡Somos una maravilla!”.

<sup>29</sup> EINSTEIN, A.: “El misterio es lo más hermoso que nos es dado sentir. Es la sensación fundamental, la cuna del arte y de la ciencia verdaderos. Quien no la conoce, quien no puede admirarse y maravillarse, está muerto. Sus ojos se han extinguido. Esta experiencia de lo misterioso –aunque mezclada de temor– ha generado también la religión”.

<sup>30</sup> Esaldi hori Kristo aurretik 765. urtean jaiotako Isaiasena da (21, 11), baita Kristo ondoren, 1844-1900 urteetan, bizi izandako Friedrich Nietzsche-nena ere: “Oi gizona! Hago adi! / Gauardi sakonak zer zio?” in *Honela minztatu zen Zaratustra*.

<sup>31</sup> *Ilargiaren eskolan* liburuko azalean.

<sup>32</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>, “Neure ibilbideari buruz”, op. cit., 37. or.

<sup>33</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>, *Ibidem.*, 39. or.: “Gure kultura izpiritualaren aldi markatuenak barnean hartuz”.



JMLren ustez, izutik pozerako giza prozesua *espirituala* da<sup>33</sup>, eta hortixe datorkio *MI* liburuari *erlijio* kutsua: gizakien izu eta pozaz harantzago (honantzago?) zer?: gizakiak bere burua lotzeko, ezer/inor (ez) ote?<sup>34</sup>. Giza izu eta pozei buruzko galderaren inguruan tajutzen da ‘erlijioa’, *sinesmenarekin* edota *aitorpen konfesionalarekin* berdintzen ez dena. Batzuen iritziz (ni tarte), giza ‘erlijioso’ da galdera horri eusten diona<sup>35</sup>; besteren batzuek, ostera (nor eta Albert Einstein tarte!), galdera (edo lotura) horri ‘baietz’ esatea eskatzen omen dute<sup>36</sup>.

JMLk *MI*en erlijiotasunaz ez du posturarik hartzen, ‘erlijio(so)a’ hitza jaurtitzeko arma bezala erabiliko ote genukeen (erlijiosook zein erlijiogabeek) beldur balitz bezala:

Patxi Ezkiagak... azken liburuari buruz (hots, *IM*ri buruz) interpretazio (erlijioso) egiten du eta nik ez dut ezer esateko. Isilik egon bakarrik. Baina eskertzen diot alderdi hori hartu izana. Handik edo hemendik ahalegintzen da interpretazio erlijioso lortzeko. Baina nire poesia *impasse* batean dago, Batez ere ez dudalako ikusten gaurko kanon estetiko hau hutsi gabe nola agertu barrunbeto ahots hori. Eta oso zaila da. Zaila kanon estetiko eta intimitatea lotzea. Eskertzen diot benetan Patxiri esanahia bilatu nahi diolako nire poesia alderdi horretatik<sup>37</sup>.

<sup>34</sup> DUCH, Ll., *Un extraño en nuestra casa*, Herder, Barcelona, 2007, 21-22. orr.: “Históricamente, en Occidente, para bien y para mal, la ‘cuestión de Dios’ y la ‘cuestión de la religión’ han aparecido juntas o, al menos, han mantenido relaciones muy estrechas, puesto que la religión era considerada casi sin excepciones como intermediaria estructural (*religare*), histórica (*relegere*) y congesional (*reelegere*) entre Dios y el ser humano”.

<sup>35</sup> *Ibidem*, 22-23. orr.: “Según nuestro parecer, más que las *respuestas*, lo que constituye el meollo de la cuestión de Dios es la *pregunta*. Una pregunta insistente, a menudo dramáticamente, en las profundidades de ese ser finito con apetencias de infinito que es el hombre, cuyas respuestas, positivas o negativas, siempre se verán afectadas por la provisionalidad que lo caracteriza. Porque este extraño ser que, según la feliz expresión de Rainer Maria Rilker, siempre se encuentra despidiéndose, nunca podrá dejar de interrogándose sobre de dónde viene y a donde se encamina: ¿hay alguien que nos espera en la otra orilla del río? (Unamuno), ¿se reduce el conjunto de la existencia humana al azar?, el ser humano, ¿está completamente abandonado a su suerte”.

<sup>36</sup> EINSTEIN, A., “Mi visión del mundo: “¿Cuál es el sentido de nuestra vida, cuál es, sobre todo, el sentido de la vida de todos los vivientes? Tener respuesta a esta pregunta se llama ser religioso. Pregunta: ¿tiene sentido plantearse esta cuestión? Respondo: quien sienta su vida y la de los otros como cosa sin sentido es un desdichado, pero hay algo más: apenas merece vivir”.

<sup>37</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., *Egunkaria*, 96.04.28, 31. or.

Argi dago

- batetik, JMLk ez diola *IMen* ‘erlijio’ kutsuari muzinik egiten, eta
- bestetik, alderdi horretan, ez diela ez bere buruari, ezta irakurleari ere, tranparik egiten<sup>38</sup>.

Olerkariak mugaraino garamatza: azken galderaren izu edo pozeraino... eta hortxe uzten gaitu (geratzen zaigu), giza dramaren (tragediaren) puntu gori-gorian:

*Lo bello disperso que he procurado recoger en mis poemas no posee en primera instancia ningún valor probativo, ni nostálgico, ni reivindicativo. No intento la verdad o el bien, sino que me limito a señalar lo bello acumulado en nosotros, sin concesiones a la creencia o a la increencia. Y ahí, aunque con dificultades, me siento a gusto*<sup>39</sup>.

Ildo honetan JMLk bat egiten du modernismoaren epigonorik garrantzitsuenekin, hots: Friedrich Nietzschekin<sup>40</sup> eta Martin Heideggerekin<sup>41</sup>.

Koordenatu horien barruan, (batzuen batzuek besterik nahi balute ere?<sup>42</sup>) *MI* liburu *erlijiosoa* dela esan dezakegu:

---

<sup>38</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>.: “Acotaciones”: “He aceptado las reglas del juego. Mi poesía más que un refugio en el desierto, debía buscar una mirada serena ante el pasado, ya que ‘el alba y el mediodía están a mis espaldas’, en expresión de Steiner. Y el atardecer, tomándolo como una metáfora del futuro de los que ya no viviremos, no se hace pensable ni deseable sino poniendo la estética sobre la lógica o necesidad”.

<sup>39</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., *Ibidem*.

<sup>40</sup> *Honela mintzatu zen Zaratustra*: “Kantaidazue orain zuek ‘Berriz ere’ izeneko kanta, zeinaren zentzua ‘Betiera guztian’ baita- kanta ezazue, gizon garaiagook, Zaratustraren erronda-kanta: ‘... Mundua sakona duk, / Eta egunak pentsatu baino sakonagoa. / Sakona dik bere samina- / Atsegina –bihotz-dolorea baino ere sakonagoa: / Samina mintzo duk: Pasa! / Baina atsegin orok nahi du betiera- / -betiera sakon, sakona”.

<sup>41</sup> HEIDEGGER, M., *Holzwege*: “Ser poeta en una época de penuria significa: reparar cantando en las huellas de los dioses huidos. Por eso el poeta dice lo santo en la época de la noche del mundo. De ahí que la noche del mundo sea la sagrada noche en el lenguaje de Hölderlin”. TORRES QUEIRUGA, A., “Heidegger y Dios: entre el silencio y las ‘mil cualificaciones’”, in *El problema de Dios en la modernidad*, EVD, Estella (Navarra), 1998, 145. or.: “De ahí que su esfuerzo (el de Heidegger) se dirija a captar de nuevo la vibración religiosa de la *fysis* presocrática, a sentir el horror del destino *trágico* y a revivir la fuerza luminosa del *politeísmo*”.

<sup>42</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>.: “Acotaciones”: “La segunda acotación del territorio se me imponía desde la perspectiva moral-ética. Ya desde mi libro anterior (*Ilargiaren eskolan*), palpaba en poetas contemporáneos los efectos de la crítica deconstructiva, del nihilismo, de la cotidianidad, de la inmanencia, de la convicción de que vivimos en un mundo científico-profano”.

a) (euskal) erlijio ‘humus’etik sortutakoa:

*Procede a mi último poemario (Mimodramak eta ikonoak)... de un curso que impartí sobre las corrientes del sentimiento religioso en el país vasco. Por razones que no vienen al caso, no tuvieron continuidad aquellas clases y me quedé con un esbozo de historia espiritual local, con sus perspectivas socioculturales y un cúmulo de símbolos, ritos y representaciones mentales<sup>43</sup>;*

b) baita ildo erlijiosoan mamitutakoa ere:

*De los grandes períodos de la historia del sentimiento religioso, me quedé al fin con dos de ellos: el de los grutescos (trogloditismo) y el de la rotación planetaria del firmamento (de influencia indo-europea)<sup>44</sup>.*

MIen erro erlijiosoa argiago geratzen zaigu, kontuan hartzen badugu JMLk diseinaturiko hasierako proiektuan:

Hegal (liburu zati) bakoitzak giza aro bat mami zezakeen: koba, ortzia, politeismo, kristautasuna, erdiaroa, ziutute modernoa<sup>45</sup>.

Baina “luze zabalez gehiegizkoa zen asmo (hori)” dela eta, olerkariak elementu horiek guztiak bi esferatan bildu zituen<sup>46</sup>: ‘Gruteskoak’ (koba, ortzia, politeismoa), eta ‘Planeten adar-biran’ (kristautasuna, Erdi Aroa, ziutute modernoa). Banaketa horretan nabarmen geratzen da, gizakien genesian, JMLk erlijioari ematen dion *chance* edo eragina.

## INDUSKETA-ZATIAK

Olerkariak ez digu (euskal) gizakiaren genesiaren *prozesu osoa* erakusten, giza ikuspuntu edo dimentsio (politika, ekonomia...) guztietan ere ez. Indusketa-zati (gaztelaniaz, *cata*) batzuk besterik ez digu azaltzen, mendeetan zehar gizakien izuek eta pozek nola dirauten eta bilakatzen diren ikus dezagun. Indusketa-zati horiek bi multzoren inguruan lantzen ditu: *trogloditis-*

---

<sup>43</sup> *Ibidem.*

<sup>44</sup> *Ibidem.*

<sup>45</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>, “Neure poetikari buruz”, o cit., 39. or.

<sup>46</sup> *Ibidem*, 39. or.: “Zailegia izateaz gainera, erraldoia ere bazen asmo poetiko hori; eta gehiegi hipotekatzen nuen nire kreaio-erritmoa, nire arrakasta minimoa... Dena den... gai berari eutsiko nion: historia izpiritualean izandako ibilbideari”.

moaren inguruan: koba edota lurpean bizi direnen espazioa eta denbora... eta izarrarteko *planetei begira* dihardutenena<sup>47</sup>.

Indusketa zati biotan (bata, historiarrakoa; bestea, modernitatekoa), olerkariak giza esperientziek *berdintsu* dirautela aurkitzen du:

- *Izua* edo galdera: Berez inor ez da ezer. Beste baten / esku dago orobiaren izaera (95. or.), eta
- *Poza*: Usain gozoak, musikak eta fantasiak / emankor bihurtu dute –dohatsuen / paradisu (59).

Kontzientzia sortu zitzaigunetik, gizakiok erantzunak baino galdera gehiago ditugu, antsia usuago betetasuna baino:

GRUTESKOAK (TROGLODITISMOA)		
Izuen genesisia	Fantasia Beltza	Atabismoak
Obertura = Koba	Magma = Harri eta polikromia	Zirrarakoak = Izu-sorrarazleak
Larru ikara = Gizakiaren sorrera	Erretaulak = Pintura (Ekain, Isturitz...)	Lilura zurbilak gauean = Gaua
Eztanda = Lurrikara	Alegoria = Koba → Munstroa (Fantasia)	Amiltzean = Ametsen zuloa
Auria = Giza eta piztien arteko borroka	Racconto 1 = Kanpoko → barruko munstroa	Amaren altzotik = minerako jaioa
Oihana = Gizakiaren arteko borroka	Racconto 2 = Munstro guztiek bizirik diraute	Oihaneko drama = amorio gezagazia
Estigmak = Giza min bukaezina	Espeleofobia = Izuen sikodramak	Herio = Haustea

PLANETEN ADAR-BIRAN (INDO-EUROPEAR ERAGINA)		
Kalendera	Enblematika	Itzalen galeria
Otsail = Akordea; ihautea	Artizar = Gidaria zeru zein utopietan	San Martin Txiki = Kristaua ↔ Jentila
Bedatse = Atsegina	Eguzki = Maitasunaren poz edo atsegina	Atarrabi = Jentilen jakituria <sup>48</sup>
Ekain = Bizigarritasuna	Ilargi = Maitasunaren misterioa (edabea)	Bereterretxe = Maitasuna eta gorrotoa
Agor = Eklosioa edo orgasmoa	Hodei = Bulkoa: bidaia, bilgura	Axular = Jentila ↔ Kristaua
Larrazken = Atsedena	Tximist = Zerukoekin lotura	Berdabio = Lapurra ↔ Heroia <sup>49</sup>
Eguberri = Gogorapen nobleak	Ortzadar = Utopiaren xendra	Barandiaran = Mitoa eta arrazoa <sup>50</sup>

<sup>47</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>.: “Acotaciones”: “El primero de ellos es la cueva, con su constelación de noche, de frío, de obscuridad, de impotencia, de lucha por subsistir, con todos los pronunciamientos de un bestiario. El segundo campo, el del cosmos (SG, grekeratik: ordena, apaindura) que entraña el día, la luz, la fiesta, el calendario, el viaje de las estrellas influyendo en nosotros, reflejando un planetario que nos atrapa desde dentro”.

<sup>48</sup> Zergatik apurtzen du JMLK diakronia segida? Atarrabi San Martin Txiki baino lehenagokoa dela ematen digu. Mitologiako jainkoek (Atarrabi Mariren semea baita) ez ote dute urterik?

<sup>49</sup> *Mimodramak eta ikonoak*, op. cit., 93. or.: “oroipenaren berri zaharrek / eraldatu zuten zigortuaren kondaira, / omenka ederretsiz menditar tristea”.

<sup>50</sup> BARANDIARAN, J. M<sup>a</sup>., *Mitología Vasca* in *MI*, 99. or.: “Hasta en un mismo individuo, al lado de un sistema o mundo de representaciones que ocupa generalmente su centro de visión, existen otros mundos situados en zonas periféricas, como genios que acechan y buscan ocasión propicia para entrar en juego y suplantar a su colega cuando éste parezca ineficaz e inadecuado”.

Lauki bi horiek ikusita, *MI*en olerkariaren ustez, izutik pozerako joan-etorrian, honako lau oinarrizko indarrok gurutzatzen zaizkigu:

- 1.a, *bitarikotasuna*: izua eta poza, zuloa edo koba eta izadi irekia edota zerua, basatasuna eta kultura, maitasuna eta gorrotoa, jentiltasuna eta kristautasuna;
- 2.a., *progresibotasuna*: izutik → pozera: ‘Grutesko’ en aroan mehatxu sinboloak ugariagoak izan omen ziren ‘Planeten adar-biran’ baino, giza historian zehar, poz sinboloak gero eta ugariago agertzen baitzaizkigu: *Bedatse, Agor, Larrazken, Eguzki...*, nahiz giza anbiguetatea, inoiz ere, guztiz desagertu ez<sup>51</sup>: “Okerra ezilkor. Megalitoa iraunkor. / Mito adierazpide, liburua berri on. / Katedrala gizarte. Hiria etorkizun” (95. or.).
- 3.a, Giza hobekuntza horretan, *kulturak* badu zer esanik, kulturak ezereztu ez badu ere, bigundu edo beratu egiten baititu giza izuak: “Ahantzi da heriotza. Eta atsegin-baratza / zabaltzen, gauzen jatorrizko egunsentian” (59).
- 4.a. *Mestizajea*. *MI*en olerkariak, kultura esaten duenean, *mestizajea* adierazi nahi du, ez kultura bat (gutxiengoarena, usu) desagertzea, beste kultura baten (gehiengoarena, [ia] beti) konkista edo kolonizazioarengatik<sup>52</sup>. Hori dela eta, kulturaren dinamizatzaileak izaten diren ikonoak aukeratzekoan, JMLk euskal kulturatik ateratzen dizkigu, hots: San Martin Txiki (Tours-koa izan bazen ere), Atarrabi, Bereterretxe, Axular (Salamanca ikasia bazuen ere), Berdabio, Barandiaran (Parisen, Alemanian ikasitako ataundarra) euskal gatzik, inoiz ere, galdu ez dutenak, horietariko batzuk kultura unibertsalera espresuki irekiak, euskal herritasunari eutsiz, baita euskal eta erdal kultura aberastuz ere gainera. Herri (kultura) handi(ko)ek oso gutxitan (inoiz ez ote?) ikasi edo errespetatu duten kulturen arteko erlazio desorekatua.

## (EUSKAL) GIZARTEA

Baliteke irakurleak galdetzea zergatik idatzi dudan *euskal* hitza parentesi artean, gizakia agertzen den bakoitzean. Bada JMLk planteatzen dizkigun gizakiaren izu eta pozen sorrera eta bilakaera:

<sup>51</sup> DUCH, Llek ‘mehatxu sinboloak’ *Estaciones del laberinto*, Herder, Barcelona, 2004, 79-86. orr. argitalpenean aztertzen ditu.

<sup>52</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>. “Neure poetikari buruz”, op. cit., 43. or.: “Oteizaren ikuspegitik, latina baino azpirago guk oraindik bizirik daramagun testigantzak leudeke hor. Eta hauek dira poemaren goiasmoan jomuga edukiriko xede eta helburu kulturalak”. ATXAGA, B., *Deia*, 1993.04.04.: “Es decir, que siempre hay una mezcla, no deglución, porque está muy bien hablar de mestizaje y de tolerancia, pero también hay que ver si cuando el gato se come al ratón, eso es mestizaje. Tiene que haber un principio de igualdad de oportunidades y una concepción abierta por todas partes. Entonces hay mestizaje, entonces hay mezcla”.

a) Euskal Herrikoen *intrahistoriatik* planteatzen dizkigulako:

*Con el paso del tiempo, el olvido casi sistemático y el que estuviera vedado para una mayoría el acceso a la semiología del arte tradicional, me hizo, como poeta, sentir rebeldía ante este vacío estético, y me propuse poetizar algunas experiencias colectivas que subyacen en nuestra intrahistoria*<sup>53</sup>; eta

b) JMLk euskal esperientzia jatorra munduko gizaki guztien esperientziarekin *berdintzen* duelako (*mutatis mutandis*, noski; aldaketa txikiz baina, edozein kasutan), giza misterioaren aurrean giza erreakzioa berdintsua (izan/izaten) baita kultura guztietan: “gizaki guztiak berdin baitira azken dimentsio” horretan<sup>54</sup>. Hori dela eta, edozein kulturatako irakurleek, JMLren *MI* testua irakurtzen badute, probetxu (ez soilik estetikoa) atera dezakete.

Testuaren unibertsaltasun horrek ez du adierazten *MI*en jasotzaile zuzena euskalduna (Euskal Herrikoa?)<sup>55</sup> ez dela, baita igorle zuzena ere, arestian esan dudanez, liburu honen jatorria *euskal erlijiotasunari* buruzko ikastaro batean baitu iturbegia<sup>56</sup>.

*MI*en bidea partikularitasunetik unibertsaltasunera doa, euskal partikularitasuna bertan behera utzi gabe (euskaldunoi gehienetan eskatzen zaiguna), euskal partikularitasunean sakondu eta sustraietaragotuz baizik.

Hainbatetan aurpegiratu zaigu euskaldunoi guk geurean iraun nahi izatea (nork ez?), ohartu gabe euskal jendeok gero eta geureagoak izan, orduan eta unibertsalagoak bihurtzen ari garela (ez homogeenagoak, agian, horixe eskatzen bazaigu ere), orduan eta sakonagoak ere, guztion mesederako aberatsagoak ere bai, azken finean gizaki guztion ‘izua’ eta ‘pozak’ berdintsuak baitira, erantzuna edo historia (zertxobait) diferenteak iza(te)n arren. Izuen eta pozen mundu zabaleko ferian, euskaldunok ere geure produktuak eskaintzen ditugu; horietaz ez baliatzea ergelkeria galanta besterik ez da, are eta ergelkeria handiagoa produktu horiek galtzen laga edo bultzatzea (“Entzuteko belarririk duenak [etxekoak zein kanpokoak] entzun beza”<sup>57</sup>).

<sup>53</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Acotaciones”.

<sup>54</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Neure poetikari buruz”, op. cit., 27. or.

<sup>55</sup> Poema hauek euskaraz edota gaztelaniaz irakur daitezke; gaztelaniara ondo itzulita baitaude in *Ibidaldia / Itinerario*, op. cit.

<sup>56</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Acotaciones”: “Nunca pensé que tal material podría ser objeto de un tratamiento poético”.

Unibertsaltasunera doan (euskal) ildo edo sinfonia horretan aritzen da JML. Froga gisa liburuaren “Eranskinak” dakartzakegu (97-101. or.). Zelan deitzen ditu olerkariak ataltxo biok? Zelan eta *Oihartzunak 1* eta *Oihartzunak 2!* Nortzuen oihartzunak? Nortzuenak eta Barandiaranenak eta Oteizarenak! (*Mitología Vasca* eta *Quousque tandem...!*, hurrenez hurren).

Bi atalxook irakurtzea merezi du, oraingo honetan (espazio arazoagatik) bigarrenarekin konformatu behar izan arren:

*Cultura latina (religión, idiomas, arte, estilo) es la historia moderna de los pueblos en íntimo contacto con el nuestro. También es nuestra historia, pero nosotros estamos dentro, tenemos dos almas (dos historias, 2 culturas vivas) y aunque sólo creemos viva la última, su historia no se explica sola si no contamos con nuestro estilo (intra-historia) que no se ha borrado todavía.*

Oteizak *dixit* eta JMLk onartu<sup>58</sup>.

Ez iezaguzue euskaldunoi eska, mesedez, inoiz ere, gatzik gabeko unibertsaltasunaren izenean, euskal izateari uko egin diezaiogun, munduko gizaki eta kultura guztien (zeuek eta zeuen kultura barne) mesederako. Horretaz unibertsaltasunera iristeko bide berezia (euskal bidea) itxi (itsutu) besterik ez baituzue egiten:

*Empecé con el ‘sistema o mundo de representaciones’ de José Miguel de Barandiarán (euskaldunen mundua) y con la intrahistoria unamuniana aludida por Jorge Oteiza (euskal herrikoen bikoiztasuna) –aitortzen digu JMLk– y me encontré con el homo dolens-homo ludens, el hombre dual atormentado y festivo (gizaki unibertsala)<sup>59</sup>.*

## MIMODRAMAK ETA IKONOAK

JMLk azpimarratu du, *MI* liburuan, sinbolo bidez azaltzen digula adierazi nahi diguna. Adiera bide horretaz zertxobait esan ahal eta behar dugu.

<sup>57</sup> Mk 7, 16. Esaldi hori B. Gandiagak aukeratu zuen *Hiru gizon bakarka* liburuaren sarrerako.

<sup>58</sup> OTEIZA, J., *Quousque tandem...!* in *MI*, 101. or.

<sup>59</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Acotaciones”.

<sup>60</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Acotaciones”: “En el momento de elegir los elementos morfológicos del poema, me decidí por los componentes vivos y diminutos: por los gestos y por los iconos, por los mimos y los restos arqueológicos, así como por arquetipos, verbos-motores jousseanos, ideogramas y lo sugerido en los poemas y leyendas populares, por los procedimientos lúdico-corales y la fantasía casi onírica del pueblo”.

Olerkariak *Mimodramak eta ikonoak* deitzen du liburua; hots: keinu, erre-presentazio, irudi, flash, arketipo, ikonoak; ez azalpen teorikorik<sup>60</sup>. Nork eta olerkari batek! zer eta 'hitza'! non eta 'bazterrean' uzten (omen)!, keinu edota mimoa hobetsiz. Agidanez, olerkaria konturatu da, giza misterioaren inguruan, (ohiko) hitzen eraginkortasuna ezer gutxi dela eta, Wittgensteinen aholkuari jarraituz<sup>61</sup>, hitzez ez baliatzea erabaki du (metaforikoki, noski): harri, mimo, itzal, kolore, irudiak hobetsiz: *Mimodramak eta ikonoak*.

*Mimodramek* kobako horma beltzetan, txinatar itzalen antzeko erre-presentazioak gogoratzen dizkigute: izuak barreiarazteko saialdiak, hitzen aurretikoak ausaz: "Lehenik gestu orokorrak ziren... Gero hitzez..."<sup>62</sup>, ... *eta ikonoak*<sup>63</sup>: ikonoak errealtatetik hurbilenik dauden sinboloak dira, ia erretratu estilatuak, ereduak edo estereotipoak: *San Martin Txiki, Atarrabi, Bereterretxe, Axular, Berdabio, Barandiaran*.

Biblian, *Zenbakiak* liburua (21, 4 eta j.) kontatzen digu, israeldarrak basamortuan zeudela, suge pozoitsuak neurritz kanpo ugaritu eta "haien miztoaz israeldar asko hil zela". Kobako izua. Gaur egunean, "harpetako oroipe-netatik, urruneko dundunen / hots-joa datorkigu" (13. or.). Moisesek herriaren alde erregutu zion Jaunari eta honek hauxe esan zion: "Egizu brontzezko suge bat eta ezarri haga baten muturrean (SG, ikono bat). Sugereren batek zizta eginiko edonor, brontzezkoari begiratzean, sendatu egingo da" ... eta halaxe gertatu zen. Brontzezko sugea beldurraren jatorria edota ikonoa izan zen eta euskal gizakien izua barreiatzeko ikonoak ditugu, itzalen galerian ezarritako (euskal) gizakienak, hain zuen, giza izuak irentsi eta itxuraldatzen jakin zutenak (Jesusek gurutzeagaz egin zuen bezala).

Non datza giza izuak arbuiatu eta pozak sorrarazteko *MI*ten olerkariak proposaturiko sei ikonoen indarra? Non eta (euskal) kulturari<sup>64</sup>, hots: (euskal) mitoetan eta (euskal) estetikan, (euskal) tradizioan eta abangoardian, (euskal) testuan eta testu inguruan<sup>65</sup>; labur esateko: (euskal) identitate dinamikoan

<sup>60</sup> *Tractatus logico-philosophicus* (azken esaldia): "Mintza ezin daitekeen horretaz hobe ezer ez esatea".

<sup>62</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., "Neure poetikari buruz", op. cit., 43. or.

<sup>63</sup> *Ibidem*, "Kultisten munduko osogai puntualak eta adierazkorrak... bereziki euskaldunontzat. Mundu honetako bitxi jakinez hornituko nuen nire mintzo elertitsua, ikuspegi zabal eta landu baten zerbitzuan iskrustatzen nituela hainbat peiza landu eta sakabanatu".

<sup>64</sup> BAUMAN, Z., *La cultura como praxis*, Paidós, Barcelona, 2002, 22. or.: "La cultura se refiere tanto a la invención como a la preservación, a la discontinuidad como a la continuidad, a la novedad como a la tradición, a la rutina como a la ruptura de modelos, al seguimiento de las normas como a su superación, a lo único como a lo corriente, al cambio como a la monotonía de la reproducción, a lo inesperado como a lo predecible".

<sup>65</sup> Ikus STEINER, G., "Texto y contexto", [1976], in *Sobre la dificultad y otros ensayos*, México, FCE, 2001, 13-36. or.



(sakonerantz eta aurrerantz). Honelaxe azpimarratzen digu JMLk *MI* liburuaren eskaintzan:

Jose Migel Barandiarani eta Jorge Oteizari: sinesteen kulturaren eta euskal estetikan –zeini berea– zor didana eskertuz (7. or.).

Polo bion artean bizi izan zen JML, idatzi zituen olerki liburuaren eskaintzei kasurik egiten badiegu: *Muga beroak* (1973): “Eskaria: Utzi zaidazute / nere kantak izan dezan / udazken-egunen, / *mabastiaren* (SG, izadiaren) / eta *tolarearen* (SG, kultura) / oroitzapena”; *Ilargiaren eskolan* (1979): Gure ama zenari, menditarren mundu *zaharra* eskertuz, urrats *berriagoak* eskainiz; *Mimodramak eta ikonoak*: Barandiarani (mitoa eta sinesmena) eta Oteizari (estetika eta abangoardia)<sup>66</sup>.

Gizakien izuak eta pozak adierazteko ezintasuna (zailtasuna) dela eta, olerkarietribuko gizakientzako bide berriak (sinboloak, artea...) aukeratu (asmatu) behar dituzte, itsumustuka ibiltzeko behinik behin, arrazoia osatzen (gainditzen?) duten baliabideak lagun dituztela: sentipena, antsia, ametsa, gogoia, edertasuna... arrazoiari uko egin gabe, noski<sup>67</sup>. Giza errealtate konplexu horiek azaltzeko artistak (gizaki guztiek) sinbolo edo arte hizkuntza asmatu behar izan dute.

## ARNASA HANDIKO POEMA LIBURUA

JMLri arnasa handiko poema liburuak gustatzen zitzaizkion<sup>68</sup>. Poema liburu mural erraldoia bezala diseinatzen zuen, euztura handia bezala, non teselek (olerki bakoitzak) adierazia beste zatiekiko erlazioetan (muralaren osotasunarekin ere) lortzen baitute:

*Por eso, en mi último libro (hots, MI), más que la visión lógica, me interesa la semiótica del entramado completo*<sup>69</sup>.

<sup>66</sup> *Ibaiak bmasamortuan* liburu Manuel Lekuonari eta Jose Sebastian Laboari eskainia dago. Azken horri “Erroma (*unibertsitatea*) bideratu ninduelako tradizio katolikoa sakontzera. Berri ere: tardizioa eta modernitatea.

<sup>67</sup> LEKUONA, J. M.<sup>a</sup>, “Acotaciones”: “La tercera concreción del campo poético lo pondría en el ensayismo y en el vanguardismo, tomando los términos en el sentido amplio”. Hortik olerkariaren funtzio eskergaria: “*donner un sens plus pur aux mots de la tribu*” Stéphane Mallarmé (1842-1898), “Le tombeau d’Edgar Poe”.

<sup>68</sup> LEKUONA, J. M.<sup>a</sup>, “Acotaciones”: “Me gustan los poemarios de gran aliento”.

<sup>69</sup> *Ibidem*.

Lekuonarengandik hainbeste konfidentzia bereganatu zuen Jon Kortazarrek kontatu dit JMLk, liburu poema batekin hasi aurretik, liburu osoaren diseinua landu ohi zuela. *MI* liburuari buruz, diseinu bat bazuela espresuki aitortzen digu olerkariak, baina, kasu honetan, lanaren tamainagatik, gaindikaturik edo bazebiltzala:

Idazten hasi nintzen, hurbilketa bat ere banuen baina plangintza zehatzik gabe<sup>70</sup>.

*Ibaiak basamortuan*, JML hil ostean Jon eta Paulo Kortazarrek argitaratutako olerki liburuan, argi ikus dezakegu olerkariak nola landu zuen poemategiaren diseinu osoa, olerkiak idazten hasi aurretik<sup>71</sup>. Hori dela eta, JMLren poema liburuak irakurtzen hasi baino lehen, ‘Aurkibidea’ arretaz aztertu behar dugu, hortxe baitagoke olerkariari gehien interesatzen zaion ‘egitura osoaren semiotika’.

Jon Kortazarrek ohartarazi ere egin dit poema liburu bakoitzean ez eze, JMk idatzitako olerki lau liburuen (bost ‘poemategien’) artean ere, diseinu edo egituraren aldetik, sare edota armazoi komuna ei dagoela<sup>72</sup>. *Ilargiaren eskolan* idaztekoan, JMk buruan zeukala *MI*en egitura? *MI* idaztekoan, JMk *Ilargiaren eskolan* egiturarekin lotura edo jokoren bat bilatu zuela? *Muga beroak*, *Ilargiaren eskolan* eta *MI* poema liburuekin JMLk hainbeste gustatzen zitzaion triptiko halako bat idatzi nahi izan zuela? Ez naiz hainbeste esatera ausartuko. Hala ere, *Muga beroak* liburuko (‘Mindura gaur’ ataleko) poemaren artean eta, batez ere, *Ilargiaren eskolan* delakoen eta *MI*koen artean, sare edo egitura bat legoke, eta egotekotan, sare edo egitura horrek *adierazi* berezia sorrarazten du; zein baina?<sup>73</sup>

<sup>70</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Neure poetikari buruz”, op. cit., 39. or.

<sup>71</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., *Ibaiak basamortuan*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2008. Argitalpena eta sarrera, Jon eta Paulo Kortazar.

<sup>72</sup> JMLk argitaratutako lehen olerki liburua, *Muga beroak* delakoa hiru zatitan banatuta dago: lehen zatian, “Haranegun” ataleko olerkiak, ‘poema solteak’ (Ikus “Neure poetikari buruz”, op. cit., 17. or.); bigarren zatian, *Mindura gaur* delakoa eta hirugarren zatian *Hondarrean idatzia*. JML ez ohi da olerki liburuez mintzatzen, ‘poemategiez’ baizik, eta lehen poemategizat *Mindura gaur* hartzen du; bigarrentzat, *Hondartzean idatzia*; hirugarrentzat, *Ohiu ilunak espirelean*; laugarrentzat, *Mimodramak eta ikonoak*. Ikus LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Nere poetikari buruz”, in *Ibilaldia/Itinerario*, op. cit., 11-45. orr.; batez ere, 23., 27, 33, 37-38. orr. Poema liburu horiei gehitu behar diegu JM hil ondoko *Ibaiak basamortuan* oraintsu kaleratutako olerki liburua.

<sup>73</sup> KORTAZAR, J eta P., “Juan Mari Lekuonaren *Ibaiak basamortuan*. Poesia liburu baten historia”, in *Ibaiak basamortuan*, op. cit., 11. or.: “Liburuak (*Ibaiak basamortuan*) zazpi atal izan behar omen zituen (Gogoratu lau zituela *Hondarrean idatziak* liburuak, bost *Ilargiaren eskolan* lanak, sei *mimodramak eta ikonoak* poema liburuak, beraz, zazpikoa tokatzen zen) eta zazpi poema atal bakoitzeko, Juan Mari Lekuonak zehetasun handiz jarritzen dizkie izenak atalei eta baita ere poema bakoitzari”.

Lan honi gehitzen diodan “Taula I” aztertuz gero, argi dago, olerkariak, *Muga beroak* liburuko ‘Mindura gaur’ poemategian, egituraren aldetiko simetria bilatu duela: 4→3: hots: lau triptikoak (gehi hiru lauki solteak). *Ilargiaren eskolan eskolan* eta *Mimodramak eta ikonoak* egitura bertsua daukatela: biontan, zati bi: ‘Oihu ilunak espiralean’ eta ‘Liburuaren karroxa’ lehenean, ‘Grusteskoak’ eta ‘Planeten adar-biran’ bigarrean<sup>74</sup>, eta zati banatan, banaketa homogenea (bion artean diferentea baina). *Ilargiaren eskolan* 2 zati→5 atal→3 azpiatal (11 azpiatal *Liburuaren karroxa*); *Mimodramak eta ikonoak* liburuan: 2 zati→3 atal→6 azpiatal: *Ilargiaren eskolan* zati banatan, bost poema: *Oihu ilunak espiralean* ataleko bost poematan, hiru olerki<sup>75</sup> (bigarrean 4, salbuespen modura), *Liburuaren karroxa* ataleko bost poematan, 11 olerki (10 Hirugarren poema: *Liburu Urdina*-n).

Liburuaren egitura are homogeoagoa dugu *MI* liburuan. Zati banatan atal eta azpiatalen arteko konbinaketa berberaz gain, liburuko olerki guztietan ia bertso lerro kopuru berdina dugu (20ren bat inguru), baita bertso banako silaba kopuru bertsua ere. Zer adierazteko? Ispilu biren tartean bizi garela 2:3:6 / 2:3/6, historia bertsua errepikatuz, behin eta berriz, mendez mende, urtez urte, egunez egun, giza izuen inguruan, pozaren bila, izuetatik, inoiz ez, guztiz libre geratuz? Izuei eta pozei bira emanez, gizakiok berdintsu diraugu historiaurretik posmodernitatera arte? Berdintsu, bai, hoberantz baina<sup>76</sup>.

<sup>74</sup> Ausartuko naiz ‘Oihu ilunak espiralean’ eta ‘Planeten adar-biran’ arteko erlaziorik azpimarratzen?

<sup>75</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>, “Neure poetikari buruz”, op. cit., 35. or.: “Aukeraturako gai bakoitza hiru emalditan gauzatzen da: 1) Filmearen haritik, lau pertsonaien xehetasunak testu poematiko bihurtuz; 2) Emakumea abstraktuki hartua, era modernoan agertu, arketipo sinbolo xehegotan aurkeztuz, surrealismora, behin xaloki, besteetan bortizki, makurtuz; eta 3) Berriro ere emakumea abstraktuki hartuz, baina era estiluzatuan agertuz, herri-literaturako teknikez baliatuz”.

<sup>76</sup> BARANDIARAN, J. M. de (*IM* liburuan JMLk aipatua in *Oibartzunak* 1 (99. or.): “Tales sistemas no son indudablemente todos de igual valor. Las magias, los mitos, la ciencia, el complejo cristiano no son objetivamente equivalentes. Pero en todos late generalmente la aspiración y tendencia hacia un ideal que nos sobrepuja y cuya realización definitiva situamos en el porvenir. Así, el futuro... se nos presenta como estímulo de progreso humano, es decir, como un factor de nuestra conducta y, por lo tanto, de nuestro tiempo presente”.

Baliteke *Mindura gaur*, *Oihu ilunak espiralean* eta *Mimodramak eta ikonoak* liburuen arteko goranzko elkarren arteko erlaziorik azpimarratzea?:  $4 \rightarrow 3$ ,  $5 \rightarrow 3$  eta  $6 \rightarrow 6$  ( $3 + 3$ )<sup>77</sup> eta *Ibaiak basamoruan*  $7 \rightarrow 7$ ? Gera bedi epaia zintzilik. Argi dena haxe dugu, hots: poema liburu banatan, JMLk poemen arteko simetria bilatzen zuela; lau (bost) poema liburuen artekoan ere?

---

<sup>77</sup> *Muga beroak* poema liburuko “Mindura gaur” atalean:  $4 \rightarrow 3$ , gehi Sarrera, Banakoa eta Azkena. JIMÉNEZ DUQUE, B.: “El número ternario es una afición constante en Buenaventura: animalidad (o sensualidad, espíritu y mente... (o) 1) las cosas temporales pasadas, presentes y futuras siendo así imagen de la eternidad; 2) y las formas simples, espirituales, que no pueden entrar por los sentidos; 3) y, por una luz inmutable, los primeros principios, verdades evidentes e invariables, que le hacen (SG, al alma humana) imagen y semejanza divina... (o) el atrio, el santo y el santo de los santos”, in “Itinerarium mentis in Deum de San Buenaventura”, *Verdad y Vida*, vol. 54, nº 213-214, 1996, 53-62. orr. JMLk ere gogoko izan omen zuen ‘hirua’ liburu poemen egituraketan. Zer adierazteko?

Muga beroak	Ilargiaren eskolan	Mimodramak eta ikonoak
HERENEGUN: 1950 (Zazpi poema)	OIHU ILUNAK ESPIRA-LEAN	I. GRUTESKOAK
I Izadi-abestia	Lehenengo poema: Bizileku	<i>IZUEN GENESIA</i>
II Ama	Bizileku 1	Obertura
III Begi beltxaran	Bizileku 2	Larru ikara
IV Goiz-argi	Bizileku 3	Eztanda
V Ubel		Auria
VI Aize-errota	Bigarren poema: Esku	Oihanean
VII Zergatik, aitona?	Esku 1	Estigmak
ATZO: 1966 (Mindura gaur)	Esku 2	<i>FANTASIA BELTZA</i>
Sarrera: Errota zaar	Esku 3	Magma
Lenengo Triptikoa: Meretrix Illa	Esku 4	Erretaula
I Uzta garaia zen	Hirugarren poema: Ile-adats	Alegoria
II Meretrix Illa	Ile-adats 1	Racconto 1
III Piñudi aizetan	Ile-adats 2	Racconto 2
Bigarren Triptikoa: Ez neri esan!	Ile-adats 3	Espelofobia
I Nadin, nadilla	Laugarren poema: Haragizko estatua	<i>ATABISMOAK</i>
II Ez neri esan!	Haragizko estatua 1	Zirrarakoak
III Nere leloak	Haragizko estatua 2	Lilura zurbilak gauean
Irugarren Triptikoa: Porlandi	Haragizko estatua 3	Amiltzean
I Kamelluen parabola	Boskarren poema: Begitarte	Amaren altzotik
II Porlandi	Begitarte 1	Oihaneke drama
III Dirua	Begitarte 2	Herio
Banakoa: Jainkoa il da	Begitarte 3	
Laugarren Triptikoa; lo artzen detanean		
I Oraindik orain		
II Lo artzen detanean		
III Lili eder bat		
Azkena		
GAUR: 1972 (Hondarrean idatzia)	LIBURUEN KARROXA	II. PLANETEN ADAR-BIRAN
I Bihotza 1...7	Lehenengo poema: Liburu Horia	<i>KALENDERA</i>
II Lurra nigan	1...11	Otsail
A Lurra nigan 1... 4	Bigarren poema: Liburu	Bedatse
B Sua nigan 1... 4	Gorria 1...11	Ekain
C Ura nigan 1... 4	Hirugarren poema: Liburu	Agor

D Eguratsa nigan 1... 4 III Azkeneko harkaitzen muga 1... 5	Urdina 1...11 Laugarren poema: Liburu Berdea 1...11 Boskarren poema: Liburu Zuria 1...11	Larrazken Eguberri  <i>ENBLEMATIKA</i> Artizar Eguzki Ilargi Hodei Tximist Ortzadar  <i>ITZALEN GALERIA</i>  San Martin Txiki Atarrabi Bereterretxe Axular Berdabio Barandiaran
---	--	---

## SEI HEGADUN AINGERUA ETA KUBOA

*Mimodramak eta ikonoak* liburuaz aritzerakoan, ‘ispiluaz’ mintzatu naiz. *MI*en olerkariak, haatik, ez digu espresuki ‘ispiluaz’ berba egiten<sup>78</sup>, beste sinbolo bitaz baizik, hots: *sei hegadun aingeruaz* eta *kuboa*:

Sei aurpegiko, sei koloretako. Seiak / nahastuz, seiak txandatu. Hala da / Giza ulerkuntzaren kubo magikoa; / Sei hegaletako aingeruaren kosmobisioa (95. or.)<sup>79</sup>;

eta sinbolo biotaz interpretazio zehatza ematen digu:

<sup>78</sup> San Bonabenturak, ostera, ‘ispiluaz aritzen da. Ikus *Itinerarium mentis in Deum*, IV, 7: *Ex his autem duobus gradibus mediis, per quos ingredimur ad contemplandum Deum intra nos tanquam speculis imaginum creaturarum, et hoc quasi ad modum alarum expansarum ad volandum, quae tenebant medium locum.*

<sup>79</sup> Lizardik Lauxetaren *Bide berriak* olerki liburuaren egitura “lepoko bat”en antzera irudikatzen du. Ikus “Rumbos nuevos”, *Euzkadi*, 1931, Abenduak 30: “En presencia de algunas piezas me ha venido a la mente la idea de un conglomerado de perlas donde fuera difícil seguir el hilo, imprescindible a pesar de su escaso valor aparente, para completar la obra de arte llamada collar”.

*Las seis partes del poemario representan un ángel de seis alas, y simbolizan un itinerario espiritual, al estilo de las doce alas del 'itinerarium mentis' de San Buenaventura<sup>80</sup>. Y también se pliega a la configuración del cubo (de Ernő Robik<sup>81</sup>), con caras de distinto color, subdivididas en otras seis parcelas móviles y cambiantes, que dan la sensación de algo múltiple y rico, cual corresponde al mundo de la memoria colectiva a que aludimos. Y junto a la sensación de riqueza, la solidez que representa el cubo<sup>82</sup>.*

Dakiguna dakigula, merezi du aurreko paragrafoa arretaz irakurtzea, lerro horietan, olerkariak MIen “la semiótica del entramado completo” eza-gutzeko lorratzak ematen baitizkigu:

- 1., *MI itinerarium mentis* bat da (*camino espiritual* JMLren itzulpenen), mailaz maila ibili beharrekoa, garrantzi handiko nonbaitera iritsi nahi badugu: bilatze, sakontze edo jasotze prozesu bat: aurkikuntza bide bat<sup>83</sup>.
- 2., nora garamatza bide horrek? Zein da gizakiok ezagutza, jakite bila, aukeratu beharreko (komenigarriena zaigun) bidea? San Bonabenturaren *itinerariumean*, izakien lorratzetatik abiatuta (*per vestigia*: zentzumenak, irudimena) → giza ariman zehar (*per imaginem*: arrazoia, ulermenak) → grazia edo iluminazioaren bidez (*donis gratuitis reformanda*: adimen edo buruargitasuna) → estasira edo maitasunera iristen

---

<sup>80</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>, “Acotaciones”. Sei ala hamabi hego? San Bonabentura sei hegoz ari da (ikus 83. oharra). Nahastu ote da JML? Sei hegadun aingerua bi aldiz agertzen da Biblian, biotan Jainkoaren tronua inguruan: Is 6 2: “Uzias erregea hil zen urtean, tronu altu eta garai batean eseria ikusi nuen Jauna; haren mantu-hegalak tenplua betetzen zuen. Suzkoak bezalako izaki batzuk zituen gainean. Seina hegal zituzten: bi hegalez aurpegia estaltzen zuten, beste biz gorputza, eta beste biz hegaz egiten zuten”. Ap 4, 8: “Lau izakiok seina hego zituzten, begiz beteak kanpotik eta barrutik”.

<sup>81</sup> Rubik-en kubo (magia kubo ere deiturikoa), 1974. urtean, zizelkari eta irakasle izan zen hungariar Ernő Robik-ek asmatutako buruhausgarria.

<sup>82</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>, “Acotaciones”.

<sup>83</sup> San BONABENTURA (1217?-1274; 1482an kanonizatua), *Itinerarium mentis in Deum: Nam per senas alas illas recte intelligi possunt sex illuminationum suspensiones, quibus anima quasi quibusdam gradibus vel itineribus disponitur, ut transeat ad pacem per extaticos excessus sapientiae christianae... Effigies igitur sex alarum seraphicarum insinuat sex illuminationes scalares, quae a creaturis incipiunt et perducunt usque ad Deum, ad quem nemo intrat recte nisi per Crucifixum.*

gara: *quod est esse*: IZAN, *quod est bonum*: ONTASUNA, *in quo requies datur*: ATSEDENA<sup>84</sup>; izutik → pozera.

- 3., *MI*en olerkariak esanda, (euskal) ibiltariok badakigu zeren bila gabiltzan: gizakien izu eta pozen azalpenaren bila, olerkariak xendra horretan nola ibili azaltzen digu: historia (ikus) ↔ arrazoia edo filosofia (ausnartu) ↔ arte (ekin) ↔ lilura edota maitasuna: estasia edo gozamina, irakurleak:

*ne forte credat quod sibi sufficiat lectio sine unctione, speculatio sine devotione, investigatio sine admiratione, circumspectio sine exultatione, industria sine pietate, sciencia sine caritate, intelligentia sine humilitate, studium absque divina gratia, speculum absque sapientia divinitus spirata (mutatis mutandis, noski)*<sup>85</sup>.

Giza errelitateaz (misterioaz?) aritzerakoetan, arrazoi *butsez* (edo nagusiki) Akinoko San Tomasek (eskola filosofiak, Ilustrazioak...) proposaturiko xendraren orde (arrazoi xendraz gain, hobe), San Bonabenturak (eta JMLk) maitasun/lilura xendra *ere* proposatzen digu, (euskal) errealitateaz jabetu nahian gabiltzanean, espiritu mugarantz garamatzana<sup>86</sup>:

- 4., sei hegal, sei maila, mundua sortzeko sei egun behar izan zuen Jainkoak: historiaren denbora, ekinarena<sup>87</sup>:

Gizonaren mundu honetako bizitza osagabea ere badirudi *seiak* sinbolizatzen duela, zazpia deskantsurako, heriotzarako, eta izpirituaren aldirako delarik. Izan ere, kristiandadean *seia*, inperfekzioaren sinbolo baita, osagabearen adierazle<sup>88</sup>.

- 5., Giza *itinerarium*ean, aldeak zein dimentsioak ohartarazten dizkigu JMLk, alegia:

---

<sup>84</sup> JIMÉNEZ DUQUE, B., “‘Itinerarium mentis in Deum’ de San Buenaventura”, op. cit., 53. or.: “Elevación a Dios que partiendo del ‘vestigio’ de las criaturas, lleba a la ‘imagen’ del alma humana, donde con la ayuda de la gracia descubre la huella trinitaria, para a través de del Verbo humanado, de Cristo crucificado, llegar al ‘extasis’ del conocimiento amoroso, identificativo, a la experiencia del Dios uno y trino, en la que se vivencia, sin entender, el exceso mental que trasciende vestigios e imágenes, que abisma en ellos”.

<sup>85</sup> San Bonabenturaren *Itinerarium in Deum, Prologus, 4*.

<sup>86</sup> Estereotipoak estereotipo, San Bonabenturaren (frantziskotarrak oro har: Duns Scoto eta abar) ‘maitasun’ bidearen aldeko(ago)ak ditugu Akinoko San Tomas (domingotarrak oro har) baino; azken hauek arrazoiaren aldeko(ago)ak omen dira.

<sup>87</sup> PERURENA, P., *Euskarak sorgindutako numeroak*, Kutxa, Donostia, 1993, 165. or. : “(Seiak) mugimenduaren amaiera ere adierazten du, mundua ez baitzen alferrik *sei* egunetan sortua izan. Horregatik, ekinaren eta ahaleginaren sinbolo ere bada *seia*”.

<sup>88</sup> PERURENA, P., op. cit., 165. or.



- *aurrera* gabiltzala: Haitzulotik → Leihoteria gotikoak; Gruteskoetatik → Planeten adar-birara;
- *pozerako* bidean, beti(dani)ko izuak *aurreratu* edota *gainditu ezinean*<sup>89</sup>:

*Seia*, balio *bikoitza* eta *oreka* sinbolizatzen duen numeroa da. Muturrez gorako eta beheko bi trianguluen batasuna, suaren eta uraren batasuna; beraz, giza arimaren sinboloa<sup>90</sup>.

- 6., JML *euskal* esperientziaz aritzen da espresuki *MI* liburuan:

*El cuarto territorio de la poética personal lo enmarcaría en lo vivencial, en lo que uno mismo ha experimentado, como recuerdo que nos une y en cierto modo nos ayuda a comprendernos desde dentro. He tenido muy en cuenta mis días de niñez en el caserío y su hábitat; he recordado los parajes de montaña idénticos al del entorno de las cuevas; recojo las impresiones tenidas al visitar los santuarios de las pinturas rupestres o de las ermitas; he plasmado impresiones de las lecciones de arte escuchadas in situ a maestros que sabían transmitir las emociones artísticas; he tenido muy en cuenta la etnografía ya como testigo, ya como estudioso*<sup>91</sup>.

- 7., euskal partikulartasunetik ↔ giza unibertsaltasunera gabiltza:

(Seiak) espazioaren *sei* norabideak bereganatzen ditu: goiti behitkkoa, ezker eskuinekoa eta atze aurrekoa<sup>92</sup>.

Euskaldunok sufritu eta gozatzen duguna, munduko gizaki guztiek ere, izandakoak zein izatekoak barne, sufritu eta gozatzen dute, antz-antzera, geure gisara baina. Hori dela eta, gure esperientziaz munduko lagunei zerbait berezia eskaini ahal diegu, baita guk geuk beste gizaki guztiengandik ikasi ahal ere. Ez ditzagun, otoi, elkarren esperientziak alferrik gal eta gorde ditzagun geure historia eta jakituria guztion mesederako.

---

<sup>89</sup> DUCH, LI, op. cit., 67. or.: “En el hombre, porque es un ‘ser tradicional’, en un mismo movimiento coinciden la permanencia y el cambio, la fijación y la movilidad, lo estructural y lo histórico. No se trata de una juxtaposición, sino de una complicación: permanencia *en* el cambio y cambio *en* la permanencia”.

<sup>90</sup> PERURENA, P., op. cit., 165. or.

<sup>91</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>, “Acotaciones”.

<sup>92</sup> PERURENA. P., op. cit., 165. or.

## KRONLECH ANTZEAN ERAIKIRIKO POEMAK

### Zati barreiatuen pilaketa

JMLren beste liburuekin *MI*en berritasun nabarmenatarikoa estiloarena da<sup>93</sup>. *MI*en olerkietan ia ez dago narraziorik<sup>94</sup>, *sinbolo edo metafora pilaketa* baizik:

Amildegia usmatzearen laberintoak. / Harrizko pasadizuen atzazalak.  
Eta / amets gaiztoen aingura herdoilduak. / Giza hasikinei galtzarraren lapas-  
tu / zitzaien beldurraren esne ozpindua (15. or.); Egunari besta gauaren  
erdian. / Isiltasuna zeremonian esferak zuriz / jantzirik. Diz-diz hierofanien  
hamabi / argi-zuziak. Eta zuhaitzaren errituak / oleska, bidaia eliptikoen  
bobedazpian, ... (67. or).

Alde horretatik, *MI* liburuak O. Pazen *Piedra de sol* poema gogoratzen dit, hots:

*Eres una ciudad que el mar asedia, / una muralla que la luz divide, / en  
dos mitades de color durazno, / un paraje de sal, rocas y pájaros, / bajo la ley  
del mediodía absorto...*

non irakurle-erromesak, Jose Migel Barandiaran etnologoak bezala, “*recoge fragmentos, y sigue buscando (unidad)*”<sup>95</sup>.

Zati edo lorratz barreiatuak batasun bila: kronlech bat ote? Iruzingile honen obsesioa? Ez dut uste, JMLren asmakizun harrigarria baizik. Oteizaren euskal literaturan eraginez aritzerakoan, JMLk hauxe azpimarratzen digu:

Kronletx txiki batzuren antzo eraikiriko poematxoak: hitz soilak erdi-gune baten jirabiran; eta tarteak areago nabarmentzen direla bete-uneak baino. Biran jarrita, egiteko funtzionala helburu, esaten, kantatzen, dantzatzen diren poematxo estilizatuak<sup>96</sup>;

<sup>93</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., *Berria*, 05.12.06, 3. or.: “Nik beti eustsi diot estilo berri bat bilatu artean ez idazteko joerari”.

<sup>94</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., Neure poetikari buruz”, op. cit., 39. or.: “... zuriekin jokatzuz, esaldiak aforismotuz, irudiak kulturizatuz eta koloreztatuz...”. ‘Racconto 1’ eta ‘Racconto 2’ olerkiak narratiboagoak dira liburuko beste poemak baino.

<sup>95</sup> Letra etzana nirea da. GINFERRER., P., “Lectura de ‘Piedra de sol’”, in *Lecturias de Octavio Paz*, Anagrama, Barcelona, 1980, 40. or. LEKUONA, J. M., “Kanpoko idazleen artean zein izan dituzu gustokoena? LEKUONAK: “Pablo Neruda batez ere. Eta Octavio Paz. Zinez miresten ditut”, in *Egunkaria* 16-04-02.

<sup>96</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Herri poesia eta Oteizaren ulerkuntza estetikoak”, in *OTEIZA euskal esteta eta mitologitzaile*, Aurrezki-Kutxa Munizipala, Donostia, 1986, 56. or. JMLk ez zien, nik dakidala, esaldi hori *MI*en poemei zuzen erantsi, baina uste dut *MI*en poemei (hitz soilak erdigune baten jirabiran; eta tarteak areago nabarmentzen direla bete-uneak baino) ondo baino hobeto (JMLren bertsoei ongien?) dagokiela.

eta *MI*en olerkiez, hauxe idatzi zigun JMLk:

Ez dut behin ere hain *poema laburrik* egin. Barrokismo gutxiago dago bestalde<sup>97</sup>. Testuen *hutsuneein* gehiago jokatzeko dut, eskematikoagoa da<sup>98</sup>.

Esaldi bion arteko kointzidentzia nabarmena dugu, adierazkorra ere bai.

Zein batasun? Bada (euskal) gizakiaren izuak eta pozak azal diezazkigukeena<sup>99</sup>. Ezina ote? Bai, baina... ahalegin hori ez zaigu, inoiz ere, alferrik gertatzen: argi printzaren batzuk bildu omen ditugu (euskal) historian (kulturan) zehar:

Poemategi honek han hemen barreiatu dagoen edertasun dispersua biltzea du helburu<sup>100</sup>.

Horixe ei da giza bizitza, horixe omen, azken buruan, benetako erlijiotasuna<sup>101</sup>:

Eta bizgarri zen bizientzat munduaren taupada (61. or.).

Zein batasun *MI*en kasuan? Bada

- a) historiaurreko (Gruteskoak) eta historian zeharreko (euskal) kulturaren artekoa (Planeten adar-biran),
- b) euskal kulturaren eta beste herri guztien kulturaren artekoa edo mesizajea: euskal paganismoa eta kristautasuna, euskal berezitasun zein identitatea eta munduko zabaltasuna edo unibertsaltasuna: tradizioa eta abangoardia, gu geu eta zuek zeuok, arrazoia eta lilura: gizakiok lehen izuaren oihartzuna baikara, azken salmoaren zurrumurrua ere bai, batera eta aurrera:

Gaiaren teorizazioa edozein hizkuntzatan egin zitekeen noski. Baina horko mimodramek eta horko irudiek izan jakina eta zehatza eta aberatsa dute euskaraz, inongo hizkuntzatan eman ez litezkeen mila ñabardurez. Lehenik gestu orokorrak ziren, berdinak kultura guztietan, noski. Gero,

---

<sup>97</sup> Oteizaren ‘hutsa’?

<sup>98</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>. in *Argia*, op. cit., 49. o. Hizki entzana nirea da.

<sup>99</sup> GINFERRER, P., op. cit., 51. or.: “(O. Pazek) Indaga ni más ni menos que por el sentido de la Historia, por el sentido de la existencia humana en la Tierra”.

<sup>100</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Neure poetikari buruz”, op. cit., 37. or.

<sup>101</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Gaiak eta egiturak”, op. cit., 49. or.: “Beti uste izan dut poeta-  
ren mezuak beti izan behar duela paradoxikoa”. DUCH, Ll, op. cit., 61. or.: “Todas estas oposiciones desempeñan la función de describir la dinámica psicológica de la experiencia religiosa”.

hitzez sistematze bereziak hartu zituzten, Gurean euskara izan zen hizkuntza sistema. Eta gainera, grafian ere eginik daukagu nolerebaiteko ibilbidea, idazkeran ere nolakotasun berezia lortu izan dugularik geure hitzentzat<sup>102</sup>.

Saiatze horretan JMLk Orioko eskultorea eta J. M. Barandiaran, izan ditu maisu eta aurrelari, nor berean:

Denen beharrean aurkitzen garen literatur esparru honetarako ere (Oteizak) utzi dizkigu zenbait eritzimolde zabal, guretzat arnasemaile izan direnak. Besteak beste, eta adibide modura, zenbait aipa ditzagun:

- a) Klasizismoa ez da arte-eredu bakarra; hor dago arte modernoaren ere. Eta herri-poesia onargaitza gerta baledi ere, eta anbiguo eta tentel antzeko klasizistentzat, bestalde, ondo uztartzen da arte modernoarekin, antropologia aberatsagoa eta artegintza askatuagoa eskatzen dizkigun arte modernoarekin.
- b) Latinarekin bakarrik gure historia esplika nahi lukeena alper-alperrik dabil. Bi arima ditugu, bi estilo. Baina azpikoena ere kultura umotu baten ispilatze da; eta berau da izan gure estilo berezia.
- c) Hutsartearen balioa ere azpimarratzen da: hitzez, kantuz eta gorputzari eraginez mamituriko poesia estilizatu eta abstraktoa (SG, mimodramak eta ikonoak, alegia). Gure barrutik sentsaziorik zaharrenak ateratzen dituena. Elisioz betea (hutsarte-huts). Askotan hotsen kidetasuna eta erritmo jakina eta koloreen proiektzio soila beste koherentziarik gabe eginiko poesia.
- d) Itxurazko koerentziarik ezak dituen benetako barne loturak. Irudi soilak, aditzik gabe, irudi margotua daramaten harriak bait liran, elkarren ondoan jezarriak, harpetan margoztuta aurkituriko harrien antzera<sup>103</sup>.

## Aditz-denbora eta pertsonak

*Miei* buruzko planteamenduak aditz denboraren erabilera zehaztera behartzen du olerkaria: “Gruteskoak” zatiko poemak ‘iraganean’ (aspektu burutuan zein ez-burutuan) dira idatziak; “Planeten adar-biran” zatikoak, haatik, batzuk iraganean, eta besteren batzuk orainaldian. Denbora erabilera

---

<sup>102</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Neure poetikari buruz”, op. cit., 43. or.

<sup>103</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Herri poesia eta Oteizaren ulerkuntza estetikoa”, op. cit., 56. or.

markatu horrek azpimarratzen digu herri edo kultura baten antigoaleko gertakizunek, hots: herri edo kultura baten memoriak, oraingoan ere, iraun eta geroke norantz ere seinalatzen digutela<sup>104</sup>:

Izan zirelako gara; garelako izango dira<sup>105</sup>.

Hori azaltzeko, “Obertura” delako *MI* liburuaren lehen poeman, olerkariak liburu osoaren ‘motiboa’ biltzen eta iraganaren eta orainaren arteko jarraipena azpimarratzen digu: “Aspaldiko dardarak / izaki –pareta zaharren oihartzun- gaur / oihu atabiko kausiturik” (13. or.), eta gauza bera egiten digu “Atabismoak” ataleko lehendabiziko hiru poemetan ere: “Ehizaren profil enblematikoak, gaur / ezabaitz, kontzientzipean totemizatuak” (13. or.). Historia zein iraganaren ‘ebatondoak” (13. or.).

*MI* liburuan ibilaldi *kolektibo* baten zantzua eta arrastoa biltzen zaigu, (kanpoko?) narratzaile batek kontatuta (berriro ere zinearen eragina?<sup>106</sup>): “Epikotasuna litzateke lehenik adieraziko nukeena”. Nola adierazi, poema liburu labur batean, kultura baten eta gizakien historia luzea: “Historia bat dago azpian eta horren berri ematen da era poetikan”? Nola lirikotasuna lortzea “hirugarren pertsonan idatzirik dagoen (testu batean), aukera honek lirikari gaur egun dituen zailtasun guztiekin”?:

Lehenengo eta bigarren pertsona ez sartzeak, konkretzioa eta berotasuna aldatzen dute; eta beraz, beste balio estetikoek jokatu beharra dago poemaren komunikazioan<sup>107</sup>.

<sup>104</sup> GALIMBERTI, U., *Idee: il catalogo è questo*, Milan, Feltrinelli, 1999, 141-142. orr.: “Yo no sería Yo si la memoria no construyera aquella esfera de pertenencia por la que reconozco como ‘míos’ acciones, vivencias, pensamientos y sentimientos; no existiría el Mundo si la memoria no cosiera la sucesión de visiones que de otra manera se ofrecerían como espectáculos siempre nuevos y apariciones inconexas entre si”. DUCH, Ll, op. cit., 130. or.: “Creemos que con razón Nietzsche señalaba que la memoria era el sentido social por excelencia, ya que permitía la constitución del hombre como *animal social*. El recuerdo –como activación, en cada aquí y ahora, de la memoria- es sobre todo un *re-acuerdo* que, a partir de la dispersión y el caos de datos, acontecimientos, sensaciones e intereses, posee la capacidad de generar una cierta unidad y armonía, y que, mediante esa unidad siempre precaria, es capaz de configurar, en el marco de las ‘historias’ individuales y colectivas, aquellos procesos de identificación subjetivos y objetivos que la razón occidental ha denominado ‘yo’ y ‘mundo’”.

<sup>105</sup> BARANDIARAN J. M., in *Jauntarkolen sorta marduldua*, Errenteriako Udala, 1998, 1. or.

<sup>106</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Neure poetikari buruz”, op. cit. 33. or. *Ohiu ilunak espiralean* hirugarren (*MI*en aurreko) poema liburuaz: “Poema honen abiapuntua zinema batean dago: “*Gritos y susurros*” filme entzutetsua dago azpian, Bergmanen lan goraiapatua”.

<sup>107</sup> *Ibidem*, 41-43. orr.

Berotasun (lirikotasun) hori lantzeko, *MI*en olerkaria errekurtsio bitaz baliatzen da:

- lehena, gizakiaren kanpoko ekintzez aritu beharrean (zuzen eta espresuki bederen) *barruko esperientziaz* dihardu (biak azpimarratuak: a, barruko; b, esperientziak): historiak nola zizelkatu gaituen gu geu izu eta poz txokoetan: “Barne ikuskeraren berri euskaraz ematen da”<sup>108</sup>, eta
- Edertasun esplizitua aukeratzen du poesia materializat (beste biderik ote, poeta batentzak?): “Poemategi honek ederra du helburu... Horregatik, materiale nobleak behar dira aukeratu, emozio estetikoa gauzaren aipamenak sor dezan zuzenean, eta ez argi eta garbi agerturiko bihozkadak”<sup>109</sup>.

Ildo horretan, argigarriak zaizkigu, liburu honetan bertan, Jon Kortazarrek idatzitako artikuluan, JMLk berak azpimarratzen dizkigun *MI*an pilaturiko aipamen artistikoak<sup>110</sup> (metaforak, gehienetan): literatura, arkitektura, pintura, musika, diseinua, arte txikia, eskultura, dantza, zinema, liturgia... Guztira: 242 aipamen artistiko.

## Metrika

Inork gutxi bezala ezagutu zuen JMLk euskal herri-metrika<sup>111</sup>; teoria ez eze, praktika mailan ere. JMLk euskal erritmoa espresuki zaindu du bertso askotan: ‘*Begi beltxaran*’, ‘*Zergatik, aitona*’, ‘*Errota zaar*’, ‘*Esku 4*’, ‘*Haragizko estatua 3*’, ‘*Liburuaren Karroxa*’, ...<sup>112</sup>, eta, hala ere, apropos bilaturiko metrika aldaketa ekarri zigun *MI* liburuan: belarritik begietara:

Kontzesio bakarra agian, irakurmenari emandakoa litzateke, aurreko liburuek kantabileagoak bait ziren. (*MI* olerki liburuan) *begiramenak entzumenak* baino leku gehiago dauka<sup>113</sup>.

<sup>108</sup> *Ibidem*, 43. or.

<sup>109</sup> *Ibidem*, 37. eta 43. orr.

<sup>110</sup> KORTAZAR, J., “Juan Mari Lekuona: arteen arteko elkarrizketa”.

<sup>111</sup> *Ahozko Euskal Literatura*, Erein, Donostia, 1982.

<sup>112</sup> JMLk sarri azpimarratu zuen bere idazkeran hasieran Orixe, Lizardik... izan zuten eragina; geroago, Iratzeder eta Gandiagak; *Oihu ilunak espiralean* liburuz haxe esan zuen: “Espiralean gora eginez, 3. idazkerako poemak ahozko literaturatik dute hartzen beren egituzarioa... Esan dezadan, baita ere, ‘Haragizko Estatua 3’ poematxoak baduela zer ikusi Bilintxen *Kontxeneirentzat* bertso-sortarekin, antzeko begirada dutenez damarekiko”.

<sup>113</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., in *Argia*, op. cit., 49. or. Letra etzana nirea da.

Silaba aldetiko erritmoa bigarren mailara igaro du olerkariak *MI* liburua-  
ren poemetan<sup>114</sup>, eta hori dela eta, baliabide berri batez baliatu behar izan du  
liburu honetan erritmoa bilatzeko. Baliabide bitxi eta zorrotza (askatasunez  
egina ere): *hitzen multzoa*, alegia:

Metrikaz ere zerbait esan nahi nuke. Libreak izango ziren bertsoak beti  
bezala, baina artifizio erritmiko bat nahi nuen izan zezaten. Eta hau izan zen  
sistematzeko-modua: artifizio hori ez zen belarrikoa izango, abstraktoago den  
zerbait baizik. Bertso lerro bakoitzak *lau hitz-mukuru* askatasunez jarriak<sup>115</sup>,  
begien bidez buruak azkar jaso ditzakeen moldeak<sup>116</sup>. Nukleo hauek esaldiak  
nolerebait neurkeratzen dituzte, halako barne erritmo bat, belarrira ez bada  
ere, barne pertzepziora iristen dena begien bidez. Bide honek laguntzen du  
prosaren aruntkeriarik ihes egiten, hitzei laxotasuna kenduz<sup>117</sup>.

Aldaketa horiek, batik bat bere olerkiekin horren arduratsua izan zen  
JMLren kasuan, ez dira inoiz ‘inozenteak’ izaten.

Silaba erritmoa bigarren mailan utzi eta hitz erritmoa nagusitzat hartzeak  
behartzen gaitu arreta jartzera testuaren *edukian* (metaforez mozorrotua  
badatorkigu ere):

(*MI* liburuan) Iruditeria oso landua da, aukeratze handikoa<sup>118</sup>.

Surrealistek erakusten diguten bezalaxe, metaforek *edukiaren* alde miste-  
riotsuak (errealitatearekin nahasturik usu) hurbiltzen dizkigute, baita gai edo  
irudi horiek artistengan (J. M. Lekuonarengan, kasu) eragiten duten erreso-  
nantzia pertsonala ere. Bide beraz, metaforek, irakurlearengan harridura  
sorrarazterakoan, berronen barruko esperientza ezkutuak azaleratzen dituzte,  
irakurle bera guztiz ohartu gabe, behin baino gehiagotan.

<sup>114</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Gaiak eta egiturak”, op. cit., 51. or.: “Egitura metrikoei dago-  
kienez, jeneroak hala eskatzen ez duenean (SG, *IM* kasuan?), ihes egiten diot bertso isosila-  
biko eta mono ritmikoari eta bestelako espazioak eta erritmoak bilatzen dizkiet hitzei.  
Kantutegi zaharreko klitxeen imitazioaz gaindi, ahozko poesiaren prozedura ludiko-kora-  
lak entseiatzen ditut oro har... komentziturik nago herri poetek askoz hobeto menderatzen  
dituztela estrofaren baliapideak, eta alferrikako dela, eta are kalterako, poeta akademikook  
inprobisatua egiten duten bertsolariekin lehian saia gaitezen, estrofaren moldeak milaka  
aldiz entseiatu eta haren ahalbide guztiak agortu ere agortu baituzte”.

<sup>115</sup> Lau hitz-mukuru horrek badu zerikusia euskal baladetan (Betotibarko kantuan, esa-  
terako?) agertzen diren lau oinekin?

<sup>116</sup> Haitzulotako gogoanean, ganbara ilunek / pinakoteka isilek, kare-lebarrietan (13. or.);  
Harpeko estaia idealdan, erdilotan / zakur gorria zetzan. Iraganera/ (35. or.); Deabruaren  
kobalagun, ongiaz eta gaizkiaz / jakitun. Noiznahi, noranahi, joateko (87. or.) ...

<sup>117</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Neure poetikari buruz”, op. cit., 41. or. Letra etzana nirea da.

<sup>118</sup> *Ibidem*.

Hala ere, ezin dezakegu esan, olerkariak, *IM* liburuan, metrika tradizionalarari arretarik eman ez diola. Jon Kortazarrek, arrazoi osoz, parnasianismo kutsua nabarmentzen du *M/ko* poemetan. Olerkariak arkitektura klasikoaren perfektasuna espresuki bilatu du eta seina olerkitako hiruna azpipoemategiko bi zatitako liburua eskaintzen digu: katedral bat ote? (95.or).

Olerki bakoitzean, bertso-lerroak, silaba kopuru aldetik, irregular samar-txoak izanik ere (gehienak, haatik, 12-15 tarteko silabadunak), lerro kopuruari dagokionez, nahiko berdintsuak dira: gehinak 20 bertso-lerrokoak (%44), eta besteak 20 bertso-lerro ingurukoak. Forma aldetik uniformitatea, beraz, eta eduki aldetik surrealismo ikurpuntutiko testu oso metaforizatua: ordena eta askatasuna, zapora diferenteetako nahastura atsegingarria; erakargarria ere bai.

## EUSKAL ERROA

JML, bere olerki ibilkeraz aritzerakoan, ‘hegaldi espiralaz’ mintzatu zaigu (Txillidarekin bat eginez<sup>119</sup>), kezkatzen zaizkion gai ‘arduratiak’, behin eta berriz aztertu nahi izango balitu bezala, gero eta gorago: “espiralean gora eginez”, gero eta azpirago ere: “*Azpirago* jo beharra zegoen”, “barreiaturik dagoen edertrasu dispertsua” biltzeko asmoz<sup>120</sup>...

Gorago = unibertsalagoa? Azpirago = ‘lurragoa’<sup>121</sup>. Olerkaria, beste behin, kontrajarriak ez eze, osagarriak ere izaten zaizkigun esperientzia aberasgarriez aritzen zaigu: unibertsalitatearena eta identitaterarena. Esperientzia biok, goian edota sakonean, gero eta markatuagoak izan, orduan eta *hurbilagoak* sentitzen ditugu.

Irkusgarria da nola JMLren olerki liburuak gero eta irekiagoak (hots, unibertsalagoak) izan, orduan eta euskal sustraituagoak bilakatzen zaizkigun:

(Mimodramek eta ikonoek) kontatzen dute, era estilizatuan, gure barruaz geratu den aspaldiko ibilaldi kolektiboen zantzua eta arrastoan. Barne ikuskeraren berri euskaraz ematen da<sup>122</sup>:

---

<sup>119</sup> UGARTE, L., *Chillida: dudas y preguntas*, erein, Donostia, 1995, 89. or.: “Todo sigue esa ruta... estoy sobrevolando un territorio en el que ya había estado, pero no estoy en el mismo sitio”. LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Neure `poetikari buruz”, op. cit., 33. or.: “*Oihu ilunak espiralean...* lehen bulkoa Txillidarengandik jaso nuen han-hartan”.

<sup>120</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Neure poetikari buruz”, op. cit., 27, 33, 37. orr.

<sup>121</sup> Gandiaga B.

<sup>122</sup> LEKUONA, J. M<sup>a</sup>., “Neure poetikari buruz”, op. cit., 43. or.



– bai eduki edo adieraziaren aldetik:

*He tenido muy en cuenta mis días de niñez en el caserío y su hábitat; he recordado los parajes de montaña idénticos al del entorno de las cuevas; recojo las impresiones tenidas al visitar los santuarios de las pinturas rupestres o de las ermitas; he plasmado impresiones de las lecciones de arte escuchadas in situ a maestros que sabían transmitir las emociones artísticas; he tenido muy en cuenta la etnografía ya como testigo, ya como estudioso*<sup>123</sup>;

– baita esaera edo adierazlearen aldetik ere:

Gaiaren teorizazioa edozein hizkuntzatan egin zitekeen noski. Baina horko mimodramek eta horko irudiek izan jakina eta zehatza eta aberatsa dute euskaraz, inongo hizkuntzatan eman ez litezkeen mila ñabardurez. Lehenik gestu orokorrak ziren, berdinak kultura guztietan, noski. Gero. Hitzez sistematze bereziak hartu zituzten, Gurean euskara izan zen hizkuntza sistema. Eta gainera, grafian ere eginik daukagu nolerebaiteko ibilbidea, idazkeran ere nolakotasun berezia lortu izan dugularik geure hitzentzat<sup>124</sup>.

Euskaltasunerantz makur(rago)tze hori ez zitzaion JMLri erraz suertatu, ezta bigun ere, lan luze, geldoa eskatu baitzion, hausnartze sakona ere, azkenean, atsegin bihurtu ei zitzaizkionak:

Hasta ahora hemos hablado de la estrella nocturna por antonomasia de la poesía oral vasca, *art(h)izar* o Venus. Ahora esbozaremos unos apuntes sobre la estrella diurna, el sol, en las variantes septentrionales *ekhia* o *iduzkia*. Por lo común, las alusiones que se hacen en las canciones son a las estrellas nocturnas. Cuando se hace referencia a la luna o *argizagia/-ria* es normalmente para pedirle ayuda o auxilio. Se exhorta a la luna para que ilumine el camino hacia la casa de la amada. Pero en este punto analizaremos someramente la simbología del sol. El sol también es representado como el astro más luminoso y hermoso. La amada, por lo tanto, se emparenta con la belleza solar. He aquí la primera estrofa de la canción 48 de J. A. Chaho:

<sup>66</sup> Pierre Lafitte “Deux billets d’amoureux souletins écrits vers l’an 1800”, *Gure Herria* 1970, abendoa, págs. 381-384. En la primera misiva el encabezamiento es *Adio ene bixoxeco Suget bakoixa*, es decir, “Adio ene bihotzeko sujet bakoitxa”, y, en la segunda, *Adio ene yçar bakoixa*, es decir, “Adio ene izar bakoitxa”. Y no es casualidad, en la segunda misiva se lee *Adio, ene izar bakoitxa*, es decir, “adios mi única estrella”.

Izarrik ederrena Zeluko ekhia  
 Lurreko anderetan oï ene maïtia  
 Larria chouri gorri, parerik gabia  
 Oï ene bihotzeko objeten lilia<sup>67</sup>.

Vemos claramente que tanto el lucero del alba como el sol son los astros más hermosos. Estos astros solamente tienen parangón en la tierra con la amada. En realidad, lo que tienen formalmente en común los dos astros es que siempre son utilizados en la poesía oral de forma superlativa. Se intenta mostrar la belleza o beldad del cielo, el cielo como firmamento, y, por otra parte, compararla con la belleza superlativa de la amada. En casi todos los casos nos encontramos con la oposición *zeru/lur*. Además de este contraste casi siempre, como veremos en el ejemplo de nuestra canción, nos encontramos con la idea de que la amada no tiene par: *parerik gabia* o *bere parerik ez du*, etc.

J. A. Chaho en su libro *Biarritz entre les Pyrénées et l'océan Itinéraire pittoresque*, pg. 189, señaló claramente esta imagen poética:

*Un peuple de bergers et de hardis navigateurs a souvent les yeux au ciel et ne peut se dispenser d'admirer les étoiles dans sa poésie. Toute jolie fille est l'étoile de son fiancé dans la poésie des bardes.—Le soleil est la plus belle des étoiles du ciel; et ma bien-aimée la plus jolie des demoiselles de toute la terre, —Il me semble qu'il a que vous de jolie au monde, et qu'on ne peut vous comparer aucune étoile du ciel.—Étoile brillante, où êtes-vous allée loin de mes yeux? —Salut, étoile nouvelle, soleil, etc.*

## 10. CARACTERÍSTICAS DE LAS BALADAS AMOROSAS

Existen en el cancionero vasco un grupo de canciones que están a medio camino entre las baladas y la lírica popular amorosa del siglo XVIII. Dado que este grupo presenta peculiaridades propias, intentaremos, en este punto, esbozar ciertas características. Denominaremos baladas amorosas a este tipo de canciones. En un reciente trabajo en euskera las denominé *amodiozko baladak*, que bien podría traducirse al castellano como baladas amorosas. Este tipo de baladas cuentan historias de amor desgarradoras, en varias escenas, y cons-

<sup>67</sup> Hemos puesto la transcripción fiel. En nuestra ortografía actual sería: *Izarrik ederrena zelüko ekhia, / lurreko anderetan oï ene maïtia / larria xurigorri, parerik gabia, o ene bihotzeko objeten lilia.*

tan, necesariamente, de un número considerable de estrofas, entre diez y quince. Varias de las escenas amorosas –pueden ser también todas, según los casos– son diálogos amorosos. El hecho de que haya varias escenas supone un transcurso del tiempo. Se trataría, por lo tanto, como denominaba Giuseppe Di Stefano, de baladas tipo alfa. Baladas amorosas que con los diversos diálogos son de alguna forma narrativas.

Las denominamos baladas, dado que siempre hay una historia que trasciende de un simple diálogo y aporta a la canción cierto aspecto de balada. Para que exista una historia, un argumento que se desarrolla en el tiempo, es esencial que pase el tiempo de una escena a otra. Normalmente estas baladas amorosas, como muchas de las baladas vascas, tienen un desenlace fatal. Dicho de otra forma: lejos de tener un final feliz son, normalmente, historias de amor trágicas y desgarradoras. Un grupo considerable de canciones del siglo XVIII que conocemos son, en realidad, partes de una canción más completa. Estas partes, que entrañan normalmente un diálogo, han sido desgajadas o desmembradas de una balada amorosa, porque el diálogo (o monólogo) que presentan ya tiene cierta coherencia. Es posible, obviamente, el fenómeno contrario, es decir, que varias canciones se fusionen y constituyan otra nueva, pero esto ocurre en contadas ocasiones. En muchos casos, por otra parte, hay estrofas que, como en las baladas, aparecen en diferentes canciones. Es decir, la misma estrofa o grupo de estrofas (normalmente sólo dos) aparece en diferentes canciones. Incluso la misma frase puede dar comienzo a estrofas diferentes: *Amodiorik ez duenak penak zer diren ez daki* o *Amodio berria gazteen zoragarria...*

Llegados a este punto hemos de hacer la siguiente observación. Según la clasificación de Juan Mari Lekuona, como hemos anteriormente mencionado en el segundo punto, en las canciones amorosas del XVIII se pueden distinguir diferentes escenarios. J. M. Lekuona distingue seis tipos de canciones según los escenarios: serenatas, bajo la ventana (*serenatak, leihopeko jardunaldiak*); alboradas, después de despertarse (*egunsentikoak, amurusen esnaeran*); en la soledad, en los deseos y en las desesperaciones (*bakardadean, desiretan eta etsipenetan*); en la fuente, requiriendo amor (*iturrian amodio galdez*); despedida para la armada (*Armadetako partida*); la última despedida (*azken-agurra, neska-mutilen despedida*). Este tipo de escenarios se corresponden con la gran mayoría de canciones de amor del XVIII. J. M. Lekuona se basó, para esta clasificación, en las canciones amorosas de libro clásico *Kantu, kanta, khantore*. Y, en efecto, la gran mayoría de canciones amorosas de este libro –como las de la tradición septentrional, en general– tienen un único escenario, con su estrofa o estrofas introductorias y de conclusión. En una palabra: las baladas amorosas son canciones complejas de más de un escenario. En nuestro caso concreto, *Arthizarra goizetan* participaría de una doble clasificación. Por una

parte sería “serenata bajo la ventana” (*serenatak, leihopeko jardunaldiak*), y, por otra parte, el monólogo entraría en el escenario de “en la soledad, en los deseos y la desesperación” (*bakardadean, desiretan eta etsipenetan*<sup>68</sup>). *Muthil gazte bilho hollia* tendría dos escenarios por lo menos: “serenata bajo la ventana” (*serenatak, leihopeko jardunaldiak*), y “la última despedida” (*azken-agurra, neska-mutilen despedida*).

*Arthizarra goizetan* representa un caso ejemplificador de una balada amorosa que se desmembra y constituye varias canciones. La primera parte de la canción hace que se constituya una canción dialogada, y, la segunda, una canción monologada. Cada una de estas canciones es una importante parte constitutiva de la balada amorosa primigenia; *Arthizarra goizetan*, ya para mediados del siglo XIX estaba desmembrada en dos partes. En efecto, Francisque Michel constató dos canciones *Arrosa buketa* y *Arthizarra goizetan* que en el libro del medievalista francés, se encuentran separadas en diferentes apartados. Esta separación, desde nuestra nueva óptica, pone más en claro el hecho de que se las considerarán dos canciones independientes. Anterior al libro de Francisque Michel es la recopilación de J. A. Chaho y en dicha recopilación aparecen también como dos canciones independientes: *Aspaldiko denboretan* e *Izar bat*. Estas dos canciones son en realidad variantes de una misma, con muchas estrofas coincidentes. El orden de estas dos canciones, no sigue, como se ve, la lógica de las estrofas de nuestro manuscrito, pero conserva, aunque un tanto reducidas, las dos partes constitutivas de la canción original o primigenia. Es decir, cada variante de Chaho es una canción dialogada con un pequeño monólogo. Las dos variantes suletinas de Chaho llevan, además de las estrofas constitutivas de nuestro manuscrito, estrofas amorosas de la tradición suletina.

La canción *Arrosa buketa bat* del libro *Kantu, Kanta, Khantore* presenta solamente cuatro estrofas mientras que la de nuestro manuscrito consta de trece. En el libro de Sallaberry, la balada amorosa se encuentra prácticamente entera. El orden lógico de las estrofas y las dos partes constitutivas de la balada amorosa, en nuestro caso el diálogo y el monólogo, vienen presentados en un número considerable de estrofas. En la canción de Sallaberry tenemos un detalle interesante: unos puntos suspensivos –que bien delatan que se trata de una canción de amor fuera de las pautas normales– separan una escena del

<sup>68</sup> Además de los escenarios, Juan Mari Lekuona distingue diferentes técnicas. La canción *Arrosa buketa bat* lo introduce dentro de las “alegorizaciones”. Dado que Juan Mari Lekuona para una primera clasificación utiliza como base el libro de *Kantu, kanta, kantore* no introduce en su clasificación *Izar bat jalkiten da*, puesto que no aparece en el libro mencionado.

monólogo de las estrofas finales. En las variantes de Chaho y en la de Sallaberry también encontramos estrofas de la tradición suletina que bien se pueden ensamblar con las estrofas originarias.

Además de la canción de nuestro trabajo, podríamos poner otros dos ejemplos de baladas amorosas de este tipo, *Musde Urrutiaren kantua* y *Odeiak lodi juan den gaubian*<sup>69</sup>. Es evidente que algunas de estas baladas amorosas bien pueden aparecer en las compilaciones de romances o baladas. Antonio Zavala en su repertorio de baladas, –en el índice lo clasifica como romance de amor–, recoge la canción de *Musde Urrutiaren kantua*. No hay duda, por lo tanto, de que muchas de las canciones del siglo XVIII son retales de un paño mayor. Retales que, aunque sean fracción de una unidad mayor, por presentar un diálogo coherente, se han convertido en canciones autónomas. No cabe ninguna duda, por lo tanto, de que en muchos casos, en muchas canciones conocidas, desconocemos la unidad mayor de la cual se ha desgajado o desmembrado una determinada canción. Como hemos tenido ocasión de comprobar en un trabajo reciente, la canción *Ostiraletan duzu Garruzen merkatu* representaría uno de estos ejemplos.

## 11. CONCLUSIONES

Hemos querido estudiar y analizar en este trabajo una canción manuscrita que es, según todos los indicios, anterior a todas las variantes publicadas que conocemos. Creemos que la aportación de la variante más antigua de una canción que aparece en los principales cancioneros y repertorios del País Vasco septentrional puede marcar muchas líneas de investigación. Una es el orden estrófico lógico y original, la diversificación y tradicionalización de una canción en diferentes dialectos, la pérdida de ciertas estrofas, etc. En nuestro artículo, sobre todo hemos intentado fijar el texto manuscrito. En otras palabras, hemos querido fijar de una vez por todas un texto que pueda servir de estudio para otros campos como el dialectológico, estudio del tipo de rima, etc. Una vez fijado el texto, hemos querido llevar a cabo un trabajo comparativo con las diferentes variantes. Estas variantes las hemos encontrado en los dialectos septentrionales más orientales: el suletino y el bajonavarro.

La canción manuscrita de nuestro trabajo bien podría ser una hoja volante cuyo título genérico es, en euskera, *Canta berriac*, y, en francés, según apa-

<sup>69</sup> Estas dos baladas amorosas se encuentran en *Idatz & Mintz* números 44 y 46, bajo los títulos “*Mutbil gazte bilho hollia* edo *Musde Urrutiaren kantua*-ren aldaera berriak” y “*Ortziraletan duzu Garruzen merkatu* kantuaren aldaera berriak

rece en el ms., *Chansons nouvelles*. Entra dentro de lo posible que nuestro manuscrito no sea original sino una copia de otro documento anterior. En ese caso, la canción original, el primer testimonio fehaciente de la canción, podría ser anterior a los comienzos del XIX, fecha en la que hemos datado nuestro ms. de Amikuze.

Este tipo de canciones amorosas –sean canciones de corte popular normalmente de menos de diez estrofas y con parlamentos dialógicos que discurren en diferentes tiempos y escenas– proliferaron, según demostraremos en otro trabajo, en los siglos XVIII y XIX, como hojas volantes. Una de las pruebas de este aserto es el título de nuestro manuscrito: *Chansons nouvelles*. Una vez de dar por sentado la existencia de estas hojas volantes, podríamos suponer que existiera un grupo de poetas, una especie de Mester de Juglaría, que creara, según unos cánones estéticos determinados, canciones que con el correr del tiempo se tradicionalizarían. Canciones que se tradicionalizarían o popularizarían en uno o varios dialectos y pervivirían en variantes. Conocemos a autores que crearon este tipo de canciones con los cánones estéticos de la canción lírica. Dos autores conocidos son Bordel y Pierre Topet Etchahun.

Chansons nouvelles

Art-karra goicelan  
 Galquiten ederrig  
 houna dela dute  
 Betty ederrig  
 Ikhusen dait Lurruan  
 bot ederrig  
 Cerian ere eta  
 harig bere pareig

Teat ederra cinat  
 oy admiragarrig  
 caticut plaiserig  
 Cu ikhusig baicig  
 Courte Destravura  
 bihotca dait Bage  
 houna gabe ne adier  
 Enaileque biey

Ere garte agunag  
Liventitcen Dira

Ma ni maleruisa

trintan kambesaa

Tam garte garrat

Emar garte garrat

hura bidiz balioa

traidore becala

Nes caloche gartiaq

Sidacien niny

alencione egun

Ere expemteary

Tam garte Phayel Diner

Confidate Dening

Estut kambat Mpointen

trompatu esteniq

Tama dequsten Dnt

Cowae amorecaliq

trompatu necagrecunoz

beliduz niz haggat

omre minca

Estut garte garrat

halacuenq trompatcen

Dute quehiemq

Ere bitotca hula

bitela minca

Badaguenq nicala

Tam garte galantoz


trompatu niny




Estut niny Secula

maitea harracaxiq







Bessen artera



Jamaa Cer p'larox Tucum  
athay Larb'raen  
nitam 'Deyo' h'ring  
Cuy seen Duquecuis  
'Borth'    
ukha' tuen  
Cer N' Tucum  
ceran bekar Duon

Come begun Phannatan  
'Bikuta' Colp'   
'Deyo' h'ring 'Dicit'  
ny' Lutan' format'  
Mimim' bat' n'aby' ruguel  
Currequin' Ph'eat'  
'hala' ene'   
Certant' 

Jamaa thum bekar  
Cuy hata' flatatu  
Coye Lantat'   
In cap'   
  
Dermes' cen' Tucum  
ketarig' Ineg'   
batere' 

the marita' bara  
essuqui' Phannatan  
appali' Du'   
me' Cutaz'   
athod' cen'   
'Dekacu'   
eng' witi'   
Pituen' ohera' 

arrosa Bouqueta test  
o xaitlan Galquirig  
Goari Diacocent  
Yam hary g...  
dant...  
Arren Carath...  
othoy begura Lecans  
ritas or Mitung

ovite nien Yam hary  
pbees Cuqueyela.  
bere dandareby  
wkhitez Bouqueta  
dachoguis Bran Dieg  
nahy Ertie la  
dandareby Amansy  
orhut ere ertela

one Lily Maitia  
er hadila trinta  
ehut andonatures  
Yam...  
Arren...  
nere...  
Aa Betty Deithurain  
Yam haren Tecerian

W



## ARTEEN ARTEKO ELKARRIZKETA

Jon KORTAZAR

Gauza jakina da Juan Mari Lekuonak (1927-2005) *Mimodramak eta ikonoak* (1990), bizirik zen artean argitaratu zuen azken poema liburua ontzera-koan oso kontutan hartu zituela literaturaz gain beste arteak, eta poema liburu hori arteen eta literaturaren arteko elkarrizketa gisa ulertu zuela. Eta liburuan poesiak lan egiten du erreferentzia kulturalekin, eta, batez ere, beste arte-etakoa aipamen jantziekin.

Era berean, oso ezaguna da Juan Mari Lekuonaren poesiaz arduratu diren-entzat *Ilargiaren eskolan* (1979) poema bilduman gure artean oraindik oso urria zen literaturaren eta zinemaren arteko elkarrizketaz arduratu zela, benetan garai haietan, euskal letretan surrealismoaren gorakada ezaguna bihurtuko zen egunetan, oso berria zen elkarrizketa interartistikoa sortuz.

Gure gaurko helburu xumea hauxe izango da: *Mimodramak eta ikonoak* lanean agertzen diren aipamen artistikoak bildu eta haiei buruzko ohar arin batzuk adierazi. Bilketa lanean, Juan Mari Lekuonaren beraren laguntza izan genuen. Gure etxean gordetzen diren *Mimodramak eta ikonoak* liburuaren lau aleetako bat aipatzekoa da, zeren Juan Mari Lekuonak eskuz idatzitako oharrez aberastua agertzen baita. Oharrok, hain zuzen ere, liburuan agertzen diren aipamen artistikoaz dira. Ziurrenik, literaturaren eta arteen arteko elkarrizketa horretaz lanen bat nerabilela buruan aipatuko nion Juan Mari Lekuonari, eta hark, laguntza eman nahiez edo, hartuko zuen bere gain datuak arakatzeko lan hori.

Beraz artikulu honek atal bi izango ditu. Lehenean, Juan Mari Lekuonak idatzitako oharren zerrenda aurkeztuko dugu, horrela *Mimodramak eta ikonoak* liburuaren barnean ezaguna ez den oharren zerrenda originala aurkeztuz. Bigarrenean, datu multzo horri buruzko hausnarketa txiki bat egingo dugu, literatura kritikaren alorrean diren teoria batzuk abiapuntu gisa hartuz.

## 1. DATU BILKETA JUAN MARI LEKUONAREN BEGIETAN

Hau da Juan Mari Lekuonak liburuari egindako oharren zerrenda. Oraingo honetan transkripzio lana besterik ez dugu egingo. Ohi dugunez, ahal denean dagoen-dagoenean adierazi dugu jarritakoa, nahiz eta gazteleraz agertu oharra: “arquitectura” adibidez, edo letra larriaren eta txikiaren arteko aldaketak gertatu, edo markaren bat ahaztu: adibidez, iturriko musika” lehen kakotxak agertu gabe, edo gidoi gabe: “alegorikoa”. Inoiz silaba bat ahaztu zaio eta “sidala” idazten du “siderala”ren orde; lehena hobetsi dugu gure zehaztasunaren eraginpean. Poema testuan “hargin” zuzen agertzen da, baina “argin” ostera oharrean. “Ortzadar” poeman agertzen den errepikapena, “margoturiko = pintura” bitan agertzea egileak berak horrela jarritakoa da. Juan Mari Lekuonak zalantza agertzen du “deseinu” hitzaren eta “diseinu”aren artean. Biak erabiltzen ditu eta gehiago “deseinu”; eta batzuetan oso argia da “deseinu”ren idazkera; inoiz testuan “diseinu” agertu arren, “deseinu” jarri du oharrean. Horregatik, arreta berezia jarri dugu hots horretan eta tokian tokikoa transkribatu da, inoiz aldaki biak eman dituelarik poema bati jarritako oharretan, “San Martin Txiki”n gertatzen den bezala.

Inoiz, eta hau ere ohi dugun bezala, parentesi karratuen artean jarri dugu idazleak ezabaturiko eta txartzat emandako esaldia:

1. Obertura poema.
  - “obertura”, opera = musika
  - “hots joa”, Tantan = musika
  - “pinakoteka” = pintura
  - “izuen genesisia irudikatzen” = pintura
  - “harri estanpatu” = pintura
2. Auria poema.
  - “turuta” = musika
3. Oihanean poema.
  - “semitonalaren” = musika
4. Estigmak poema.
  - “okreak” = pintura
5. Magma poema.
  - “magma” = pintura
  - “taula” = pintura
  - “hormirudi” = pintura
  - “Totemak kerantzatzuz” = pintura
  - “figurazio” = pintura
  - “molduretan” = eskultura

- “traktatua” = literatura
- “erretaula” = eskultura
- “ideograma” = sinbolaria, irudi konbentzionala
- “margoen kapera” = pintura

6. Erretaula poema

- “erretaula” = eskultura
- “abstratuan” = pintura
- “koloretako ideiak” = pintura
- “ikatz-mehatxu”, “urdin-ugaltasun”, “gorri-sastada”, “gaiztain bidaia” = pintura
- “gestu erritmiko” = dantza
- “lelo-hots” = musika
- “brodadura kordelatua” = eskultura

7. Alegoria poema.

- “antzirudia” = pintura
- “kobazuloaren egitura” = arquitectura

8. Racconto 1 poema.

- “Racconto” = literatura (oral)
- “Kantajario” = literatura (oral)
- “leienda” = literatura (oral)

9. Racconto 2 poema.

- “Racconto” = literatura (oral)
- “poema zahar” = literatura

10. Espeleofobia poema.

- “mamua antzaturik” = pintura
- “fikzioan” = pintura onirikoa
- “sikodrama” = etimologikoki literaturan

11. Zirrakoak poema.

- “hil-baleta” = dantza
- “armarri” = eskultura
- “fosildun geometria” = pintura

12. Lilura zurbilak gauean poema.

- “zeluloide” = zinema
- “zinemaskopean” = zinema
- “a capella” = musika
- “xirulak” = musika
- “zeremonia” = liturgia
- “hitza” = literatura

13. Amiltzean poema.

- “iturriko musika” = musika
- “halabeharrezko hitza” = literatura

14. Amaren altzotik poema.

- “akorde disonatuak” = musika
- “arkeodrama” = literatura
- “grabaturik” = grabadoa (deseinua) sinbologia (deseinua)

15. Oihaneko drama poema.

- “drama” = literatura
- “sala doratua” = arkitektura
- “gainezkaldi idilikoa” = literatura
- “kontsumazioko poema” = literatura

16. Herio poema.

- “puzlea” = pintura, arte txikia (deseinua)
- “airea” = musika
- “leiho moretan” = arkitektura
- “requiem doinuetara” = musika

17. Otsail poema.

- “argiaren paleta” = pintura
- “akordea” = musika
- “dantzaren koroa” = dantza
- “dunboak konpasean” = musika
- “braustan” = dantza
- “parada” = dantza
- “anfiteatroa” = arkitektura
- “sehaska-doinu” = musika
- “melisma” = musika

18. Bedatse poema.

- “txaplasta miniatu” = pintura
- “incipit platereskoak” = pintura
- “orfeoi hotsa” = musika
- “atriletik” = musika
- “makrokonzertuak” = musika
- “fabordon” = musika
- “Baffleetan” = musika
- “musikak” = musika
- “kupula” = arkitektura
- “alegorikoa” = pintura
- “agerleku” = arkitektura
- “erronda-kantuek” = musika
- “urreztatu paisaia” = pintura

19. Ekain poema.

- irradan = dantza
- zaldabaian = musika
- “psalmo” = literatura
- erritmo-iktus = musika
- Mafroesfera = arkitektura

20. Agor poema.

- “bodegoia” = pintura
- “arpegio” = musika
- “hexagonoetan = pintura / diseinu
- diadema = arte txikia (diseinu)
- anbar grisa = gemologia

21. Larrazken poema.

- “kalostro” = arkitektura
- “eskala kromatikoa” = pintura / musika
- “tailer” = estetika
- “opaloa” = gemologia
- “erosta-aire” = literatura/ musika
- “ikatzka” = pintura
- “katafalko” = altzaria (diseinu)

22. Eguberri poema.

- besta = dantza
- zeremonia = liturgia
- esferak = pintura/ geometria (diseinu)
- “oleska” = [literatura tradiziokoa] diseinua
- “eliptiko” = pintura/ geometria (diseinu)
- “bobedazpi” = arkitektura
- “edontzi gorri” = arte txikia
- izarren geometria = pintura/ geometria
- “hitzak” = literatura

23. Artizar poema.

- “diamante ertaina” = arte txikia
- “ate ederra” = arkitektura
- “harresi” = arkitektura
- “arkua” = arkitektura
- “gotorleku” = arkitektura
- “izarkara” = pintura / geometria (diseinua)
- “esfera” = geometria (diseinu)
- “domina” = arte txiki”
- zizelkaturiko lege = eskultura



- leioa = arkitektura
- nerbadura gotikoa = arkitektura
- dorre sidela = arkitektura

24. Eguzki poema.

- “ate-leiho” = arkitektura
- argin maisu= arkitektura
- atariak = arkitektura
- saieterak = arkitektura
- gela doratuak = arkitektura
- hitz-ikur = literatura
- heraldika = literatura/ eskultura
- armarriak = eskultura
- morea = pintura / kolore
- abside = arkitektura
- arrosa = arkitektura
- deseinua= pintura
- anagrama= diseinua/ geometria
- Venus
- profilak = diseinua
- xuritzenago = pintura
- laburu = diseinua / p.
- gurpil estilizatu = diseinua

25. Ilargi poema.

- eraztuna = arte txikia
- antzesleku = literatura
- jarleku = arkitektura
- ispilu = arte txiki
- jauzkari = dantza.

26. Hodei poema.

- abstraktu = arte plastiko (diseinu)
- “masa”, “kolore”, traza” = pintura
- poemak = literatura
- atea = arkitektura
- hierofania = literatura
- “fazistola” = altzari / arte txiki

27. Tximist poema.

- berde-morea = pintura
- dorre-almenadiak = arkitektura
- topazio = gemologia
- eraztun = arte txiki

28. Ortzadar poema.

- zazpi kolore = pintura
- zazpi xingolez = arte txiki
- beloa = arte txiki (diseinu)
- gerrikoa = arte txiki (diseinu)
- baldakino = arkitektura
- damaskinatua = arte txiki (orfebreria)
- ispilu = arte txiki
- erran zuhurra = literatura
- margoturiko = pintura
- margoturiko = pintura
- zubia = arkitektura
- arkua = arte txikia
- arkitektura = arkitektura

29. San Martin Txiki poema.

- zaldi ferrazko leiho = arkitektura
- peristefanon = literatura
- kantua = literatura/ musika
- etimologiak = literatura
- ritornello = (bihurkia) literatura
- mozorro = literatura antzerkia
- arketipoa = diseinua
- [lazare] zubia = arkitektura
- mimodrama = literatura
- parabola = literatura
- absidea = arkitektura
- bizi-zuhaitza = pintura
- ajedrezatuaz = diseinua
- purpurazko kaliza = arte txiki

30. Atarrabi poema.

- leihoteria gotiko = arkitektura
- brodadura = diseinu, arkitektura
- esmaltatu = artegintza
- tolestura orribiko = diseinu
- lauzak = arkitektura
- dekretalak = juridikoa
- koilarea = diseinua
- ipuinez = literatura
- mozorrotu = antzerkia
- esaera zahar = literatura (ahozkoa)
- koilarea = arte txiki

31. Bereterretxe poema.

- hilarria = eskultura
- enblematika = diseinu
- khantorea = literatura/ musika
- eresi = literatura/ musika
- kantua = literatura/ musika

32. Axular poema.

- manierismo = eskultura
- erretorika = literatura
- mintzo barrokoa = ahozko literatura
- lauki = pintura
- hitz eta esaldi = literatura (ahozko)
- zutabe, moldura = arkitektura
- baxuerliebe = eskultura
- arkitektura = arkitektura
- kantika = literatura
- liburu = literatura
- etikaren ateak = literatura

33. Berdabio poema.

- kantu eta ele = literatura (ahozkoa)
- omenka ederretsiz = literatura (leiendak)
- kantuz = literatura/ musika
- xirula = musika

34. Barandiaran poema

- sei koloreko, sei aurpegiko = pintura, diseinua
- kubo magikoa = diseinua
- okrea = pintura
- megalito = eskultura
- mitoa = literatura
- liburua = literatura
- katedralea = arkitektura
- hiria = diseinua
- kronlexa = eskultura
- teila = arkitektura
- hilobi = arkitektura
- margo = pintura
- egitura = arkitektura
- ele zahar = literatura (ahozkoa)
- erlatuetan = literatura
- Arkeogaiak = arkeologia
- mitoak = literatura

- itinerarium mentis = literatura
- mimodramak = literatura
- ikonoak = diseinu

Ondoren, zerrenda osoaren ostean dator batuketara hau:

- musika: 34
- pintura: 39
- eskultura: 14
- literatura: 51
- diseinua: 29
- dantza: 9
- arkitektura: 45
- zinema: 2
- liturgia: 2
- estetika: 1
- gemologia: 3
- arte txikia: 12
- juridikoa: 1

## 2. ARTEEN ELKARRIZKETA INTERSISTEMIKOA

Lehendik ere aipatua izan den gaia da Juan Mari Lekuonaren *Mimodramak eta ikonoak* lanean arteak izan duen garrantzia eta nola jokatu duen arteak sortze prozeduran. Horrela, Amaia Iturbiderek eta Sebastián García Trujilloarekin batera egindako *Leiho-oibalen mugetan* (1997) lanean aipatu genuen poema liburu horretan arteen arteko elkarrizketak izandako pisua eta joera. Nahiz eta orduan batez ere Jorge Oteizaren irudian oinarritu azterketa. Ondoren, Amaia Iturbidek berak lan oso bat eskaini zion gaiari: *Mimodramak eta ikonoak gidari, estetikaren barrena* deituriko liburua, 2001. urtean Becerro de Bengoa Saria irabazi zuena.

Gure bidean, baina, hiru-lau zertzelada eskainiko ditugu aztertzen ari garen prozedura honi buruz, alde batera utzirik zein neurritan egokia den Juan Mari Lekuonak berak eginiko zerrendapenaren irizpidea. Ziur nago batek baino gehiagok beste era batera jarriko zuela hemen agertzen diren sailkapen mota, edo hitz hau edo bestea beste arte baten barnean jarriko zukeela. Baina ez naiz arazo horretan sartuko, eta egokitzen joko ditugu Juan Mari Lekuonak emandako irizpidea eta zerrenda bera.

Elkarrizketa interartistikoa gertatzen denean, literatura eta beste arteak batera agertzen direnean, garbi dago egileak testuaren aberastasunaren alde

egiten duela. Literatur teorikoeke bost elkarriketa mota desberdintzen dituzte prozedura aztertu nahiez.

Lehen-lehenik literatur konparaketaren barnean ikusten ditugu arteen eta literaturaren arteko elkarriketa:

*La interacción entre arte y literatura ha constituido uno de los objetos privilegiados de la literatura comparada como ámbito disciplinar. En un determinado estadio histórico del comparatismo, el estudio de esta interacción se dirigía más a determinar las relaciones de genealogía entre obras, fenómenos o tradiciones que a explorar los fundamentos teóricos que justifican o invalidan la comparación ... La trama conceptual del comparatismo conoce así un progresivo desplazamiento de la noción de influencia en favor de la noción de modelo o de analogía (Cabo, Rábade, 2006, 379-380).*

Teoriko hauen lana jarraitzen badugu, batez ere bost azterketa molde banatzen dituzte. Genealogikoa, hau da literaturaren nagusitasuna onartuz, literaturak nolako eragina izan duen arteetan aztertzen duen eremua (Cabo, Rábade, 2006, 379); analogikoa, arteen eta literaturaren arteko lotura zein den aztertzen duena, eta guretzako oso erabilgarria izango dena (Cabo, Rábade, 2006, 380); joera semiologikoa, non batez ere literaturak zinemarekin eta musikarekin duen lotura aztertzen den (Cabo, Rábade, 2006, 384-386); azterketa erretorikoa, non literatura pinturarekin jartzen den harremanetan (Cabo, Rábade, 2006, 386-387), eta soziologikoa, literatura arteen museoan sartzen den momentuan (Cabo, Rábade, 2006, 387-390).

Bost bide horiek jarraituko ditugu, baina hasi aurretik hobe dugu sarrera txiki bat eskaintzea. Garbi dago elkarriketa horrek funtzio bat betetzen duela idazle baten estetikan. Juan Mari Lekuonaren *Mimodramak eta ikonoak* liburua bere idazkera ohiturekin idatzia da. Eta egilearen ohitura bat zen liburua idatzi ahala beste liburu bat itzultzea; sorkuntza prozesua eta itzulpengintza prozesua oso batera datoz, eta era beran biak osatzen dira irakurketa prozesuarekin. Poetak sorkuntzarako erabiltzen zuen bide horren adibideak ugariak dira eta oso ezagunak gure artean. Adibidez, ezaguna da *Mimodramak eta ikonoak* liburua idazten zuen artean San Buenaventuraren filosofia izan zuela buruan, baina ez da hain ezaguna liburu hau idatzi ondoren, eta, agian, liburua ideiak buruan zituela, Clara Janés poeta espainiarraren *Emblemas* liburua itzuli zuela euskarara, 1991. urteko udan. Bada, liburu horren hitzaurrean hauxe dio Clara Janés-ek bere poetikari buruz:

*Esteticismo y culturalismo serían los principales resultados concretándose en una técnica que esquemáticamente, consiste en nombrar objetos bellos, emplear un lenguaje exquisito, dar relieve análogo a todos los elementos poéticos y evitar el prosaísmo y la expresión directa, objetivando a través de figuras históricas (Janés, 1991, 12).*

Pasarte Juan Mari Lekuonak azpimarratua da eta astiro irakurtzen badugu ikusiko dugu *Mimodramak eta ikonoak* liburuari ezarri diezaiogun poetikaren laburpen bat izango dugula:

- Estetizismoa eta kulturalismoa poesiaren oinarri gisa.
- Objektu ederren aipamena.
- Hizkera jasoaren garrantzia.
- Elementu poetiko guztiak maila berean agertzen dira.
- Itsuskeriatik ihes egitea.
- Irudi historikoen bidezko analogia.

Paralelismoa baina ez da hor bakarrik bukatzen, zeren “Enblematika” deituko dio Juan Mari Lekuonak *Mimodramak eta ikonoak* liburuko atal bati, nahiz eta aitortu behar den oso zerikusi gutxi dutela Clara Janésen poesiak eta Juan Mari Lekuonarenak, haren laburtasun eta txikitasunak eta honen oparotasunak. Baina literaturan askotan gertatzen den bezala idazle bik antzeko irudiak darabiltzate euren lana osatzeko orduan.

## 2.1. Genealogia

Ikusi dugunez, konparaketa egiteko bide honek batez ere aztertzen du nola eragin duen literaturak beste arteetan, nola jaio diren hauek haren uretatik, nola jaio zen zinemaren kontagintza nobelaren kontagintzatik. Metodo horrek ez luke bide handirik zabalduko Juan Mari Lekuonaren poema liburuan arteak duen eragina aztertzeko orduan. Nik esango nuke alderantziz dela, lehenik dela artea eta ondoren literatura. *Ilargiaren eskolan* poema liburuaren kasuan adibidez, garbi dago ekfrasia egiten duela Juan Mari Lekuonak. Poesiak pintura baten edo artean agerturiko irudi baten deskribapena egiteari deritza ekfrasi. Horrela, Jokin Zaitegiren “Tori nire edontzia!” poema artzain edalontzi baten agertzen den irudiaren deskribapena izango litzateke. *Ilargiaren eskolan* liburuak filma aukeratu du ekfrasia egiteko. Eta hementxe dugu Juan Mari Lekuonaren poesiaren ezaugarri bat: teknika klasikoa da, Horaziok berak aipatu zuen “Ut pintura poiesis”, baina traza modernoak ematen dizkio filma aukeratzen duenean bere teknika lantzeko, eta irudi modernoari buruzko poesia da berak lantzen duena.

Eta aztertzen ari garen *Mimodramak eta ikonoak* honetan ere badirudi artea eta Jorge Oteizaren pentsakizuna izan zela lehenik, eta ondoren etorri zela poesia, baina jada ez artearen deskribapen huts gisa, baizik eta artea tesuan integraturik, arteen arteko analogia bilatuz, eta artea beste kontzeptu ideal baten menpe jarritz, hau da, Euskal Herriko historia kulturalaren narrazioaren menpe jarritz. Nabarmena eta aipagarria da nola desagertu den ekfra-

sia teknika gisa, Juan Mari Lekuonak ez baitu egiten liburuan arte lanen deskribapenik, artea integratu egiten baitu.

Goiago aipaturiko Clara Janés-en hitzaurre horretan bada beste pasarte bat Juan Mari Lekuonak azpimarratu zuena. Holaxe dio:

*Llegué también yo a cierto esteticismo y emprendí otro rumbo poético que incluye el cantar el objeto (Janés, 1991, 13).*

Objektuen, edo pertsonaia historikoen deskribapenak ditugu hemen, baina jada teknika ez da *Ilargiaren eskolan* erabilitakoa. Objektua eta kontzeptua bihurtu dira estetika horren abiapuntu nagusiak.

## 2.2. Analogia

Konparatismoaren alderdi horretako azterketa historikoetan ere literaturak bere nagusitasuna agertzen badu ere, gure helburua beste bat izango da: Juan Mari Lekuonaren poesian gertatzen diren arteen eta literaturaren arteko loturak aztertzea beste barik.

Fernando Cabok eta María do Cebreiro Rábadek hauxe adierazten dute analogiaz hitz egiterakoan:

*La concepción del lenguaje como 'la semiótica capaz de traducir todas las semióticas' por decirlo en la célebre formulación de Hjelmslev, parece operar como telón de fondo de muchas aproximaciones al espacio interartístico, bajo un presupuesto teórico muy determinado y, cuando menos, cuestionable. Nos referimos a la idea implícita del lenguaje como tenor y vehículo de comparación entre los distintos modelos (Cabo, Rábade, 2006, 380).*

Juan Mari Lekuonaren poesia arteez baliatzen da, agian, ez soilik estetizismoa azpimarratzeko, baizik eta bere indar estetikoa goratzeko.

Arlo honetan Juan Mari Lekuonak arteen hizkuntzen barnean gertatzen den batasuna azpimarratu nahi duela dirudi. Arteak hizkera berri dira, Clara Janés-ek nahi zuen “objektuen deskribapena” ren bidetik. Ekfrasia alde batera utzi badu, arteen arteko loturan sinesten duelako da, arteen hizkuntzen arteko parekotasunean, azken batean. Bera poesiaz ari da, noski, baina begia beste sorkuntza estetikoetan jarri du, hizkuntza poetikoa nahiko ez balitz bezala edertasunaren adierazpidean, hizkuntza poetikoaren ezintasuna azpimarratuko balu bezala. Horregatik integratu ditu arteak bere lanean, horregatik urrundu da ekfrasitik, ez delako kontua orain pinturaren (edo zinemaren, berdin dio) deskribapena, hizkuntza guztien orfeoia batera jo behar duelako edertasunaren xerka.

### 2.3. Semiologia

Eremu eta bide teoriko hau aztertzerakoan, kritikoez paradigma semiologikoa literatura eta musikaren arteko analisiak egiteko erabiltzen dute, eta azterketa horrek kontutan hartuko luke, alde batetik, posible dela literatura-aren eta musikaren arteko konparaketa egitea poetikotasunean eta sinbolizazio prozesuetan oinarrituz, eta, bestetik, arazoak ikusi, zeinu linguistikoa eta musikala desberdinak direlako (Cabo, Rábade, 2006, 385).

Juan Mari Lekuonaren zentzu musikala alde bitik dator.

Lehenik, poesiaren eta musikaren artean sortzen den erritmoan oinarrituko litzateke, eta bestetik, musikaren aipamenetan gorpuztuko litzateke. Erritmoa begiratur gero, ikusiko dugu Juan Mari Lekuona Nikolas Ormaetxea Orixek atunduriko sistema erritmikoaren jarraitzailea dela. Esan nahi da, bertsoaren erritmoa hitzen silaba kopuruak oinarritzen du, eta beraz, aztertzerakoan kontuan hartu beharko dugu nola besarkatzen diren silaba kopuru desberdinak.

Adibidez, liburua zabaltzen duten bertsoak kontuan hartzen baditugu:

“Harpetako oroipenetatik, urruneko dundunen  
Hots-joa dator, orduko tanka giza-min”

hitzen silaba kopuruaren eskema ikusi beharko genuke:

4- 6- 4- 3  
1- 2- 2- 3- 2- 2- 1

eta azpimarratu bigarren bertsoaren eskema guztiz simetrikoa, eta laukoen paralelismoa lehen bertsoan.

Eta bigarren, musikaren erabilpena dela eta, egilearen arrazoi biografikoak izan behar ditugu kontutan. Kantazalea, bertsozalea, herri literaturaren ikertzaile izan genuen Juan Mari Lekuona eta zaletasun guztiok lotuta daude musikarekin. Ez da arraroa, beraz, *Mimodramak eta ikonoak* liburuan aipatzen den lehen artea musika izatea: “Obertura” deitzen baita lehen poema, eta musikaz blai agertzen da lehen atala, gerora jaitsi bada ere testuan duen presentzia, nahiz eta ez moteldu poemaren sonoritatea.

### 2.4. Erretorika

Goian egindako zerrenda irakurtzen badugu, inpresio nagusia izango dugu: ez duela arte bat beste baten gainetik jartzen. Eta horrela oso hurbilean agertzen dira literaturaren aipamenak (51) eta arkitekturarenak (45).



Dena dela, eta kontuan hartzen badugu hainbat hitz arrunt (leiho, ate) jartzen dituela arkitekturaren eremuan, garbi dago Juan Mari Lekuonaren artean irakurketa marraztu dezakegula. Ugariak dira arte aipamenak liburuan, ugariagoak bukaera aldean, objektuen deskribapenetik pertsonaia historikoen deskribapenera igarotzen denean, agian liburuaren azken aldea sinboloz eta enblemaz beteago ematen duenean.

Aipatu beharko litzateke aipuen aberastasuna ere. Arte askotako hitzak agertzen dira, eta beti ere tartekatuta egiten ditu jantzi eta jasoak herrikoi eta txiki-ekin eta arkitektura zein pinturarekin batera agertzen dira arte txikiak, diseinua, edo Juan Mari Lekuonak idazten zuen bezala “deseinua”, horrela lehena-go ikusi dugun ezaugarria betetzen duelarik: klasikoa da ikuskera, baina modernitatez jantzia, eta gaurkotasunari tokia emanez, bizia. Ez da arraroa literaturaren arloan jasoarekin batera herri literatura agertzea, eta, haren orpote, musika, ezaguna baita Juan Mari Lekuonak musikarekin lotzen duela herri poesia, eta bertsoaritzak beraren hezkuntza afektiboan izan duen garrantzia.

Arkitekturaren nagusitasuna ere aipatu beharko genuke hemen, bera baita bigarren postuan aipatzen den artea. Beharbada, badago horretarako arrazoirren bat. Esan ohi da *Mimodramak eta ikonoak* liburua *itinerarium mentis* bat dela, baina kolektibitate baten *itinerarium*-a da batez ere liburua, pertsona bakar batena baino gehiago. Eta arte kolektiboa badugu, horixe da arkitektura eta hirigintza, talde eta pertsona multzo batentzat sortzen den arte kolektiboa. Egia da atal horretan Jorge Oteizaren irudiak asko pisatzen duela, zeren arkitekturari egiten zaizkion aipamenen artean azpimarratu beharko genituzke alde batetik arte primitiboari eta hilobiegi egindako aipamenak, Orioko eskultorea aipatuz, eta bestetik elizako arkitekturaren pisua. Alde biak oso aipagarriak dira arte lan hau sortzeko orduan.

## 2.5. Soziologia

Espazio interartistikoaren azken eremua soziologiak eratzen duena da eta eremu hori museoeekin guztiz loturik dago. Hona hemen aztertzaileek ematen duten azalpena:

*El paradigma sociológico vincula los factores contextuales que hacen posible la eficacia comunicativa de las obras con los condicionamientos de tipo institucional. La proyección de un modelo de análisis semejante sobre el museo permite explorar el modo en que este espacio instaura nuevas formas de leer el arte y ocasionalmente brinda a la literatura marcos de recepción condicionados por la función que la comunidad atribuye a los lenguajes artísticos (Cabo, Rábade, 2006, 388).*

Planteamendu horrek bide bi zabaltzen ditu Juan Mari Lekuonaren *Mimodramak eta ikonoak* irakurtzeko orduan. Batetik, Clara Janésen lanean esaten zen bezala eta haren iritzia jarraituz, irakur dezakegu Juan Mari Lekuonaren liburua irudi historikoen museo bat balitz bezala, eta neurri horretan pertsonaia historikoen zerrenda eta hurrenkera egiterako orduan, gure begirada eta ideologia mugiarazten ditu egileak. San Martin Txiki, Atarrabi, Bereterretxe, Axular, Berdabio, Barandiaran... historia eta fikzioa nahastuz, joera kultura-egileak eta biolentziak agertuz begirada historiko bat sortzen du Juan Mari Lekuonak. Pinturaren eta literaturaren arteko harremanetan aditu den Eric Bou (2001) irakasleak aztertu ditu nola jokatu duten poetek pintura adierazteko orduan. Zenbait liburutan, arte museoetan oinarrituz sortu dituzte poema liburuak. Ez da Lekuonaren praktika horren jarraitzaile zuzena, baina neurri berean poeta-historiaren- museoaren barnean kokatu da, bere arte esperientzia erakutsiz eta literatura egiteko erabiliz.

Bigarren azterketak, ordea, azalduko luke zein den *Mimodramak eta ikonoak* liburu horrek gure sistema literarioan izan duen eragina, eta hartu duen tokia. Eta ez da zalantzarik, liburuak toki kanonikoa hartu duela gure poesiarren historian, baina era berean jarraitzailek ez duen liburua dugu, edo ia jarraitzailek gabea, zeren Amaia Iturbideren bide poetikoak Juan Mari Lekuonaren estetikaren bidetik jarraitzen du, baina era berean beste bide estetiko ugariak hartu ditu euskal poesiak, joera sublimetik urrun batzuetan eta kulturalismoa gaitzetsiz besteetan. Dena dela, badira beste poeta batzuk ere haren bidean dabiltzanak: adibidez, Koldo Mitxelena Kulturunean Juan Mari Lekuonari buruz mintzaldi batzuk eratu eta *Egan* aldizkarian (2002-3/4) poetari buruzko monografiakoa argitaratu zutenak: Patxi Ezkiaga, Jose Luis Padron, Mirari García de Cortázar eta Pello Otxoteko.

- sei kabaloko; sei aurpefika = pintura, diseinu
- kubo mafikoa = diseinu
- oberec = pintura
- mefalito = eskultura
- mitoc = literatura
- liburu = literatura
- katedrales = arkitekture
- hira = diseinu
- kronlexa = eskultura
- teile = arkitekture
- habea = arkitekture
- hirloli = arkitekture
- marfo = pintura
- elburu = arkitekture
- ele zahar = literatura (ahakoa)
- orlatuetan = literatura
- arkeozaintza = arkeologikoa
- mitologia = literatura
- itinerariu mentis = literatura
- mimodramak = literatura
- ihonak = diseinu

## BARANDIARAN

Sei aurpegiko, sei koloreko. Seiak<sup>\*p.</sup>  
nahastuz, seiak txandatur. Hala da  
giza ulerkuntzen kubo magikoa,<sup>\*p. qom.</sup>  
sei hegaleko aingeruaren kosmobisioa.

Okrea ezilkor. Megalitoa iraunkor.<sup>\*p.</sup>  
Mitoa adierazpide. Liburuā berri on.<sup>\*a</sup>  
Katedraleā gizarte. Hiriā etorkizun.<sup>\*a</sup>

Antzinako gestuak datoz kontzientziaren  
azalera: orain bat, gero bestea.  
Bildumenaren bizgarritasuna; zuhaitzen babesā;  
kronlexaren kontsumazioa; teilaren jabegoa;  
eguzkiaren bidaia; habearen halabeharra...

Kultur ikuspegia hezur-mamitzerakoan,  
gauza urria zen aztarnategiek ziotena:  
harpe, hilobi, margo, egitura.<sup>\*a</sup>  
Aberatsago zitekeen ele zaharren usmoa,<sup>\*l</sup>  
erlatotetan antzirudituz zer den mundua.<sup>Tu</sup>

Gurpildu zuen, azkenik, funtsaren funtsa:  
“Berez inor ez da ezer. Beste baten  
esku dago orobiraren izaera”.

Arkeogaiak mitoen bidez oldozterakoan,  
itinerarium mentis bateko zantzuak ziren,  
—lekuko estimagarri— mimodramak eta ikonoak.<sup>\*l</sup>

Oiartzun, 1990-11-22.

SAN MARTIN TXIKI

Oilarite bisigotikoak, zaldi-ferrazko  
leihotik, argi gorritz keinatzen zuen,  
eta peristefanon martiri kantua aletzen.

Zenobioko kutxan gorderik jakinduria:  
larruzko kodexaren etimologiak. Ahoz-  
-aho zebilen, errepika akonpasatuan,  
hamabi zenbakien ritornello druidikoa.

Santu mozorrotuak —mozorro santutuak—  
heroiaren ausardiaz ostu zizkion  
geinuari, gaztain hostoen arketipoa,  
sorogiroen egutegia, eiheraren ardatz zurajea.

Lazaretoa eraikitako ongile hark  
iragon zuen jentil herriko zubia, sendatuz  
hango izurritea, ekarriz urrea  
eta garia. Erromatar gudari hark,  
kapa erdibanatzean, hona mimodramaz  
gauzatu parabola xumearen mami ugaria.

Absidean dirau, bizi-zuhaitzak inguratua,  
trogloditen bisaiaz, zaldizkoen ajedrezatuaz,  
purpurazko kaliza dirdaitsu eskuan.

- |   |  |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- zaldi ferrazko leiho = arkitekturen</li> <li>- peristefanon = literaturaren</li> <li>- kaxa = literaturaren / musika</li> <li>- etimologiak = literaturaren</li> <li>- ritornello = (errepika) literaturaren</li> <li>- mozorro = literaturaren antzerki</li> <li>- arketipoa = deribazio 85</li> <li>- <del>zubi</del> zubia = arkitekturen</li> <li>- mimodramaz = literaturaren,</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- pambolo = literaturaren</li> <li>- absidean = arkitekturen</li> <li>- bizi-zuhaitza = arkitekturen</li> <li>- ajedrezatuak = arkitekturen</li> <li>- purpurazko kaliza = arte beldur</li> </ul> |
|---|--|

## BILIOGRAFIA

- LEKUONA, Juan Mari (1990): *Mimodramak eta ikonoak*. Erein. Donostia.
- ALONSO, Sara (2004): “Literatura e música” in CASAS, Arturo (coord.): *Elementos de crítica literaria*. Xerais. Vigo. 493-508.
- BOU, Enric (2001): *Pintura en el aire. Arte y Literatura en la Modernidad*. Pretextos. Valencia.
- CABO, Fernando; RABADE, María do Cebreiro (2006): *Manual de Teoría de la literatura*. Castalia. Madrid.
- GARCIA TRUJILLO, Sebastian; ITURBIDE, Amaia; KORTAZAR, Jon (1997): *Leibo oihalen mugetan*. Erein. Donostia.
- ITURBIDE, Amaia (2002): *Mimodramak eta ikonoak gidari, estetika barrena*. Arabako Foru aldundia. Gasteiz.
- JANES, Clara (1991): *Emblemas. Caballo griego para la poesía*. Madril.
- RODRIGUEZ, César (2004): “Literatura e Artes plásticas” in CASAS, Arturo (coord.): *Elementos de crítica literaria*. Xerais. Vigo. 509-531.



## HEGOALDERAT BURUZ ENETZAT PAUSU ONA

Emile LARRE

Beste batzuek erran dezatela hanbat eta hanbat egia, jadanik erranen eta idatzien gainerat, bego enetzat iparraldetik egin dezakedan lekukotasun xume hau. Lerro hauen laburrak ez du salatuko, nihundanik ere, adiskide on horrentzat beti daukadan errespetua, ez-eta gure anai maitasunetik pindar bat ere. Denak erraiteko, behar nuke lañoki aitortu zenbat izanak giren elgarretarik urrunak gure bizi luzearen lehen parte hartan guzian euskal hegoalde-iparralde hautako anaiak oro: hots, elgar espainol eta frantses deitzerainokoan egundainotik, herriko eskolatik haste, erakutsia ziguten bezala.

Zer zakien Oihartzun eta Gipuzkoa-Nafarroez ni nintzan Baigorri-Bastidar mutil sekailak hogeitertan, eta geroago ere, Izpegitik Baztango haran eta erreka haindik? Eta zer hango gizarte eta kulturez? Pilotarien izar batzu doi doia: Mondragones, Ulacia, Atano eta holako izen batzu, Baigorriko plazan, nik ikusi ez banituen, aita aipatzen zizkidanak. Bertularienak, idazle eta politika mundukoak, geroago abiatuko dira ene buruan. Salburik, halere, Espainiako iraultza horrekin bai, nik hamar urte nituenekotz: guziz, auzo-auzoan ezagutuko ditudan hamar bat mutil bai, Bastida-Idigoineko etxe hutsean ezarriak izanen baitira beren gudukaldietarik eta Francoren armadatik ihesi: heietaz bai, banaukan oroitzapen xoratua, ikusten nituelarik auzoko xaharrekin beren herriaz mintzo edo gure gazte helduekin arraillerian, mutil ala neskato. Gazteria haren kantuek ere xoratzen ninduten eta tirria batek emaiten zautan, errepika batzu bederen ikasteko bainan gazte nintzan oraino hastapen hartan bederen. Hori izanen da gisa batez enetzat Oihartzun, Juan Mariren herria, nahiz denbora hartan Idiazabal edo Durango izanagatik ere orduan neretzat Oihartzun, oro berdina, hots!

Etorriko da etorriko neretzat Oihartzun egiazkotik hurbilduko naizen denbora, hogeitahamar urteren inguruetan igorriko nauelarik Baionako



Apezpikuak Urruñako parrokiarat bikario. Ordu zen bai beste Euskal Herriko ate hura idek zadien, Elizondo herria baino urrunago hain guti ibilia zen baxenabartar apez gazte hunentzat . Atea ideki, hantxetan zagon ere atezain bat paregabea Piarres Larzabal Euskaltzaina: bizpahiru urte doi-doia azkaindar apez paregabe hori Zokoan zela erretor, orok ezagutu dizkiogun dohain aberatsekin. Ene zorion eta probetxurako, ez ninduen harek ere hutsegin. Lehen hitza, berak ahal bezala nolazpaiteko apainduraren antolatua zuen etxettoan: « Ze hartuko duk? » Eta hasten zen solasa: bazela hor berean Jaizkibel mendia. Iraultza deitoragarri hartako gudukak ere bere hainean eza-gutuak zituena, bai-eta, beste aldean, San Marzial ermita. Mendixka huntan kondatzen zuten oraino P. Larzabalen azkaindarrek, bai-eta neure herri berriko urruñarrek, ikusi izan zela gudarien asaltoa, mendixkari goiti, eta entzunak ere izan zirela tiroak, Bidasoaz hundirat, zer oren lazgarriak izanak hoik oro gudarientzat, bixtan dena, bai-eta, urrunagotik, hor euskal odola ixurtzen senditzen zutenentzat. Larzabal apezarekin nituen ezagutu eta kurritu mugaz haraindi hartako lurra oro. Harek ez baitzuen autorik, ene bi zaldiko citroen xaharra, bigarren edo hirugarren eskuz erositako bikario gazte batek bere aztaparreratuak zituzkeen sos apurrekin, harek eginen zuen gure bien doia kurkur-kur Aiako eta Aralarko mendietarainokoen ikasteko. Ez ginabiltzan ez etxe haundi, ostatu zilarhun eta jauregietan, bai-haatik, ahal bezala begiztatu tontorretan zubi-erreka xahar edo eliza harridun xaharretan. Bat-batean Larzabalek botako zidan: « Geldi, geldi! » eta ni geldi: artzain bat zuen hor makila eskuan eta galtzak goiti biribilkaturik patarrari zoala...edo herriko kamineroa lanetik oraino heltzekoa: « Hunekin jakinen diagu auzotegi horren izena eta hemengo berriak ere » hola ibilia giratu gu biak, herriz herri eta berriz berri, astelehen egunetan bereziki. Ez dutea erraiten, edo hola zen ainitz apez ginen denbora hartan bederen, apezten eguna zela astelehena, igandeko zerbitzuaren eta herrikoaren ondotik! Beste mundu bat zen guretzat han ezagutu behar ginuena, nekazari mundua bai batetik, baina hori ezagutzen ginuen jadanik, ordu hartako Baigorri bai-eta Azkaine ere halakoak izanez. Zerbait gehiagorekin halere hor: Oihartzun, Astigarraga eta Lezo haratago, eta Hernani eta Oretari buruzko trafikua, denak nahas-mahas erraiteko. Ni gaztea bainintzan orduan eta ez oraino hain ausarta, hor nuen zorionez ene Larzabal, bere elasturia erne eta aberatsarekin. Bazakien harek xoriari nondik jalgi begia, bai-eta gure bideko artzainari xoko hartako xurruburruen kondarazten ere: azken ixtriputik hasirik, edo berriko hileta haren xehetasunak, futbaleko balentria hura ahanzi gabe, helduko ginen Oihartzungo Lekuonatarretarat berriz ere nor ziren berak eta nolakoak izana zen toki toki-ko familia hori.

Denbora joan, denbora jin, orai badakigu zer jasana duen Lekuona familia herriarentzat eta nolakoak izanak diren hainbeste Lekuonatar, joanak joan eta geldituak gelditu. Bi oseba bai izan zituztela herritik eremanak, Julian eta

Martin, berriz ez baitziren gehiago ikusi, hor gaindi. Enderlatsatik Hernanirakoraino fusilaturik edo nork jakin xuxena? Eta beste batzuk berek dakite, edo jakin zuten, nola ibili ziren, ihesi gorderik edo adiskideen babestean, horietan Manuel Lekuona, « zaharra » deitua eta geroago Euskaltzainburu behar zena.

Manuel Lekuona zenari aipamena zor diogu hemen. Euskaltzainburu ospetsu hunek neurrigabeak dituela bere merezimenduak badakigu denek eta ez diola bere obra paregabekotik nehork deusera kenduko ere bai. Elgar uler-tze eskas harek zuen bakarrik bere bidetik berexi, dakigun bezala. Euskara Batua denek nahi, baina nola egin, eta nolakoa? Bere jasangaitza izan zuen ere hor Juan Marik, hunek, bere osabaren errespetu osoa ekarria gatik, onar-tzen baitzuen Euskara Batu orokorrarena, eta ez bakarrik Piarres Lafittek deitzen zuen Gipuzkoar inperialismo batena. Badakigu nolako jauntasun apa-larekin eta errespetuarekin bizitu zuen Juan Marik, ixiltasunean, une neke hori eta hori beti eskertzekoa ekarri diogu berari.

Bere bidea bazuela ordukotz Juan Marik, nehork kenduko ez diona, hori denek badakite. Euskaltzaindian bere gaitasun paregabearekin beteko du bururaino Lekuonatarri zinez zor zitzaien lekua. Berak bere 1996 ko libu-ruan (Elixabete Perez Gaztelu, Ana Toledo Lezeta eta Esther Zulaika testu paratzaile) bere Euskaltzaindikoa aitabitxi eta lankide deiturik nihaur, anai-zor hau diot hemen betetzen, beihalako denbora baten oroigarri. Egunak joan dira. Euskaltzaindia apezek sortu bazuten parte on batean, horrek erran nahi du beren denborako eginbidea bete dutela ene lagun eta kideek. Apeza zen Juan Mari, apezak izan ditu bere lagun edo hurbilak Euskaltzaindian J.M Satrustegi, P. Larzabal, P. Lafitte, X. Diharce Iratzeder, P. Altuna, A. Zabala, P. Ondarra eta lehenagokoak, Patxi Uribarren eta E. Larre ondarrik. Lehenagokoetan Azkue handia, bixtan dena. Eta apezetan nola ez izenda hemen Bernat Etxepare bera, eta Atxular! Haste hartan izan zen baitezpada apezten denbora hori, beren eskutan zutelarik jakintza eta eskola eta herrieta-ko parrokiak, gure lehen herriak. Gizartearen aldakuntzek ekarri dute hori eta badoa mundu hau aitzina, bakoitzaren mailak eta negurriak berek zedarrikatu-tuz. Baina ezagutu beharko du munduak norbaitek behar zituela mundu aitzinatua baten bideak ideki eta Apezak eta Eliza izan zirela aitzinamendu hori asmatu eta zabaldu zutenak. Gauza zuzena eta baitezpadakoa ikusi zuten hori eta egin ere ikusiz geroz. Lan hortan zinez gorestekoak ditugu Euskal Herri huntan Lekuonatarrena bezalako familia osoak.

Erran dugun argitze lan horren etsenpluak eta frogapenak hemen berean dauzkagu Lekuona familian, Euskaltzaindiak berak ideki, zabaldu eta garatu dituen batzorde espezializatuetan. Gaitasun haundi batzuen jabe sortua, hemen berean ginuen Juan Mari Lekuona; pilotari, dantzari, bertsulari, bert-suzale, eta dohain paregabez betea, berari zoakion gai horien guzieren lantzea,

bere denbora, su eta oihal guzien neurria eman ez sail horietarik bakotxari eta denek dakigu zenbat den bermatu denetan, beste ikerkuntza eta guziak gain-gaineraino ereman ez gehiago dena.

Gure burua holako gainetaraino bultzatzeko ezinean ere, eskertzekoa zaigu holako izar batekin gure heinean lan-egiteko ukan dugun suerte ona. Euskaltzaindian sartzea aipatua dugu. Hor daukat ere Herri-Literaturako azpibatzerdea, hamar bat lagunen artean elgarrekin kudeatu duguna. Juan Mari adiskideari eman ginon, nihaurk lehenik eta ene lagunek bixtan dena, batzorde horren ardura, nahi ala ez hoberenak hartu eta bete behar duena, bere betiko arta eta seriosotasun harekin hain zintzoki bete zuena. Hain hori zor giniola, baitezpada, bere bizi guziko bertsularitza eta poemagintzako lan harrigarriaren sari bereziki bere ikertzeetan. Denak bere alde zituen berak: bere dohainak, lanak, kultura paregabe bateko giroa Oihartzunen berean eta ez urrun aurkitua zuena eta, guziz, Manuel Lekuona osabaren itzala, eta ez bakarrik itzala. Haatik badakigu ez duela buru on batek egiten batzordea, baizik lagunarte batek. Eta nik, batzorde hortan naizenak ez detzazket izendatu gabe utz hor dauzkadan kideak oro. Aipu dugun adiskide zenduaren aldean lan egin dutenak, Jose Mari Aranalde, Pello Esnal, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus M. Etxezarreta, Jose Mari Iriondo orain gelditzen girenok baizik ez aipatzeko, Patziku Perurena ahanzten ginuena barne. Elkarlana, hots, horiek orok deramatena, noiztenka beste batzuen partekuntzak ere gehituz beharren edo deitze batzuen arabera, bakoitzak duena edo dakiena ekarriz. Hor digu Juan Marik beti bere jakitate eta kompetentzia ekarri sekular hitz bat gehiegitu gabe eta beti errespetu ekarriz galdezkatuari, baldin eta berak gehiago zakielarik ere.

Batzorde beraren egitekoa da, orok dakiten bezala, bertsularitzakoa. Eta nola ez bertsularien xapelketa nagusian, mahiburuena ere. Xapelketaren hau berebertua da orai, zenbait urte honetan, dakigun bezala baina elgarren estimu eta errespetua ez dute batere galdu Bertsularienak eta Euskaltzaindiak hunek duelarik lehen hori urte luzeetan kudeatu. Juan Mariren lekua hor izana da aspaldiko urteetan eta nihaur hor izana naiz Zepai bertsulari zenaren eta, Basarri, Uztapide, Xalbador edo Fernando Bordari Artola batzuen denborakotz, Lekuonatarren oseba Manuelen garaian eta X. Amuriza orduan gaztea eta beste, Xalbadorrentzat ziztuak izan zirenean eta guzi. Hunek ez luke balio, baina hitzaren parada denean baliatu nahian nik ere nolazpait, ez lehen aldiz, huna zuzentze labur bat bi hitzez, tirriak emanik: Xalbadorri Donostian ziztuak egin zizkietenean, hiru izan ginen ziztuen kontra protestatu ginuenak, hots, Xalbadorren hitzak zuzen entzunak eta ulertuak ginituenak: Fernando Artola, Basarri eta ni, gainera mañetofioian oro hartua nuena. *Zeruko Argia* aldizkariaren harpidedun bainintzan, han ikusirik gaizki ulertua zutenaren inprimatua, idatzi nion kasetari eta hunek gero agertu zuten zuzenketa, dazki-

gun publikoaren ulertuak eta gaizki idatziak zuzenduz, bai publikoaren, bai Xalbadorren eta bai...egiaren atsegingarri. Egun hartako gure Juan Mariren berri ez dakit bainan, bera ezagutzen eta, ongi dakit ez zela airerat mintzatu-ko ez eta zuzenkontra berotuko gure Juan Mari.

## **AZKEN HITZ : JUAN MARI EUSKARA BATU ETA EUSKAL HERRI BATU BATENTZAT**

Laburregi eginik lantto hau, eta are laburrago hemen egin beharko nituen oharpen apurrak, hau dut azken hitza, betiko bere noblezia ixilarekin hain lagungarri izan dudan adiskideaz eta hunekilakoez. Apez sotanadun, beltzez, sartua ni Euskaltzaindian, uzkur eta herabe, neure gisatsukoak aurkitu nituen ere hor lagunak; J.M. Satrustegi, J.M. Aranalde, Mikel Sarate, Karmelo Etxenagusia, Antonio Zavala, Juan Mari Lekuona, geroago Patxi Uribarren eta barka orok ez bazuten ere berdina maila, eta beste ahantziek halaber.

Hau ere zen erran nahi nuena: bi mailetakoak izan ditudala nik Hegoaldearekin egin ditudan lokarriak: lehenik Elizakoak, denboraren ariaz baitugu euskaldunek elgar ezagutzen ikasi, mugaren alde batetik bestera, komentua- ren lana eta Arantzazu- Lazkaokoena beste aldetik ; eta, bigarrenik, bertularitza, herri literatura, kantua eta beti zabalduz joan diren harremanak: hauetan Oihartzungo Lekuona anaienak ez dira txarrenak izan, bainan bego hemen Juan Mari bere lekuan, huntaz dugunaz gain hemengo solas hau. Beste batzuek lan hori hemen eta geroan ere eginen dutelakoan, ni ez naiz hemen analisisa alor hortan sartu. Lekukotasun xoil hunekin, eta hau ere arinkiegi egina, uzten zaitut, irakurlea, aitzin gustu bat bederen emanen dautzutela liburu hontako hitz goxoez aitzinago eta barnago joaiteko Juan Mari lagun paregabeak utzi daukun alor aberats edo harrobi urrezkoan. Egia hunekin uzten zaitut egungo huntan bakarrik, Juan Mari lagun apalari nunbait batere urgulurik gabe errranik bainan egia-egiaz atera zitzaion hitza bere senideen goresgarri, eta hau da: « Ehun urtez iraun duela gure (Lekuona) familiakoen langintzak Euskal letretan »! Iraun eta iraunen!



# BERDABAIOREN BERTSO-DOINUEN INGU- RUAN: MUSIKA ETA PROSODIA UZTARTUZ

Agustin MENDIZABAL ITURRIA

## 1. LANAREN NONDIK NORAKOA

Musika eta hizkuntza elkar elikatzen duten bi sistema ditugu. Sarritan nabarmendu izan den moduan, kantuak eta prosodiak ere sare berezia eho izan dute historian zehar, “prosodia” hitzaren erro grekoak ere salatzen duen bezala<sup>1</sup>. Lotura hau hainbat hizkuntzatan nabaria bada ere, euskaraz, ezaguna denez, ez da hain agirikoa. Baina honek ez du harreman hau ukatzen. J. J. Roussearuen arabera, kasu, hizkuntza bakoitzaren prosodia da musikari bere nortasun nazional nagusia eransten diona<sup>2</sup>. Ikuspegi hau baietsi edo ezetsi gabe, lan honetan interesatuko zaiguna zera da: euskararen prosodiak kantuaren gainean nola eragiten ote duen usnatzea, eta zehazkiago esanaz ahozko transmisiozko kanta-moldeetan nola islatzen den –islatzen bada– agirian jartzea.

Euskal prosodia eta musikaren arteko harremanez zeharka bada ere arduratu diren autoreen artean, lan honen helbururako esanguratsuenetako batzuk aipatuko ditut segidan, enparauen ekarpena ez gutxietsi baina bai orain erabilgarri ez zaigulakoan (Lekuona osaba-ilobak, Gaztelu eta J. M. Leizaola hizkuntza adituak, edota F. Escudero eta A. González-Acilu konposagileak, eta abar).

Hala, Aita Donostiak (1985, 37) 1918an dioenez, kantu herrikoia erritmo oratoriotik aldentzen da, dantzan oinarritua baitago sakonean. Dena den, gregorianoan oinarrituriko erritmo libredun doinuak ere bereizten ditu.

---

<sup>1</sup> Honegger hiztegian hala dio (1976:839): “<<pros>> = selon , et <<ôidê>> = chant.”

<sup>2</sup> “Lettre sur la musique française”.

Orixeren arabera (1920), aldiz, euskal azentua toniko izatearen ondorioz, antzinako euskal kantuak erritmo libre eta orekatukoak izango ziren, eta erre-zitazio edo deklamaziora asko hurbilduko ziren.

Rodney Gallop agian gutxietsiak (1927 eta 1928) hemen gauzkan gaiari buruz saiakera polita egin zuen, adibide ugariz hornitua. Doinuen erritmoari azentuak eta testuak eragiten diotela aitortzen eta azaltzen du.

Gabriel Lerchundik, bere aldetik (1946: hitzaurrea), kantuen musika idaztean euskal prosodia kontuan hartzeko arau nagusi bat ematen du: doinuaren nota luzeak bat etor daitezela bertsoaren etenekin. Izan ere, kantuari dagokionez euskararen erabateko isosilabikotasuna du abiapuntu: azentuak ez du beragan inolako eraginik. Ildo honetatik, Haritschelharrek (1969) eta Mitxelenak ere (1988), ez dute “hizkera doinu eta kantuaren arteko etxekidurarik” aurkitu.

Arana Martijak ere gaiaren garrantziaz ohartarazten gaitu eta hizkuntza bakoitzaren ezaugarri musikalak musikan islatzen direlakoan dago (1976:259).

Suma daitekeenez, honekin dena ez dago itxita; oraindik zer aztertua badagoela iruditzen zait niri behintzat, azken bolara luze batean gai hau buruan bueltaka ibili baitut. Eta hala, arestiko aurrekariak lagun, nire hausnarketa propioak egiten ausartuko naiz; hauek, kasu partikular baten ingurukoak izango dira, eta beraz, ez dute aztergaia ixteko inolako asmorik, horretarako ni baino aproposagoak direnak ba baitira.

Lantegi honetarako, beraz, Berdabioren bertso-doinuen laguntza izango dugu. Doinuen aukeraketa beste edozein ere izan zitekeen; baina nire hauekiko ezagutza zabalduz joan den heinean, aberastasun handia gordetzen dutela jabetu naiz. Idatzizko kantutegietako hainbat aldaera ezberdinek bai baina baita ahoz jasotzeko parada izan ditudan aldakiek ere, hainbat kantaera ezberdin islatzen baitituzte zinez; bai alderdi melodikotik, bai erritmikotik. Eta kantaera hauek xehero begiratu eta aztertuz, ikusi dut aberastasun hori, neurri handi batean, testua “esan” edo kantatzeko moduari zegokiola. Horrela, honi buruz hausnartzuz poliki-poliki lan hau osatzera iritsi naiz. Nire ekarpen propioa dena, eta adituen irizpide zorrotzera makurtzen dudana.

Ezer baino lehen, bihotzez eskerrak eman nahi dizkiot sustatzaile, bultzatzaile sutsu eta bidelagun izan dudana Patziku Perurenari eta baita ere orain dela hogeit bat urte doinu hauekiko eta oro har Oiartzungo kantutegiarekiko nire grina piztu zuen Juan Mari Lekuona handiari: orduan hasitako lanaren jarraipena duzu hau. Orobat Euskaltzaindiari bere omenaldirako tarte eder hau eskaintzeagatik. Mila esker Eresbil Artxiboko arduradun eta kideei beren laguntzagatik eta eskaini didaten bibliografia zabalagatik. Orobat Juan Mari Beltrani eta lan honetan modu batean edo bestean parte hartu duten guztiei, bereziki Jexux, Batixta, Laxaro, Jose Inazio, Koxme eta Jean Mixeli, beren

intimitatearen zatitxo bat lapurtzen uzteagatik. Eta nola ez, nire jarduna maitasunaz, beste inola ezin baita, sostengatu duten etxekoei: muxu bana. Gogorapen berezi eta kuttun bat euskara eta musika maitatzen irakatsi eta zaletu arazi ninduen nire aita zenari.

## 2. BERDABIOREN BERTSO-DOINUEN AURKEZPENA ETA EZAUGARRIAK

Patziku Perurenari esker dakigunez (1999), bertso hauek 1747 ingurukoak behar dute izan, orduan sartu baitzuten kartzelan Berdabio diru faltsua egi-teagatik.

Segidan bertso-doinuon alderdi musikolari gainbegiratu bat emango diogu. Lehenik, kantutegi idatzietan aurki daitezkeen doinuak aipatuko ditugu:

### 2.1. “Bardabioko semia naiz ta” (CVPD 253 zk.)

Lekarotzen, 1912an Bolaños jaso (Bortziriak, Nafarroa).

### 2.2. “Goizuetan bada gizon bat” (CPV 407 eta 407bis.)

Errenterian (Gipuzkoa) Luis del Puertori jaso. Ziburun (Lapurdi) ikasia omen zuen.

“Goizuetan (Azk.)” deituko diogu.

### 2.3. “Nere andriak ekarri zuen”

Juan Mari Lekuonak Oiartzunen jaso (Gipuzkoa).

“Nere andriak (Lek.)” deituko diogu.

Doinu honek hiru transkribapen jasan ditu, gutxienez: BD (1320), Ayerbe (2001:64) eta Lekuona (1999).

Nire transkribapen bat ere erantsiko dugu, hain zuzen nik neronek Juan Mari Lekuonak Bertso Doinuak I diskoan kantatutakoa oinarritzat hartuz egindakoa:



## NERE ANDRIAK

Juan Mari Lekuona

5 Nere an - dri - ak e - ka - rri zu - en A - ra - naz - ti - kan do - ti -

a; ho - be zu - ki - an i - ku - siez ba - lu Ber - da - bi - o - ko a - ti -

9 a gaur e - tzu - ki - an hark e - du - ki - ko da - du - kan pe - sa - lun - bri - a.

The musical score for 'Nere Andriak' is written in bass clef with a key signature of one flat (B-flat) and a 3/4 time signature. It consists of three staves of music with lyrics underneath. The first staff starts with a measure rest followed by a quarter note G2, a quarter note A2, and a quarter note B2. The second staff continues with a quarter note C3, a quarter note D3, and a quarter note E3. The third staff continues with a quarter note F3, a quarter note G3, and a quarter note A3. The lyrics are: 'Nere an - dri - ak e - ka - rri zu - en A - ra - naz - ti - kan do - ti - a; ho - be zu - ki - an i - ku - siez ba - lu Ber - da - bi - o - ko a - ti - a gaur e - tzu - ki - an hark e - du - ki - ko da - du - kan pe - sa - lun - bri - a.'

Funtsean lau transkribapenak berdinak dira; diferentziak batik bat erritmoari eta konpasari dagozkio.

Ondoren, ahoz bakarrik jaso ditugunak itsatsiko ditugu:

### 2.4. “Aizak Trabuko, goguan al dek” (J. Eskudero)

#### 2.4.1. Lehen grabaketaren transkribaketa:

## Aizak Trabuko

Jexux Eskudero

5 Ai - zak Tra - bu - ko go - gu - an al dek zer e - gin hu - en E - la -

- man. Gi - zo - na hil - ta biz - ka - rren har - tu e - rro - ta - pe - ra e - ra -

9 man. O - rain be - ze - la gi - zon for - ma - lak i - zan ba - zi - an Le - sa -

13 kan, e - gon be - ha - rra i - zan - go hu - en o - rain ni na - go - en pla - zan.

The musical score for 'Aizak Trabuko' is written in bass clef with a key signature of one flat (B-flat) and a 3/4 time signature. It consists of four staves of music with lyrics underneath. The first staff starts with a measure rest followed by a quarter note G2, a quarter note A2, and a quarter note B2. The second staff continues with a quarter note C3, a quarter note D3, and a quarter note E3. The third staff continues with a quarter note F3, a quarter note G3, and a quarter note A3. The fourth staff continues with a quarter note B3, a quarter note C4, and a quarter note D4. The lyrics are: 'Ai - zak Tra - bu - ko go - gu - an al dek zer e - gin hu - en E - la - - man. Gi - zo - na hil - ta biz - ka - rren har - tu e - rro - ta - pe - ra e - ra - man. O - rain be - ze - la gi - zon for - ma - lak i - zan ba - zi - an Le - sa - kan, e - gon be - ha - rra i - zan - go hu - en o - rain ni na - go - en pla - zan.'

Jatorria: Patziku Perurenak 2002ko martxoan Jexux Eskudero goizueta-rrari (1941-) grabatua. Funtsean, 3/8 bezala ere uler liteke. Bertso bakarra.

“Aizak Trabuko (Esk.)” deituko diogu.

2008ko udan Jexuxen anaia Anttoni doinu hau bera 5/8ko erritmo punt-tudun garbi batean entzun diogu.

2.4.2. Bigarren grabaketaren transkribaketa:

## AIZAK TRABUKO

Jexux Eskudero

*♩ = 150*

8  
Ai-zak Tra-bu-ko, go-gu-an al dek zer e-gin hu-en E-la-man. -

15  
Gi-zo-na hil-ta biz-ka-rren har-tu e-rro-ta-pe-ra e-ra-man.

23  
O-rain be-ze-la gi-zon for-ma-lak i-zan ba-zi-an Le-sa-kan, e-gon bi-ha-rra i-zan-go hu-en o-rain ni na-go-en pla-zan.

Jatorria: Patziku Perurenarekin batera Leitzan grabatua, 2006ko uztaila-ren 24ean.

“Aizak Trabuko (Esk. bis)” deituko diogu. Bertso bakarra.

2.5. “Aizak hi Trauko”

Lehen transkripzioan ez ditugu xehetasun guztiak kontuan hartuko:

**AIZAK HI TRAUKO**

Laxaro Iparragirre

*♩ = 180*

Ai - zak hi Trau - ko - gogu - an al dek zer e - gin hu - en E -  
 4 la - man. Gi - zo - na hil - da biz - ka - rrian har - tu ta txon - da - rre - ra e -  
 8 ra - man. Di - fun - tu ho - rrek a - dix - ki - de - ri - kan i - zan ba - lu Le - sa -  
 13 kan, hik e as - pal - di e - gon be - har hun o - rain ni na - goen a - ta - kan.

Baina beranduago justifikatua geratuko denez, transkripzio analitikoago bat ere komeni zaigu, interpretazioak azentuarekiko izan dezakeen erlazioa agirian uzten duena:

**AIZAK HI TRAUKO**

Laxaro Iparragirre

*♩ = 180*

Ai - zak hi Trau - ko, go - gu - an al dek zer e - gin hu - en E - la -  
 8 man. Gi - zo - na hil - da biz - ka - rri - an har - tu ta txon - da - rre - ra e -  
 16 ra - man. Di - fun - tu ho - rrek - a - dix - ki - de - ri - kan i - zan ba - lu Le - sa -  
 24 kan, hik e as - pal - di e - gon bi - har hun o - rain ni na - goen a - ta - kan.

Jatorria: Luis Iparragirre bere semeak grabatua, Erreterian, 2005eko uztailaren 30ean<sup>4</sup>. Bertso bakarra.

Laxaro Iparragirre, 1929an Añarbe-Behekoan (Erreteria) jaioa dugu.

## 2.6. “Aizak Trabuko, goguan al dek” (Batixta Perurena)

### AIZAK TRABUKO

Batixta Perurena

*♩ = #2*

Ai-zak Tra-bu-ko go-gu-an al dek zer e-gin-hu-an E-la-

4 man. Gi-zo-na hil-da biz-ka-rren har-tu e-rra-ta az-pi-ra e-ra-

8 man. O-rain be-ze-la gi-zon ja-to-rrak i-zan ba-zi-ran Le-sa-

12 kan lu-za-ro hi-tzan e-gon bi-ha-rra o-rain ni-na-go-en pla-zan.

Jatorria: Patziku Perurenak bere osaba Batixta Perurena goizuetarrari (1929-) 2007ko abenduaren 10ean grabatua. Bertso bakarra.

“Aizak Trabuko (Per.)” deituko diogu.

<sup>4</sup> Mila esker biei, bihotzez.

2.7. “Goizuetan bada gizon bat” (Jose Inazio Olaziregi)

## GOIZUETAN BADA GIZON BAT

Jose Inazio Olaziregi

$\bullet = 100$

5                   Goi-zu - e - tan   ba-da   gi-zon bat   dei-tzen zai - o Tra -

9                   bu - ko           3                   3                   3  
                  hi-tzak e - de - rrak   bi-ho-tza   fal - tso   bei-ne-ree   tzai - o   fal -

                  ta - ko   e - gin di - tu - en   di - li - jen-tzi - ak   be-ri   e-tzaiz-ko da - mu-ko.

Jatorria: Juan Mari Beltranekin batera Jose Inazio Olaziregi oiartzuarrari (1945-) grabatua (Oartzunen, 2005eko urrian). 3 bertso.

Kasu honetan, transkripzio analitiko xamar bat itsatsi dugu, bere kantae-ra berezia azpimarratzeko.

“Goizuetan (Ol.) deituko diogu.

2.8. “Nere andriak ekarri zuen” (Koxme Lizaso)

## NERE ANDRIAK EKARRI ZUEN

Koxme Lizaso

$\bullet = 84$

4                   Ne - re an - dri - ak   e - ka - rri zu - en -   A - ra - naz - ti - kan do -

8                   ti - a   ho - be zu - ki - en   ez pa - lui ku - si   Ber - da - bi - o - ko a -

                  ti - a   o - rain   e - tzu - en   hark e - du - ki - ko   da - du -   kan pe - sa - lun - bri - a.

Jatorria: Juan Mari Beltranekin batera egindako grabaketa (Oiartzunen, 2007ko uztailaren 7an), Koxme Lizaso oiartzuarrari (1937-). Bertso bakarra.

“Nere andriak (Liz.)” deituko diogu.

## 2.9. “Nere andriak Aranaztikan” (Laxaro Iparragirre)

### NERE ANDRIAK

Laxaro Iparragirre

♩ = 120

Ne-re an-dri-ak A-ra-naz-ti-kan e-ka-ri zu-en do-

ti-a ho-be zu-ki-an i-ku-siez ba-lu - Ber-da-bi - o - ko a -

ti-a o-ram e-tzu-en e-du - ki - ko da-du - kan pe-sa-dun - bi - a.

Jatorria: lehen aipaturiko Laxaroren saio eta grabaketa berekoa. 3 bertso.

Bere anaia Xantik ere doinu honetantxe eman zizkigun bere lau bertsoak 2008ko urrian Patziku Perurenari eta niri.

“Nere andriak (Ip.)” deituko diogu.

## 3. BERDABIOREN BERTSO-DOINUEN AHAIDETASUNAK

Doinuok aztertu ondoren, nagusiki bi tipo melodikoren aldaerak ditugula ikusi genezake. Aipa dezagun bestalde denek ABA<sup>2</sup>, AA’BA” moduko egitura dutela. Azterketaren ondorioak hauek ditugu, ahaidetasunei dagokionez:

– “Goizuetan (Azk.)”, “Nere andriak (Lek.)” eta “Aizak Trabuko (Esk. eta Esk. bis)” (B atala bakarrik): “Izan nüzü Erroman”<sup>5</sup> aldakiak ditugu.

<sup>5</sup> Etxahun-Barkoxeren bertsoa, Azkueren *Cancionero Popular Vasco*-ko 641 zk. Pierre Topet-Etxahun, 1786 eta 1862 urte bitartean bizi izan zen.

– “Aizak hi Trauko”: A atalean “Izan nüzü Erroman”en aldakia, eta B atalean “Adios Galharraga”ren<sup>6</sup> aldakia.

– “Bardabioko ...”: “Adios Galharraga”ren aldaki modaltzat dugu, eta modu maiorran dagoen doinu bakarra da.

– “Aizak Trabuko (Per.)”: “Adios Galharraga”ren aldaera da (nahiz ez berehalakoa).

Beraz, haritik tiraka, bi “iturburu” nagusi antzeman genitzake: “**Adios Galharraga**” eta “**Izan nüzü Erroman**”. Hiru doinu, “Izan nüzü ...”ren adarrekoak lirateke, bi “Adios Galharraga”renekoak, eta eragin gurutzatuak dituen beste bat.

Eta aipatu gabeko beste hirurak Azkuek bildutako “Goizuetan”en berehalako aldaerak ditugu. Gogora dezagun Mikel Laboak ere aldaera hauxe erabili duela -idatzizko kantutegietatik lortua-, eta hauengan zenbaterainoko eragina izan duen zehaztea zaila da. Dena den, hiru hauen benetako balioa kantaeran, estiloan, datza.

Bi “iturburu” hauei buruz, gehiago ere esan dezakegu, aldi berean, oso hurbilekoak baitira: bai musikalki (egituraz eta karakterrez), bai neurkera literario aldetik, geroago ikusiko dugun moduan. Horregatik esango nuke nik gertatzen direla doinuen arteko elkartrukeak: hemen, har ezazu motibo musikal hau, hor, egin dezagun esaldi osoaren trukea, eta abar.

Eta zertan dira ba hain hurbilekoak bi doinu hauek?

1. Modalitatea (eskala minor harmoniko plagala).

2. Bertsoen metrika: biak Juan Mari Lekuonak neurri klasiko deitu zituenen inguruan dabilta, hots, 8+7 silabako errima egitura<sup>7</sup>. Hau da, “Izan nüzü Erroman”, Pierre Topet-Etxahunen “Barkoxeko eliza” izeneko bertso sailaren 8. bertsoa da, eta Haritschelharren arabera, 7-7-(8+7)-(8+7) neurria dagokio. “Adios Galharraga”, Etxahunen beraren “Galharragako Khantoriak” bertso sailaren 5. bertsoa da, eta (8+7) neurria dagokio<sup>8</sup>.

3. Kadentziak: lehen atalean (A) funtsean #VII-I, eta bigarreanean (B) IV-III-II.

4. Linea melodikoaren eitea. Bi doinu hauen egitura A B A’ dugu. Bai baten, bai bestearen A eta B atalak, bi motibotan bana daitezke (bakoitza, bertso-lerro bati dagokiona); lehen motiboak, galdera egin du, eta bigarre-

<sup>6</sup> Haritschelhar, 1970.

<sup>7</sup> Ikus J. M. Lekuona (1978).

<sup>8</sup> Ikus Haritschelhar (1969).

nak erantzuna. Hala, A eta B atalen lehen motibo galde-egileek euren artean hurbiltasuna azaltzen dute, nahiz tipo melodiko berekoak izatera iritsi ez.

Baina bi atalen bigarren motiboari erreparatzen badiogu (erantzuna egi-ten dutenei), antzekotasuna oso nabarmena dela ohartuko gara: material melo- diko ia berbera, eta anbitus eta ibilbide melodiko oso parekoak.

5. Doinuaren egitura erritmikoa, hau da, noten iraupenen banaketa. Bi doinu hauen idazkera arretaz begiratzen badugu, kortxea-kortxea-beltza-bel- tza egitura nabarmenduko zaigu (oinarrizko zelula erritmikoa dei genezakee- na):



Honetaz guztiaz landa, arestian aitatu bezala, antzeko karakter musikala dutela gaineratuko nuke.

#### 4. AHAIDETASUNAK ZABALDUZ

Euskal Kantutegian, bi doinu hauen aldaera ugari aurki ditzakegu; agian, ez dira berehalakoak, baina arretaz aztertuz beren arteko ahaidetasunaz ohar gaitzke. Adibidez, “Izan nüzü...”ren aldetik, “Agur, oi izar maitia”<sup>9</sup> aipa dezakegu. “Adios Galharraga”renetik, berriz, “Beti penetan”<sup>10</sup>. Hala, bi tipo melodiko osatzen dituzte. Biak ere, gaur egun bertsolariek oraindik erabiltzen dituztenak. Bestalde bada bertsolariek asko erabiltzen duten beste tipo melo- diko hibrido bat, lehen eta hirugarren atala (A) “Izan nüzü...”ren adarrekoak eta bigarrena (B) “Adios Galharraga”ren ezpalekoa dituena; adibidez, Patxi Etxeberriaren “Hamaika aldiz”<sup>11</sup>, sail honetako “Aizak hi Trauko”ren kide- koa dena.

Baina euskal eremutik kanpora ere aurkitzen ditugu tipo melodiko hauek. “Adios Galharraga” eta “Que ne suis-je la fougère” (“Chanson de La Ribouté”)<sup>12</sup>, funtsean doinu bera dira.

Testua gidari harturik, frantsesezko kanta honen metrika 8 (paroxitonoa) + 7 (oxitonoa) lau bider, dela ikusiko genuke. Azentuazioa alde batera utzirik,

<sup>9</sup> Riezu (1982).

<sup>10</sup> CVPD, 299.

<sup>11</sup> Dorronsororo (1994).

<sup>12</sup> Capelle (1844-1855), 490 zkia. Doinuaren autorea : Albanese (1729-1800) (Case, Chaminate, 1981), ala Pergolesi (1710-1736)) ote da?



euskarazko neurri klasikoa deitua ongi egokitzen zaio. AABA motakoa da, eta egitura karratua deiturikoa azaltzen du.

Bestalde, “Joseph est bien marié”<sup>13</sup>, arestian aipatu dugun tipo melodiko hibridotik gertu dago, nahiz 2/4 konpasean idatzia dagoen. Partitura Eresbil Musikaren Euskal Artxibotik lortua da:



Testua gidari hartuta, kanta honen metrika 7 (oxitonoa) + 7 (oxitonoa) (2 bider), 8 (paroxitonoa) + 8 (paroxitonoa), 7 (oxitonoa) + 7 (oxitonoa) dela ikusiko genuke. Azentuazioa alde batera utzirik, nota eta silaba kopuru aldetik egokitzapen simple batzuekin euskarazko neurri klasikoa deitua ongi egokitzen zaio honi ere.

Doinu hau AABA motakoa da, eta egitura karratua deiturikoa azaltzen du. Lan honetako doinuen ezaugarri gehienak dituela erraz antzeman daiteke. Baina bada gehiago. Multzo honetako zenbait doinurekiko antzekotasun puntuak azaltzen ditu.

Batetik, lehen esaldiaren egitura, E1ekoaren oso antzekoa da: aldera dezagun “Izan nüzü Erroman”, “Agur, oi izar maitia”, “Goizuetan”, “Aizak hi Trauko” doinuekin, eta hau argi ikusiko dugu. Adibidez, bietan V-I hasiera ondoren, III. mailaraino igotzen dira, notaz nota:

“Izan nüzü Erroman”-1. motiboa



“Joseph est bien marié”-1. motiboa



<sup>13</sup> Capelle (1844-1855), 295 zkia. Doinuaren egilea: Du Caurroy (1549-1609) (Sadie, 2001). Bere garaiko Frantziako zenbait erregeren erret kaperatan enplegatu zen, eta besteak beste Enrike IV. Nafarroako errege ere izan zenaren hileta elizkizunetarako *Missa pro defunctis* idatzi zuen (1590. inguruan). Du Peyratek, 1645ean Europako musikagilerik handien artean kokatu zuen.

Eta utzitako lekutik tonikarainoko jaitsiera, apoiatura bat aurretik dutela egiten dute (Si lehen kasuan, Re bigarrean):

"Izan nüzü Erroman"-2. motiboa



"Joseph est bien marié"-2. motiboa



Bestetik, B atalean berriz (episodio deiturikoan), hirugarren motiboa nota bertsen inguruan ibili ondoren, ebazpena "Adios Galharraga" eta bere kidekoa bera da (E2 eitea):

"Adios Galharraga"-4. motiboa



"Josep est bien marié"-4. motiboa



Parekotasun hauek kontuan hartuz, eta lan honetan segitutako bidetik pittin bat aldenduz, kontsidera genezake lehen hipotesi moduan, doinu honetxan egitura melodikoa beste guztien iturburutzat. Eskematikoki, honela laburbil genitzake egitura hauek:

"Joseph est bien marié": X+M (lehen + bigarren esaldia).

"Adios Galharraga": Y+M: lehen esaldia "berria" da. Bigarrena, aurrekoaren kidekoa. Tipo melodiko hau, bestalde, oso-osorik, "Que ne suis-je la fougère" rena bera dugu.

"Izan nüzü Erroman": X+N: lehen esaldia, bestearen kidekoa. Bigarrena, "berria".

Bigarren hipotesi bezala, bi "iturburuen" doinuak, XVI.-XVII. eta XVIII. mendeetatik zetozen bi tipo melodikoren emaitza direla onartuko

dugu (alabaina, ez doinuen jatorri-ondorengotza erlazio zuzen moduan!), nahiz “N” deitu dugun atalaren aurrekariak falta zaizkigun.

Honen alde, hau esan dezakegu: batetik, egitura aldetiko parekotasunez gainera, “Joseph ...” eta “Que ne suis...” en metrika, euskal neurri klasikoetara oso erraz egoki daitezkeela, lehen esan bezala. Gainera, oroit dezagun Bordesen arabera (1899) XVIII. mendean Euskal Kantutegiak mailegu ugari jaso zituela. Eta dakigun bezala, Etxahun ere (“Adios...” eta “Izan nüzü...” bertso sailen egilea) ezagunak ziren “*timbrez*” baliatu zen horien gainean bere bertsoak idazteko (Haritschelhar, 1970).

Hirugarren hipotesizat, onartuko dugu Berdabioren bertso-doinuen aldaerak bi “iturburuenak” baino berriagoak direla, nahiz bertsoak berak zaharragoak izan. Izan ere, bi “iturburuak” neurri klasikoetan emanik daude eta Berdabioren bertsoak neurri handian daude. Dakigunaren arabera, 8+7 egituraren jatorria 10+8 baino zaharragoa da, eta azken hau, euskal originala (Haritschelhar, 1969).

Ondorioz, estrapolazio bat eginez, baliteke jatorrian erabili ziren (10+8)ko doinuak, (8+7)ko berberak izatea, hots, ordura arte neurri klasikoetarako erabiltzen zirenak. Hau da, baliteke neurkera literarioan silaba gehiago sartzetakoan, doinu berri bat asmatu beharrik izan gabe, lehenagoko bat erabili izatea. Erabaki sinpleena baita horixe, dudarik gabe<sup>14</sup>. Bestalde, jakin daki-gu –lehen ere esana baitugu– aurretiaz existitzen diren doinuen gainean inprobisatzea ez dela atzo goizeko ohitura.

Dena den, oraindik ez dugu azaldu (8+7) egituratik (10+8)rako zubia nola gertatu ahal izan den; baina pauso hau eman baino lehen, gain-begirada orokor bat emango diogu gai osoari.

## 5. PROSODIA ALDETIK ANTZEMAN DITUGUN ALDERDIAK

Hurrengo ataletan, bertso doinuotan hitzak eta erritmo musikala elkarrekiko nola egokitu diren azalduko dugu. Horretarako ondoren doazen alderdiak landuko ditugu:

a. “Parlando-rubato” estiloaren erabilera, “Aizak hi Trauko”, “Aizak Trabuko (Esk. bis)” eta “Goizuetan (Ol.)” aldaeretan ikusten dugu. Besterik gabe erritmo libre ere deitzen zaio. Aurrerago azalduko dugu zertan datzan.

<sup>14</sup> Antzerakoa gertatzen da Euskal Kantutegian zeharreko beste zenbait kasutan: “Uso zuria errazu” kanta (7+7) eta (8+8) neurrien inguruan ibili arren (Haritschelhar, 1969:396), gaur egun bertsolariak (10+8) neurriarekin erabiltzen duten doinua dugu (Dorronsoro, 1994,I:XV). Kopla Zaharretan ere, (8+8)-(10+8) bezain sarri erabiltzen da (10+8), inolako oztoporik gabe.

b. “Azentuari lotutako erritmo librekoa” izan litekeen kasu bat antzeman dugu: “Aizak hi Trauko”. Estilo hau, aurrekoaren kasu partikular bat dugu, eta azentuen egokitzapena du ezaugarri.

c. “Parlando-rubato” edo erritmo libreko estiloaren gehigarritasun kontzeptua ere jorratuko dugu.

d. Erritmo isometrikoaren baitan ere (aldaera gehienen kasua), prosodiarekiko egokitzapena nola gertatzen den azalduko dugu. Kasu gehienetan etenen bidezkoa dugu, zenbait kasu bakanagoetan parte sendoak azentuekin kointzidi araziz (iraupena luzatzea ere lagun), eta kasu urriagoetan azentua melodikoki adieraziz.

e. Metrika literarioaren eragina.

## 6. METRIKA LITERARIOAREN ERAGINA

Abiatu dugun haritik gehiegi ez aldentzearren, azken puntutik hasiko gara.

Iturburuak alderatu ditugunean, adierazi dugu zein den bi bien oinarriko zelula erritmikoa:



Ez alferrik, bi doinu hauek 3/4-ko konpasa dute oinarri (nahiz tarteka irregulartasunak ageri diren). Konpas hau, zelula erritmiko honentzako hezurdura paregabea gertatzen da.

Ohartuko garenez, egitura erritmiko hau metrika literarioari erantzuteko modu ezin sinpleagoa gertatzen da, izan ere horrelako 3 zelula errepikatuz, eta laugarrena “herren” utziz, 8+7 silabako egitura osatzera iristen gara (4+4/4+3):

LEHEN BERTSO-LERROA (1. MOTIBO MELODIKOA) 8 SILABA	BIGARREN BERTSO-LERROA (2. MOTIBO MELODIKOA) 7 SILABA
--	---

ZELULA ERRIT.


Egitura honek bertute ugari dituela esango nuke nik, kortxeen eta beltzen alternantzia erregularrak doinu narratibo eta baita lirikoentzako ere oinarri elegante bat eskaintzen baitu. Euskal kantutegian miatuko bagenu, segituan aurkituko genituzke doinu eder ugari sakoneko egitura honen pean sortuak. Besteak beste, “Ez dukezu, oh Maria”, “Nik baditut”, eta abar luzea. Bestalde, oso malgua da, geroago ikusiko dugunez.

Guk lan honetan adierazi nahi genukeena, zera da: orain artean, lan honetan agertu diren doinu guztiek jatorriz hezurdura hau dutela oinarrian, nahiz horren inguruan ahozkotasanak aldaerak sortu.

Orain gehien interesatzen zaiguna, metrika literarioa eta musikala bat ez datozenean gertatzen dena aztertzea da. Kasu nabarmenena hau dugu: neurri handiko bertso bat, adibidez “Goizuetan”, nola kantatu neurri klasikoa duen doinu batean, adibidez, “Izan nüzü Erroman”en doinuan? Ba egitura honen malgutasuna aprobeztatuz, beltz bat “bi kortxea” bihurtzen badugu (adibidez, nota bera errepikatuz, edota floreo bat sartuz), ez dugu zertan aldatu ez konpasa, ez linea melodikoa; eta ondorioz, hasieran ez du inork ezer sumatuko, ez da “tranpa” agerian erraz geratuko. Beraz, egitura hau:



beste honetan bihurtuko da zenbait kasutan:



Beste hainbat kasutan ere, honetan bihur liteke:



Hurrengo atalean banakako azterketa egingo dugu.

Kasu hauetan guztietan, (4+4/4+3) egitura<sup>15</sup>, (5+5/5+3) bihurtu da: hain zuzen ere, (10+8) eskema metrikoaren formarik zabalduena, Haritschelharri jarraiki (1969). Eta hau, modu leun batez, bertsoaren etena errespetatuz, hemistikio erdi bakoitzean silaba bat besterik erantsi gabe –eta ondorioz kor-  
txea bat–.

Genekenez, doinu jakin baten aukeraketak eragin zuzen eta sakona du kantua-  
ren metrika literarioaren gainean<sup>16</sup>. Orain, aldiz, aurkako kasua ikusi dugu: metrika literarioaren ondorioz nola egoki eta alda daitekeen doinu bat. Gure kasuan, bi doinuk, zeintzuak jatorriz (8+7)koak direla onartzen ari garen, (10+8) metrikara iristeko zenbait aldakuntza erritmiko jasan dituzte. Honenbestez erantzun dugu 4. kapituluan zintzilik utzi dugun galdera.

Oroit dezagun Haritschelharrek hipotesi moduan, aipatu liburuan, ikus-  
puntu soilik historiko/literario batetik abiatuta (10+8) neurriaren jatorria (8+7)aren eboluzio erritmikoa (“evolution rythmique”) izan litekeela aditzera ematen duela.

Beraz, hemen hau musikalki behintzat gauzatu ahal izan dela ikusi dugu. Aitzitik, zergatik (8+7)tik eman (10+8)rako jauzia, edo bestela esanda, nola gertatu da neurri berriaren “fosiltze” edo finkatzea? Hemistikio erdikako nota gehikuntza ikusirik, ez dirudi nahi gabeko prozesu bat izan denik, berariaz-  
koa, ongi pentsatutakoa baizik. Baina hau aztergai dagoenik ezin uka, berez-  
ko intuizio musikalaren indarra ere kontuan hartu beharko baita: agian, lehen fase batean honek bere pisua izango zukeen, eta ondoren ongi pentsatutako sistematizazio bat gauzatu.

## 7. BERTSO-DOINUON EGITURA ERRITMIKOA

Horago aipatua utzi dugu bi iturburuen oinarritzko zelula erritmikoa



dela.

<sup>15</sup> Horago ikusi dugu “Izan nüzü...” eta “Adios Galharraga...”ren metrika (8+7)tik oso hurbil dagoela.

<sup>16</sup> Haritschelharrek dioenez (1969), euskal bertso-  
gintzan musikak ezartzen du bertso-  
aren metrika. Halaber, doinu beraren ezaugarri aldaketak ahapaldien metrika aldatzeko gai direla erakusten digu.

Barne egitura hau, Berdabioren bertso-doinu guztietan aurki dezakegu. Segidan aurkeztuko ditugu banaka-banaka.

Baina arestian ikusi dugunez, nota berria eransteke bi modu aurkitzen ditugu.

Aurretik:



Eta ondoren:



Bigarren honetan, azken korixea aurrera pasaz, anakrusa dugu:



Azter ditzagun banaka. Batetik, ondoren eransten dutenak ditugu:

– “Bardabioko”, “Nere andriak (Lek.)”, “Aizak Trabuko (Per.)” eta “Aizak Trabuko (Esk.)”

Honen arabera, eta errepikatuz, sakoneko egitura hau izango dugu:



Baina beste pausu bat ere badago: doinuak arnasa har dezan, kantariak konpas bakoitzeko lehen bi kortxeen artean eten bat sortzen du, bertsoak berak hala eskatzen baitio (bertsoaren *etena*), eta konpasa 4/4koa bihurtzen da zenbait zatitan:



Eta horrela sortzen dira Aita Donostiak eta J. M. Lekuonak, hurrenez hurren, transkribaturiko aldakiak.

- • “Aizak Trabuko (Per.)”

Kasu berezi xamar bat dugu hau, izan ere, 5/8 punttudun erritmo musi-

kalean kantatua baitago (arruntki zortziko deitzen duguna); baina sakonean egitura berbera du.

- • “Aizak Trabuko (Esk. eta Esk. bis)”

Denetan erregularrena Jexux Eskuderoren lehen aldaera dugu. Erritmo ia erabat isometrikoan emana dago. Etenak gertatzeko bertso-lerroaren bukaera arte (hemistikio osoa) itxoitzen du, hau da, 10 eta 8 silabako multzoen ondoren:



Eten urritasun hau da erritmikoki hainbesteko erregularatasuna ematen diona, eta nolabaiteko osotasun tankera bertso-lerro oso bakoitzari.

Jexux Eskuderoren bigarren bertsoan berriz, honen aldaera bat ikusi dugu: hizketara hurbilagotzen den modu batean kantatu baitzuen<sup>17</sup>. Gero ikusiko dugunez, erritmo libre edo “parlando-rubato” deritzonera hurbiltzen da.

Nota berria aurretik erasten duten aldaerak hauek ditugu:

- “Goizuetan (Azk.)”, “Nere andriak (Liz.)”, “Nere andriak (Ip.)”

Kasu hau sinpleagoa da. Nota berria konpasaren lehen partean dagoenez, ez da 5 silabatik 5 silabarako etena desagertzen.

- “Goizuetan (Ol.)”

Aldaera interesgarri hau ere isometriatik aldentzen da, eta erritmo librera hurbiltzen. Dena den, sakoneko egitura nota berria aurretik erasten duen modukoa du.

- “Aizak hi Trauko”

Sakoneko egitura nota berria aurretik erasten duen modukoa du honek ere. Baina kantatzeko moduari erreparatuz, geroago justifikatuko dugun “azentuari lotutako erritmo libre” batean kantatua dagoela pentsa genezake, nahiz hau hobeto aztertu beharreko gauza izan.

<sup>17</sup> Hizketara hurbiltzean, lehenagoko doinu berari iraupenak laburtu zizkion, eta ondorioz erritmo irregular bihurtu zuen lehen isometriko zena. 3/8+2/8 konpas batera hurbildu zen... erabat itsatsi gabe. Honen oso antzeko kasu bat dute aipagai J. I. Ansorenak eta J. L. Ansorenak (ikus Ansorena, J. I., 2003:14), “Urtsuak eder leyo” kanta dela eta.



Bestalde, eta honen guztiaren osagarri, doinuon “amaiera erritmoa” deitzen denaren laburpen moduan, esan dezadan amaiera ahula dela nagusi, Azkueren arabera (1968: 44) oso urritan gertatzen dena (berak emea ere deitzen zuena); zenbait kasutan idazkera musikalaren arabera sendoa badirudi ere, pertzepzioak ahul moduan sumatzen ditu (nireak behintzat, bai). Kasu batzutan hitzen azentuerekin bat dator (Trabuko, faltako, damuko) eta beste zenbaitetan ez (dotia, pesalunbria).

## 8. ERRITMO LIBREA

Arestian aipatu dugu erritmo libre edo “parlando-rubato” deiturikoa<sup>18</sup>. Hitzen jarioari estuki lotua doan kanta moldea dugu hauxe. Aipatu dugunez, Jexuxek (bigarren aldaeran), Jose Inaziok eta Laxarok, kantuotan erritmo mota honen arabera kantatzen dute nire iritziz.

Baina zer berezitasun du erritmo mota honek? Ikus dezagun lehenbizi zer gertatzen den erritmo isometrikotan –lotuan, ez librean- kantatzen dugunean: honek berekin pulstu edota konpas iraunkorra dakarrela, hain zuzen. Honen ondoriozko periodikotasunak, efektu psikologiko bat sortzen du gugan, eta honen ondorioz konpas bakoitzeko lehen nota besteak baino ozentasun edota intentsitate handiagoz sumatzen dugu, oharkabean.

Jakina, erritmo isometrikoko musikaren bidez (erritmo ez librea, “lotua” baizik) prosodia adieraz liteke. Kontua da, aise uler daitekeenez, erritmo mota honetan adieraz litekeen prosodia, erregularra dela oso, molde jakin baten arabera<sup>19</sup>.

Baina hemen dator pauso inportantea: zer gertatzen da hezurdura erritmikoaren periodikotasuna hausten badugu? Hau da, testua hizketaren arabera “esan”, kantatu, nahi izatearen ondorioz, periodikotasun erritmikoa hausten badugu? Bada musikaren beste bi parametrok hartzen dutela garrantzia: ozentasunak ez baizik eta altuera melodikoak eta iraupenak.

Hau hobeto ulertzeko, ikus dezagun Honegger hiztegiak musika prosodiari buruz (1976:838-9) dioena:

---

<sup>18</sup> Ohar bezala aipa dezagun “parlando-rubato” eta erritmo libre kontzeptuak sinonimotzat dituztela autore ezberdinek.

<sup>19</sup> Dena den, dakigunez, euskal bertsozintzan ez dugu honen arabera egituratutako eredu askorik aurkitzen (puntu honetan, Haritschelhar eta Mitxelenarekin bat gatoz, jakina), baina izan badira, aurrerago azalduko dugun bezala (ikus “9. Ozentasunetzko azentu egokitzapena”).

« Prosodie: [...] art de faire coïncider, dans la mus. vocale, les accents du texte et ceux de la musique. [...] Cette mise en relief peut se faire au moyen de la hauteur mélodique, de l'intensité, de la durée ou de combinaisons [...] »  
(neronek azpimarratua).

Hala, erritmo erregularrak dakarren periodikotasunik gabe, ozentasunak garrantzia galtzen du. Hots, testua “esateko” bi arma berri azaleratzen zaizkigu: altuera melodikoa eta iraupena; hauekin jokatuz eta jolastuz, beti ere muga batzuen barruan -argi dago-, hitzen jarioa nolabait imitatzea lortzen da. Eta elearen araberrako erritmo libre batean murgiltzen gara. Beste hitzetan esateko, Béla Bartókek definitu zuen “parlando-rubato” moldera hurbiltzen gara<sup>20</sup>. “Encyclopaedia Britannica”n (folk music, 2007) dioenez:

“In his studies of east European folk music, the Hungarian composer and ethnomusicologist Béla Bartók identified two primary singing styles in European folk music, which he named *parlando-rubato* and *tempo giusto*. Parlando-rubato, stressing the words<sup>21</sup>, departs frequently from strict metric and rhythmic patterns and is often highly ornamented, while *tempo giusto* follows metric patterns and maintains an even tempo. Both singing styles can be heard in many parts of Europe and in European-derived folk music.”  
(neronek azpimarratua).

Alan Lomaxek (1968:50) estilo ezberdinak sailkatzeko erabiltzen duen irizpideak gehiago zehazten du kantu/hizketa erlazioa:

“Rpa *Parlando rubato*. “Free rhythm” in which no regularly recurring beat can be distinguished. Rpa is often close to speech in general effect; accents and rhythmic patterns are grouped in meaningful ways, but without reference to a regular division of time into steady beats”.  
(neronek azpimarratua).

Jakina, kontzeptu hau ez da bere zentzu hertsian hartu behar. Neurkera erregular zorrotzaren eta rubatoaren artean trantsiziozko ezin konta ahala erdibideko estilo daude herri musikan, Frigyesiren arabera (1982) B. Rajeczky eta Béla Bartóken lanek erakusten duten moduan.

Bai Eskudero, bai Iparragirre, bai Olaziregi, kantatzean, hizketaren erritmoa, erritmo prosodikora hurbiltzen direlakoan nago: beren aldaerak into-

<sup>20</sup> Musika akademikoan ere bada “parlando” edota parlante” deituriko kontzeptua. Bai Harvard eta bai Honegger hiztegietan, hiru ezaugarriok ematen dira: kantua hizketara hurbildu beharra, estilo erabat silabikoaren araberrakoa, eta tempo azkarrekoa. Gure kasuak ez daude definizio hauetatik batere urruti.

<sup>21</sup> Hitzak azpimarratuz.

naziorik gabe esan besterik ez dago honetaz jabetzeko<sup>22</sup>. Baina aldi berean, hirurak gai dira erritmo erregularagoetan kantatzeko: neronek konprobatua baitut. Ongi erreparatuz, beren erritmo librea ere ez dut uste erabat librea denik: trantsizioko estilo batean kokatuko nuke nik.

Bestalde, erritmo libre mota hau, zeinak hitza lehenesten baitu, Euskal Kantutegian ohikoa dela esango nuke nik: zenbat eta eskolatu gabeagoko jendea izan, orduan eta gehiago (“lehen, musikarik gabe botatako bertsok ziran” –Jexux Eskuderoren hitzetan–). Nik uste, neurri handi batean doinua hitzen aldean bigarren mailako (euskarri huts) izatearen ondorioz gertatzen dena. Eta etxeko/lagunarteko bertsozaleetan gehiago ematen dena plazako bertsolarietan baino.

Horra osabak “*Tesoros legendarios*” hartan<sup>26</sup> esandakoak, nola pasa diren ilobaren ahotara, gero Oiartzungo kantaera herritar berria omen (?) denekoa sendotzera etor daitezzen, diximulo ederrean:

*Berdabio, el habitante del caserío fue falsificador de moneda. (...) hubo de ser aprehendido y juzgado por los Tribunales de Pamplona, donde sufrió cárcel mucho tiempo, la leyenda dice que un año exacto, durante el cual, por cierto, compuso un poema en vasco, en tantas estrofas como días tiene el año.*

Eta, esan bezala, *kontu politegi* honen iturri bakarra, *Ana Juanixe* eta *Apez beltza* izeneko baladetan ageri den testuingurua<sup>21</sup> besterik ez zen:

*Urthiak zonbat egun tu  
Hemezortzitan hogoi tu  
Borthegarai gazteño horrek  
hainbertze pertsu eman tu.*

Eta begira nola disimulatzen dituen gero, Juan Marik, begien bistako iturri horiek<sup>27</sup>:

*Berdabioren eta Bortegarairen inguruko berrietan, bada beste osagai bat:  
bai batak eta bai besteak, urteak egun hainbat bertso ipini zituela.*

Urte beteko biziaren eta urkaberatzearen kontu ilun hori baitzuten Lekuonatarrek, Azkuek eta Donostiak inon aipatzen ez zuten berrikuntza hunkigarri moduan nabarmendu nahi zutena. Behin eta berriz, lelo berbera nabarmendu izan baitu Juan Marik ere, alditik aldira kontua nabarmen apainduz, eta atzenerako kasik inork ere ez sinesteraino gizenduz<sup>28</sup>:

*Dena den, hiltzeko sententzia eman zioten. Hiltzera epaitu zutenean, Berdabiok urte beteko bizia eskatu omen zuen; bere bizitza kontatuz, egunean bertso bat egingo zuela. Eta hala eman omen zioten: urte beteko bizia. Urte honetan zehar egindako bertsoak omen dira hauek.*

*Beraz, 365 bertso<sup>29</sup> edo behar zuten izan. Eta bertso penagarriak omen ziren. Inork ere ez zituen bertso horiek buruz ikasi, ijito batek ezik.*

<sup>26</sup> Idazlan Guztiak 5, 183. orria.

<sup>27</sup> Ikus *Oiartzun* urtekaria 1986, 17. orria.

<sup>28</sup> Ikus *Oiartzun* urtekaria 1981, 19. orria. Horrez gainera, berriz ere, orri bereko AZKENA sailean, hauxe esaten baitu: “...batez ere, azpimarratu beharra dago, sail oso berezi eta jakingarri batean duela bere lekua (Berdabiok) : hiltzeko sententzia hartu ondoren, beren sentipenen berri bertsoz eman digutenen sailean”.

<sup>29</sup> Hori 1981an esandakoa du, berez *tropoa* dena testualki hartuz.

Baina, 1986an zuzenduxe zuen: “asko zirela bertsoak” esanez.

*Eta ijito hau Berdabioren bertsoak tabernan kantatzen ari zela, penaz lebertuta bil omen zen.*

Nork ez sumatu, ordea, haize ufada haundisko horiek? Etxerik sendoena ere dardarituko lukete eta!... Horra hor, osabaren operazio estetikoak, ederki ikasi eta apainagotuak, ilobaren ahotan.

Hala eta guzi, ilobaren ‘*etxeko patente berria*’ merkaturatzen hasteko lehen pausoa besterik ez zen izanen hori. Oraindik politagoa baita bigarren pausoa.

## ETXEKO PATENTEA NOLA HERRITARTU

Honela hasten du Juan Marik, bere lehenbiziko<sup>30</sup> idazlan argitaratua, “Berdabioren Bertsoak” izenburua ipiniz:

*(...) Istorioak alde batera utziz, aurten Berdabioren bertsoak hartu ditut gai. Kanta horien egilea nor zen aztarrenak badira; eta berri jakingarria da hau bertsozaleentzat. Bestalde, berri hori dela-eta, une egokia da hauxe bertso sorta osoa biltzeko, hango eta hemengo iturriez baliatuz.*

*(...) Orain dela ilabete batzuk, Goizuetako bikarioak, Don Bizente Hernandorenak, oharkizun txiki bat bidali zidan eskuz esku, Berdabio nor zitekeen eta noizkoa zitekeen adieraziz. Ez daukat hemen xehetasun gehiegi ematerik, Hernandorena jaunak hasi duen azterketa buka dezan arte. Hala ere, gure gaurko eginbiderako, bi argibide emango ditut: bata, Migel Antonio Zugarramurdi zela bertso horien egilea; eta bestea, hemeretzigarren gizaldikoa zela, 1810eko urtarrilaren 19an jaioa.(...)*

*Beraz, zenbait berri ematera noakizue, eta Berdabioren bertso-sorta osoago bat eskeintzera. (...) Kantutegi ezagunetan eman diren bertsoak ez dira gure inguru-girokoak izan. (...) Guk Oiartzunen bi bertσιο baditugu oraingoz.*

Helburua, oroit, «guk darabilzkigun asmoetarako» helburua, begien bistakoa da hor, hasiera hasieratik: “*une egokia da hauxe bertso sorta osoa biltzeko. Berdabioren bertso-sorta osoago bat eskeintzera noakizue. Lehengo bertsoak ez dira gure inguru-girokoak izan. Guk Oiartzunen bi bertσιο baditugu*”. Intentzio nabaria darie esaldi horiei: beste kantaerak, Azkuerenak eta

<sup>30</sup> Idem.

Donostiarenak, urrutikoak dira, guk baditugu bi kantaera osoagoak Oartzunen bertakoak. Eta oraintxe da une egokia...

Zergatik, ordea, *une egokia*? Beste deusen lokarrik gabe, Migel Antonio Zugarramurdi 1810ean Elaman jaioa zela badakigulako? Ez geunden askoren beharrean, alajainkoa, “etxeko patente berria” plazaratzeko, ez geundenez askoren beharrean! Don Bixentek berak esana baitakit, pasarte horren berri jakitean:

*Gizon honek sartu dit ederra! Nondik atera behar dut nik orain, Miel Antonio hura dela kantako ‘Berdabio’, ni neroni Trabuko zelakoan galduta nenbilen eta?...*

Kontua da, bi kantaera ustez osatuago horietan, OKILEGIKOA eta SAROBE-ERREKAKOA deiturikoetan, ez dela inon ageri lehendik R. M. Azkuek eta Aita Donostiak jasotakoaz aparteko ekarpen berririk, eta are gutxiago herri usuario bizirik jasotakorik. Hori bai: lehenaz gain, molde gaiztoko beste bertso batek jo du, berrizkoan ere, nere belarriko giharrik minberena<sup>31</sup>:

*Martin Joxepe Aranaztarra  
zegoen gizon prestua.  
Diximuluan botatzen zuen  
aldiyan bere puntua,  
aber lenago ote nekien  
moldetariyan kontua.*

Begira, begira erne, oraindik *moldeko* usain bero beroa darion txanpon arrotz horri. Horretan ere, bistan da, leienda hornitu beharrak sortu duela bertsoa. Oraingoan, Azkueren eta Donostiaren kontaerek ez bezala, *diru faltsu kontua* zen, nolabait bertsoan sartu behartakoa. Eta horratx, sartu ere, zeinen poliki sartu den, atzeko atetik, ixil mixilka!...

Andoni Lekuonak bere gutunean esaten didan honi erreparatzea aski: “*Puntu aipagarriak: 1) monetaren berririk ez dutela ematen bertsoek, Sarobe Errekakoek izan ezik, beraz ahozko informazioa dela Azkuek dioena*”. Beraz, Lekuonatarrena ez ote da ahozkoa? Klaro, klaro!... baina nork ipini du bertso honetan, Azkuek hizketa laxoan emandako *ahozko informazio* hura? Eta zergatik?...

Eta «*moldetariya*» delako hitz giltzarri hori, nork ezagutzen ote zuen Sarobe-Errekako bertsozale oartzuar agrafu bixi haien artean? Nere ustez, hitz «arrotz» hori, gai honek liluratua zeukanen batek bestek ezin baitzezakeen «moldetu»; eta sortzaile horrek, inondik ere, lojika filologiko puxka duena

<sup>31</sup> Idem.

behar du izan, eta ez harritu batere, sotana erantzi bezain pronto korbata jan-tzi zuen poeta euskaltzainen bat izatea ere.

Esandako guziaz gainera, Berdabiok kartzelan zegoen egoeran egonik, eta beste erremediorik gabe defenditzen zuena defenditzen zuelarik<sup>32</sup>: *“que en lo que se les imputa no tienen culpa alguna”*, bere bertsoetan jainkoagatik ere aipatuko ez zukeen kontua, hain juxtu, *“moldetariyan kontu”* horixe bai-tzen. Ahoz jasotako kontu guziek ere, horixe errepikatzen baitute: *“sekulan ez zuela aitortu izandu diru faltsua egiten zuenik”*. Non jesusetik azaldu da, orduan, *“moldetariyan kontu”* hori, horren apain bertsoatarua?...

Eta nondik atera ote da, *“Martin Joxepe aranaztar”* hori? Goizuetako bikario zenak, Don Bixente Hernandorenak, gai honen aztarren bila hasi zenean, Juan Mari Lekuonari utzitako jaiotz agirian<sup>33</sup> azaltzen da *“Martin Jose”* izena, behin eta berriz. Begira, begira nola:

*(...) hijo legitimo de Martín José de Zugarramurdi, natural de la de Sumbilla, y María Ignacia Juana de Esnao, su muger, natural de Oyarzun, residentes en Elama, muchos años ha, siendo padrinos Martín José de Echeverría, natural de ésta, y María Josefa de Michelena, natural de Oyarzun, los que le dieron por nombre Miguel Antonio. (...)*

Hori ote da, gero paper ofizialetan azalduko zelakoan, bertso berria apaintzera etorri den *«Martin Joxepe»* xarmagarria? Ni baiezkotan nago, etsi etsian: hori izan zela poeta finaren azken argialdia, jende on sinesberak, duda izpirik ere egin gabe, bertsoa herriaren ahotik jasotakotzat irents zezan.

Eta bosgarren misterio honekin bukatzeko, beste galde ttiki bat datorkit burura: bere bakar arrotzean oraindik dirdir egiten duen bertso eder hau, zergatik ez ote zuen sartu Juan Mari Lekuonak 1967an egindako Usandizaga disketxeko grabazio eder hartan? Esatea nahi nik? Oraindik *patentatu gabea* omen zeukalakotz.

Baina, bertso oso nabarmen honetaz gainera, Sarobe Errekako kantaera horretan, nabari nabariak dira, beste zenbait pasartetan, ixilpeko esku xuri horrek utzi dituen arrastoak. Nondik atera da, esate bateko, *“Goizutan bada gizon gaixto bat”* hori?. Hori ere Goizuetako motiko gaizto honek, esan behar al du? Ai, hau pena eta pesalonbrea, nerea! Begira zer dioen<sup>34</sup> R.M.Azkuek:

<sup>32</sup> Nafarroako Artxibo Handia, *Sententziak*, erref. zkia.: 165313

Erdal erref. zaharra: n° 474, esno. *Cildoz, faxo 2, oxas 11*

<sup>33</sup> Miguel Antonio Zugarramurdi Esnaoren jaiotz agiria, 1810-I- 20.

<sup>34</sup> *Cancionero Popular Vasco* I, 510. orria. Euskaltzaindia, 1999.

*En el Cancionero Selecto, pag. 3, se puso “Goizuetan da gizon zakar bat” en vez de “Goizutan bada gizon bat”, que es verso corto. También se corrigieron biotza paltso por biotza gaizto (...).*

Bai horixe! Bere xuriketa lan isilean aritu dena, erne ibili da horretan ere. Eta, bidenabar esan, horra non ikasi zituen On Manuelek bere martingala tikiak, (*“También se corrigieron biotza paltso por biotza gaizto, y sekula por bein ere, como también dilijentziak por asimasiak”*), gero bere kantaera oiar-tzuarra sortzeko. Zenbat holako apezlan xuri ote da gure kanta xaharretan! Jainkoak ba al daki Juan Mari?...

Baina, nik adierazi nahi dizudan guzia oraindik hobeki ikusi nahi baduzu, begira erne Andoni Lekuonak 1997ko martxoaren lehenean Hendaiaitik idatzi zidan gutun hagitz interesgarri honek dioenari:

*Guk erabiltzen ditugun bertsioak, Juan Marik “Oiartzun” urtekarian argitara zituen. Familian (amarengandik) ikasi eta buruz dakiguna, Juan Marik “Sarobe Errekakoa” bezala bataiatu zuena da. Bestea, osaba Martinek (Lekuona) Okilegin Benito Alduntzin Bordakoari jasotakoa da. Aita Donostiarena eta Azkuenera ezagutzen dituzula pentsatzen dut? Zein da jatorrena? Zein da osoena? Zeinek eta nola erabaki?*

Hori da kezka gizonarena, hori! *Zein da jatorrena? Zein da osoena? Zeinek eta nola erabaki?* Ba al zuen ba inork, erabaki beharrik? Edo osoena eta jatorrena zein den erakutsi beharrik? Bai, badirudi baietz, badela norbait, isilpeko bide luzean, nola edo hala, hori erakutsi nahian ibili denik. Bai, hori zela dirudi lan honen sarreran aipatu dizudan *lapsus ttikia* edo «azpiasma». Baina, ongi argitzeko asko falta du oraindik.

## SAROB EREKAKO DOINU ILUNA

Horra beste miraria! Azkuek jasotako kantaerak 1966an Mikel Laboak hauspetik atera zituen arte, ez da inon nabari beste kontrapunturik, ez Oiartzunen ez Goizuetan, ez bestetan, eta hain juxtu ondore hartantxe, 1967an, jasoko zuen Usandizaga disketxeak Oiartzungo doinu berria. Zergatik, ordea, juxtu orduantxe? Begien bistan dago zergatik: kantak gertalekuz bertanekoa zuen bertsioak, On Manuelek eta ilobek Oiartzunen jasotakoak, alegia, Mikel Laboak plazaratu berri zuen Azkueren bertsioari gain hartzeko grina biziagatik. Eta Lekuonatarren orduko eraginaz irudipen bat egiteko, honatx Joxemari Iriondoren hitzak<sup>35</sup>:

<sup>35</sup> *Basarri I, Bat-batean*, Auspoa 296, 2006 urtea, 294. orrian.



*1967ko apirilaren 23an, don Manuel Lekuonaren omenezko bertso-jaialdia antolatu zuten Oiartzunen, meza eman zueneko berrogeita hamargarren urteurrena zela-eta. Egun hartako meza nagusia Don Manuelen hiru ilobek eman zuten: Juan Mari, Andoni eta Julen Lekuonak, alegia. Sermoia, berriz, aita Gaztelumendi jesulagun oiartzuarrak, sutsu, hala ere (...). Basarrik obizko hitzaldi errimatua egin zuen bazkalodoan, Lekuona zaharraren gorantz.*

Ederki. Baina nondik atera zuen Juan Marik doinu triste hura? Amaren aldeko usariotik? Baliteke, baliteke... Agustín Mendizabalek<sup>36</sup> egina dizu bere azterketa, liburu honetan bertan zuzendu eta hornitu dizuna, baina, oraingotan ere lekuonatarren ukituak ukatze aldera jo dizu. Ikus nola bukatzen duen Juan Marik, bere aurreneko artikulua<sup>37</sup>:

*gai honek beste zenbait alderdi interesgarri ere baditu: literatur alderdia, musika alderdia, eta antzeko bertso-saioekin egin daitekeen konparaketa. (...).*

Eta jakina, Berdabiorena multzo horretan sartzeko, hain juxtu ere, multzo horretatik bertatik hartutako *literatur ukituak* han hemenka emanez Oiartzungo bertsoak diximulo ederrean beren *zirujia estetikoa* eginda zetozenez, hurrengo azterlanetan, alde zuzenetik prestatu bezain *apain* gertatuko ziren kontuak: *literatur alderdia, musika alderdia...*

Hona beste arrasto batzuk, berriz ere, Andoni Lekuonaren gutunetik hartuak: “*Ez ahaztu, nola nahi ere, musikaz hitzegiterakoan, Iparraldeko kutsua aitatu dugula*”. Eta ez ahaztu, Andoni Lekuona ere, 1963az geroztik soziologia ikasi bidenabar, Bidasoaz harantz honunza zerbait ibilia dela letrak eta musikak etxekotze lanetan. Ikus honetaz, batez ere, “*Euskal Kantagintzan urrats berri*” izeneko lanean<sup>38</sup> ematen dituen argitasunak, eskeintza beretik hasita: “*Etxeko guztiei: Aita, Ama, Arreba, Anaiak, Emaztea...ukituak sartzen lagundu didatelako*”. Berdabioren bertso hauetan ere, *ukitu* guziak etxeko usariokoak direla dirudi.

Erne, aipatu gutuneko musika klase honi. Berriz ere, beste guziak akastuak dira, edo urrutikoak, edo arraroak:

*Aita Donostiak jasotakoa asko bereixten da beste bietatik, batez ere modu aldetik (mayor) eta baitare ritmo aldetik. Nahiko harrigarria egiten zait tragedi bat kantatzeko era hau. Azkuek jasotakoa Laboagandik ikasi genduen, eta Sarobe Errekakoa kantatzen genduenentzat nahiko arraroa gertatu zitzaigun. Gureak, berriz,*

<sup>36</sup> Ikus OIARTZUN urtekaria 1991, 62-64 orriak

<sup>37</sup> Ikus OIARTZUN urtekaria 1981, 19. orria.

<sup>38</sup> EGAN 1998-1/2ko gehigarria, 121-167 orriak.

*osotasun bat eskaintzen du ritmo eta modu-kontuan hasi eta buka, eta sentimentu haundiko kantua da.*

Aditzen, Andoniren hitzen azpiko musika sikologiko hori? Bai, besteak ez bezalako “osotasuna” erakutsi nahi hori, “crescendo” baten gisara heldu zaigu azkenean belarri zuloetara, eta hortxe jo digu galdurra oharkabean Andonik. Berak eman baitio erantzuna, gutunaren hasieran egin duen galderari: “*Zein da jatorrena? Zein da osoena? Zeinek eta nola erabaki?*”. Horra ederki erabakia, goiko pasarte horren akaberan: “*Gureak, berriz, osotasun bat eskaintzen du, eta sentimentu haundiko kantua da*”. Osaba Manuelek behiala etxealde hasi zuen ixilpeko xuriketa lanak, diximulu ederrean, goiak joxe dituela dirudi.

Juan Marik, hala dio kanta honetaz behin eta berriz<sup>39</sup>: “*bertan erabilia, bertan gordea, bai testua eta bai doinua*”. Zergatik, berriz ere, gauzak horrenbeste “*bertakotu*” behar susmagarri hori? Oiartzungo Kantutegi guzian ba ote du beste kantarik, horren serio eta zorrotz, behin eta berriz “*bertakotu*” nahi duenik? Ezetz esanen nuke nik. Ez baitiot beste inon nabaritu insistentzia horrenik: “*bertan erabilia, bertan gordea, bai testua eta bai doinua*”. Hori da hori, egia erakutsi nahia. Eta nerea ironia hutsa dela uste baduzu, emaiozu ikusaldi bat *Oiartzungo Kantutegi* osoari.

Beste alderdi nabariki susmagarria ere badu “*bertakotu*” behar honek. Gogora dezagun lehentxeago Andoni Lekuonak bere gutunean Oiartzungo bi bertsioez zioena:

*Familian (amarengandik) ikasi eta buruz dakiguna, Juan Marik “Sarobe Errekakoa” bezala bataiatu zuena da. Bestea, osaba Martinek (Lekuona) Okillegin Benito Alduntzin Bordakoari jasotakoa.*

Lehen esanaz gain, zer da *bataio kontu* xeblere hori? Zergatik bi lekuizen, *Okillegi* eta *Sarobe Erreka*, bi kantaera horiek bataiatzeko? Aski ote dira ba, bi toponimo eder, kantaera horien iturri iluna argitzeko? Ez al dira ba kantuak eta kontuak, batez ere, norbaiten ahotik noizbait jasoak izaten? Orduan?... Egia da On Manuelek aipatzen duela Benito hori, behin baino gehiagotan ere<sup>40</sup>, Berdabioren bertsoak ba omen zekizkiela esanez:

*Me decía hace poco cierta persona. Yo conozco uno muy bueno: Benito, el bordari de Alduntzinborda (...) cantando versos (...) del monedero falso de Berdabio.*

Baina gero bertso horienik jaso zionik ez du inon aitortzen, ez On Manuel berak, ez beste inork, nola Oiartzun hala Goizueta aldean.

<sup>39</sup> *Oiartzungo Kantutegia*, 1999, 249. orria.

<sup>40</sup> *Ikus Idazlan Guztiak I*, 214, 294, 579. orriak.

## ESPA GORDE GUZIEN AZKEN TXIRIKORDA

Berenez, R. M. Azkue eta Aita Donostia, herriaren ahotik jasotako aleunka kanta, xalo eta bixi gordetzen besterik ez dira saiatu, beren eskusartze, hutselite, eta guzi. Ez dute ordea, halako esparik nabari. Eta itsuak ere ikus lezake, On Manuel Lekuonak ez bezalako diziplina eta jakinduria erakutsi dutela kanta kontuotan. Horrez gainera, edo hobeki esan, bi maisuekiko espa eta gutiuste horrexegatik beragatik, lekuonatarren ixilpeko xurilan honi, bestelako krabelin usaina dario: “*Guk erabiltzen ditugun bertsioak... Etxean kantatzen dugun bertsioak... Familian ikasi eta buruz dakiguna... Gureak, berriz, osotasun bat eskeintzen du*”. Gaintxuriketa fineko maisulan honetan, dena “etxekoa” da, dena “gurea” da.

Honatx operazio kirurjiko sofistikatu honen laburpen kronologikoa, alde aldera: 1931 baino lehen: Azkuen bertsioan egindako *dermozirujia* axalekoari xaldi aztaltxuriaren *injerto* sakona egin; 1967an: osabaren *operazioak* lagun, doinu *hunkigarria* merkatura atera, zer gerta ere; 1981-1986an: merkaturako espak zientzia literarioz xuritutuz, Oiartzungo bi kantaera berriren *estetika* asmatua polikiro plazaratu; 1990an Berdabio poema mimo eta drama haundiz ikono bihurtu; 1996an: hogeitamar urte oharkabean pasatako ‘*doinu hunkigarria*’ berriro nabarmendu eta apaindu; eta azkenik ahalegin guziak bateratuz 1998an: hainbeste kostatako xedea haundikiro ospatuz, Oiartzungo Kantu Zaharrak diskoan grabatu etxeko ‘*patente*’ findu hunkigarria; berriz atzera 1999an, Oiartzungo Kantutegian, poz ikaragarritz “*bertan erabilia, bertan jaso, bai testua eta bai doinua*” ironia urrezkotan seilatzeko.

Itsua ez denak, ikus lezake *operazio kirurjiko* luze eta konplikatu hori, obsesio zahar baten moduan nola joan den mila aldetatik gorpuzten. Eta hagitx ongi ulertzeko da guzia. Lekuonatarrek hurbiletik ukitzen baitzituen gai honek, eta Azkuek eta Aita Donostiak ez bezalako urrezko ukitua eman beharra zeukaten, ofiziozko espa<sup>41</sup> eta ohore gose hutsagatik besterik ez bazen ere; baina, funtsean, haiek herri xaloagandik bildutakoa, gai honekin deus ikustekorik ez duten asmazio apainekin nahastu besterik ez dute egin.

Eta ez pentsa asmazioak bukatu zirenik, ez. Eskola misteriotsu horrek aurrera segitzen baitu gero eta asmazio apainagoz kontuak areago itsusten. Begira bestela, orain berriro atera den pitxi honi<sup>42</sup>:

*Hainbaten iritxiz, Berdabioren istorioak antzekotasun haundia du  
“mila eta bat gau” liburuko historiarekin; izan ere, liburu horretan,*

<sup>41</sup> Auzoan bertako pitxia, berek ez eta bestek jaso izanagatik, alegia.

<sup>42</sup> Xavier Susperregi, *Oiartzun haraneko kondairak*, 106-8. orriak, 2006.

Edo eta haien kopia diren Goizuetako *Xapo* 6. zenbakian, 18-19. orriak.

*protagonista den Scherezadak egiten duen bezalaxe Berdabiok ere egunero bertso bat idazten baitu bizitza luzatu nahian.*

Horixe bakarra falta genuen orain: lehen Bortegarairen *tropo* hura gaizki interpretatu eta Berdabiori aplikatzea aski ez, “*mila eta bat gau*” ezagun haiekin nahaste kontua! Hori da hori, grina, etxeko patentea unibertsaltzeko!

## EPILOGO MODUAN, KEZKAREN MUGA BERORA ITZULIZ

Egia esateko, Pierre Lafittek apainduriko *sasibalada* batzuek Xabier Kaltzakortak egindako azterlana<sup>43</sup> leitu nuenerako, isilpean zebilen *autopsia* hau, eta seguru naiz, satorbidez Kaltzakortan eskura ere iritxi zela; geroztik argitara zuen artikuluan<sup>44</sup> ageri den “gertaleku” hitza eta beste deitaile asko baititut horren lekuko. Eta badakit, noski, honelako gehiago ere egonen dela gordean. Nik behintzat badut esperantza, Lafitte edo Lekuona, ardi galdu gisan, bakarka geldituko ez direna. Gauza jakina baita apaizak, nonahiko eta nolannahiko ere diren, gorputz bakarra osatzen dutela. Eta euskal literaturaren sotanapeko martingalok ezagutzeko, gorputz hori ikertu beharko dute ongi gure ondorekoek, arimaz arima bakoitzari bere autopsia eginez.

Kontuz ordea. Ez gaitezen hasi orain, gaitz muttur honengatik, apezon arima osoa usteldu nahian. Ergelen batek hala usteko baitu. Baina ez. Ez dut deus Lekuonatarren kontra; alderantziz baizik: behin ere kitatuko ez dizkiedan poz eta zor haundiak. Baina, mesede guziak mesede, bihotzak sumatzen dituen argiprintzok urratzeko askatasunik gabe, zer litzake gizona? Eta zer egia, eta norena? ...

---

<sup>43</sup> *Idatz eta Mintz* 42, 23-38. orriak.

<sup>44</sup> Antonio Zavalaren Oheretan, *Herri literaturaz gogoeta*, 127-158. orriak.

## 253.- BARDABIOKO SEMIA NAIZ

Arantza-Aranaz  
( Bortziriak - N )

Bar-da-bi-o ko se-mi-a  
naiz ta se-me for-tu-na ga-bi-  
-a. A-ra-naz ti-kan e-ka-rri  
nu-en do-ti-a re-kin an-dri-  
-a. O-be zu ki-an i-ku-si ez-  
-pa-lu Bar-da-bi-o ko a-ti-a.

1. Bardabioko semia naiz ta  
Seme fortuna gabia.  
Aranaztikan ekarri nuen  
Dotiarekin andria.  
Obe zukian ikusi ezpalu  
Bardabioko atia.

2. Nere buruaz ez naiz oroitzen,  
Zeran ez naiz bakarra. (zeren)  
Azitzekuak oruzten ditut  
Iru seme ta bi alaba.  
Jaun zerukuak adi dezala  
Aien amaren negarra.

1. Hijo soy de Bardabio,  
hijo sin (bienes de) fortuna.  
De Aranaz traje esposa  
con dote: mejor le fuera  
no haber visto la puerta  
de Bardabio.

2. No pienso en mí mismo,  
pues no soy único:  
ahí dejo por criar tres  
hijos y dos hijas.  
El señor escuche  
el llanto de su madre.

- |  |  |
|--|--|
| <p>3. Goizuetan bada gizon bat,<br/>Deitzen diote "Trabuko".<br/>Itzak ederrak, biotza faltso<br/>Beinere etzaio faltako. (etzaizko)<br/>Ark egin didan aberiguazioa (zidan)<br/>Sekulan etzait antziko.</p> | <p>3. Hay en Goizueta un hombre,<br/>apodado "Trabuco"...<br/>Bellas palabras y corazón<br/>falso no le faltarán.<br/>Jamás podré olvidar la<br/>delación que me hizo.</p>           |
| <p>4. - Denbora batez oroitzen bayintz<br/>Zer egin yuen Elaman,<br/>Denbora artan ibiltzen yintzan<br/>Yarraiki nikan Lesakan<br/>Orain bano len egun yakien<br/>Ni orain naguen atakan.</p>                | <p>4. - Si recordaras lo que antaño<br/>hiciste en Elama.<br/>Entonces andabas...<br/>.....en Lesaca<br/>antes de ahora estarías<br/>donde yo me hallo.</p>                          |
| <p>5. Goizuetako eskribu Jaunari:<br/>- Eskarrikasko, barkatu;<br/>Informaziuak onak diguzu<br/>Iruñerako prestatu!<br/>Mundu onetan edo bestian<br/>Biarko dituzu pagatu.</p>                               | <p>5. Al señor escribano de Goizueta<br/>- Muchas gracias, con perdón.<br/>¡Bonito informe para Pamplona<br/>nos has servido!<br/>Ya las pagarás, en esta vida<br/>o en la otra.</p> |
| <p>6. Zorriak eta arkukusuak<br/>Arrotontxuak nagusi.<br/>Denbora batez erran biartzuenak<br/>Au biar nuela ikusi!<br/>Zeruko Aita, lagun nazazu,<br/>Ezin nengoake igesi.</p>                               | <p>6. Piojos, pulgas, ratones<br/>(son los) amos.<br/>¡Quién iba a pensar que me<br/>había de ocurrir tal cosa!<br/>Dios del cielo, amparadme;<br/>de aquí no puedo escapar.</p>     |

Infor. : Bolaños, natural de Aranaz, albañil, avecindado en Lecároz.

Loc. rec. : Aranaz

Fecha : 25 de febrero de 1912

Clas. : narrativa

Ref. : G.H., 1929, 1.«Un vecino de Bardabío (barrio de Goizueta, Navarra), fabricaba moneda falsa, de a 5 reales y de medio duro. Denunciado por un amigo suyo, apodado "Trabuco", se lo llevaron a la cárcel de Pamplona, donde murió. Elama es un caserío de Articuza, en las fuentes del Urumea. Según el cantor, esta canción dataría de doscientos o trescientos años (?). El la aprendió de los ancianos de su pueblo (Aranaz), que decían ser muy antigua. Azkue nos da otra versión, musicalmente diferente, con cuatro estrofas (CPV, nº 407). Nos cuenta que "Bardabioko semia", según fama, tenía una mina de oro, que fabricaba onzas de oro y que las pasaba a Francia. Estando en la cárcel le preguntaban: "Non da urrezko mina ori?" A lo que él respondía: "Nere auntzak egunero pasatzen dire minaren gainean". (¿Dónde está esa mina? -Mis cabras pasan a diario por encima de ella)». P. Donostia

No hallándole sentido al verso 4º de la estrofa 4ª, nos hemos abstenido de aventurar una traducción del mismo. Lo tiene, en cambio, en la estrofa correspondiente (2ª) de la versión de Azkue.

C.P.V., nº 407 (Goizuetan).

N.E.K.Z., nº 5.

## V. Endechas y Elegías

## 407.-GOIZUETAN

*Andante mosso*

39. 

Goi - zu - e - tan ba - da  
giz - on bat de - ri - tzen zai - o Tra - bu - ko Goi - zu -  
ko. Itz - ak e - der - ak bi - otz - a fal - tso se - ku -  
la etza - io pal - ta - ko, e - gin di - tu - an di - li -  
jentzi - ak ber - ar - i zai - z - ko da - mu - ko. Itz - ak ko.

De Luis del Puerto, de Rentería (G). La aprendió en Ziburu (L).

Es canción compuesta por un falsificador de moneda, nacido en el barrio de Berdabio (donde nace el Urumea), jurisdicción de Goizueta (AN). Por delación de su confidente, apodado Trabuco, le encarcelaron en Pamplona, y encarcelado compuso esta endecha. Dicen que tenía una mina de oro, fabricaba monedas de onza y las pasaba a Francia. Ya en la prisión le preguntaban:

—¿*Non da urezko mina ori?* (¿Dónde está esa mina de oro?)

—*Nere auntzak egunero pasatzen dire minaren gainean* (Mis cabras a diario pasan por encima de la mina), — contestaba.

Su poemita es éste:

I. *Goizuelan bada gizon bat  
deritzen zaió Trabuko.  
Itzak ederak biotza paltso  
sekula etzaio paltako:  
egin dituan dilijentziak  
berari zaiuko damuko.*

II. *Ongi ongi oroitu adi  
zer egin uen Elaman.  
Difuntu orek izatu balu  
yaraikilerik Lexakan,  
orain baino len egongo intzan  
ni orain nagoen atakan.*

III. *Nere andreak ekari zuen*  
*Aranaztikan dotea.*  
*Obe zukean ikusi ezpalu*  
*Berdabioko atea;*  
*orain etzuen idukiko*  
*dadukan pesalombrea.*

IV. *Nere buruaz eznaiz oroitzen,*  
*zeren eznaizen bakara.*  
*Azitzekoak or uzten ditut*  
*bi seme ta iru alaba.*  
*Jaun zerukoak adi dezala*  
*oien amaren negara.*

TRADUCCIÓN: I.—En Goizueta hay un hombre a quien llaman Trabuco. Nunca le faltarán hermosas palabras y corazón falso. Las diligencias (sin duda alude a la delación) que ha hecho se le han de pesar.

II.—Acuérdate bien de lo que hiciste en Elama (1). Si ese difunto hubiera tenido quien siguiese su causa en Lesaka, antes de ahora hubieras estado en el sitio en que estoy yo.

III.—Mi señora trajo de Aranaz la dote. Mejor le fuera si no hubiera visto la puerta de Berdabio; no hubiera tenido la pesadumbre que ahora tiene.

IV.—No me acuerdo de mí mismo, pues no soy único. Ahí dejo todavía por crecer dos hijos y tres hijas. El Señor del cielo oiga el llanto de su madre.

En el *Cancionero Selecto*, pág. 3, se puso *Goizuetan da gizon zakar bat* en vez de *Goizuetan bada gizon bat*, que es verso corto. También se corrigieron *biotza paltso* por *biotza gaizto*, y *sekula* por *bein ere*, como también *dilijentziak* por *asimasiak*. En alguna de las estrofas parecía que el cantor medía con este ritmo su melodía, que recuerda el de la vieja canción bizkaína *Santa Yageda*.

(1) En Elama, barrio también de Goizueta, Trabuco mató a un hombre.

*Variante I*

*Andante mosso*

Ne - re bu - ru - az ez - naiz o - roitzen ze - ren  
 ez - naizen ba - ka - r - a. A - zi - tze - ko - ak or uz -  
 ten di - tut bi se - me tai - ru a - la - ba: Jaun ze -  
 ru.ko.ak a - di de - za - la oi - en am - a - ren ne - ga - r - a.

Esta variante creo habérsela oído al mismo Luis del Puerto.



## BERDABIYO'REN KANTAK (1)

1

Berdabiyo'ren xaldiyak  
Lau anakak diñu txuriyak.  
Salto batian irago zuen  
Zazpi estatuko esiya;  
Beste bat igaro balu,  
Seguru zuen biziya.

El caballo de Berdabiyo  
Tiene blancas las cuatro patas.  
De un salto pasó  
Un seto de siete estadios;  
Si hubiera pasado uno más,  
Tenía segura su vida.

2

Nere andriak ekañi zuen  
Aranaz'tikan dotia.  
Obe zukian ezpalu ikusi  
Berdabiyo'ko atia;  
Orain etzuen ark idukiko  
Dadukan pesalunbria.

Mi mujer trajo  
Dote, de Aranaz.  
Mejor le estuviera si no hubiese visto  
La puerta de Berdabio;  
Ahora no hubiera tenido  
La pesadumbre que tiene.

3

Neriak ez nau ainbeste oroitzen;  
Bañan ezpainaz bakaña...  
Azitzekuak an utzi ditut  
Bi seme ta iru alaba.  
Jaun zerukuak adi dezala  
Ayen amaren negaña.

Lo mío no me apena tanto;  
Pero es que no soy solo...  
Allí he dejado por criar  
Dos hijos y tres hijas.  
El Señor del cielo oiga  
El llanto de la madre de ellos.

4

Goizuta'n ba'da gizon bat;  
Deitzen diyote Trabuko;  
Itzak eder ta biyotza paltso  
Añi etzayo paltako...  
Egiña dagon delijentziya  
Berari zayo damuko.

Hay en Goizueta un hombre;  
Le llaman "Trabuco";  
Palabras hermosas y corazón falso  
No le faltará...  
La diligencia que está hecha  
A él le pesará.

(1) "Los cantares de Berdabio". Dice la tradición que fue un falsificador de monedas de oro, que expió su culpa en las prisiones de Pamplona, donde durante un año compuso un cantar de trescientas sesenta y cinco estrofas, una estrofa por cada día.

5

Ongi-ongi oroitu ari  
 Zer egiñ uen Elama'n...  
 Jañraikin onikan izan balu  
 Difuntu oñek Lesaka'n,  
 Ik eñek egon bearko yuen  
 Ni orain nagon atakan.

Acuérdate bien-bien  
 Qué hiciste en Elama...  
 Si hubiese tenido buen procurador  
 Ese difunto en Lesaca,  
 Tú mismo hubieras tenido que estar  
 En el portillo en que estoy yo.

## LABURDI

## KANTA TXORUAK (1)

1

Pikak eguak xuri-ñabar; (bis)  
 Amorantiak ba'diñut amar.  
 Ni batek ba-narama bigar, (bis)  
 Pena duyenak in beza nigar.

La picaza (tiene) las alas blancas-  
 Tengo diez amantes. [pintas;  
 Si mañana me lleva uno,  
 Llore el que tenga pena.

2

Bortañuan eder giltza; (bis)  
 Amorantiak ortxe dabilta.  
 Nik ba'dizut baten itza: (bis)  
 Zeñek beriak xerkatu bitza.

Hermosa (está) la llave en el postigo;  
 Ahí andan los amantes.  
 Yo tengo palabra de uno:  
 Cada uno coja el suyo.

3

Itsasua laño dago (bis)  
 Bayona'ko ba'araño;  
 Nik maite zaitut maitiago (bis)  
 Txoriyak beren umiak baño.

El mar está nublado  
 Hasta la barra de Bayona;  
 Yo te quiero, te quiero más  
 Que el pájaro a sus crías.

(1) "Cantares loquillos". Así los calificaba el que nos los dio a conocer (el *bertsolari* Lexoti de Oyartzun); calificativo que él extiende a todos los del género amatorio.

sillas de plata, con tal de que se volviese a su casa caminando para atrás, sin volver la vista hacia adelante.

La muchacha, como buena trepadora, aceptó la condición. Y se puso a caminar para atrás. Y, en efecto, caminaba perfectamente, a pesar de lo empinado de la cuesta y lo escarpado y estrecho de los caminos sobre el abismo. Y la silla le seguía detrás ella sola. Y llegó a Unaileku. Y desde allí fue caminando muchísimo mejor. Siempre para atrás. Y la silla siguiéndola, como un perrito.

Pero, apenas llegó al portal de su caserío, al ir a dar la vuelta al pestillo de la puerta, con el gran gozo de su rica adquisición y el pensamiento de la sorpresa que iba a dar en casa, volvió la cabeza hacia la puerta. Y, adiós mi silla de plata ;no la vió más!

#### TESOROS LEGENDARIOS

De tesoros que se ocultan en las entrañas del gran macizo granítico, hay también referencias legendarias.

Se asegura que en la pradera debajo de Errolbide hay una mina de oro puro, cuya bocamina está tan a flor de tierra, que todos los días la tocan con su hociquito las ovejas del caserío Portuberri, pero que al propio tiempo es tan oculta a los ojos de los hombres, que hasta la fecha nadie ha dado con ella. Solo un hombre poseyó su secreto. Y de él se añade que con el rico metal acuñaba moneda, y con aquella moneda iba su hija al mercado de Bayona a realizar compras. Y que una vez llevaba la moneda tan recién acuñada, que se le notaba el calor del crisol. Y que, como alguien le hiciese una observación sobre aquel calor tan extraño de la moneda, ella contestó inocente, que su padre la había acuñado y que acuñaba cuantas quería... Pero no se supo más.

\* \* \*

Un reflejo de la misma Leyenda de la mina de oro, existe igualmente en el Valle, aunque no localizada en la zona de las peñas, sino esta vez en el lejano caserío de Berdabío, entre Artikutza y Goizueta.

La Leyenda esta vez tiene un fondo histórico reciente (siglo XIX); pero la interpretación del hecho histórico es legendaria, eco, como decimos, o reflejo de la misteriosa mina de la pradera de Errolbide.

no sin antes haber hecho a su amigo la indicación más aproximada que pudo de la situación de la bocamina... Durante la tormenta había podido escuchar el canto del gallo del lejano caserío Berdabío...

En efecto, era la mina —dice la Leyenda— de donde Berdabío extraía el oro puro para sus famosas acuñaciones. Pero ni de boca de éste se supo nunca el lugar de aquella preciosa mina, ni por la indicación del buscador dominguero pudo sacarse nada.

Y así quedó todo en secreto, hasta hoy.

\* \* \*

Nada recogemos aquí de la Leyenda erudita, referente a las Guerras Cantábricas, y según la cual fue un oyartzuarra, un Lartáun, el *buruzai* de las tropas cantábricas; que las capitaneó no sólo en el asedio del monte Hernio, sino también en el famoso duelo del Trans-Tíber en Roma, donde, a consecuencia de la paz que se siguió, nuestro Lartáun casó con matrona romana, dando lugar al linaje de los Laterani, quienes, andando el tiempo cedieron el solar de su casa para la edificación de la gran Basílica del Salvador o San Juan de Letrán... Leyenda erudita y de data no muy antigua, siglo XVI, y desde luego, nada popular (3), y como tal, muy poco apropiada para nuestro propósito.

Y con tanto, pasamos ya, de la Prehistoria y la Leyenda, a la Historia de nuestro Valle.

---

(3) Tiene sin embargo, esta leyenda un elemento eminentemente popular en el famoso grito "*sabeletik!*" que se dice que el Lartáun dio a sus muchachos en el duelo del Tíber cuando vio que los soldados romanos venían acorazados y que las lanzadas de aquellos no los herían en el pecho, por lo cual insinuó a los suyos la lanzada al vientre, *sabeletik!* Elemento eminentemente popular.

**BERDABIOREN BERTSOAK**

**1.-SAROE ERREKAKOA**

- 1.-Nere andriak ekarri zuen  
Aranaztikan dotia.  
Obe zukian ikusi ez balu  
Berdabiyoko atia;  
gaur etzükian ark edukiko  
dadukan pesalunbria.
- 2.-Berdabiyoko semia naiz ta  
adios auzo nobliak;  
pena aundirik ez bait du utziko  
ni emendikan joatiak;  
negarra pranko egingo bait du  
nere emazte tristiak.
- 3.-Neriak ez nau ainbeste oroitzen  
Bañan ez naiz ni bakarra.  
Azitzekuak an utzi ditut  
bi seme ta iru alaba.  
Jaun zerukuak adi dezala  
oien amaren negarra.
- 4.-Goizutan bada gizon gaixto bat  
deitzen diote Trabuko;  
itzak eder ta biyotza paltso  
beñiere etzaio faltako.  
Egin dituen dilijentziak  
berari zaizka damuko.
- 5.-Ongi bai ongi oroitzen al aiz  
zer egin uen Elaman?  
Jarraikin onik izandu balu  
difuntu arek Lesakan,  
gaur berak egon bearko zuen  
ni orain nagon atakan.
- 6.-Martin Joxepe Aranaztarra  
zegoen gizon prestua.  
Diximuluan botatzen zuen  
aldiyan bere puntua.  
Aber lenago ote nekien  
moldetariyan kontua.

*Oharra:* Oartzungo Sarobe (“Sau”) errekatik, gure ama Diburtxi Berasategi eta amona Kontxexi (Saroe errekekaoa) Gaztelumendi-ren bidetik (osaba Luis Gaztelumendik ere kantatzen zituen) jasotakoa; baina ez dago garbi amona Kontxexik bere ama Ines Berasategi-rengandik, (Behin berrikoa, Belakon jaiotakoa eta Mari Juana Zugarramurdi Berdabiokoaren kuniñatarendandik), edo aitarendandik, Manuel Gaztelumendi, ikasi zuen. Beraz, arazoa erabaki gabe, Sarobe errekekaoa izena ematen dio Juan Marik. (Ikus fotokopia “Oartzun 1981” urtekarian, Juan Mari Lekuonaren artikulua).

**2.-OKILEGIKO**

- 1.-Berdabiyoren xaldiyak  
lau anak ditu txuriyak.  
Salto batian irago zuen  
zazpi estatuko esiya;  
beste bat igaro balu  
seguru zuen biziya.
2. Nere andriak ekarri zuen  
Aranaztikan dotia.  
Obe zukian ezpala ikusi  
Berdabiyoko atia;  
orain etzuan ark idukiko  
dadukan pesalunbria.
- 3.-Neriak ez nau ainbeste oroitzen  
bañan ez naiz ni bakarra.  
Azitzekuak an utzi ditut  
bi seme ta iru alaba.  
Jaun zerukuak adi dezala  
ayen amaren negarra.
- 4.-Goizutan bada gizon bat;  
deitzen diote Trabuko;  
itzak eder ta biyotza paltso  
arri etzaio faltako...  
Egiña dagon dilijentzia  
berari zaio damuko
- 5.-Ongi-ongi oroitu ari  
zer egin uen Elaman...  
Jarraikin onik izan balu  
difuntu arek Lesakan,  
gaur eurrek egon bearko yuen  
ni orain nagon atakan.

Hendaia, 1997/3/1

Kaixo Patziku:

Ez didazu poz txikia eman zure kartarekin eta, batez ere, zure aurkikuntzekin. Biba zu eta, gurean esango gendukeen bezela, "zu etxe(ra)ko". Hartu bezain laister, gogoz hasi nintzen irakurtzen eta txunditurik gelditu nintzen, bai egin duzun lanagatik --ordu-pila bat, eskarmentuz dakidanez-- eta egin dituzun aurkikuntzekin. Bidaltutako bi agiriak patxaraz eta atentzio haundiz irakurri ditut eta, %tik 95ko konfiantzarekin --estadistikan esan ohi den bezela-- Berdabio-rekin topo egin duzula uste dut. Aztarna sendoak eta seguruak dira, dudarik gabe. Duda guztiak deusezteko testigutza bat beharko litzake baina, hori eskuratuko ez degunez, zuk aurkitutakoa nahikoa dela derizkiot, "Berdabioko monetaria" Joseph de Etchagarai" zela baieztatzeko (konturatu al zera Etchagarai idazteko era Iparraldeko era dela? Iparraldekoa ote genduen gure Joseph? Bera ez baina zuk, 3.1.-puntuari jasotzen duzun bezela, bere aita Juanek seme natural bat izan zuen: "Don Juan havidio de María Echagarai en la Baja Navarra", beraz hartuemanak bazituela han) eta, gizon bakarrentzat lan haudixkoa zanez, "consortes", laguntzaileak alegia, izan zituela.. Dena dela, nahiz eta beste lau laguntzaileen abizenak ere garbi azaldu, ez dut uste bide horretatik jotzeak merezi duenik; famili-giroak ez baina ofizioak sortutako "ekintza" danez gehienbat monetagintza; hain zuzen, Elamako olá famatuetan sortutakoa. Ez pentsa gero hain erreza denik moneta-moldeak prestatzea hain txikiak eta finak izanik; ez eta ere metala urtutzeko labeak eta arragoak eskura edukitzea eta hori guziaz Elaman edukiko zuten. Beraz abizenak eta familiak aztertzeak ez du sentidu gehiegirik.

Horra nere lehenengo inpresioak eta iritziak. Dena dela lasaiago etorriko naiz puntuak garbituz eta zure eskaeren erantzunekin. Bien bitartean zuk bidaldutako dokumentuak pasa dizkat Joan Mari anaiari eta honentzat ere poz handia izan da; batez ere, Berdabioren bertsuak 1750 ingurukoak direla ziurtatzea, --Pernando Amezketarra (1764-1823), baiño 50 bat urte zaharragoa-- aurkikuntza garrantzitsutzat jotzen du. Baina puntu horretaz eta beste askotaz mintzatzeko aukera izango dugula pentsatzen dut.

#### BESTE PUNTUAK:

1.-OSABAREN idaz-lanak: Zuk diozun bezela hil aurretik, Kardaberaz taldearen eta Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz, berak sailkatuta eta garbira pasata atera ziran "Idaz-lan guztiak" izenarekin 12 liburu. Azterketa bat egin ondoren, Juan Marik dio lanen batzuk falta dirala. Dena dela ia denak eta garrantzitsuenak hor daude. Nola eskuratu? Pentsatzen dut Kardaberaz-ek Tolosan daukan depositoan egongo dirala baina, behar bada, erosten ibili gabe osatuko ditugu gehienak etxean. Neronek ere badauzkak bi: 1. "Ahozko literatura" izenekoa eta 2. "Eusko Etnografia" izenekoa. Gaurtik zure esku daude; ea nola konpontzen geran zuregana bidaltzeko. Juan Marik ere badituela badakit. Elkar hartzea falta zaigu.

2.-BERDABIOren bertsuak: ahozko literatura danez, bertsio desberdinak dabiltz han eta hemen bai musika-aldeetik eta bai hitzen aldeetik.

-Hitzak: Guk erabiltzen ditugun bertsioak Juan Marik "Oiertzun" urtekarian argitaratu zituen. Ikus fotokopia. Familian(amarengandik) ikasi eta buruz dakiguna Juan Marik "Saroe Errekakoa" bezela bataiatu zuena da. Bestea, osaba Martinek (Lekuona) Okilegin Alduntzin Bordako Benitori jasotakoa da. Alboan dijoazkitzu bi bertsioak azkenengo oharrekin. Aita Donostia-rena eta Azkuena ezagutzen dituzula pentsatzen dut. Zein da jatorrena? Zein da osoena? Zeinek eta nola erabaki? Puntu aipagarriak: 1) monetaren berririk ez dutela ematen bertsoek Sarobe errekakoak izan ezik, beraz ahozko informazioa dela Azkuek dioena; 2) Lesakako aipamena, zure aurkikuntza ezker, nahiko garbi dago: elizan lanparen lapurreta egin zutela; 3) Benitoren lehenengo ahapaldia, neurria ere desberdina duenez, beste bertso batzuetatik hartua dirudi; 4) Hiru puntuko bertsoak direla; beraz ohitura zaharra eta zabaldua hiru puntuko bertsoak egitea zela.

-Musika: Badakit txistularia zerala eta musika maite duzula. Hortaz, Agustin Mendizabalek "Oiertzun" urtekarian plazaratutako artikulua bidaltzen dizut. Etxean kantatzen dugun bertsioa, Mendizabalek pentagraman jarritakoa, zehaztuta bidaltzen dizut. Hiru bertsioetan, aita Donostik jasotakoa asko bereixten da beste bietatik, batez ere modu-aldeetik (nagusia) eta bai eta ere ritmo aldeetik. Nahiko harrigarria egiten zait trajedi bat kantatzeko era hau. Baztango kutsua ote? Azkuek jasotakoa Laboagandik ikasi genduen eta Sarobe errekakoa kantatzen genduentzat nahiko arraroa gertatu zitzaigun, batez ere lehenengo eta hirugarren esaldiak. Bigarrenkoa eta gurea antzekoak dira, puntitua izan ezik. Ritmo aldeetik esaldien artean batasun falta nabari zaio. Hala ere jakingarria, "Agur, oi izar maitia" Dufau eta aita Donostiak Laburdin jasotakoarekin duen antza da; beraz Laburdi aldera eramaten gaituela. Gureak, berriz, osotasun bat eskeintzen du ritmo eta modu-kontuan hasi eta buka eta sentimentu haundiko kantua da. Goizueta-aldean ze doinu erabiltzen duzute? Gustatuko litzaidake jakitea. Alduntzin Bordako Benitok erabiltzen zuena ez da guregaitano iritxi.

-Bertsolaria. Nahiz eta gaizkilea, kartzeleratua behintzat, Joseph Etchagarai izan, ez dut uste besterik gabe bertsolaria ere bera dela esan ditekunik. Gure gurasoen garaian ere jakina zen Txirrita zenak bertsoak jartzen zituela besteak eskatuta eta esandako kontuekin. Hala ere, izendatzea konbeni danez, besterik ez bada noizkotsuak diren adierazteko, izen hori erabiltzea konbeni dela derizkiot, argi gehiago egiten ez den bitartean. Hala ere, nik behintzat, ez nuke azterketa bukatutzat emango: musika, esaerak, puntuak eta abar. Hain zuzen, Etchagarai Iparraldekoa izan litekela jakitea ez da ahaztu behar. Ez ote legoke Joseph-en aurrekoak nondik datozen aztertzerik? Badakigu haren aita Juan Berdabiokoa zela eta honen aita, hau ere Juan Goizuetan, enterrarua zela. Baina non jaioa? Jakiterik bai al dago? Ez ahaztu lehen esan duguna: "y otro hijo natural (Josephen anaia) havido de Maria Echagaray ( abizen berdina; familikoa?) en la Baja Navarra llamado Don Juan que reside en la ciudad de Mendoza reino de Indias hace ya veinte y un años (1714-21=1693an jaioa beraz. Non?). Ez ahaztu, nola nahi ere, musikaz hitzegiterakoan, Iparraldeko kutsua aitatu dugula.

# *LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE* ETA *O.TEN* GAZTAROA *NEURTHITZETAN*: HAIN HURBIL, HAIN URRUN

Ana M. TOLEDO LEZETA  
*Deustuko Unibertsitatea*

Ez da erraza Bernard Etxeparek Bordelen 1545ean argitara eman zuen *Linguae Vasconum Primitiae* eta Arnaud Oihenartek Parisen 1657an kaleratu zuen *O.ten gaztaroa neurthitzetan*<sup>1</sup> erkatzeko tentazioari uko egitea. Izan ere, Oihenartek literaturaren barrutian burututako jardunetik jasotzen den irudipena zera da, aldez edo moldez Etxepareren idazlana izan zuela gogoan berea mamitzerakoan. Zinez, iduri du Oihenartek bere *O.ten gaztaroa neurthitzetan* egitean begirada bat baino gehiago eman ziola Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiaeri*.

Etxepare bezala neurtitzaz baliatu zen eta ez zuen behar izan gai berririk neurtitzok paratzeko, hark erabilitako bi gai nagusietara eta bi gai nagusi horietara soil-soilik jo baitzuen. Alabaina, idazlana begiratzea edo gogoan hartzea ez zen izan eredu gisa jarraitzeko, baizik eta, nahiz lehen aldi zehatz hau, nahiz bere lehen aldi oro -euskaraz ondutako neurtitzarena, jakina- ukatu

---

<sup>1</sup> Pariseko Liburutegi Nazionalean gordetzen den alea izango da aztergai. Ale honen faksimila Lopez Mendizabalen etxean, Tolosan, argitaratu zen 1936an. Hala ere, edizio eskuragarriagora jo da aipamenak egiteko, zehazki honakora: ALTUNA, Patxi; MUJICA, Jose Antonio (Ed.) (2003): *Arnaud Oihenart. Euskal atsotitzak eta neurtitzak. Proverbes et poesies basques. Proverbios y poesías vascas*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo. Baina, edizio honek Baionako Herri Liburutegian gordetzen den aletik jaso dituen poemak edo poemien puskak gogoan hartu gabe; alegia, 1657ko ediziooko poema-multzotzat aurkezten dutenera mugatuko da azterketa.



eta, jauzi kualitatiboa egiteko: Etxeparek baliatutako langai berdinak jorratuz, honek koplak moldatzeko erabilitako moduarekin hausten du. Azken batez, ematen du gai berdinez baliatzeak bazuela abantailarik: oso modu gardenean erakusten zuen zenbaterainoko garrantzia duen lantze-moduak.

Bi idazleen arteko antzekotasunak ez dira mugatzen biak neurtitza adierazpen-modutzat hautatu izanera eta erlijioa eta maitasuna gaiez elikatu izanera beren sorkariak mamitzeko. Bada besterik ere, hala nola biak premiaren bati erantzun gisa argitaratu izana beren idazlanak edo nork bere idazlanarekin jauzi kualitatiboa eragin nahi izana, orain aldiak erakusten zion egoera gainditzeko...

Esaldia bi lerrotan edo gehiagotan barna hala luzatzen denean, hitzen ordena egunoroko hizketan bezala, prosazkoan bezala, jariatzen da batere bortzarik gabe, hitz bakoitza dagokion lekutik atera gabe, hitz-katearen maila bakoitzak bere lekua gorderik. Hainbestearino da hori egia, non baldin erritmoa oso markatua ez badu, ez eta puntua oso aberatsa, hura entzuten duenak pentsa bailezake hitz lauzko testua entzuten ari dela<sup>10</sup>.

Altunak berak erantsi zuen joskera-moduak ere bereizi egiten zituela bi idazlanak:

Ez da hala gertatzen Oihenarten bertso honetan, adibidez: Beraz higanik / Egin iadanik / Noiz nakidina dakidan / Jin eta nura, / Gorde-lekhura, / Eta hi han bat akidan<sup>11</sup>.

Honela bada, eguneroko hizketakoa den hitzen ordena jarraitzen duen Etxepareren aurrean, eguneroko hizketako hitzen ordenatik urruntzen da Oihenart: eguneroko mintzairaren ordenatik desbideratzen diren egitura linguistikoak aurkezten ditu.

Hiztegiari dagokionez, ezaguna da Oihenartek tradiziozko hitzak berreskuratzea eta neologismoak sortzera jo zuela<sup>12</sup>. Zeinahi aukera egiten duela ere, Etxeparek baino hiztegi aberatsagoa erabiltzen du, honako zeregin honetan bederen: hitz berbera errepikatzea saihestu eta besteren batengatik ordez-

<sup>10</sup> ALTUNA, Patxi: “Etxepareren 450. urteurrenaren hondakinak”, PEREZ, Elixabete; ZULAIKA, Esther (Ed.) (2002): *Haizeak ez eramango!*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 85. or.

<sup>11</sup> ALTUNA, Patxi: *Ibidem*, 85. or.

<sup>12</sup> Ik. MITXELENA, L. (1953): “Arnaut Oihenart”, *BAP*, 445-463. orr. Halaber, AZKARATE, M. (1994): “Oihenart'en lexiko-sorkuntza”, *Oihenarten laugarren mendeurrena*, Iker-8, Euskaltzaindia, Bilbo, 49-77. orr.

katu. Ideia berbera adierazi behar duenean, aldaera desberdinetara jotzen saiatzen da. Etxeparek, aitzitik, ez dirudi garrantzirik eman zionik aldaera estilistikoen alderdia zaintzeari. Esaterako, harreman ezkutuak aipatzeko *sekretuki* hitzaz behin eta berriz baliatzen da Etxepare:

Mirail bat nik ahal banu hala luien donoa,  
neure gogoa nerakutson sekretuki han barna,  
han berian nik nakusen harena ere nigana (V, 5-7).

sekretuki minza giten biok, othoi, maitia (IX, 48).

Nihaur sekretuki nator zugana (X, 40).

Kopla desberdinetan ez ezik, kopla berdinean errepika dezake:

Sekretuki behar dizit harekila minzatu (VII, 11).

Biok behin sekretuki nonbait minza gitian (VII, 18).

Baita ahapaldi berdinean ere:

Zuhaur nahi bazirade, ni segretu nukezu,  
gure arteko amoria ehork etziakikezu;  
sekretuki mintzatzeko, othoi, bide idazu (XII, 17-19).

Baliabide gehiagotara jotzen du Oihenartek ideia hori berori adierazteko:

Haur hal'ezten / ardiresten / baitzituket batzutan / ez agerri, / ez enzuerra /  
eztateien lekutan (II, 31-36).

Hirekil' aldiz / bederak' aldiz / bazter lekutan baturik / nonbait banago (III,  
7-10).

Beraz higanik / egin jadanik / noiz nakidina dakidan / jin, eta nura / gorde-  
lekura, / eta hi han bat akidan (III, 43-48).

nonbait egizu Jainkoaren partez / ikus zitzadan zenbait artez: / bana zureki  
nahi nikezu / elizan nehor zuhaur bezi / et' ikuslerik ageri elizan / lekutara  
zindiaurizan (V, 13-18).

Kausit ahal baneza / nonbait berhez-berheza / hunl' ene penatzea / baka bide  
baileza (X, 57-60).

Aldaerak bilatzen ditu Oihenartek, ideia bera azaltzeko era desberdinak. Ez dirudi aldaeren bilaketak Etxepare arduratzen duenik: kopla desberdinetan bada ere, bertso-lerro bera errepikatzen hel daiteke:

ni errege balin baninz, erregina lizate (V, 14).

ni errege balin baninz, erregina zinate (VIII, 2).

Are gehiago. Atsotitza eta neurtitza argi eta garbi berezi zituen Oihenartek. 1657an Parisen argitaratu zuen idazlanaren lehen parteak atsotitzak jasotzen zituen, bigarrenak, gaztaroan itzuri zitzaizkion neurtitzak.

Atsotitzei egindako hitzaurrean bilketa-lana osatzeko izan dituen arrazoiez diharduela, besteak beste, honakoa dio:

Zeren solasetako hitzaldien apaingarri bezala eta zerbaiten sinetsarazteko arrazoibide gisa baliagarri izateaz gain, gure bizitzako jokabidea bideratzeko ere ainitz erakaspen baitute (55. or.).

“Solasetako hitzaldien apaingarri”tzat jo zituen atsotitzak, ez neurtitzetarako apaingarrizat eta ez zituen erabili bere neurtitzetan. Mugarria dago Oihenart pemiologoaren eta neurtitz egilearen artean. Etxeparek, berriz, esaerak ere eramaten ditu kopletara:

Orai porogatzen dizit dakitenen errana:  
ehork utzi eztazala eskuietan duiena (VI, 19-20).

Pitxer ebilia hautsi diohazu (X, 43).

Haraitzinakorik duzu errana:  
utzi dazanorrek eskuian duiena  
nahi duenian eztukeiela (X, 63-65).

Unitate kodifikatuari tokia ireki dion Etxeparengandik urrutiraturaz doa unitate kodifikatuaren erabilerari bidea ixten dion Oihenart. Egindako hizkuntza egiturei, itxitako hizkuntza egiturei tartea ematea baztertuz, hizkuntza baliabide zabalagoak eta emankorragoak bilatzeari ekiten dio, adierazpena ñabarragoa izan dadin.

Ez dago originaltasun-izpirik, ez Oihenartek irudikatzen duen maiteminduan, ez maitemindu honek irudikatzen duen daman, ezta beren arteko maitasun-harremanean ere. Originala izateko asmorik ere ez zuen. Poetak, Jainkoak bezala, ezerezetik sortzen duela aldarrikatzen duena mugimendu erromantikoa da. Besterik da XVI. eta XVII. mendeetako poetiken ikuspegia eta bere garaiarekin bat egiten duen Oihenartena: Antzinate grekolatindarrak sortutako ereduak eta ondare hau bereganatu duten humanistek eskainitako ereduak imitatu. Horixe zen, bere orain aldi kokatuz, Oihenart prezeptistak euskal poesiarentzat proposatzen zuen bidea eta horixe izan zen Oihenart neurtitz egileak egin zuena. Beraz, dela Oihenartek irudikatutako maiteminduak eta honek maitasuna bizitzeko daukan erak (negar-intzirriak, eskariak...), dela maite duen damaren irudiak, indarrean zeuden arau batzuei erantzuten die. Azken batez, poesia egitea imitazioan eta arauak betetzean oinarritzen da.

Alabaina, Oihenartengan bada originaltasunik. Lehenik eta behin, bere buruari aitortzen diona: bertso zuzenak euskaraz paratzen lehena izatea. Argitu beharrik ere ez dago, bertso zuzenak mamitzen lehena izateak, zera esan nahi duela: ikuspegi berri batetik zereginari heldu zion lehenbizikoa izan zela. Ikuspegi berri horrek ereduaren imitazioa eta arau jakin batzuk betetzea zituen euskarri. Irizpide berri hauekin ondu zuen neurtitza Etxeparek ondu-

takotik aldentzen zen alderdi desberdinetan: neurri, lizentzia metrikoen erabilera, errima... Baita maiteminduaren irudi finagoa aurkeztean edo maitemindu honek maite zuen dama deskribatzean ere.

Imitazioa euskarri duten Oihenarten neurtitzetan ñabardurek, xehetasunek egiten dute agerrera. Honela, Etxeparek eraikitako maiteminduak beti “andre eder” bat maite bazuen, Oihenartek eraikitakoak, Margarita, Argia, Maitena, Xuria, Graziana, Beltxarana, Joana... maite ditu: andre izen arrunt eta orokorretik berezitasunen bat, xehetasunen bat, zehaztasunen bat adierazten duen izen berezira igarotzen da. Berdin jokatzeko du adjektiboarekin. Etxeparek zerabilen “eder” hori zehaztu egiten du: neurri eta proportzio jakin batzuetara ekartzen du Oihenartek. Hitz batean, deskribatu egiten du “eder” adjektiboa. Deskripzio horretan ere ez dago originaltasunik, jada tradizioa zuen kanona darabilelako andre ederraren erretratua osatzeko: gorputz atal bakoitzaren neurri, proportzio edo, hala dagokionean, kolore eta abar zehazterakoan, maitasun poesian ezarrita zegoen patroiarri eusten dio. Egin ere, ezin egin zezakeen besterik bere poesiaren zimendu imitazioa eta arauak jarraitzea zituen Oihenartek. Haatik, dama eder guztien kanona berdina izanagatik, guztiek ezaugarri fisiko berdinak izanagatik, adierazpen-modu desberdinetara jo zuen nolakotasun horren berri emateko:

“Gerri meharra” (X,12) badio behin, “gerri hertsia” (XIII, 31) esango du hurrengoan; “mazelak xuri-gorri” (XII, 31) badio behin, “ahutz-araldea /.../ ezt’ igeltsu, ezta zilar / bana kristal-ordea” (XIII, 41-44) dio beste batean; “sudurr’ oro zilarra” (XII, 30) erabili ostean, “Oi! zerik du sudurra! / ez egui’ ez apurra: / xorhi, begi-hontgarri” (XIII, 49-51) erabiliko du; “perla hutsez bidarra” (XII, 32) adierazpenaren ondoan, “Bidar-hori behala / nola boli zotala” (XIII, 65-66) aurki daiteke; “Ezpainak badiduri / dela koral-isuri” (XII, 33-34) atzeman eta gero, “Ezpainak arros’ orri / gorriak bezain gorri” (XIII, 53-54) atzemango ditu...

Oihenartek berebiziko arreta jartzen du esateko moduan. Esan behar duena, edozein kasutan, ezarrita dago eta ezarrita dagoen horri atxikitzea da bere borondatea eta jomuga. Dama ederra, adibidez, finkatuta zeuden kanoenen barnean deskribatzen du. Kopia bakar batean baino gehiagotan deskribatzen du, gainera, kanon horien barnean eta, horrenbestez, dama honen gorputz-atalen ezaugarri berberak ematen ditu behin eta berriz. Haatik, adierazpen-modu desberdinez baliatzen da. Irudikatutako objektua figura erretorikoren batekin (konparazioa, metafora...) janzten duenean ere, ordu arteko euskal poesian -ezagutzeko zoria izan dugun poesian, behintzat- ezezagunak ziren hitzen erabilera jotzen du: korala, bolia, urrea, zilarra, perla, igeltsua, belusa, kristala, aran-lilia...

Laburbilduz, berrikuntza honetako hitz giltzarria fintasuna da.

Fintasuna, forma metrikoetan: bertsogileak, hizlariak ez bezala, neurri batzuetara bildu behar ditu bere ideiak, murrizketa metriko eta prosodikoek gobernatzan dutelako bere lantegia. Bestalde, neurri batzuetara biltzeko ariketa ezin du nolana hiri mamitu: lizentzia metrikoen erabilera jakin bat egin behar du, errima aberatsaz baliatu behar du... Hitz gutxitan esanda, neurtitzaren alderdi foniko-erritmikoa arau estu batzuen barnean eraiki behar du: zeregin hori betetzeko fintasuna ezinbestekoa du.

Fintasuna, halaber, egitura linguistikoak desbideratzean; izan ere, egitura linguistiko arruntetik aldentzea nahitaezkoa da, baina neurri batzuen barnean. Eguneroko mintzairaren egituratik urrutiratu beharra dago, ez ordea, egokitasuna, decorum-a, urratu arte.

Fintasuna, hiztegian: ezin erabil daiteke eguneroko erabilerak higatu duen hitza, ezta ere, behin eta berriz, errepikatu adierazpen berbera.

Fintasuna, figura erretorikoetarako egindako aukera linguistikoetan...

Garai bakoitzak balore estetikoaren kode propioa du. Decorum-a, bada, garai bakoitzeko sentsibilitatearen eta gustu estetikoaren isla da, baita, idazleak bere idazlanaren hartzaila ideal moduan dauzkan haien izaera eta baldintzena ere.

Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae* “eta baskoek, berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraitzeko materia” (79. or.) izateko eman zuen: euskaldun guztiei zuzendu zien bere idazlana eta ez euskaldun jakin batzuei, ez baitu inolako murrizketarik ezartzen.

Zenbait zantzuri jaramon egiten bazaio, ez dirudi Oihenartek euskaldun guztiak gogoan izan zituenik. Honela dio neurtitzon aurretik doan hitzaurrean: “hauen argitalpena egitean ere, egingo baita, ez dut olerkari prestuek bere liburuekin irabazi ohi duten ohorean partzuer izan nahi” (302. or.). Irakurketa bat baino gehiago bideratzeko ahalmena dute hitzok. Apaltasuna erakusteko hauta zitzakeen, edo erantzukizuna gutxitzeko edo... Hitzzaurreko adierazpenok aipatutako zereginak betetzeko izan zitezkeen ukatu gabe, –harrokerietatik urruntzeko, nahiz kontu errendatzea arintzeko–, beste berriren bat jakinarazteko bitarteko ere izan zitezkeen: gehiengoei iritsiko zaien argitalpena ez dela izango. Hitzzaurrean argitalpenaz egileak aditzera emandakotik, egin zuen argitalpena igaroz, hona J. Vinson-en iruzkina:

L’absence de tout nom d’imprimeur ou de libraire indique à mon avis que le livre ne fut point mis en vente et qu’il en fut tiré seulement un très petit nombre d’exemplaires qu’Oihenart distribua à ses amis<sup>13</sup>.

<sup>13</sup> VINSON, Julien (1983): *Essai d’une Bibliographie de la Langue Basque*, Caja de Ahorros Vizcaina, Bilbao, 100. or.

J. Vinson-en iruzkinaren argitan irakurtzen bada Oihenartek hitzaurrean esandakoa uler daiteke hain ale gutxi inprimatuta eta zabalduta nekez lortuko duela oso ezaguna izatea eta betikotasuna lortzea.

J. Vinson-en iruzkinak, Oihenartek hitzaurrean esandakoak, Oihenartek arte poetikoan poesiaz ematen duen ikuspegiak eta euskal poesiaz egiten duen kritikak, Oihenarten biografiak (dela bere jakintza-maila, dela gizartean lortu zuen statusa...), guztiek norabide bererantz seinalatzen dute: gehiengoan aitorenaren bila ez zela ibili. Horregatik, uste izatekoa da bere idazlanaren har-tzaile idealentzako argitalpena egin zuela soil-soilik. Alegia, bere arte landua “atzemateko” eta “dastatzeko” sentiberatasuna eta jakintza-maila duen kultur elite euskaldunarentzat. Kultur elite horrekin partekatu nahi du bere idazlana, neurtitz hauek biltzen duten arteaz jabe daitezkeen gutxi batzuekin. Oihenartek eskuratu zuen mailak –kulturan, gizartean...– fintasuna eskatzen zuen eta uste izatekoa da bere harreman-munduak ere, hala eskatzen zuela.

Kode-aldaketa dago Etxepareren koplagingintatik Oihenarten koplagingintza-  
ra.

Asmo desberdinek bultzatzen dituzte idazlanok. Etxeparerentzat argitaratu dituen koplak bitarteko dira euskara idatziz emateko, jauzi kualitatibo hori eragiteko. Honela dio Etxeparek paratu dituen koplak Bernard Leheteri igortzen dizkionean, “inprimi erazi ditzazun eta zure eskutik orok dugun joia ederra, inprimiturik heuskara, orano izan eztena” (79. or.). Beste xede bat du Oihenartek: hitzaurrean bertan aldarrikatzen duenez, berrikuntza poetiko baten erakusgarri gisa argitaratzen ditu. Ez bata, ez bestea plazaratzen da poeta moduan: Etxepare lehen idazle bezala aurkezten da eta Oihenart lehen maisu bezala. Beren idazlanak moldiztegia eramateko akuilu hizkuntza dute: inguruko hizkuntzek erakusten dituzten lantze-esparruak eman nahi dizkiote euskarari. Etxepareri dagokionez, euskara idazketaren iragazitik iragazi, inguruko hizkuntzek jadanik egina zuten bezala. Oihenarten kasuan, berriz, hizkuntza horietako poesia gobernatzen duten arauen parekoak diren arauetz baliatu euskaraz.

Mende luze bateko tartean bereizten ditu bi idazleen idazlanen argitalpenak eta eguneratu helburuak uztartzen: eguneratze horrek, hain zuzen ere, eskatzen zion kode-aldaketa Oihenarti. Gaiak, betikoak eta hizkuntza guztietan erabiliak ziren, –maitasuna, erlijioa–, gaion kodeketa-modua zen eguneratu beharrekoa. Garaiko kultura-eliteak zuen ikuskeraren eta ikuskera hori adierazteko baliatzen zituen konbentzio literarioen arabera ondu behar ziren neurtitzok.





## ZIRI-BERTSO ETA ESKE-KOPLA ARGITARAGABEAK (1770, 1827)

Patri URKIZU  
UNED

*Nire oroitzapenetan beti txoko kuttun bat izanen duen*

*Juan Mari Lekuonari*

Maiz pentsatu izan ohi dut gure literatura aski urria izanik eta ez oso maila gorakoa, batek baino gehiagok azpimarratu ohi duen bezala, bere urri-tasunean, -XX. mendeko hirugarrenen herenaz geroztik ugariago bilakatu den arren-, eta bere maila apalean baduela altxor ederrik eta mende iraganez sorpresa onik aurki dezakegula oraindik, agian baldin eta liburutegi publiko eta pribatuak ongi arakatu eta aztertuko bagenitu.

Susmo eta itxaropen honen baieztatze pozgarriztat jo ditzakegu, adibidez, Borja Aginagaldek ediren dituen bai Joan Perez de Lazarragaren eskuzkribua<sup>1</sup> bere eleberri eta poemekin baieta Joakin Alzibarren<sup>2</sup> *Sukaldeko Disparatiak* bezala deitu dudan eta 1772an jokatu zen antzerkitxoa. Neroni ere ahalegindu izan naiz eskuzkribu zaharren eta argitaragabeen plazaratze ahalegin horretan, bai direla poesia, bai teatro, bai saio jenerokoak<sup>3</sup>, euskal literaturaren altxorra aberastu nahiz.

Oraingo honetan beste bi poema argitaragabe nahi ditut aurkeztu.

---

<sup>1</sup> Patri Urkizu (ed.), *Joan Perez de Lazarraga, Dianeaz & Koplak, Madrid 1567*. Erein, Donostia 2004.

<sup>2</sup> Borja Aginagalde et al., *Joaquín de Alcibar- Jauregui eta Acharan (1746-1810) eta Grand Tourra (1772)... Egan*, Donostia 2007.<sup>3</sup> [www.blogari.net/patriurkizu](http://www.blogari.net/patriurkizu)

Bata (A), Bergarako Udaletxeko artxiboan aurkitu dudana eta XVIII. mendekoa dena, 1770ekoa hain zuen. Eta bestea (B), poeta, eleberrigile eta itzultzaile aparta den Joxagus Arrietak opariturik dotrina eskuzkribu baten bukaeran aurkitzen diren eske-koplak. Hauek, 1827.urtean idatziak ziurren, baina tradizio zahar baten oroitarazleak.

Has gaitezen, bada, transkripzioekin, zein gaurko grafiaz ipini ditudan faksimilea eranskinean emango baititut, eta komentarioekin.

A<sup>4</sup>

ATENTZIOZ, JENTIA, ADITU EZAZU

*Atentzios, jentia, aditu ezazu,  
Corpus Christi gabian gazeta dute paratu,  
Ura paraturikan gabian amaiketan  
Bota diote kulpa kojuari bizkarrian.  
Bigaramon goizian apaiz bat pasatu,  
Galdetzen zioela zer zuen kontatu,  
Ikusi zubenian bere prinzipia  
Ez zan atrebitu kontatzen kasua  
Apenas aura juan beste bat etorri,  
Donzeila atrebidia bereala soltatzen asi,  
Soltatzen asi eta furia andiarekin,  
Neuk jakingo dot bada oraindio zer egin.*

Bertso hauen arrazoia eta nondikakoa jakitearren auzi kriminalaren gora beherak aztertzeraz jo behar dugu, eta ohi bezala eskribauek gaztelaniaz jasozten baitzituzten hauek, hona zer dioen epaiaren lehen txostenak:

1770

*Pedro de Artolazabal vecino de esta Villa de Vergara, marido legítimo de Theresa Antonia de Otalora y padre y legítimo administrador de la persona y bienes de Cecilia Theresa ante Vmo como mas aia lugar en dcho parezco y digo que la memorada mi hija acerca de las cinco y media de la mañana el ... de junio ultimo hallo este papel que presento, y ... con la debida formalidad, fixado con quatro obleas en la puerta principal de la casa denominada Arostegui, propia de Don Joaquín Ignacio de Moya e Izaguirre, vecino de esta memorada villa radicante en la calle de Barrecale de ella. Y respecto de que*

<sup>4</sup> Bergarako Herri Artxiboa. Pleitos criminales, C/ 334-03.

*el insinuado papel contiene expresiones sumamente injuriosas y denigrativas del honor de las sobredichas mi muger e hija, y para escarmiento de su author y restauracion del credito de ellas, que tal vez andara por los suelos, conviene a su derecho dar informacion de la verdad de la narrativa de este escrito. Por tanto*

*A Vmo suplico se sirva mandar se me reciva informacion que incontinenti ofrezco al thenor de todo lo sobredicho y que a los testigos que por mi se presentaren se les exhiba el insinuado papel, y en su vista se les pregunte si tiene noticia de quien lo ha escrito, o lo ... de quien es la letra, con que esta escrito... lo demas que fuere conducente para ... notificacion de su author y que evacuada que sea se me entregue para deducir las acciones que me competan en justicia, que pido con constante ... presumen. Valga.*

*Ldo Sagastizaba<sup>5</sup>.*

Ikusten denez kexu honetan Pedro de Artolazabalek auzitara jotzen du bere emaztea eta alabaren ohorea ukituak izan direlako Arostegiko atarian eskegi ziren bertso batzuen bitartez. Iritsi zaizkigun bertsoak testiguen oroimenak emandako lekukotzaren arabera dira, baina delako paper zintzilikatu hura ez dugu aurkitu artxiboan. Hona espreski nola lekukoetarik batek eman zuen bere testigutza:

*Preguntado al tenor al segundo Capitulo de la Peticion folio ocho de estos Autos= Dixo que en la noche de Sta Ana de este presenta año hallandose el que depone junto a la puerta de la casa en que lavita Pedro Antonio de Eguia vecino de esta referida villa en la calle de Barrecale de ella en compañía de Miguel Antonio de Otalora, Manuel de Azcue, Pepe criado en la taberna del varrio de Zubieta de esta misma villa, y otras dos personas de quienes no hace memoria, oió cantar al expresado Otalora tres ó quatro versos de una canción que empezaba en la forma siguiente: atencios gentia adituezazu, corpuschristi gabian Gaceta dute paratu ura paraturican gabian amaiquetan cojuari bota diote culpa vizcarrian. Que posteriormente á oydo cantar los propios versos a Bautista de Lombida residente en esta insinuada villa y criado de Joseph de Ansoategui vecino de ella por quatro ocasiones, que en las dos primera ahora cosa de tres meses poco mas ó menos los cantó sólo en presencia del que expone a tiempo en que se restituía a su casa en su compañía en la calle de Barrecale de esta citada villa a cosa de las nueve horas de la noche. Que quinze días despues oio repetir por dos veces los mismos versos al referido Bautista de Lombida en la calle de Vidacruceta de esta nominada villa entre ocho y nueve de dos noches, que en estas dos ultimas ocasiones canto el citado Bautista los referidos versos según hacen memoria en presencia de Manuel de Azcue, y que*

<sup>5</sup> Bergarako Herri Artxiboa. Pleitos Criminales C 334 /3, f. 2

*esta en duda si se hallaba tambien presente en las citadas dos ultimas ocasiones el sobredicho Miguel Antonio de Otalora. Que los insinuados versos los compuso el mismo Otalora según se lo aseguró al que expone manifestandole el papel en que estaban escritos cosa de un mes despues que se publico la fixacion del insinuado papel<sup>6</sup>.*

Garbi gelditzen da beraz lekuko honen arabera zein den bertsoegilea. Migel Antonio de Otalora. Eta ez bakarrik idatzi baizik eta kantatu ere egin omen zituen beste lekuko batek, Pedro Arancetak dioen arabera:

*Que a las nueve horas de la noche del dia de Sta Ana de este presente año hallandose el que expone junto a la Puerta de la casa de lavitacion de Pablo Antonio de Eguia vecino de esta villa sita en Barrencale de ella en compañía de Miguel Antonio de Otalora, Joseph de Aristi Aristegui, Manuel de Azcue y Miguel de Basauri, todos residentes en esta expresada villa, oyo al citado Otalora cantar unos bersos y entre ellos los que siguen Atencios gentia aditu... (A)<sup>7</sup>*

Pena da paper hura osorik ez iritsi izana nolakoak izan ziren irainak jakitearren, baina, lekukoen testigutzen arabera garbi dago buruz ikasi zituztela, zeren bederen hiru aldaera ezberdin aurkitzen ditugu horrelako eta antzeko kasuetan gertatzen ohi den bezala:

- A<sub>1</sub>    *Atentzioz, jentia, aditu ezazu.*
- A<sub>2</sub>    *Orain, atentzioaz, jentiak, aditu.*

Edota

- A<sub>1</sub>    *Bota diote kulpa kojuari bizkarrian*
- A<sub>2</sub>    *Kojuari bota diote kulpa bizkarrian*
- A<sub>3</sub>    *Kulpa bota diote kojuari bizkarrian.*

Eta bertsoegilea ez zegoen oso kontent kartzelan, noski, bere bertso sorretaren ondorio gogorak ordaindu behar izan baitzuen. Hona bere alegazioa:

*Septiembre 24 de 1770*

*Miguel Antonio de Otalora vecino de esta villa y preso en las Reales carceles della, con mandato berbal de sus Ministros, ante Vm parezco como mexor puedo y aia lugar en derecho, y Digo que el dia veinte y dos del corriente a cosa de las nueve menos cuarto de la noche fui retraido a estas referidas carceles, sin haverme hecho cargo de culpa*

<sup>6</sup> Idem, f. 15

<sup>7</sup> Idem f.18v

*alguna, y sin embargo de que espiraron las veinte y quatro horas que mandan varias leyes Reales para hacer saber la causa en que incurren los delinquentes, no se me hace cargo de nada, en perxuicio de mi lavor y familia y no siendo justo el que con dilatar padezca esta el socorro con que debe mantener, ni que por mucho tiempo con este detrimento tenga yo los perxuicios considerables que son notorios, es de administrar Va con la brevedad que mandan las leyes, por lo que A Vm suplico se sirba mandar que incontinenti se me haga notorio de delito que hubiese cometido, para ... vista con comunicaci3n de abogado defienda el incurso, pues asi procedo en Xa la que pido con juramento y por v1a de incidencia o comom mas aia lugar protesto devran de las de mas acciones que me competan & entre teng de su noche = se=Va.*

*Miguel Antonio de Otalora*<sup>8</sup>

Euskal ziri-bertsoen ixtorio tipia egiten hasiko bagina XIV. mendetik hasi beharko genuke, alegia Aragoeko Pedro IVa eta Gaztelako Juan Iaren aurkako bertso haiekin *In nomine patrika/ Aragueago Petrika / Castellako Joanikot / Ekidak ipordian pot*<sup>9</sup>. Hauei jarraituko liete duela gutxi Ricardo Urrizolak ezagutarazi zizkigunak eta 1491ekoak lirakeen Martitxo Musuren kontrako bertsoak, agian zintzarrots batean moldatuak. Hona hemen: *Antzareak oina zabal / Buztaina laburko. / Nork berea demana / beti da bellako. / Martitxo Musu da alako / eta ala zainezko*<sup>10</sup>.

XVI. mendean ziri bertsoztat jo ditzakegu ere, gaztelaniazko *versos de la malmonjada* - ren ildotik eta erasmismo puntu batekin Joan Perez de Lazarragak idatzitako *Monjaren kuitak*<sup>11</sup>.

XVII. mendean ere ez zaizkigu falta, hala nola Juan de Otazu Leaburuko erretoreak eginak<sup>12</sup> edota Migel Basterretxeak<sup>13</sup> moldaturikakoak.

Eta XVIII. mendean Juan Etxeberriak<sup>14</sup> 1716an Lasarten Juan Martin Gorostia garen kontra konposatuak, 1725ean Jean Munduteguy<sup>15</sup> uztariztarrak

<sup>8</sup> Idem, f.29.

<sup>9</sup> F. Idoate, *La brujería en Navarra y sus documentos*. Pamplona, CSIC 1978.

<sup>10</sup> Ricardo Urrizola, "La copla de Etxaleku", *Fontes Linguae Vasconum*, Iruñea 2007, nº 104, 59-67.

<sup>11</sup> Patri Urkizu (ed.), *Joan Perez...aip. lib.*, 195-201.

<sup>12</sup> Luis Michelena, *Textos arcaicos vascos*. Minotauro, Madrid, 1964, 127.

<sup>13</sup> Antxon Narbaiza et al., *1685eko Kopla zabarrak*. Ego Ibarra, Zarautz, 1992, 7.

<sup>14</sup> Jesus María Satrustegi, "Lasarteko bertso paper zahar bat (1716)", *Piarres Lafitte-ri omenaldia*. Iker 2. Bilbao, 1983, Euskaltzaindia, 571-581.

<sup>15</sup> Jean-Baptiste Orpustan, *Précis d'histoire littéraire basque . 1545-1950. Cinq siècles de littérature en euskera*. Izpegi, Baigorri, 1996, 113.

Pierre de Salaberry Parlamentuko abokatuaren kontra burutuak, Jean Robin<sup>16</sup> eta Salvat Monho<sup>17</sup> apezek asmatuak, Manuel Arizabalo Kontseju Errealeko abokatuarenak<sup>18</sup> eta oraingoan Migel Antonio Otalorarenak.

Beraz, esango genuke ziri-bertsoek konstante bat osatzen dutela euskal bertso-gintzaren alorrean, XIX garren mendean adierazgarri-entariakoak Piarres Topet Etchahunenak ofizio zenbait aurka<sup>19</sup>, eta Serafin Barojak<sup>20</sup> karlisten kontra idatzitakoak izan daitezkeelarik. Piarres Lafittek bere *Kantu Kanta Kanthore* liburuttoan (1967) VIII. Atalean *Irri eta Zirika* deituan 56 kanta ezberdin ematen dizkigu, eta neronek 58 jaso nituen Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoakoak biltzean<sup>21</sup>. Nabarmen da XX. garren mendean Juan Mari Lekuonaren<sup>22</sup> *Liburuen Karrosa*-k ere ez duela ahantzi tradizioa bertan dotoreziaz eta modernitatez txertatzen delarik.

## ZUGARRAMURDIKO ESKE-KOPLAK 1827

Esan bezala Joxagus Arrietak oparituriko Dotrina zahar<sup>23</sup> batean azken orrialdeetan aurkitzen dira hemen transkribitu eta ondoren komentatuko ditugun eske-koplak :

<sup>16</sup> Patri Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. II, 1545-1900*. Etor, Donostia 1991, 233-255.

<sup>17</sup> Patri Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. II, 1545-1900*. Etor, Donostia 1991, 189-230.

<sup>18</sup> Xabier Alberdi & Carles Riera, *Iraganaren ahotsak. / Las voces del pasado*. Irun-Hondarribia. Luis de Urantz Kultur taldea, 1998, 42-45.

<sup>19</sup> Patri Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. II, 1545-1900*. Etor, Donostia 1991, 801-840.

<sup>20</sup> Patri Urkizu (ed.), *Serafin Baroja, Bertsoak. Pudente, Trormesko Lazarotxoa, Kontuak*. Julio Caro Barojaren hitzaurrea. Txertoa, Donostia, 1988.

<sup>21</sup> Patri Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I, Anonimoak*. Etor, Donostia 1991, 313-325.

<sup>22</sup> Juan Mari Lekuona, "Liburuen Karrosa", *Ilargiaren eskolan*. Erein, Donostia 1979, 67-100.

<sup>23</sup> (sic) Catecismo que perteneció a Martin Felipe Lecuberri, abuelo de Nuestra abuela. Data de 22 de junio de 1827.

B

1. Le gloria eta leloa lelo<sup>24</sup>  
gaitzera digoa gora da,  
eta gora goanen da  
gaurko emengo leloa.
2. Ela, ela, nor da, nor da?  
Jinkoa dela etxeoetan,  
Jinkoa dela etxeoetan eta  
leku guzietan.
3. Eldu gara urrundik<sup>25</sup>,  
gauba bidean emanik,  
espos pare bat emen badela  
Madrilgo idian enzunik.
4. Etxeak eder eskalera,  
marinel gaxoak peskadela,  
etxeoak erraguzue  
ongi etorri garela.
5. Bibeperra<sup>26</sup> eta espezia  
Katalunian erosia,  
etxeoak emaguzue  
koplatzeko lizentzia.
6. Bortak eder ezpelez,  
bortak agak lizarrez,  
etxeoak erraguzue  
nai gituzuen bai ala ez.
7. Etxean eder kaikua,  
errekaldean kukua,  
presenteko jaun esposa hori  
gizon gazte hazitua.

---

<sup>24</sup> Bertso lerro honek ohiko leloaren antzekoa dirudi.

<sup>25</sup> *Heldu gira urrundik, / Gaua bidean emanik; /Gaua bidean emanik eta / Ihauteria entzunik...* (Adele Diharasarriri Saran 1917an Aita Donostiak jaso. Jorge Riezu (ed.), *Cancionero Vasco*. T. VI, P. Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1994, 418.) *Heldu nuzu urrundarik / gaua bidean emanik, / gaua bidean emanik eta/ Ihaute dela entzunik.* (R. M. Azkue, *Euskalerrriaren Yakintza*, T. IV..Espasa Calpe, Madrid 1947, 114.)

<sup>26</sup> *Bibeperra* (sic), biper, piper.



8. Karrosan elizarako  
urra ofrendatuko,  
handik etxera datorrenean  
zilar kadiran jarriko.
9. Mandoak eder panpalina<sup>27</sup>,  
urra eraztunak begi fina,  
andre espos horrek iduri baitu  
bertzen aldean imajina.
10. Hortzak dituzu zilarrez,  
begiak urra botoinez,  
gaur zurekin etziten denak  
biar urrikirik ez.
11. Urean eder aingira  
ingura ingura dabila,  
presenteko andre espos hori  
botoina josten ari da.
12. Ogea zuri egin  
begie mihise zuri batekin  
mihise zuri batekin eta  
almoada eder biekin.
13. Aita Simonek<sup>28</sup> argi  
eginen diote siriho batekin,  
ziriho batekin eta  
tortxa eder biekin.
14. Ardiak eder gare<sup>29</sup>,  
ganbara leio gabea,  
atea trink-trank tran-trink zerratu eta,  
ai zer espos pare!
15. Zinzirriku minzirriku<sup>30</sup>,  
bageak<sup>31</sup> egun zilo ditu,

---

<sup>27</sup> *Panpelin*. Panpelin; txilina. < Campanilla > : *xakur oi panpalinekin dabile. Panpeline polite...* (Mariano Izeta, *Baztango Hiztegia*. Nafarroako Gobernua. Iruñea 1996, 147).

<sup>28</sup> Simon apostolua, kananeotartzat jotzen da, eta Judarekin batera Persian predikari ibili omen zen, non apez paganoek biak hil zituzten. Simon arrantzaleen zaindaria da.

<sup>29</sup> *Gare*, joare.

<sup>30</sup> *Zinzirriku-minzirriku*. Zintzarri / zintzirri hitzaren gainean antolatutako onomatopeia.

<sup>31</sup> *Bage*, bahe.

- nere fedea! naiago nuke  
amabi seme bazintu.
16. Ezkila berriak eder du soinu,  
ezkila dorreak jardesten du,  
seme eder bat dakizuela  
Erromako Aita Saindu.
17. Semea bada eginen dugu  
enperadore Espainiako  
alaba bada areago  
erregina Frantziako<sup>32</sup>.
18. Landan eder udare,  
erran gogo dut au ere,  
seme eder bat dakizuela  
Espainako errege.
19. Taza eder ezpainen,  
ezin edan eztenean,  
edatera iguzue,  
Jainkoaren izenean.
20. Landan eder gisua,  
Eztainu honaren pisua,  
Jinkoak omen ona dizuela  
finean Parabisua.
21. Etxeak eder gapirioa<sup>33</sup>,  
erretzen dago zirihoa,  
biar ere etorriko gara,  
hil ezazue zikiroa.
22. Itsasoetan bazterrak ilun,  
marinel gaxoak andure<sup>34</sup> egun,  
agur, agur, etxeakoak,  
Jinkoak dizula gabon.

---

<sup>32</sup> Hona *Maitiak bilhoa holli*-k dakarren antzeko bertsoa:

*Senhartako emozie / Frantziago errege /*

*Frantzian ezpada ere, Españakoa bedere; / Bada errege, enperadore, phüntzela ja  
eztüke.*

(Jorge de Riezu (ed.), *Flor de canciones populares*. Sendoa, Donostia 1982, 64.)

<sup>33</sup> *Gapirio*. Iz. (1571). Teilatuaren zurajean, gailurretik ertzetara doazen hagetako bakoi-  
tza. (Ibon Sarasola, *Euskal Hiztegia*. Kutxa Fundazioa, Donostia 1996, 301.)

<sup>34</sup> *Andure*, ahul.

Ohar gaitzkeenez garbi dago Eske kanta hauek, Eguberri, Santa Ageda, Santibate... garaian kantatzen zirenak, Zugarramurdiko hizkeran moldatuak daudela, zeina Lapurterarekin bat lerratzen den Azkuek bere Hiztegian<sup>35</sup> ongi ageri digun bezala, jakina baita bi erresuma ezberdinetan kokatuak egon arren Sara eta Zugarramurdi ez daudela hain urrun, *Infermuko errekek* bereizten dituelarik.

Lapurteraren tradizioari jarraikiz hor dugu <h>-aren erabilera: *hazitu*, *hartz*, *hona*, *zirih*, edota <tch>-rena: *etche*... Halaber morfologiari begiratu, hor dugu <b> zubi-hotsa, *gauba* hitzan, Donibane Lohitzunen ematen den *eskuba* bezala. Hala nola -ai- diptongoaren monoptongatzea, hots, -i- bilakatzeari, *gituzu* adizkeran Arrangoizen esaten denaren arabera: *gitezin* (< gaitzen). Hala ere, adizkera sintetikook: *emaguzue*, *erraguzue*, *iguzue*...

Bestalde, gaztelaniaren eragina hiztegi mailan nabarmena da: *almoada*, *espos*, *pescadela*, *taza*, *tortxa* (*torche fr.*, *antorcha* gazt.), *zirih* (<*cirio*).

Manuel Lekuonak Koplak zahar hauek aztertzerakoan<sup>36</sup>, honela definitzen du duten teknika eta egitura:

*Cada copla tiene de ordinario cuatro versos; de los cuales los dos primeros encierran característicamente una idea poética, una ficción pintoresca, un golpe de imaginación, un rasgo bello tomado de la naturaleza o del arte; mientras los dos últimos contienen una idea más prosaica, más vulgar, aunque también más intencionada.*

Halaber, berauen antzinatasuna, itxurazko zentzueza eta benetazko lotura, eta agian mentalitate magikoaren adierazgarri daitezkeela azpimarratzen digu. Juan Mari Lekuonak, bere aldetik koplak sarrera hauek, *kodeetako koplarien hasierako biñeta marraztu eta koloreztatuak*, diruditela dio<sup>37</sup>.

Maizenik ageri zaigun epitetoa, *eder* da. Hamahiru aldiz, hain zuzen: (*etxeak eder...*, *bortak eder...*, *etxean eder...*, *mandoak eder...*, *urean eder...*, *almoada eder...*, *tortxa eder...*, *ardiak eder...*, *ezkila berriak eder...*, *landan eder...*, *taza eder...*, ). Eder hau bertso hauetan bigarrenik kokaturik izan arren batzuetan joan daiteke ere lehenbizi, hala nola honakoan:

*Eder zeruan izarra*  
*Errekaldean lizarra*  
*Etxe ontako Nagusi Jaunak*  
*Urre gorritz du bizarra*<sup>38</sup>.

<sup>35</sup> R.M. Azkue, *Diccionario Vasco-Español-Francés*. Bilbao 1905-1906, XXX.

<sup>36</sup> Manuel de Lekuona, *Literatura oral euskerica*. Euskaltzaleak.. Donostia, 1935, 92.

<sup>37</sup> Juan Mari Lekuona, "Euskal balada tradiziozkoen estiloaz", *Federiko Krutwig-i omenaldia*, Iker 10, Euskaltzaindia, Bilbo 1997, 246.

<sup>38</sup> Idem., 101.

Metaforarik ere ez zaigu falta eske-kopla hauetan, hala nola: *urre eraztunak begi fina. (9b.)*. Eta errefrau laburrik, baina bere lakonikotasunean benetan esanguratsu denik ezta ere, adibidez, *ezin edan ezteanean (19b.)* Honen antzeko zenbait bildu zituen Antonio Zavalak<sup>39</sup>, adibidez: 757. *Egarri denari edozoin ur atsegingarri. 1106. Ez duenak ezin eman. 1132. Ezin jan danean, oiloa zintzilik.*

Etxeko alabaren irudia ere ezin molde ederragoz ematen zaigu. Esate baterako, deskripzioa aurpegiaren bi elementutan kokatzen da, *hortzak dituzu zilarrez /begiak urre botoinez.*

Hasiera eta bukaera benetan ongi aurkeztuak daude. Lehenik *leloa* iragarritz eta *koplatzeko lizentzia* eskatuz, eta azkenik agurra hogeitabigarren koplan emanez.

Ez dira, dena den, honelako eske-koplak soilik Euskal Herrian ematen, ongi adierazten baitigute hauen berri emanez bai Arnold van Gennep-ek<sup>40</sup>, bai eta hitzotan Rodney Gallop-ek<sup>41</sup> berauen zabalkunde handia Europa osoan:

*Entre las canciones populares vascas más curiosas se encuentra un grupo que puede ser llamado propiamente «wassailing» (brindis a la salud de una persona). La palabra inglesa «wassailing» se deriva del anglosajón «wes-hal» (tener salud) y se aplica a una costumbre que sin duda es de origen pagano. En las Islas Británicas se creía que los «wassailers» traían suerte y abundancia a las casas que visitaban. En toda Europa, el tema de sus canciones es el mismo. Anunciaban el objeto de su visita, adulaban al dueño o dueña de la casa, pedían dádivas de comida y partían dando gracias o insultando, según el aguinaldo que hubieran recibido.*

Beraz, amai dezadan esanez, hain modu adierazkor, herrikoi eta ederrean Naturarekiko harremanak aurkezteak bilakatzen dituela Kopla zahar hauek herri literaturaren perla ederrenetarikoa.

<sup>39</sup> Antonio Zavala, *Esaera zaharren bilduma berria* (I). Auspoa 184, Tolosa 1985, 83, 110, 112.

<sup>40</sup> Arnold van Gennep, *Le folklore français. Du berceau à la tombe. Cycle de carnaval-Carême et de Pâques*. Robert Laffont, Paris 1998.

<sup>41</sup> Rodney Gallop, *Los vascos*. Versión española de Isabel Gil de Ramales. Castilla, Madrid 1948, 111.

Teula Naurra e Anzarabal naurra casta  
 nominada villa. Fue en el mismo tiempo yoca-  
 sion y presencia tam. obsecada Jayh, y  
Manuel dize algue opase el propio Otalora,  
 que D.<sup>o</sup> Simon e Atipuzuna Presbytero Bene-  
 ficido ala Pazozquia cab. Pezco casta espresca  
 Alla Laua vito el Defenido Papel al tiempo que  
 se hallaba forado en la sobredicha Puebla e  
Azozqui Manara al inrima odio inre-  
diato al defensor casto: Fue alos rubio horas  
al noche al dia e S.<sup>ta</sup> Ana en representacion  
halla dore el que expone jurro ala Puerta ala  
fara e haritacion al Pablo Antonia e Equia  
vecino casta cha villa sita en Dazencale  
de ella en compañia al tiempo Antonia e  
Otalora, Jayh e Asiri Antegui, Manuel  
e Araue, y Atipuz e Dazenci, todos mi-  
donde en esta espiciada villa, oye al cielo  
Otalora casta en ma Bono, y en el loj  
lo que el tiempo = Antonia gen era al tiempo Casto  
que casto pa bian haceta en el tiempo casto  
pasos casto garran amaiguera, bot al diote

Bergarako Herri Artxiboa, auzi kriminalak, C 334 /3, f. 18v.

19

culpa cosuasi bicaxioni. Sigaramon goicua ofya  
bat paratu galdetioncio ela cezuen contatu, iurian-  
biman bore pinapiua, ez zan at eban contacen casua.  
Upenas aura fuay, bediebat etian, doncella otse-  
ndia bexala solacera si, solacera ai eta gloria an-  
diarequin, neue saguing obot bada ozandi di cezuen  
 Quea que en cantax los sobredichos versos, gotea, y que  
 no se acuerda, acompañaron el que impone, y sus compañe-  
 ras al cecado Otalora, hera este el que llevaba la voz, dizi-  
 ra en ritmo a las donas: Fue harta que el miminado Otala-  
 ra manifiesto al que impone los cecados. Para corito  
en un pasel ala luz ala duna on undia fortis im mes aceo  
 al de S. Juan Bautista, sus copiosos acordos juntos a las Ta-  
 gias de la Huera de la faja en que ha visto D. Altiqel de  
 Jorran de cecada cierta nominada villa, notubo el que  
 impone noticia a luna alos copiosos de Porra: Fue hallan-  
 do el que impone en la noche en dia fortis im mes aceo  
 al alcevaso S. Juan en la Plaza llamada de arriba de  
 esta referida villa, acompañado a los referidos Otalora  
 Azara, y Altiqel de Jorran a Otalora, o sea a esta  
 ultima que el havia visto el autor, ala villa que  
 lleva hecha mencion, y a algunos otros, que segun  
 aconsejacion, y llegaban hacia Calatze, por que

## B

le gloria da lela lelo qaitzen digoa gora da da gora  
 goananda guroa onengo lela) da da nonda nonda Sinza  
 dela echeoctan Sinza dela echeoctan da lecu quietur  
 eta gora urrandie guba bidean amanic espos partbat  
 anan badele Madrilgo Niam urrandie) echeoc der uca  
 lena Maribel goraie poadela echeoc urrandie ongu  
 derri garda. // bilqerra eta espacia catalunian orsia  
 echeoc enlaguac coplatzco hancia // bertac der expel  
 bertac aqre lizarre. echeoc urrandie nai quietuzera  
 bai ala e. // echean der Cicua urrandiean cicua presen  
 teo Niam espia hori quitan gorte haetua // balota  
 dago loptic batetic eta beretic presenteo Niam espos  
 irree urre zacia cadastie // Carresan Nizanco urrea  
 gredatueo handie echea datorrenean Alarr Adiran  
 garrico // Mandoc der paupalina urre erantoniae beque  
 fina Tadre espos herre iduri baitu bertan aldean Sinza  
 quia // hortac dituan Charre bequiae urre betoiner gaur  
 zurequin etaiten denac bax urrandie e. // urean der Sin  
 quia Ingura Ingura babilo presente co Tadre esp  
 s hori betoina Tosten arica //

Martin Felipe Lekuberri Zugarramurdikoaren *Dotrina* bukaeran ageri  
 diren eske-koplen faksimileak. Hasieran honakoa dio eskuzkribuak:  
*Catecismo que perteneció a Martin Felipe Lecuberri, abuelo de Nuestra abue-  
 la. Data de 22 de junio de 1827.*

aqua suri equin bequie milise suri batequin milise suri  
 batequin da almonda der bequie etita Simonet arque  
 epinendete siricho pare batequin siricho pare batequin da  
 tercha der bequie Javidee der parea quicava leys pabea  
 alca trine trine terrane trine cernitu da si der espos pareas  
 anticirici minirrici bequie equi zilo ditu nere fidea uai  
 age nuque amabi seme luvintu equila berriac der du  
 soidu equila dorrere iardelendu Sone der bat Jaqueane  
 la erromae etita Saindu semea bada equinendage em  
 pordere epainaco alaba bada arage orequina franciac  
 landan der udare errangogo dut au ere seme der bat  
 Jaquiruda epainaco lreque tona der epaindu em  
 dan entencan edatera equine Jucacore icorean landa  
 u der quisca extrinu honaren pisca Jucore onen on  
 diruda sinen Jantocua) echeac der pperiac are-en dago  
 siriba hiar ere derrio gara hul erane Siquicon) ichasoe  
 tan baderne ilui Maribel gasore andur equi agur agur  
 echeac Jucore diruda gabon.

